

FONOLOGIA


José Luis Alvarez Enparantza
TXILLARDEGI

© de la presente edición:
EDICIONES VASCAS
Bermingham, 28 - San Sebastián

Dep. Leg.: S. S. 515-1980

I.S.B.N. 84-7513-018-6

Imprime: Litografía Danona, S. Coop.
Polígono Ugaldetxo - Oyarzun



EUSKAL FONOLOGIA

TXILLARDEGI

ediciones vascas  argitaletxea

HITZAURREA

Euskararen ortografiaz (edo, nahiago bada, euskararen koda idatziaz) erruz agertu da azkeneko urteotan. Euskaltzaindiak prestatu duen «Euskara Batua»k, bestalde, hizkuntza *idatzia* izan du helburu; *ez ahozkoa*.

Hitz batez, izkribuzko euskara batzen eta finkatzen ari bada ere, ahozko euskara inoiz baino okerrago dago gaur; erdal interferentziak azkartu eta ugalduta, euskal sena ahuldu eta suntsitu baita euskaldunik gehienengan.

Hots, ahozko koda da nagusia, eta azken helburua; jatorrizko koda bakarra ahozkoa baita. Hildako hizkuntzetan; alegia, *mintzatuak ez diren* hizkuntzetan, aski izan daiteke koda idatziaz arduratzea, eta ez besterik ezertaz. Hizkuntza bizietan, aldiz, *mintzatuak* diren hizkuntzetan, *ahozko koda* da helburu nagusia: ebakera, ahoskera, hizkuntza *mintzatua* hitz batez.

«Euskara Batua», beraz, maila idatzian finkaturik gelditu ondoren, *maila mintzatuan* ere behar da finkatu; eta azkar, gainera. Gure herriak, dagoen diglosi egoeran, ez baitu bere ahoskera bizirik aterako.

Kezka hau ez da gaurkoa. Eta on izango da, horretara, Azkue-ren iritzia gogoraztea: «*Todos palpamos la necesidad de adoptar un dialecto, concediéndole honores de lengua literaria, si ha de perdurar nuestro idolatrado idioma. Entresacar, pues, de la baraúnda de fenómenos fonéticos aquellos de mayor extensión, para aplicarlos a ese dialecto de mayor vitalidad, es la labor a la que todos los que nos dedicamos a estos trabajos de regeneración hemos de coadyuvar paternalmente unidos*» (Fonética Vasca, 469).

Azkue-ren ustez, beraz, *literatur* hizkera idatzia finkatu ondoren, *Fonologia Batua* ere funtsatu behar da; horretarako, *zabalduenik* dauden fenomeno fonetikoak oinarritzat hartuz. Eta, Azkuek berak ematen dituen adibideen artean, bi ahoskera hauek kopiatuko ditugu hemen:

— «*Artola tauko*» («*por Artolak dauko*»).

— «*ni takit*» («*por nik dakit*»).

Hots, berandu da idazkera aldatzen hasteko.

Mitxelena-ren hitzak gogoratuko ditugu: «*la letra impresa acaba impresionando a los propios lingüistas*». Eta idazkera, funtsean ahoskerari orpoz orpo jarraitzerik ez dagoelako, *urrun xamar* gelditu zaigu euskaraz ahozko hizkeratik. Gertakari honek ingelesez edo frantsesez garrantzi handirik ez badu ere, gure hizkuntzan larria du. Ahalean, gure ustez, idazkera eta ahoskera ez *urruntzea* komeni zitzaigun euskaldunoi. «*Será bien conformar la escritura con la pronunciación*» —eskatzen zuen Gavel-ek 1922-an— «*escribiendo ezta, ezkira, nor'taki*». Euskaltzaindia irizpide horietatik urrundu da, dakigunez, batera Gavel, Azkue eta Axular-en ildoko tradizioaren kontra.

Orain, horretara, *behar hertsia*goa dugu *ahozko euskara finkatzeko*, ortografia beste modu batera erabaki balitz baino.

Desberdintasun horren argigarri gisa, hona hemen bi transkribaketa hauek:

«*Ta geo zapataixikiri eundaño*ko pesta aundie eiñ ementzioên» (Barandiaran-ek bildua, jakíña: Auñ. 27, 76).

«*Itembaut iteunt gaizqui, zúc ere itembauzu, gaizqui inendúzu. Baña lecu emateunténc ain beranduraño dúte culpa yágo*» (Egues-ko Lizarraga; ikus F.L.V., 19, 112). Bi adibide hauetan ikusten denez, *ahozko* hizkera eta *izkribuzko* hizkera, batez ere elkarrizketa arrunt eta herrikoietan entzun daitekeen lekuetan, elkargandik urrun daude. Eta garaia da fenomeno horiek aztertzeko, eta zabalera handikoak onartzeko. Ingelesez edo frantsesez egin den bezala:

fr. *oi* = irakur. *uá*

fr. *ai* = irakur. *e*

eta abar.

Ez da egia, eta mila bider esan beharko da oraindik, euskaraz «ongi» irakurtzea (edo ahoskatzea) hau denik: *testu idatzia* hartu (testu *artifiziala*, beraz; idatzia ez baita sekula ahozko fenomenoaren transkribaketa bat baizik), eta testu hura *gaztelania* balitz bezala eman. Hori ez da egia. Are gutxiago, *sandbi*-fenomenoek euskaraz duten garrantzia ezagututa. Euskara Batuzko testu bat hartu, eta hura gaztelania balitz bezala ahoskatzea, *gaizki ahoskatzea da*; gaztelaniazko fonologiaren arauera irakurtzea besterik ez baita.

Euskal Ortoepia behar dugu, beraz.

Eredua hautatzerakoan, jakina, arazo zailak izango ditugu.

Zenbait aldakuntza arkaikotzat joko dute batzuk. Baina korapiloa zaila da: «*cette opposition n'est plus automatique aujourd'hui, mais elle est fonction de l'âge des locuteurs*», dio Nicole Moutard-ek, esate baterako.

Eta honela ekiten: «*c'est-à-dire, les plus jeunes, influencés par la prononciation 'cultivée' des prédicateurs, et peut-être aussi par l'écriture, optent souvent pour la réalisation sonore*» ([ezdu], beraz, [estu]-ren ordeztu). (Ikus Fontes L.V., 22).

Fenomeno bera aipatzen du Ana Mari Etxaide-k Orrio-ko hizkerari buruzko bere lanean. Eta gauza bera edonork. *Erdal balio fonetikoak eta erdal erregelata fonologikoak nagusitzen ari dira*.

Beraz: zer da «arkaiko»? Interferentziarik gabe mintzatzea, arkaikoa ahal da? Beste aldetik, halere, hizkera *normala* eta hizkera *lardaskatua* berezi beharko ditugu; eta berezketa hau ez da beti erraza. «Jaten» den guztia, askotan, ez dago zertan eredutzat proposatzerik.

Zenbait kasu segurutan ere (frikarien ondoko leherkarien gortzea, eman dezagun), *sandhia* noiz gertatzen den, eta noiz ez, zehazkiago aztertu beharko da.

Hots, pausen azterketa hori, azentu eta entonaziozko arazoezin oso lotuta, ez dugu hemen egingo. *Prosodi mailako fenomenoak*, hitz batez, *liburu honetan aztergai ez direlako*. Agian ondoko batez...

Baina hasi beharra zegoen; eta Euskal Filologia ikasten dutenek, batez ere, oinarriko zerbait behar zuten.

Geronen Fonetika ertainaren, eta geronen Fonologiaren oinarriak bilatzen lagundu nahi du «Euskal Fonologia» honek.

Lehenengo partean (12 kapitulu) euskarazko fenomeno fonetikoaren *deskribapena* egiten da; batez ere Gavel, Larrasquet eta Mitxelena-ren lanak kontutan hartuz. Azalpen honen interesa, batez ere, didaktikoa da; taulak eta irudiak ez baitira falta. Bigarren partean, berriz (10 kapitulutan batez ere), *Euskal Fonologia Batua*ren oinarriak jartzen saiatuko gara, Fonologia Sortzailearen arauera. Ikerlan berri xamarra, euskararen baranoan; eta, hortaz, finketak eta osaketak beharko dituen.

Agian izango du liburu honek praktikotasun ugari eta jarraitzaile ez urriagorik!

Eta eskerronezko hitz berezi batzu bukatzeko Arantzazu-ko frantziskotarrei, eta bertako sarrera eman zidan B. Gandiaga poeta eta adiskideari. Bertan egindako egonaldi hura gabe, liburu hau bukatzeko paradarrik ez bainuen zinez ikusten.

Arantzazu, 1980.ko Irailean
TXILLARDEGI

I KAPITULUA

EUSKAL BOKALEAK: SAILKAPENA

- 1.1. Euskaraz, beste edozein hizkuntzatan bezala, bi gauza berezi beharra dago. Alde batetik, badaude *soinu* bokalikoak; eta bestetik, berriz, badaude *fonema* bokalikoak.

Alegia, soinu desberdin guztiak ez dira fonemak; edo, bestela esanda, soinuen arteko ñabardura guztiak ez dira funtzionalak: ez euskararen barruan, eta ez beste hizkuntzetan ere. Posible da euskalki batean edo bestean *soinu* berezi hau edo hura entzutea; nahiz soinu berezi horrek *fonema* maila ez izan.

- 1.1.1. Bizkaiko Kostaldean, esate baterako —eta ez Bizkaiko Kostaldean bakarrik— oso zabaldua da [ɛ] ebakera. Adibidez: *mendia* [mẽɲdiʒɛ], *burua* [buruβɛ]. Hain zuzen ere [ɛ] ireki hori nola transkribatu behar den, sortzen dira lanak. Azkuek *ä* batzutan erabili izan badu ere (baina ez beti), eta J. M. Barandiaranek *æ* edo *e*, Navarro Tomás fonetikari zorrotzak berak ere, zalantzak izan zituen (ikus haren «Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica», 1922, 51), eta azkenean [ɐ] transkribatzen zuen «esa forma un poco anterior y relajada» delakoa: *akullua* [akuɫɐ]; nahiz segidan *giltza* [gĩlcõ] eman «ö abierta labio-palatal» baten bitartez.

- 1.1.2. Bizkaiko soinu-ñabardura horiek, halere, *inguramendu fonikoak* sortzen ditu; eta, automatikoak izanik, ez dute balio funtzio semantikorik izateko. Aldakuntza *fonetikoak* dira, hitz batez, eta ez *fonologikoak*.

Era berean, euskaraz entzun daitezkeen *e* guztiak ez dira inolaz ere berdinak, ondoko lerroetan ageriko denez.

Bokale ñabardura horiek, halere, ez dira fonologiaren mailakoak, funtzio semantikorik ez baitute euskaraz. Adibidez: *etxe* [eče] edo [eče], eta *etxea* [ečə] edo [ečɨv] agian; edo-ta *piperra* [pipə̃ra] edo [pipə̃ra] hitzetan, agertzen diren *e* horien ahoskerak alderatzen badira euskararen barruan [e] mota mordo bat dagoela garbi dago. Baina, euskaraz, [ɛ] ≠ [e] ≠ [v] soinuen arteko konmutazioak ez dakar inoiz ondorio *semantikorik*: hau edo hura entzunda ere, *gauza bera* ulertzen dugu beti.

1.1.3. Oso fenomeno antzekoa gertatzen da *on* silabaren ahoskeran: batzutan [ɔn] ahoskatzen da, bestetan [ʊn], euskalkien arauera; eta askotan euskalki berean (are pertsona bakar baten idiolektoan ere!) bimorfismo hori aurki daiteke. Horra hor, adibidez, erakusleetan ezaguna den bitasuna: *honek/hunek*; edo *ongi* adberbioan aurkitzen dena: *ontsa/untsa*.

1.1.4. Ondoko erdaren eragina, bestalde, gero eta nabarmenago agertzen da euskal bokalismoan. Eta frantsesez, amaierazko *o* libreari. [ɔ] baitagokio, hor dugu Ekialdean geure *Mendiondo*, fr.: *Mendiondou* transkribatua. Bide beretik, frantsesez ari direnek *Espilondo* euskal deitura, [espilōdú] ebakitzen dute, frantsesaren joera fonetikoaren arauera; gure *Azkain*, [askē] ebakitzen duten bezala.

1.2. *Soinu sudurrezkoak eta soinu ahozkoak*

1.2.1. Gauza ezaguna da —bai euskararen barruan, bai beste hizkuntzatan ere— bokale baten ondoan (ezkerretan edo eskuinetan) doan kontsonantea sudurkaria baldin bada, bokale hura *kutsatu* bezala egiten dela; eta sudurreztaturik, nasalizaturik ebakitzen dela:

$$V \rightarrow \check{V} / [+nas] \text{ — } [+nas]$$

koa duelarik: [sĩ], baina ez [si]. (Larrasquet, 218, «Le Basque de...»).

Bokale sudurkarien arazo hau, dena dela, 4. kapitulan aztertuko dugu xehekiago.

- 1.3. Bokale *ahokariei* gagozkielarik, beraz, zenbat bokale dago euskaraz? Kaleko gizonak, zuberotarra ez bada behintzat, berehala erantzungo liguke: *bost*.


Zein? Eta erantzuna, ziplo eta luzatu gabe, hau litzateke: *a, e, i, o, u* (hizkuntzariok, Hellwag-en triangela korrituz: *i, e, a, o, u* esango genukeen boskote bera). Intuizioz (eta ortografiaren eraginez ere bai, jakina) herri xeheak bere sistema *fonologikoa* somatzen du; beronen ahoskera *fonetikoaren* zailtasun harrigarriaz ideiarik ez badu ere.

- 1.3.1. Zein formakinek osatzen ditu *bokale* horiek? Erantzuna, euskarari dagokionez tristagarria bada ere, garbia da: ez dakigu.

Alegia: beste hizkuntzetan egin diren ikerketak oraindik ere eginkizun daude Euskal Herrian; eta errumanieraz, esate baterako, balore ertainen bidez aurkeztu duten diagrama ezin dezakegu guk oraingoz eskaini.

Hona hemen Delattre-k, frantsesari buruz, aurkitu duena:


1.ir.



Frantsesezko bokale nagusiak (Delattre-en arauera)

Eta errumanierari buruz, aldiz, Avram-ek aurkitu duena:

2.ir.




Errumanierazko bokale nagusiak (Avram-en arauera)

Ongi ageri denez, bokaleen ahoskeran desberdintasun handiak daude hizkuntzen artean.

Hona hemen, adibidez, *gatzelaniari* buruz, Quilis-ek aurkitu dituen 5×5 bokaleen formakinak:


3.ir.



Gatzelaniaz (emak.)
 Quilis-en arauera (Album F. A., 22)

Edo-ta, bokale kardinalei buruz [i, e, e, a, a, o, o, u] Peter Ladefoged-ek ematen dituen koka-lekuak:

4.ir.



P. Ladefoged-en arauera
 («Three areas of...», 92)

Diagrama honetan [mel] da unitatea, eta ez [Hertz]; pertzepzioaren arauera [mel] unitate hori hobeki egokitzen delako.

Hots, bien arteko lotura matematikoki, aski hertsiki emana, hauxe da:

$$F \text{ [mel]} = 3321,93 \cdot \log \left(1 + \frac{F \text{ [Hz]}}{1000} \right)$$

Adibidez:


Zenbat [mel] da

$$F = 2361 \text{ [Hz]} (= 2361 \text{ [c/s]}) ?$$

$$\begin{aligned} F \text{ [mel]} &= 3321,93 \cdot \log \left(1 + \frac{2361}{1000} \right) = \\ &= 3321,93 \cdot \log 3,361 = \\ &= 3321,93 \cdot 0,52646851 = \\ &= 1748,89 \text{ [mel]} \\ &\text{(Hurbilketa on batez).} \end{aligned}$$

Edo, grafikoki:

5.ir.



[mel] eta [Hz] unitateen arteko lotura.
(Fant-en arauera, «Speech Sounds», 48)

- 1.3.2. Beste hizkuntzetan aurkitu diren formakin-diagramek erakusten dutenez, bokaleen ahoskera (bokaleen balio fonetiko ertaina, zehazkiago mintzatzeokotan) *aldatu* egiten da batetik bestera.

Fonetikariak, beraz, belarri bidez aspaldidanik somatu zituzten ñabardura fonetikoak, xuxen adituak ziren.

Oraingoz, beraz, tresnabidezko daturik ezbadugu ere, Navarro Tomás-*ez* geroztik esaten dena berresan beharko dugu hemen; Mitxelenaren iritzia ere, bidenabar esateko, berbera delarik (ikus «Fonética Histórica Vasca», 59).

Eta euskal bokaleen ahoskera ertainari buruz hau esan dezakegu:

- gure [a], normalean, gaztelaniazkoa baino *itxiagoa* dela, sabaikariagoa; eta horretatik datorrela, itzuletara, Españako telebistatik mintzo diren mintzatzaileen hizkeran, euskaldunak *aren* ebakera, ezin irekiagoa, barragarri topatzea;
- gure [i], [e], [o], [u] bokaleak, normalean ere, gaztelaniazko kideak baino *irekiago* esatea (mihia beherago, hitz batez, gaztelaniaz baino).

- 1.3.3. Bokaleen sistema, hitz batez, gaztelaniaz eta euskaraz, *fonologiaren* mailan bat eta berbera bada ere, fonetikaren mailan bi sistema desberdin ditugu. Gaztelaniaren eta euskararen bokalis-*moak* alderatuz, beraz, bi lerro hauek idatz ditzakegu:


$$\begin{array}{ccc} /i, e, a, o, u/ & = & /i, e, a, o, u/ \\ \text{eusk.} & & \text{gazt.} \end{array}$$

baina:


$$\begin{array}{ccc} [i, e, a, o, u] & \neq & [i, e, a, o, u] \\ \text{eusk.} & & \text{gazt.} \end{array}$$

Alegia: bi hizkuntzon sistema *fonologikoak berdinak* izanik ere, balio *fonetiko* ertainen multzoak *desberdinak* dira.

Desberdintasun horiek normalak dira. Eta oso ongi ageri da desberdintasun hori ondoko Hellwag-etan:




6.ir.



FRANTSESA


INGELESA



ALEMANIERA

Zenbait hizkuntzaren bokaleak

Euskarari buruz, Hellwag-en diagrama hau izango genuke, gutxi gora-behera:



7.ir.

⊙ euskararen bokaleak dira .

Balore horiek, jakina, balore *ertainak* dira; gauza ezaguna baita ondoko fonemek bokalearen ahoskeran izaten duten eragina. Are nabarmenago gertatzen da hori euskaraz; fonema-elkarketari dagozkion fenomenoak (are hurbilketa soilari ere!) garrantzitsua-go baitira euskaraz, ondoko erdaretan baino. Gogoan har, esate baterako:

$$\begin{array}{l} ia \rightarrow ie \\ ua \rightarrow ue \end{array}$$

aldaketa ezagunen zabalera (gaztelaniaz ezezaguna = *decía* [deθía] esaten baita, eta ez sekula ere [deθíe]).

- 1.3.4. Aurreko pasartean erakutsi dugun diagrama arretaz begiratu besterik ez da behar, arrazoi geometrikoengatik ere euskal bokaleen arteko alternantziak, erdarazkoetan baino aisago gertatzen direla konprenitzeko. Milimetrotan mintzatuz ere, hau idatz daiteke:

$$\begin{array}{l} \text{eusk. (e / a)} < \text{gazt. (e / a)} \\ \text{eusk. (u / o)} < \text{gazt. (u / o)} \end{array}$$

eta abar.

Zenbait inguramendu fonikotan batez ere, normal gertatzen dira bokale-trukeak (ikus 4. ikaskaia). Oraingoz ezagunena baizik ez aipatzekotan, horra hor [ẽ̞] ≅ [ã̞] alternantzia: *berri / barri*, *gerri / garri*, *gernu / garnu* eta abar. Fisiologiazko arrazoinak agiri-agirian daude.

- 1.4. Orain maila *fonologikoan* kokatuz gero, zenbat bokale du euskarak? Soinu-desberdintasun *funtzionalek* erakutsiko digute hori (alegia, soinuen arteko *konmutazioak*, *semantika*-balio bikote *desberdinak* sortzen dituzten soinu-desberdintasunek).

Hots, zuberera alde batera utziz (honen kasua 2. kapituluan xeheki aztertuko dugularik), euskarak bost fonema ditu:

/i, e, a, o, u/.

Aski da, hori frogatzeko, bikoteak bilatzea. Adibidez:

$$\text{ardi} \neq \text{erdi}$$

Beraz, / a / \neq / e /; eta *bi* fonema ditugu; ez bakar baten aldakiak.

Gorago esan dugunaren arauera, / o / \neq / u /, eta / e / \neq / a / desberdintasunen balio *fonologikoa* frogatu behar da oso bereziki.

Hots:

| | | |
|--------------|--------|--------------|
| <i>ardi</i> | \neq | <i>erdi</i> |
| <i>arbi</i> | \neq | <i>erbi</i> |
| <i>bare</i> | \neq | <i>bere</i> |
| <i>ale</i> | \neq | <i>ele</i> |
| <i>harri</i> | \neq | <i>herri</i> |


Eta, bide beretik:

| | | |
|--------------|--------|--------------|
| <i>hurra</i> | \neq | <i>horra</i> |
| <i>buts</i> | \neq | <i>hots</i> |
| <i>hura</i> | \neq | <i>hora</i> |
| <i>tu</i> | \neq | <i>to</i> |

Gainerakoen arteko bikoteak hemen aipatzea alfer-lana litzateke: fonema beraren aldakiak direla uste izateko arrazoinik ez dago-ta.

Honenbesterekin, horretaz, euskal bokaleen egiturak bost fonema dituela esango dugu: /i, e, a, o, u/.

8.ir.



Gaztelaniaz bezalatsu, euskaraz ere hiru irekiera-maila daudela esan ahalko dugu:

1.5. Bost bokale horien alderdi *fonetikoak* eman nahi izanez gero, nahi-ta-ez baliatu behar ditugu Navarro Tomás fonetikari fama-tuaren bi ikerlan nagusiak:

1. *Pronunciación guipuzcoana*. Homenaje a Menéndez Pidal - 1925 - III, 593-653.
2. *Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica*. III. Congreso de Estudios Vascos, 1923 (48-56).

Baita Henri Gavel-en liburu ezaguna:

3. *Eléments de Phonétique Basque*. 1920 - Champion Ed. Mitxelena-ren «Fonética Histórica Vasca» liburua, bereziki deskribapen fonetiko eta sinkronikoa ez izanik ere, ematen dituen oharrak eta datuak kontutan hartu beharrak dira. Baita Holmer, Moutard eta besterenak ere.

Hona hemen laburtzapena.

1.5.1. /i/ bokalea.

Ohar jenerala da ikertzaile guztiek egin dutena: [i] *hau ireki xamarra* da (ikus Hellwag-en diagrama):

- «tendance à évoluer vers un son de e», Gavel, 83.
- «nótase desde el primer momento la falta de una *i* de timbre cerrado, o simplemente de sonido medio (...). La *i* guipuzcoana es análoga a la *i* abierta del español *cinco, bizco, mil*», Pron. Guip., 597.

Inoiz itxia ez izanik ere, gerta daiteke [i] balio fonetikoa:

- a) bokaleak azentua daramanean;
- b) kontsonante sabaikari baten ondoan gertatzen denean.

Beste kasu guztietan [i̞] dugu; *i* irekia, beraz. Eta ondoko kasu hauetan bereziki:

- a) silaba trabatuan (*i*-ren eskubian, eta silaba berean, edozein kontsonante dagoenean).

b) [f̄] dardarkari azkarraren aldamenean dagoenean (bai *iṛ*, bai *ṛi*).

c) [c] afrikatuaren ezkerretan gertatzen denean.

Nahiz zuberera (sail belarean batez ere) oso desberdina izan, ohar antzeko bat egin du Larrasquet-ek:

«Très ouvert, l'*i* souletin se rapproche beaucoup de l'*e* fermé français dans *pitié* et de l'*e* castillan dans *madera*, *mesa*, *tintero*». Action, 33.

Beraz, transkribaketa hauek izango ditugu euskalki askotan:

| | |
|------------------|-----------------|
| <i>haritza</i> , | [ar̥iça] |
| <i>bizarra</i> , | [b̥iʂḁra] |
| <i>ditut</i> , | [d̥iʈut] |
| <i>eria</i> , | [er̥iɑ] |
| <i>gizena</i> , | [g̥iʂena] |
| <i>sorgina</i> , | [ʂ̥o̥rg̥iɲa], G |
| <i>xardina</i> , | [ʂ̥ḁrd̥iɲa], G |
| <i>birjina</i> , | [b̥i̯r̥xiɲa], G |

Fonetika-jokabide hauek eta gaztelanian aurkitzen direnak, oso antzekoak dira.

1.5.2. /e/ bokalea.

Ohar bera, esana dugunez: eskuarki eusk. [e] *irekiago* gertatzen da gaztelaniazkoa baino: «se pronuncia abierta», Pron. Guip., 596; «con un timbre análogo al *e* de *guerra*».

Aldaki batzu badaude, halere:

a) Oso *irekia* ahoskatzen da [r]-ren ondoan:

berri
erreka
xerra

puntu honetan, beraz, gaztelaniaren antzera. Aski du irakurleak ahoskera herrikoï hau kontutan hartzea:

ederra zegok ardoa = [eḏ̥ā̠ra s̥ɔk ā̠ḏ̥ō̠a]

ederra hori, *edarra* transkribatzeko moduan esana. Ebakera hau ez da gaurkoa.

b) *Irekia* ere [c] eta [č] afrikatuen ezkerretan dagoenean:

etsai = [eč̥ā̠i]

c) *Irekia*, era berean, silaba trabatuan *l* eta *r*-ren ezkerretan gertatzen delarik; eta gauza bera kontsonante sudurkarien ezkerretan:

abendua = [aḅeḏ̥ɰ̄a]

(eta puntu honetan gatzelanitik urrunduz, beti Navarro Tomás-en arauera)

d) *-a artikulua*ren *aurrean* gertatzen denean, ordea, *itxi* egiten da [ɛ̠̄]; oso erraz [ī̠] balio fonetikoraino lerratuz (eta ortografian behin eta berriz agertu den bezala):

goldea, [gō̠lḏ̥ē̠a] (askotan, [gō̠lḏ̥ī̠a])

e) Era berean, *kontsonante sabaikarien* ezkerretan, *itxi* egiten da:

etxe, [eč̥e] *edo*, [ī̠če]

Ebakera horren lekuko dira Errenderiaren inguruko transkribaketak:

itxe

Baita *hechura* erdal hitzaren euskalkuntza:

itxura

f) [e] balio ertaina, *ez oso irekia bederen*, inguramendu foniko hauetan aurki daiteke: et, es, eś, eḡ, eḡ̄.

Normalean, beraz, [ɛ̠̄] dugu euskaraz; baina [ɛ̠̄] itxia bi kasu berezitan: artikulatu singularren *aurrean* eta kontsonante sabaikarien *aurrean*.

1.5.3. /a/ bokalea

«La *a* normal guipuzcoana (...) tiende a la *palatalización*», Pron.

Guip., 596. Eta, horretaz, gaztelaniazko *a* normala baino *itxiago* ematen du gureak. Are maizago gertatzen da hori Bizkai aldera joz gero: «*a* anterior, *palatal*, *más cerrada* que la del esp. *calle*, *bache*..., hasta el punto de poder ser interpuestas, a veces, como una variante extrema de *e*» (Vascuence de Guernica, 50).

Aurreko a itxi eta sabaikari hori [a̠] idazten bada; eta [a̠], berriz, *atzekoa* (fr. *pâte*), belarea alegia, hauek izan daitezke ebakerarik normalenak:

a) *-ai* diptongoan [a̠i] ahoskatzen da, eta *-au* diptongoan [a̠u]. (Joera hau, oso jenerala izanik ere, bizkaieraz da nabarmena: *gaur*, [g̠ə̠r̠]),

b) *Sabaikari* bihurtzen da, [a̠] beraz, *aurrekoa*, kontsonante sabaikarien ezkerretan: a̠y, a̠l, a̠n, a̠t, a̠č, eta abar.

baino, [ba̠no], G.

c) Gauza bera *r̄*, *c*, eta *č* -ren ezkerretan:

jarri, [xa̠r̄i], G.

d) Baina *belare* bihurtzen da silaba trabatuan, silaba hori *l* fonemaz amaitzen denean:

alboa, [al̠bo̠a]

Oharra: bizkaieraz, et aurrekoan esan dugunez (ikus 1.1.1.), aurreko bokale itxiaren eraginez, beste tinbre bereziak ere har ditzake *-a* artikuluak: [e̠], [e̠], eta abar.

1.5.4. /o/ bokalea

Ekialdeko euskalkien hesketa ondoko kapituluarentzat utziz, /o/ bokaleak, /e/ bokaleak jasaten dituen fenomeno fonetiko berberak jasaten ditu.

a) Normalean gaztelaniazko [e] baino *irekiago* ahoskatzen da; eta, batez ere, kasu hauetan: [r̄o̠], [o̠r̄], [o̠c], [o̠č]. Navarra Tomás -en hitzez esatekotan: «se pronuncia generalmente *semi-abierta*». (Pron. Guip., 598):

gorrotoa, [g̞õ̞ɾõ̞t̞o̞]

Joera honen lekuko seguruak dira leku-izenen diptongaketak:

Araotz / *Aragüés*
Bizkarrotz / *Biscarrués*
-gorri / -güerre

- b) Silaba trabatuan, gaztelaniaren arauera, *irekia* da, [ɔ̞] beraz.

goldea, [g̞õ̞l̞de̞]

- c) Artikuluaren aurrean, aldiz, *itxi* egiten da; eta [ɔ̞] entzun daiteke; are [ɥ] ere kasu askotan. (Gogoan har *ea* hiatoari buruz esan duguna).

/o/ bokalearen hesketa hau oso jenerala da: «Une loi *presque générale* dans tout le pays basque est celle qui veut que, dans la prononciation courante au moins, l'*o* suivi, dans le corps d'un mot, de la voyelle *a*, passe à *u*» (Phonétique Basque, 23).

Harago doa Gavel honi buruz; eta [oa], [ea] ahoskerak, «seulement par influence de l'écriture» entzuten direla uste du (Phon. Basq., 24). Puntu hau oraingoz honetan utzita (ikus 17. kapitulua), esan dezagun [ɔ̞] itxia entzuten dela, gutxienez *a* -ren aurrean:

gorrotoa = [g̞õ̞ɾõ̞t̞o̞]
(askotan, [g̞õ̞ɾõ̞t̞u̞])

- d) Iparraldean, eta frantsesaren eraginez, [ɔ̞] ahoskera entzun daiteke gero eta maizago silaba librean:

gorroto = [g̞õ̞ɾõ̞t̞o̞]

Eta ohar bera egin daiteke silaba libreko *e* -ri buruz:

maite, [mã̞t̞e̞]

1.5.5. /u/ bokalea

Zubereraz aurkitzen diren fenomenoak gerorako utziz (ikus 2. kapitulua), hona hemen, gipuzkerari buruz, Navarro Tomás-en

1.5.7. [ü] *soinua* (zubereraz batez ere).

Soinu hau, borobildua izanik ere (*o* eta *u* bezala), *aurrekoa* da; euskaraz normalean gertatzen denaren aurka (ikus 13. ikaskaia).

Hona hemen Larrasquet-en deskribapena: «La langue s'élève légèrement plus que pour l'*u* (...). Le timbre est analogue à celui de l'*oe* fermé dans *gueuse* (...) les lèvres s'arrondissent moins aussi», Action, 34.

Gauza bera Gavel: «près du son qu'exprime en français la graphie *eu*» (Phon. Basq., 40). Eta Mitxelena: «en suletino la realización normal de /ü/ es más próxima a fr. /ö/ que a fr. /ü/» (Fon. Hist. Vasc., 52).

Bego hori horretan oraingoz; [ü]-ren arazoa hurrengo kapituluan bereziki aztertuko dugunez gero.

- 1.6. Euskarak eta gaztelaniak antz handia dute, beraz, bokalismoaren *fonetikaren* mailan; eta are handiagoa *fonologiarenean*. Gauza bera ote da bokaleen *maiztasunen* sailean? Maiztasun hauen gorabeherak argigarri gerta baitaitezke.

Orain arte ez genuen euskal bokalismoa zentzu honetan alderatzeko biderik. Orain, berriz, baditugu datu batzu.

Alde batetik, Edurne Biritxinaga-k egin duen estatistika-lana dugu. Eta Biritxinagaren arauera, hauek dira *a*, *e*, *i*, *o* eta *u* grafemak (zoritxarrez, ez fonemak) kontutan hartuz, aurkitzen den taula:

| | | |
|----------|-------|---------|
| <i>a</i> | | 0,13773 |
| <i>e</i> | | 0,11681 |
| <i>i</i> | | 0,07671 |
| <i>o</i> | | 0,04539 |
| <i>u</i> | | 0,04577 |

(hau, Euskara Batuari dagokionez).

Madame N'Diaye-k, berriz —Amaiurko euskara aztertu duen autoreak— beste zifra hauek eman ditu:

| | | |
|----------|-------|--------|
| <i>a</i> | | 0,1399 |
| <i>e</i> | | 0,1658 |
| <i>i</i> | | 0,0910 |
| <i>o</i> | | 0,0499 |
| <i>u</i> | | 0,0512 |

Hots, gaztelaniari dagokionez, hemen dugu Alarcos-ek, bere «Fonética Española» liburuan eman dituen datuak:

| | | |
|----------|-------|--------|
| <i>a</i> | | 0,1370 |
| <i>e</i> | | 0,1260 |
| <i>i</i> | | 0,0860 |
| <i>o</i> | | 0,0300 |
| <i>u</i> | | 0,0210 |

Ageri denez, diferentziarik handienak /o/ eta /u/-ren fonemetan daude.

Dena dela, eta dakigunez, euskaraz askotan gertatzen dira fonetika elkartzaileak, edo, hobeto esateko, erregela fonologikoek ekarriko dituzten aldakuntzak. Eta honek esan nahi du euskaraz /e/ eta /o/ gutxiago entzuten direla; eta /i/ eta /u/, berriz, askoz gehiago.

Besterik ere aztertu behar: *i* eta *u* agertzen diren askotan —grafema horiek agertzen diren leku askotan— ez ditugu bi bokalerdi, baizik [i̞] eta [u̞], edo bi kontsonanterdi baizik [j] eta [w]. Beraz, goiko zifra horiek, zoritxarrez, lehenengo kalkulu bat besterik ez dira oraingoz; eta ez dute bestetarako balio.

Dena dela, gaztelaniak eta euskarak antz handia dutela ikusten da; eta ez bakarrik bost bokaleen sisteman, baizik-eta bost bokale horien maiztasunetan ere. Fenomeno hauetan, dudarik gabe, euskal sustratuak badu bere partea; eta iritzi berekoak dira honetan Holmer, Martinet, Menéndez Pidal, eta beste.

Hona hemen, esate baterako, hebraieraren fonemek ematen duten taula:

| | | |
|---|-------|--------|
| a | | 0,174 |
| e | | 0,081 |
| i | | 0,073 |
| o | | 0,054 |
| u | | 0,0284 |

(David Téné, «Le Langage», 989).

Zifra hauek eta lehen emandakoek alderatuz gero, berehala agiri da euskara eta gaztelaniaren artean ez dagoen bestetasun sakona (aldera, esate baterako /e/ fonemaren maiztasunak).

II KAPITULUA

BOKALE BELAREEN HERSKETAZ

- 2.1. Aurreko ikaskaian arinki adierazi dugunez (1.5.7), euskaraz badago *seigarren bokalea*, Euskaltzaindiaren arauera *ü* idatzia; eta, esana dugunez, batera *aurrekoa* eta *borobildua*. (Kontutan har, honi buruz, [o] eta [u], *borobilduak* direla, baina *atze-koak*; eta [i] eta [e], aldiz, *aurrekoak*, baina *borobildu-gabeak*). (Ikus 13. ikaskaia).

Zubero-ko ü hori, dena dela, ez da Zuberoan bakarrik entzuten (ikus Mitxelena, «Fonética H.V.», 51). Baina fonema maila, edo itxura bederen, inon izan badu, Zuberoan izan du.

- 2.2. Bokalearen *ahoskerari* baldin bagagozkio, eta (1.5.7) puntuan esan duguna osatuz, ohar bat egin behar da aurrenik: [ü] hori ez dela inondik ere frantsesez entzuten den [y] (= *u* idatzia) fonema.

Zuberoko *ü* hau askoz ere *irekiagoa* da. Eta behin eta berriz oharrerazten digute zuberotarrek, guk *manexok*, haien *khantoriak* ematen saiatzen garenean, *gaizki* (sic.) ahoskatzen dugula *ü* letra.

Partzipioetan ageri bide da diferentzia hori garbikienik; azen-tua azken-hurreneko silaban etorririk, *-tü* silaba beti atono gertatzen baita:

gerthatü, [gɛ̃rthátü]

eta hori dela bide, honela transkribatzea egokiago izanik:

[gɛ̃rthátö]

Fil. [ö] = A.P.I. [Ø], fr. *peu*.

Silaba *tonikoa* denean:

düzü, [dü̃sü]

badirudi, lehen hurbilketan bederen, [ü̃] transkribatzea, [ö] transkribatzea baino egokiago dela. Zuberoko gazteen artean batez ere, eta fonetika-interferentziengatik (zuberotar gazteak gaur elebidunak dira; zuberera ahantzirik ez daukatenean bederen!...), aldakuntza hau nabaitzen bide da (silaba tonikoetan bederen):

[ö] → [ü]

[e] eta [o] libreetan ere, eta gorago esan dugunez, Iparralde osoan hersketa bera nabaitzen den bezala:

[e] → [ɛ̃]

[o] → [ɔ̃]

Orain arteko ikertzaileek, ordea, ahobatez esan dute gauza bera: Zuberoko [ü] soinua, askoz ere hurbilago dago [ö]-tik, [ü]-tik baino; eta ez bide dute salbuespenik oharrerazteko beharrik senditu. Eta Gavel-ek xuxen ikusi zuen horren karkoa: euskarazko /i/ fonema, gehienetan [ĩ] ahoskatzen bada (are [ɛ̃] ere bai); eta /u/ fonema, gehienetan ere, [ũ] ahoskatzen bada (are [ɔ̃] ere bai), *normala da* (*naturel* dio Gavel-ek) frantses *ü*-ari dagokion bokalea, zubereraz, oso *irekia* ahoskatzea; eta, hitz batez, [ö] esatea; Larrasquet'en adibidea gogoraziz, fr. *gueuse* hitzean bezalatsu. Inondiz ez, beraz, fr. *lune*, edo.

2.2.1. Hellwag-en triangela erabiliz gero, beraz honela: o zerbait genuke (ebakera ertainez):

Urte luzetan barrena baietz pentsatu izan da; eta *i/u* alternantzia ikusita (B. ule/G. ille; eta abar. ikus 4. ikaskaia), kakoa antzinako /*ü*/ hau ote zen bururatu zitzaion askori; eta neroni ere bai («Hizkuntza eta Pentsakera» liburuan, esate baterako; guztiz okerbidetik, gaur ikusten dudanez).

- 2.3.1. Alde batetik, eta Mitxelenak haseratik ongi ulertu zuenez, zubererazko *ü* hau ez da aztarna arkaiko bat, *berrikuntza* bat baizik. Argudiorik ezagunena aipatzekotan, orain dela bi mila urteko *ilun* hitzari (akitaniar izkrizioetako ILVNO, eta antzekoak), gaurko zubereraz *ülhün* dagokio. Zubererazko bokale-aldaketak, hortaz, berrikuntza dira.

Gauza ezaguna denez, sail belare *osoari* dagokio aldaketa:

Akit. *kizon* (CISON) → S. *gizun*

- 2.3.2. Beste alde batetik, eta salbuespen ulergaitzak badaudela ukatu gabe, *u* → *ü* hersketa hori inguramendu foniko konkretutan gertatu da. Fenomenoa, beraz, automatikoa izan da, fonetikoa; eta ez fonologikoa, ez semantika-ondoriozkoa alegia.

Hala ere, badirudi konmutazioaren saiaketa eginez gero:

$u \rightleftharpoons ü$

bikotea osatzen duten bi hitzek balio semantiko desberdinak baldin badituzte, bi fonemaren aurrean gaudela; eta ez fonema beraren bi aldakiren aurrean.

Hots, [ü] honen fonematiko-tasunaren alde, lau bikote eman izan dira beti:

- 1) $hún \neq hün$
- 2) $nún \neq nün$
- 3) $hürtze \neq hürtze$
- 4) $phézü \neq phezü$

- 2.3.2.1. $hún \neq hün$

hun = on; bueno/bon

S, gai hun! = gau on!

hün = B. un, une; médula, moelle

Hots: $\frac{\text{gizon}}{\text{S, gizun}} = \frac{\text{on}}{\text{S, hun}}$

Hitz batez, hor on → un dugu.

Edo, nahiago bada:

[o] → [u] / — n

Baina, Martinet-en *chaîne* horretan, hau ere badugu:

[u] → [ü] / — n

c. asun → S, ásün

c. euskaldun → S, üskáldün

Oposizioa, beraz:

o ≠ u

sudurkariaren aurrean:

[u] ≠ [ü]

ahoskatzen da zubereraz.

Ezpainkarien aurrean, *automatikoki*, hau dugun bezala:

n → m / — (*ezpainkari*)

gizon bat = [gisombat]

ilunpe = [ilumpe]

2.3.2.2. *nún* ≠ *nün*

Gauza bera:

S. nún = c. non (*dónde/où*)

S. nün = c. nun, naun (*noka*)

etorri naun = jín nün

c. non = c. nun
S. nun = S. nün

Bikote honek, beraz, ez du ezer frogatzen. Berriz ere:

c. on = S. un
c. un = S. ün

2.3.2.3. *húrtze* ≠ *hürtze*

húrtze = urtze, urtu; liquefacción/liquation.

hürtze = (h)urrondo, urrak ematen dituen arbola

sagar + tze = sagar + ondo

Hots, bi hitz-elkartu horien lehenengo elementuan datorren *r* letrari, bi soinu dagozkio:

húr/húra // *hűr/hűra*

Inguramendu fonikoa *ex da bera*, hortaz; eta konmutazioak ez du ezer frogatzen.

Afrikatu aurrean, *gaur*, neutralizazio gertatzen da euskaraz; eta, hori dela bide, funsgabe iruditzen zaizkigu mende-haserako eztabaidak:

argi, baina (*h*)*ár*tu
arte, baina *lapur*tu

eta abar. (ortografiari buruzko eztabaida haiek, alegia).

Neutralizazio horren artxifonema *gaur* [r̄] izanik, bi *hurtze* horiei ebakera berbera datxekiela pentsa liteke:

[*húr̄ce*] / [*hűr̄ce*]

Baina, Lafon-ek ere proposatu duenez, (ikus RIEV, 1933, 173) ez da batere segurua neutralizazio hori *beti* gertatu denik. Eta hor dugu Elkano-ko Lizarraga famatua, neutralizazio hori gutxienez nafarreraz gertatzen ez zela frogatzeko:

irur/gogorr
ardo/laburrbat

Hitz batez, hitz horien ebakerak desberdinak dira; baina ez $u \neq \ddot{u}$ trukeaz bakarrik:

[h \acute{u} rce] \neq [h \ddot{u} rce]

Eta adibideak ez du balio. Desberdintasuna eze baita $u \neq \ddot{u}$ truke soiletik heldu.

2.3.2.4. *phez \acute{u} \neq phéz \ddot{u}*

phez \acute{u} = ezponda

phéz \ddot{u} = pisu, zama

Hots, bikote horretan diferentzia pisudun *batzu* daude; eta ez $u \neq \ddot{u}$ trukeari dagokiona bakarrik.

a) *phez \acute{u}* oxitonoa da; *phéz \ddot{u}* , berriz, paroxitonoa. Hots, azentuak balio fonologikoa du zubereraz:

alhába \neq alhabá

(Lehenengoa, mugagabe: lau alhába; bigarrena, mugatua: éne alhabá).

b) *phez \acute{u}* -ren [ũ] hori, sudurreztatua da; *phéz \ddot{u}* -rena, berriz, ez da. Hots, nasalizazioa pisuduna da zubereraz.

c) *phez \acute{u}* -ren frikaria ozena da; *phéz \ddot{u}* -rena, aldiz, gorra da.

Bikote honek, beraz, ez du ezer frogatzen.

2.3.2.5. Jakina: *hur \neq hür* bikoteak ere ez; lehenengoan xamurra baita *r* hori: *húr/hú(r)a*; baina gogorra bigarreanean: *hür/hürra*.

2.3.2.6. *Fonologiaren* mailan, beraz, $u \neq \ddot{u}$ trukea ez da *inoiz* funtzio semantikoz erabiltzen. Oposizioaren etekin fonologikoa zero da, hitz batez.

Bokaleen sailari dagokionez:

Seigarren fonemarik ez dago euskaraz; ezta zubereraz ere.

Eta $u \rightarrow \ddot{u}$ hersketa, inguramendu fonikoaren ondorio da; *inoiz*

ez hautu librearena.

Nola? Zein inguramendutan?

2.4. Horretarako, azter dezagun arazoa bi urratsetan:

- a) *ii* bakar baten kasuak.
- b) *ii* bi dituzten kasuak.

2.4.1. Azter dezagun zerrenda bikoitz hau:

c = euskalki askotan gertatzen.

S = Zubereraz.

c. u = S. u

ur

| | | |
|-----------|---|------------------------|
| c. (h)ur | = | S. hú(r) |
| zur | = | zú(r) |
| (h)ura | = | hú(r)a |
| gure | = | gú(r)e (R, góre) |
| zure | = | zú(r)e |
| gaxur | = | gaxúr |
| hiru(r) | = | hí(r)u(r) (R, íror) |
| (g)urin | = | ú(r)in, gu(r)hí (Gèze) |
| barau | = | ba(r)u(r) (Gèze) |
| axuri | = | axú(r)i |
| bul(h)ar | = | R, burar |
| ixuri | = | ixú(r)i |
| guraso | = | bu(r)hásó |
| ureztatu | = | hu(r)tátü |
| uholde | = | hurte (Gèze) |
| zuri | = | xú(r)i |
| baratxuri | = | ba(r)atxú(r)i |

Badirudi, beraz, hau idatz daitekeela:

c. ur = S. ur

(gero *r* xamur hori batere entzun erazten ez bada ere).

2.4.1.1. Azter dezagun orain beste hau:

us

| | | |
|----------|---|---------|
| c. uste | = | S. úste |
| ik(h)usi | = | ikhúsi |
| busti | = | bústi |
| ausiki | = | usúki |
| itsusi | = | itsúsi |
| puska | = | púska |

Hitz batez:

c. us = S. us

Eta beste hau orain:

urd

urt

| | | |
|---------------|---|-----------------------|
| c. urde | = | S. úrde |
| urdin | = | úrdin |
| urt(h)e | = | úrthe |
| aurtiki | = | urthúki |
| urdazpi(ko) | = | urdázpi |
| Urdats | = | Urdáts (= Santagrazi) |
| (fr. Ordiarp) | = | Urđiñárbe |
| urdekeria | = | urdanké(r)ia |
| urdai | = | urdai (Gèze) |
| urtarrila | = | urtharila (Gèze) |
| Urteberri | = | urthatse (Gèze) |

Hitz batez:

c. urd, urt = S. urđ, urt

2.4.1.2. Hots, beste zerrenda hau aztertuz gero:

| | | |
|-------|---|-------|
| c. zu | = | S. zú |
| sagu | = | ságü |
| esku | = | éskü |
| elur | = | élhür |
| ezkur | = | ézkür |

| | | |
|----------|---|---------------------------------------|
| gut(x)i | = | g ^u ti |
| guz(t)i | = | g ^u zi |
| ahul | = | áhu ^l |
| asun | = | ás ^u n |
| zuzen | = | z ^u zen |
| un, muin | = | h ^u n |
| suge | = | s ^u ge |
| (h)uts | = | h ^u ts baina S, e(r)akútsi |
| uk(h)an | = | ú ^k hen |
| umil | = | ú ^m il |
| uso | = | ú ^r zo |
| uzta | = | ú ^z ta |
| uhaitz | = | üháitz |
| zuhaitz | = | züháñtze |

2.4.1.3. *c. u = S. ü*

idatz daitekeela dirudi.

Baina salbuespen horiek eginez:

ur, us, urd, urt

Uhlembeck-ek eman zuen joera hauen azalpena (hein batez bederen) «Eusko Ikaskuntza»ren aldizkarian (1909, 1910); eta, geroztik, aldakuntza txikiekin (Gavel, Lafon; Mitxelena bera, FHV, 52-53), gauza bera errepikatzen da; nahiz gero eta zehazkiago.

Azaldu ezinezko gauzak aitortu beharra dago, halere.

2.4.2. Eman dezagun zerrenda hau:

S. üská(r)a
 üsnátü
 süsker
 üstiátü
 süstengátü
 üstel
 kúska (= lo-kuluska)

-us- bikotea ikusita, *u* horiek zubereraz [u] egotea espero bide genezakeen, baina [ü] aurkitzen dugu.

üstelen kasoan, *üstel* aldakiak (ikus Gavel, Phon. B., 46, orri-azpiko oharra) azal dezake agian (nahiz *üstel* hau ez oso normala izan Zuberoan: Larrasquet-ek eta Lhande-k ez dakarte).

Beste guztiak, ordea?

Alde batetik, *sk* bikotea dutenak daude: *üská(r)a*, *süsker*, *küska* (nahiz *puska* ere egon). Kasu hauetan, beraz, hauxe bide da normalena:

$$c. usk = S. üsk$$

Alderantziz, berriz, hau idatz bide daiteke:

$$c. ust = S. ust$$

nahiz salbuespen batzu izan (*üstiátü*, *süstengátü*).

Eta, nolana ere:

$$c. usV = S. usV$$

- 2.4.3. Azter ditzagun orain ur- bikoteari dagozkion salbuespenak. Alde batetik ,eta hain zuzen ere, gorago aipatu dugun

$$S. ü \sim [ö]$$

hurbiltasunaren argigarri gisa, erdaratikako *-eur* bukaerari, *-ü(r)a* dagokio zubereraz:

$$fr. rancoeur \rightarrow S. arrenkü(r)a$$

Eta, bide beretik:

$$c. -ura = S. -ü(r)a$$

| | | |
|-------------|---|----------------|
| c. etendura | = | S. ethendü(r)a |
| hausketa | = | hauskü(r)a |
| bilkura | = | bilkhü(r)a |
| itxura | = | ütxü(r)a |
| preskura | = | freskü(r)a |

| | | |
|-----------|---|--------------------|
| arrenkura | = | arrenkü(r)a |
| apaindura | = | aphañdú(r)a (Gèze) |
| ardura | = | ardü(r)a |
| handitxo | = | hankü(r)a |

2.4.3.1. Beraz:

c. ur = S. ur

egia izanik ere; salbuespen orokor hau erantsi behar zaio:

c. -ura = S. -ü(r)a

2.4.4. Gogoan har dezagun orain Lafon-ek berak (RIEV, 1933) proposatu zuen salbuespen-zerrenda hau:

S. thürbürátu, *éprouver des tribulations*
 ürgáiztü, *secourir*
 kúrka, *gorgée*
 úrkho, *en face*
 bürkhi, *bouleau*
 úrkhátü, (= urkatu)
 gürlo, *ambigu*
 khürlo, *grue*
 ahürpégi, *face*
 úrpho, *petit tas de fumier*
 úrzo (= uso)

Eta lehen *urd-* eta *urt-* delakoei buruz esan duguna gogoan hartuz gero, badirudi «étaient normalement douces les *r* suivies d'une orclusive dentale (d, t, th), ou d'une affriquée à premier élément dental (tz, ts, tx)» (RIEV, 1933, 173).

2.4.5. Hots, gauza bertsua gertatzen bide da (salbuespenen koska ukatu gabe) *r* xamurrarekin eta *s* frikariarekin.

Badirudi, lehenengo hurbilketan bederen:

- a) *c. ur(V) = S. ur(V)*
c. us(V) = S. us(V)
c. uts(V) = S. uts(V)

- b) c. ur(+horzkari) = S. ur(+horzkari)
 c. us(+horzkari) = S. us(+horzkari)
- c) c. ur(—horzkari) = S. ür(—horzkari)
 c. us(—horzkari) = S. üs(—horzkari)
 c. utz(V) = S. ütz(V)
 c. utx(V) = S. ütx(V)

Lege hauek *eskuarki* bederen betetzen direla dirudielarik, baita eskuinean V falta denean ere.

2.4.6. /u/ bokalearen hersketa horri, dena dela (*aintzinaketa* esatea egokiago agertzen da, 19. kapituluan azalduko denez), /o/ bokalearen hersketa dagokio.

Zein baldintzatan?

2.4.6.1. Kontsonante sudurkarien aurrean, [u] ahoskatzen da zubereraz beste euskalkietan ageri den /o/ fonema:

c. *on* = S. *un*

| | | |
|----------------|---|-----------|
| c, ongi, ontsa | = | S. úntsa |
| (h)ondar | = | úndar |
| onest | = | unést |
| onetsi | = | unhétsi |
| ontzi | = | úntzi |
| ongarri | = | hunkállü |
| on | = | hun |
| arrant | = | arrúnt |
| ohore | = | uhú(r)e |
| non | = | nún |
| tontor | = | túntor |
| kontra | = | kúntre |
| ezkondu | = | ezkúntü |
| kondenatu | = | kundenátü |
| azkon(ar) | = | hazkú |

Baina, berriro ere:

on → un

aldakuntza hori ez da zubereraz bakarrik gertatzen.

adibidez:

- G, iñun (= nehon, inon)
- G, erronka; G, arrunka
(ikus Zulaika bertsolaria; 59, 87)
- G, konpritu / G, kunpritu
(ikus Alzo bertsolaria; 181, 276)
- B, ukúndue, Erkoreka, FLV 31, 55
- G, pesalobre / G, pesalunbre (P. Errota)
- G, biyamon / G, biyamun.

Euskaltzaindia bera ere zalantzan ibili da; eta nik halako batez *Huntax eta Hartax* bataiatu nuena, gaur *Honetax eta Hartax* bataiatuko nuke.

Hots, gauza bera dugu [ɲ]-ren aurrean:

- c. oñ* (= *oin*) = *S. uñ*
- c. zoin* = *S. zúñ*
- oin* = *húñ*
- ohoin* = *uhúñ*
- soin* = *súñ*

Eta, adibideak biltzen zailago izanik ere, beste hau ere idatz bide daiteke:

- c. om* (= *onb*) = *S. um*
- c. bonboi* = *S. bumbú*
- zomait* = *zumáit*
- konparatu* = *kunparátü*
- komertzio* = *kumérzio*
- konbertitu* = *kumertítü*
- konprenitu* = *kunprenítü*

Beraz, zubererari buruz:

$o \rightarrow u / \text{ — } [+ \text{ sudurkari}]$

Hersketa, hitz batez, automatikoa eta inguramendu fonikoaren ondorio: kaso horietan, zinez, /o/ fonema [u] ahoskatzen dute zuberotarrek.

2.4.6.2. Gainerako hersketa askoren kaxoa ez da ongi ageri:

| | | |
|--------|---|---------------------------------|
| c. nor | = | S. nú(r) |
| nora | = | nú(r)at (ik. nun, dena dela) |
| molde | = | múlde |
| motz | = | mútz |
| gordin | = | hazkúrdíña (Larrasquet) |
| koska | = | kúzka |
| nola | = | núla |
| poxi | = | búxi |

Baina bi bokale belareak aldarazi dituen joera garbi dago:

o → u
u → ü

Azkenean diagrama hau dugularik:

12.ir.

| | | | |
|-----|---|---|---|
| (c) | o | u | |
| (S) | o | u | ü |

↓ D | C | B | A ↓

Euskal bokaleen arteko kidetzak

- (A) c. u = S. ü
- (B) c. u = S. u
- (C) c. o = S. u
- (D) c. o = S. o

Ongi ageri denez, hobeki ezagutzen dira A eta B multzoak zedarritzatzen dituzten oinarri fonetikoak, C eta D dituztenak baino.

2.5. Orain artekoan, dena dela, /u/ bakar bat nola hesten den aztertu dugu. Zer gertatzen da *i - ü, *ü - i, *u - ü eta *ü - u bikoteen kasuan? Alegia, asimilazioa gertatzen denean, zein zeini nagusitzen zaio?

2.5.1. *i - ü = S. ü - ü

Esate baterako:

c. itsu → *itsü → ütsü
paradisu → *paradisü → pha(r)adüsü

Eta, hortaz, eta asimilazioan:

ü > i

Hona hemen beste adibide batzu:

ilun > *ilün > ülhün
ditut > *ditüt > düttüt
ikuz > *ikhüz > ükhüz
itzul > *itzül > ütül
itxura > *itxüra > üt(xü)r(a)

2.5.2. *u - ü = S. ü - ü

Esate baterako:

c. buru → *burü → *bü(r)ü
c. usu → *usü → üsü

(Obarra: biak teorian hersten badira, asimilaziorik ere gabe egiten dute:

c. duzu → düzü
dugu → dügü)

Bide beretik:

haiduru → *haidurü → haidü(r)ü
inguru → *ingurü → üngü(r)ü

2.5.3. *ü - i = S. ü - i

Alegia: teorian *ü-i sortzen bada, bikote hori egonkorra da:

c. guti → *güti → S. güti
zubi → *zübi → S. zübi
(nahiz *zübü* ere egon, ikus Larrasquet 220)
utzi → *ützi → S. ützi (eta ez *ütz*)

(nahiz gertakari honek itxura bitxia izan).

2.5.4. *ü - u = S. ü - ü

Urrustoi → *Ürrustoi → Ürrüstói

2.5.5. Hitz batez:

1) Hitz berean bi *u* daudenean, eta bi hauetako *bat* bederen teoriaren arauera hesten bada, *biak* hesten dira.

2) Teorian arauerako aldakuntza egin ondoren, hitz berean **i-ü* edo **u-ü* gertatzen badira, *normalean biak* hesten dira. Asimilazio mailan, beraz, eta eskuarki, hauek idatz daitezke:

ü > i -
ü > u

gutxienez bi kasu horietan.

2.5.6. Oso interesgarria da, honri buruz, *ikusi/ikuzi* bikotearen kasua:

ikus(i) → *ikus(i) → S. ikhús(i)
ikuz(i) → *iküz(i) → S. ükhúz(i)

Normalak dira, besteak beste, ondoko hauek:

c. urrun → *ürrün → S. hürrün
bihur(tu) → *bihür → S. bühür

Iturri hitzak, dena dela, partizipioen arauera (atzeko *i* bokalea

gutziz itsatsita ez balitz bezala).

iturri(i) → *itürr(i) → üthürr(i)

2.6. Salbuespen famatu bat: zergatik *bederátzü*?

c. zortzi = S. zórtzi

c. bederatzí = S. bede(r)átzü

Eta, bide beretik:

c. hemeretzi = S. heme(r)étzü

Ez bide dago azalpen onik; baina Erronkariko euskalkian ere, -u zegoen, eta ez -i.

III KAPITULUA

EUSKAL DIPTONGOAK: BEHERANZKOAK ETA GORANZKOAK

- 3.1. Artikulazio bokaliko bat silaba bakar batez ematerakoan, bokale horren tinbrea denboran barrena aldatzen baldin bada, *diptongo* bat izango dugu; eta, emisio horretan barrena, bi bokale nagusi entzun beharrean, hiru entzuten baldin badira, orduan *triptongo* bat izango dugu.

Erosoa da beraz, diptongo bat ebakitzen dugunean, osatzen duten bi bokaleak berezte; nahiz-eta, egia esan, *bi bokale* horiek, eta beroien arteko soinu guztiak, nahasian edo segidan entzun ahal izatea.

Halere, berriz diot, eroso da *bi bokale* aipatzea; alegia hase-rakoa eta bukaerakoa.

Gauza ezaguna denez, bukaerazko soinua, nahiz-eta bokale bera ez eman akustikari dagokionez, pertzepzioari dagokionez diptongoa entzuten dela dirudi.

Eta, horregatik, hitz batez, diptongo bat aipatzen denean, halako bi bokale elkarren ondoan ahoskatzea gertatzen dela pentsatzen dugu nahiz-eta, funtsean, hori ez osoki egia izan.

Hitz batez, eta hein batez bederen, diptongo batetan bi parte horiek daude: parte bat, *benetako bokale silabikoa* da; hau da, *azentua* ere daramana. Eta beste parte bat, *silabikoa ez dena*, eta azenturik gabea. Hain zuzen ere, bikotasun horrek berak zatituko ditu diptongoak bi sailetan.

3.2. Bokale silabikoa izan dezakegu lehendabizi, ezkerretan; eta gero bokale silabikoa ez dena, eskuinean beraz; edo-ta, alderantziz: lehendabiziko partean silabikoa ez den partea izan dezakegu; eta bigarren partean, berriz, egiazko bokale silabikoa.

Lehenengo kasuan: ezkerretan *bokale* egiazkoa; eta, ondoren, eskuin aldean, *bokale-erdia*, horra hor diptongo *beheranzkoa*; eta, nolanahi ere, diptongo *normala*. Beraz, diptongo beheranzkoa aurretik bokale batek, eta ondotik bokale-erdi batek osatzen dutela; edo, bestela, bokale silabiko bat doala aurretik, eta bokale silabikoa ez den beste bat atzetik.

Adibidez: *aita* → [a_ḡita]
 belaun → [bela_ḡun]
 hodei → [o_ḡdei]
 deustie → [deu_ḡstie]

(Alfabeto Filologikoaren arauera normalean liburu honetan. Ikus, honi buruz, Hitzaurrea eta I. Eraskina.)

Alderantziz: diptongo *goranzkoak* badaudela esaten dugu; eta hauetan lehenengo parte da, beraz, bokalikoa *ez den* parte; eta bigarren parte, berriz, bokale egiazki silabikoa.

Izendapen hori (*beheranzko* eta *goranzko*) *azentuari dagokio*.

Diptongo beheranzkoetan, *intentsitatea* goitik *behera* doa: lehenengo parte silabiko izanik, horretxek eramaten du azentua; eta intentsitateari dagokionez, beherantz doa hau. Horregatik esaten diogu *beheranzko* diptongoa.


Alderantziz, diptongo *goranzkoetan*, *intentsitatea* *gorantz* joaten da, eta horretatik datorkio, hain zuzen ere, bere izendapen hori.

Hona hemen diptongo *goranzko* batzu:

suerte → [św_ḡerte]
 milikua → [milíkwa]
 günia → [günjá]
esp. *cierto* → [θj_ḡerto]
fr. *caution* → [kosj_ḡo]


Hellwag-en diagramak eginez gero, halere, hauek lortzen ditugu:

13.ir.



Diptongo beheranzkoak

14.ir.



Diptongo goranzkoak

Hots, diagrama horietan ongi ageri denez, eta bokaleen irekierari legokiokeenez, emandako izendapena erabat aldatu beharko litzateke.

Alegia, mihia, diptongo beheranzkoetan, *gorantz* doa; eta halere *beheranzko* deitzen ditugu. Eta, alderantziz, goranzkoetan mihia *beheratu* egiten da.

Beraz, kontuz ibili behar da; zeren-eta eskuarki erabiltzen diren izen horiek intentsitateari baitagozkio; eta inola ere ez mihiaren posizioari.

3.3. Zein dira, gaurko euskaraz, ezagutzen ditugun diptongo *beheranzkoak*?

Bost dira: *ai, ei, oi, au, eu*

Adibidez:

ai: aita, zelai, haitz, hainbeste

ei: sei, leiho, hodei, gizoni (-ei)

oi: oihana, oihala, kantoin, oin

au: gauza, nau, haute, hau, aurten

eu: euskara, eutsi, euki, euri, deustat

3.3.1. Zein da diptongo horietan *maizenik* entzuten dena? Orain arte ez genuen dato estatistikorik; eta horretaz, inpresiotan, eta *bala uste dut* -etan ibili ohi ginen. Orain, berriz, Edurne Biritxinagaren tesia egin ondoren, datu zehatzak baditugu; eta hauek dira Biritxinagak eman dituen maiztasunak (100.000 fonematan edo, hobeki esateko grafematan, hartutako zifrak dira):

ai: 982 (/100.000)

au: 478

eu: 175

oi: 163

ei: 102

Euskalkien arauera zifra horiek zerbait alda daitezke.

Euskaraz, beraz, maizenik gertatzen den diptongoa, *ai* dela esan daiteke; eta ez, batzutan esan izan den bezala, *au*; *ai* askoz ere gehiagotan entzuten baita. Dena dela, ohar orokor bat egin behar da diptongoei buruz (eta, baita ere, maiztasun horiei

buruz): *bustidura* ezagutzen duten euskalkietan, diptongo asko desegiten duela *bustidura* horretxek. Adibidez: gauza ezaguna da *baina* esateko, leku askotan [bã̞a] esaten dela; eta [bã̞a] esaten baldin bada, *ai* diptongoa desagertu egin da. Beraz, *ai*, *ei* eta *oien* ondoko *n* horiek, askotan, palatalizazio bidez, *in* bikotea [ɲ̃] bihurtzen dute; eta, horretaz, diptongoa galtzen.

Era berean:

otsaila → [õ̞ã̞la]

teilatuta → [tẽ̞latu]

oilar → [õ̞lã̞r]

Eta gauza bera gainerako *bustidura* kasuetan:

bakoitz → [bakõ̞tʃ]

haize → [ã̞ʃe]

aitona → [ã̞ɔna]

Hau dela-ta, *ai*, *ei* eta *oi* diptongoak, gutxiago gertatzen dira grafemen bidez atera daitekeena baino. Bizkaieraz, eman dezagun, eta Gipuzkoako parte handi batetan, gutxiagotan entzuten dira goiko zifra horiek adierazten dutena baino.

- 3.3.2. Beste ohar bat ere egin behar da: zubereraz (eta ez zubereraz bakarrik), *r* samurra batere ahoskatzen ez delako, askotan sortzen dira, berez diptongo ez ziren fonema-multzoak: /aru/ hirukote grafikoa, eman dezagun, *r* hori entzuten ez bada, azkenean *au* entzuten da; diptongo berriak sortzen dira horretara.

Gauza bera /b, d, g/ bokale-arteak erabat suntsitzean:

adiskide → [ã̞iskide]

eguzkitan → [ẽ̞uskitan]

Beraz, emandako zifra horiek zerbait balio dute, baina koda idatzia dute oinarri.

Diptongoen mailan, dena dela, bost diptongo horiek dira ezau-garri nagusia; eta Azkuek, hain zuzen ere, diptongo behearantz-koak hartzen zituen euskal diptongo egiazkotzat; eta besteak,

aldiz, erdarari hartutakotzat, edo erdararen kutsuz erantsitako diptongotzat. Eta gaitzetsi egin zituen.

Garbikiago esateko: Azkuek ez zituen diptongo goranzkoak *euskal* diptongotzat hartzen.

Azkue ez da bakarra, ordea, irizpide horretan: «La répugnance qu'éprouve (le basque) à diphtonguer une voyelle *faible*, lorsqu'elle précède une autre *voyelle*, constitue l'une des différences les plus *caractéristiques* entre les tendances phonétiques du basque d'une part, et celles du castillan (et aussi dans une forte mesure, du français) d'autre part» (Gavel, «Phonétique Basque», 89).

Bide beretik doa Ana Maria Etxaide Barranka-ko interferentzietan buruz hau idatzi duelarik: «Respecto a la pronunciación de los diptongos *crecientes* del castellano se observa curiosamente una *diferencia* gradual en la *resistencia* a la pronunciación de esos diptongos» (Fontes, 25, 70). Eta hau erantsi: «En Unanua, población menos castellanizada, son frecuentes las monoptongaciones».

3.4. Halaz ere, erdarak kutsaturik edo ez, gaurko euskarak baditu diptongo goranzko batzu. Zein dira?

Aski dugu beheranzko diptongo normalei jira eman, eta horra hor goranzko diptongo anormalak:

ai → [ja]
ei → [je]
oi → [jo]
au → [wa]
eu → [we]

Ekialdeko euskalkietan topa daitezke (eta ez Iparraldeko euskalkietan bakarrik; isoglosa hau Iparra/Hegoa baita, eta ez estatuen arteko muga ofiziala).

Hona hemen adibide batzu:

maitia → [máitja]
erran zia → [eřancjá]

erran zioziin → [eřancjósün]
sozialismo → [šosjálizmo]
eskua → [éškwa]
eria → Sal. [érja] (= behatza, G)

3.4.1. Mendebaldeko joeraren adibide gisa, hona hemen hiru jokabide nagusiak:

3.4.1.1. *Monoptongaketa*

esp. almuerzo = B. *armosu*

(Ana Mari Etxaide-k *almorzo* aurkitu du Orioko erdaran; nahiz ez gazteen artean, 48)

esp. mueble = *moble*, G, Orio-n (Etxaide, 48)

esp. experiencia = *esperentziya*, G. Iturzaeta, 142; Urkiolegi, 216

esp. merienda → G, *merenda*, Txirr. 76

esp. pañuelo → B, *pañolo* (Mark. 47)

suelto → B, *solte* (Mark. 65)

almohada → B, *almuda* (Mark. 75)

alguacil → B, *agusilla* (Mark. 87)

guardia civil → B, *guardo-sobil* (Mark. 13)

zazue → AN, *zaze* (ikus Morentin, Muzki)

(c) dizuet → *erratendicét*, Muzki, AN, Morentin 234

(c) zazue → *escazáze*, AN, Morentin 282

Salvatierra (Hagurain) → B, *Salbatera* (Arantz. 205)

(del) Antiguu, S.S. → G. *antigutarra*

esp. continuo → AN, *contino*, J. Liz. Doc. 56

consuelo → AN, *consolo*, J. Lizarr. 31, 88

conveniencia → G, *komenentziya*, Txirr. 113

Baita Mendebaldetik urrun ere:

fr. diable = BN, *debru*

3.4.1.2. *Kontsonante baten epentesia*

- esp. radio → B, *radixo*, Mark. 22
 suerte → B, *suberte*, Mark. 26; *subertau* bizkaiera arruntez.
 esp. lirio, novio → G, *liriyo*, *nobiyo* (Ana M. Etxaide 48)
 historia → B, *istorixa*, Mark. 26
 balneario → B, *balnearixu*, Mark. 28
 negocio → B, *negosixo*, Mark. 29
 gaz. clueca → eusk. *loka* (oilo)
 Prudencio → *Prontxiyo*
 rom. moneta → *mueta*, *mota*
 esp. envidia → G. *inbiriya*, Saik 91
 buruan → G, *buruban*, Txank. 132
 zirrikituak → G, *zirrikitubak*, Txank. 108

(bizkaiera mota batzutan ere bai: ikus Prai Bartolome, esate baterako).

- nuen → G, *nuben* (Beterrian)
 esp. materiales → B, *materixalak*
 esp. violín → G, *bibolin*, Asteas. 370
 esp. diamante → G, *diremante*, Xenp. 312

Eta beste joera bitxi hori, batera euskalki askotan bizirik:

- esp. influencia → B, *influyentzia*
 baitzuen → BN, *baitzuien*
 banuelakoz → AN, *banuielakoz*
 eskua → BN, *eskuya*

Eta hau baita kanpo-sandhietan ere:

- urratu hori → *urratu (b)ori*, Soroa 61
 alki hori → *alki (y)ori*, Altz. 50
 zaldi hori → *zaldi (y)ori*, Altz. 131
 gauza gorri hura → *gauza gorri (y)ura*, Altz. 136
 txarri (h)ok → B, *txarrixok*

3.4.1.3. *Azentu silabaren aldaketa*

Ana Mari Etxaide-k oso adibide onak aurkitu ditu Orio-ko erdaran:

esp. cien → Orion, *sien*
diez → Orion, *dies*
miel → Orion, *míel*

Hitz batez:

[je] → [ie]

Joera honek bokalearen luzaketa ekar dezake:

Zubieta → [suβíita]
Goizueta → [goi̯súuta]
goizutarrak, J. P. Zab. 131

Eta, azkenean, bokale bakarrera:

BN, Martxueta → *Martxúta* (fr. Masparraute)
Arrueta → *Arrúta* (fr. Arraute)
S, Sorhoeta → *Sohüta* (fr. Chéraute)
esp. *siquiera* → G, *sikíra*; Errek. 42
G, gutxienez → G, *gutxínez*
G, guztietatik → G, *guztitatik*, Sor. 69
G, guzien → G, *guzin*
(*andre guzin erretolikek*, Altz. 61)

3.4.2. Badirudi, halere, batera toponimiaz eta eguneroko hiztegi-az, [gw-] eta [kw-] bikoteak (eta dagozkien diptongo goranzkoak) posible izan direla Mendebaldeko eskualdeetan:

eguerdi → [egwe̯rdi]
eguraldi → [egwa̯ldi]
Zaragüeta → [saragweta]
Azpilikueta → [aspilikweta]
Larrazkoeta → [la̯askweta]
Bereinkua → [berei̯nkwa]

Eta Azkue-k berak (Euskaltzaindiaren aitak, beraz) bere buruaz [áskwe] ez, baina [askúe] zela esaten bazuen ere, ahoskera hori: [áskwe] hor dago; Arantzazun *Milikua* ostatuz denek [milíkwa] ahoskatzen duten bezala.

Puntu honek azterketa sakon bat merezi luke.

3.4.3. Ekialdeko euskalkietan normaltzat hartu behar dira goranzko diptongo hauek:

- [ja] = erran zía, güniá, doniandárra
- [je] = bortiétan, merkatiétan, güniézün
- [jo] = erran zión, erran ziózün
- [wa] = éskua [éskwa], négua [négwa]
- [we] = kakuéta

Baina gure euskalkietan, erdaratikako hitzetan batez ere, ez dira horren urri: suerte, fuerte, sozialismo, nazionala, funtzional, eta abar.

Azkue-ren iritzia, hitz batez, sendoturik irteten da:

- a) diptongo goranzkoak ez dira Euskal Herri osoan ezagutzen (edo, orain dela gutxi arte bederen, ez ziren ezagutzen).
- b) nabarmenki, erdal hitzekin batera etorri dira.

3.4.4. Guztiarekin ere, *seigarren* diptongo goranzko bat bada: *ui* (fonetikaz [wí]). Lehenengo partea kontsonante-erdi bat da (= ez-silabikoa); eta bigarrena, bokale egiazko bat, azentu duena (eta intentsitate nagusia ere bai).

Diptongo hau Euskal Herri guztian ezagutzen dela esan behar da. Esan daiteke, hitz batez, alde batetik [wi] hau *orokorra* dela, beheranzkoak bezala; eta, bestetik, egiazko euskaldun hitzetan agertzen dela.

Esate baterako:

- zalui* → [salwi]
- Huitzi* → [wici]
- fruitu* → [fřwitu]
- Otađui* → [otađwi]
- Alluitz* → [á|wic]
- Arruitz* → [ářwic]
- higuingarri* → [igwiŋgaři]
- (*in* hori [ŋ] ahoskatzen ez den lekuetan bederen)

Beraz, nahiz *ui* hau maiztasun handikoa ez izan, eta askotan jatorrizko *oi* zahar baten ondorio, euskal diptongoa dela esan daiteke. («el diptongo *ui* es raro, incluso en préstamos», Mitxelena, FHV, 107).

Halako oposizioa badago diptongo hau bestelakatzeko (ikus *-dui* > *-di* aldaketa).

Eta horra hor, esate baterako, Muzki-ko Morentin-en *juicio* forma. Baita bikote hauek ere:

fruitu = frutu
zalui = zalu
-dui = -di

ui diptongoa oso egonkorra ez balitz bezala.

- 3.5. Aurreko kapituluan aipatzen genuenez, /u/ fonema, inguramendu foniko ezagunetan, /ü/ bihurtu da zubereraz.

Era berean, eta bide beretik, [a_u] eta [e_u] diptongo asko, [a_i] eta [e_i] bihurtu dira.

Beraz, [u] hetsi egin da; baina ez [ü] gisa, baizik-eta [i] gisa. Fenomeno hau ez da Zuberoan bakarrik gertatu, Erronkarin ere bide bertsutik gertatu baita.

Adibidez: euskalkirik gehienetako *gau* hitza, *gai* bihurtu da Zuberoan eta Erronkarin:

c. *gau on* = S, *gai hun* = R, *gairon*

Era berean:

c. *gauza* = S, *gáiza*
c. *iraun* = S, *iráin*
c. *belaun* = S, *belháin*
c. (h)auzo = S, *áizo*

Etsenplu horietan beretan ikusten denez, aldakuntza hori nahiko berria da; hor baitugu, aldaturik, *gauza* (latinetik datorrela

badakigu, eta *causatik* datorrela); eta Zuberoan *gaiza* bihurtu baita.

Beti ez da hori gertatu, ordea:

- c. hau(r) = S. *háu*
- c. gáur = S. *gáur*

eta abar.

Zergatik batzuetan bai, besteetan ez?

3.6. Normalean hau dugu (bai zubereraz, bai erronkarieraz):

- c. [a_u] → S. [a_i]
- c. [e_u] → S. [e_i]

Ez beti, halere.

3.6.1. Salbuespenak oraingoz alde batera utzita, kasu hauetan *ez da betsi*:

- c. [u_r] = S. [u_r] eta [u]
- c. [u_{r̄}] = S. [u_{r̄}]
- c. [u_ć] = S. [u_ć]
- c. [u_ś] = S. [u_ś]

Esate baterako:

- c. euri = S. *éu(r)i* (= *ébi*)
- c. haur = S. *háur*
- c. hautsi = S. *háutse*
- c. kausitu = S. *kausítü*

Eta, bide beretik, hauek ditugu:

S. *erháuts*
pausátü
záurthü
giháur

laugérren (< *lau(r)gérren*)
láu (< *láur*) (ikus, *laurkindu*, B, Zeberio)
háu (= R, *káur*)
éutsi
géu(r)e
zéu(r)e
auhérra (= R, *aurérra*; K. Izag. 9)

Ikus, honi buruz, 18. eta 19. ikaskaiak.

- 3.7. Euskaraz ba ahal dago triptongorik? Lehenengo inpresioan ez dagoela esan beharko litzateke. Nolanahi ere, izatekotan, lehenengo elementua izango litzateke kontsonante-erdi bat, hitz batez, [ja] edo [wa]; gero bokalea izango litzateke [a], [e], edo [o]; eta hirugarrenez, [i̯] edo [u̯], ez silabikoa. Beraz: [jai̯], [jei̯], [wai̯], [wei̯]... eta horrelakoak.

Erregela orokor gisa, hau esan daiteke: euskaraz ez *dirrela* horrelakoak gertatzen; euskaraz ez dagoela triptongorik alegia —ingelesez-edo, dagoen bezala— baina zenbait kasutan gerta daitekeela, eta gertatzen ere dela.

Hor dugu, adibidez: *Eaurta* (Nafarroako gaurregun *Jaurrieta* deitzen den herria): [jau̯r̩ta]; [jau̯r̩] hori monosilabikoa delarik. Horren antzera, eta Nafarroako zenbait euskalkitan batez ere, horrelako triptongoak gertatzen dira. (Ikus Altsasu-ko euskara, Kandido Izagirre, Urquijo 1968.)

Gauza bera baxenabarreraz:

tziauri hunat! = zatoz hona!
tziauri = [cjáuri]

Triptongo horiek, dena dela, ez dira maiz gertatzen.

IV KAPITULUA

BOKALE ALTERNANTZIAK. BOKALE SUDURKARIAK

4.1. Aurreko ikaskaietan ikusi dugun bezala, oso ezaguna da euskalkietan barrena, *o/u* eta *u/ü* gertatzen diren alternantziak.

Puntu hau horretan utziko dugu (ikus 2. ikaskaia).

4.2. Beste alternantzia bat oso ezaguna, *a/e* bokaleen artean gertatzen dena dugu. Gauza ezaguna da (eta ez euskarari dagokionez bakarrik), *e* baten eskuin aldean *r* bat baldin badator, ireki egiten dela *e* hori. Hots, haserako kapituluetan esan genuen bezala, gure *a* berez gaztelaniazko *e* baino irekiago izanik, normala da *e/a* alternantzia —batez ere *r*-ren aurrean— euskaraz askotan aurkitzea.

Ikus dezagun orain hau sailka.

Navarro Tomás-ek emandako irizpidearen arauera, hau dugu:

$$[a\bar{r}] \sim [e\bar{r}]$$

Esate baterako:

| | | |
|-----------|---|----------------------------------|
| c. berri | = | B. barri |
| c. gerri | = | B. garri |
| c. zerri | = | B. txarri |
| c. esker | = | B. eskar |
| c. piper | = | B. pipar |
| c. igerri | = | B. igarri |
| c. bazter | = | B. bastar (Txirritak biak) |
| | | (baina <i>Larrabasterra</i> , B) |

Alternantziak, dena dela, euskalkitik euskalkira gertatzen badira ere, euskalki beraren barruan ere gertatzen dira:

jústoen értean, AN, Lizar., Doc. 34
ilen ertetic, AN, Lizar., Doc. 36
erronka / arronka, G, P. Errota
litxarrerriya / litxerreriya, G. Zabaleta
i(n)fernua / infárnua, Arantz. 133
arrausean / errausean, AN, Morentin 376
ederki / edarki, G, (ikus Barandiaran)

S. *-gérren* = c. *-garren*

4.2.1. Aldakuntza:

er > *ar* (diakronian barrena)

dela dirudi. Ikus:

lat. *magister* → *maizter* → *maiztar*

4.3. Kontsonante aurrean, eta *gaur* bederen, neutralizazioa dago; eta [r̄]ahoskatzen dira bai /r/, bai /rr/ (Ikus 10. ikaskaia).

Kasu horietan, beraz, bai *e* bai *a* topatzea espero daiteke:

c. *gernu* = B. *garnu*
c. *berdin* = B. *bardin*
(baita Ekialdean ere)
c. *aterbe* = B. *atarbe*
c. *atertu* = B. *atartu*
c. *pertika* = B. *partika*
c. *izerdi* = B. *isardi*

4.3.1. Aspaldiko denboretan /r/ ≠ /rr/ oposizioa oso seguru ez agerturik, normala da *er* = *ar* (*r* xamurraz) alternantzia topatzea:

c. *gera* = B. *gara*
c. *zera* = B. *zara*
(ez bizkaieraz bakarrik)
azeri = azari
igeri = igari

4.4. Gauza bera gertatzen da /el/, /al/ alternantziaz, nahiz-eta adibi-deak bilatzen zailago izan.

Ezagunena, gauza ezaguna denez, izango litzateke gure [bele], bizkaieraz [bale] esaten dela; eta guk [bestu] esaten dugunean, bizkaieraz [balcitu] esaten dutela.

Beste adibide ezagun bat hau izango litzateke: [elkař], eta beste leku askotan [alkař]. Baita Uhlenbeck-en: *alargun* = *el(h)argun* ere.

Honen antzera gertatzen da, Navarro Tomás-en irizpideen arauerara, *or* = *ur* kidetza. Bai euskalkitik euskalkira, bai euskalki beraren barruan. Eta gauza bertsua, dirudienez, *ol* = *ul* kidetza (inplosio kontsonante aurrean batez ere):

esp. *pulpito*; eusk. *kolpitu*, Axura 32

Eta bide beretik:

G, *irakortzen* / *irakurtzen* (Santakruz bertsolariarenean; 102, 118

L, *maxkor* / *maxkur* (Hiribarren poeta)

G, *orduan* / G. *urdun* (Ataun-en, eta Goierriko leku askotan)

orzondo, BN, Sal / *urzondo*, R

(ikus Bonaparte-ren hiztegia hirukoitza; *aurore* hitza)

G, *izorratu* / *izurratu* (biak)

Fenomenoa ez da gaurkoa: «*Hurti es Ortuño*» argitzen zигun Gari-bai gipuzkoarrak, orain dela lau mende (ikus Mitxelena, FHV, 497).

4.5. Arazo latza bukaerazko -o = -u bikoteak dakarrena.

Aspaldiko partizipioetan ongi ageri denez:

lat. -u → eusk. -u

Baina hitz berriagoetan ez da hori gertatzen. Horra hor, argibide seguru, Alfontso Irigoien-ek maiz aipatzen duena:

kanpo, kanpora, kanpotik

Honek ondorio pisuak ditu hiztegitantzan, U.Z.E.I.-ko taldeak behin eta berriz aitortu duenez.

Dударик gabe, *-o* bukaera gaztelaniaren eragina da:

sozialismo, Heg. = *zozialisma*, Ipar.

Eta bizkaieraz *-o* hori beste euskalkietan baino maizago agertzen bada ere, aski da Markina-ko Arrizabalaga edo Barandiaran bizkaitarren ipuinak arretaz irakurtzea, lege nabarmenik ez dagoela erreparatzeko. Arrizabalaga-k, adibidez, orrialde berean dakartza:

erloju / erlojo (Mark., 69)

Eta Kortezubin Barandiaranek *opezijo* aurkitu badu ere, Arrizabalagak *balnearixu* dakar.

4.5.1. Nahiz-eta, berez, artikuluekin neutralizaziorik ez beti egon:

-o → *-ua*

-u → *-uba*

edo-ta:

-o → *-oa*

-u → *-ue*

dударик gabe nominatibo singularrak handitu egin du nahasketa:

bankoa, ala *bankua*?

Lizarra ondoko Morentin-ek, dena dela, *actu* dakar (372); *-u* bukaera oso zabala izan balitz bezala.

Eta bizkaieraz gaur *minitxu* esaten da (Markinan ere Arrizabalagak bildu duen bezalaxe, 93).

Aurreko bokalea /u/ denean, gutxienes, *-u* bide da normalena:

artikulu

kapitulu

liburu

pelleburu (< peligro)

asturu (> astro)

minutu (edo *minitxu*, B)

4.6. Beste alternantzia ezagun bat aipatzekotan, *i/u* alternantzia dugu. Zein euskalkitan *i*, eta zein euskalkitan *u*, ezin da beti seguru esan, baina gutxi gora behera hau esan daiteke: bizkaieraz *u* entzuten den askotan (hitz haseran, batez ere) beste euskalkietan *i* dela.

| | |
|---------------|-------------------------------------|
| c. ile | = B. ule (= ulle) |
| c. iltze | = B. ultze (= untze) |
| c. irin | = B. urun |
| c. giltzurdin | = B. guntzurrun |
| c. igeri | = B. uger. |
| c. (h)iri | = B. uri |
| c. ibili | = B. ubilli |
| | (ikus Euskara 1972, 110, Etxab.) |
| c. izen | = B. uzen |
| c. ikusi | = B. ukusi (Bermeo) |
| BN, ikhuzi | = B. ukuzi (Orozko) |
| | (eta, irukutzi, Zeberio) |

4.6.1. *Oharra*: fenomeno antzeko bat gertatzen da beste muturrean: ulun, Urunberri, Uriña, uturri, guzu (*guçuez*, palatalizaziorik gabe, 1569-ko auzi-paperetan), eta abar.

4.6.2. Alderantzizko fenomenoak ere, nahiz urrikiago, gertatzen da:

| | |
|-------------|----------------|
| c. ume | = B. ime |
| c. gut(x)i | = B. gitxi |
| c. inguratu | = B. ingiratu |
| c. zulo | = B. surtzillo |

4.7. Beste alternantzia batzu, lehenengo ikaskaian adierazitako ahoske-
rek berek idarokitzen zituzten:

| | |
|--------------|--------------------|
| etxe | = itxe |
| etxura | = itxura |
| ellorri, Sal | = illuri, R. |
| sellu | = sillu (= zigilu) |

esp. mecha = eusk. mitxa, metxa
esp. señal = eusk. seinale, siñale
esp. apellido = eusk. apillidua; Etxeb., 21
esp. peso = eusk. pixu

4.7.1. Edo, alderantziz, eta:

ir = [i̯r̄]

ahoskatzen dela kontutan hartuz:

esp. firme = eusk. ermo

edo klasiko hau:

lat. virtute = eusk. bertute

baita euskara-barruko alternantzia ezagunak:

irten = erten

bir- = ber- (aurrizkiak)

eta abar.

4.8. Gorago ere esana dugunez, bokale *sudurkariak* ere izan dira euskaraz; erronkarieraz eta zubereraz ezagutu ditugun bezala. Eta bizkaiera zaharrean ere bazeuden (ikus Mitxelena, FHV, 48 eta hurrengoak).

Sudurkari horien aztarnak, fenomeno mota batzutan batera aurki ditzakegu gaur (Zuberoko euskalkia aparte utzita ere).

4.8.1. Hitz-elkarketan ageri diren *n* bitxietan:

katea → katenbegi
ardo → ardandegi
gazta → gaztanbera
artzai → artzantza
arrai → arrandegi
jipoi → jipondu

Edo Markiña-ko esaera bitxi hau:

Segidan soinu sudurkariaren arrastorik gabe eta arrastoarekin aurkitzen dugula.

4.8.2. Artikuluaren erasketan:

B. bako → bakua
asto → astua
moko → mokua

baina:

B. melo → meloa
morro → morroa

Edo, Prai Bartolome-ren luman:

B. *escomulgauba*
condenauba

baina: *ardaua*

(baina adibide honetan *ardao* ere eman daiteke kakotzat).

4.8.3. Deskribaketa sinkroniko honetan, dena dela, besterik esan beharrik ez dago. Eta Mitxelena-ren hitzak egingo ditugu geure: «Incluso en suletino las vocales nasales se nos presentan hoy como una particularidad arcaica en vías de desaparición» (FHV, 48).

Gauza bera oharrerazi behar da erronkarierazko \tilde{V} delakooi buruz: orain dela ehun urte Bonapartek aurkitu zituenak, Azkuek oso zalantzan jarri zituen handik urte batzutara; eta Mitxelenak eta Kandido Izagirrek, orain dela hogeita-hamar urte, antzeman ezindakotzat jo zituzten kasurik gehienetan.

V KAPITULUA

EUSKAL HIATUAK

5.1. Lehengo ikaskaian ikusi dugunez, euskaraz gerta daiteke —eta gertatzen da— *bokale* + *bokalerdi* edo *kontsonanterdi* + *bokale* bikoteak elkartzea; eta horietan ditugu diptongo behe-
ranzkoak eta diptongo goranzkoak, hain zuzen.

Zer gertatzen da euskaraz bi *bokale silabiko* elkarren ondoan gertatzen direnean? Alegia, bi bokale *silabiko* elkarren ondoan gertatu, eta biek balore *silabikoa* atxikitzen dutenean, orduantxe ditugu euskal hiatuak.

Hots, hain zuzen ere, lehen aipatzen genituen bost diptongo behe-
ranzkoen *kide bisilabikoak*, alegia [ia], [ie], [io], [ua] eta [ue] horietxek dira, euskal hiatu normalak.

Baina gerta daiteke ere elkarren ondoan egokitzen diren bi bokale silabiko horiek, *tinbre berekoak* izatea. Bestela esan, bi *a* (*a-a*), bi *e* (*e-e*), etabar. *Tinbre bereko bokalez osatutako hiatu hauek*, nahiz-eta funtsean gauza bera izan, aparte aztertuko ditugu.

5.2. Normalean, beraz, *ia*, *ie*, *io*, *ua* eta *ue* bokale bikoteak, euskaraz *bisilabiko* dira.

Hain zuzen ere, haxe da euskaraz eta erdaraz duten diferentzia ezagun bat: gaztelaniaz oso normalak baitira [ja], [je], [jo], [wa], eta [we] diptongo goranzkoak. Aski dugu pentsatzea *hacia*, *nadie*, *cuando*, *puedo*, edo abar, hitzak, guztiz maiztasun handikoak direla gaztelaniaz, eta guztiz maiz entzuten direla.

Gauza bera frantsesez. Euskaraz, berriz, ez da hori gertatzen; eta, hain zuzen ere, guk [ia], [ie], [io], [ua] eta [ue] multzo horiek *bisilabiko egiten ditugu* normalean; nahiz-eta, lehenago ere esan dugun bezala, zenbait kasutan (batez ere Ekialdeko euskalkietan) [ja], [je], [jo], [wa] eta [we] entzutea posible izatea. Hori dela-ta, oso gauza ezagun bat gertatzen da sail honetan; erdaldunek askotan, bikote horiek ahoskatzen dituztenean: alde batetik, gure hiatuak diptongo egiten dituzte; eta hor ditugu gure izenak eta gure toponimoak behin eta berriz gaizki esanak. Eta, alderantziz, gure [aj], [ej], [oj], [aɥ], [eɥ] —guretzat diptongo normalak— askotan gaztelaniaz mintzo direnek, beren modura esaten dituztelako, *hiatu eta bisilabiko esaten dituzte*. Esate baterako:

Beasain → eusk. [beaʃain] → [beaʃain]
Eibar → eusk. [ẽ̞bã̞r] → [ẽ̞bã̞r]
Ormaiztegi → eusk. [õ̞mã̞jstẽ̞gi] → [õ̞mã̞jstẽ̞gi]
Donostia → eusk. [donoʃtia] → [donoʃtja]
Zarautz → eusk. [saraɥc] → [θaraúθ]

Edo, frantsesek, monoptongatu:

Azkain → eusk. [askain(e)] → [askɛ̃n]

Hots, eta berriro esanez, *ia*, *ie*, *io*, *ua* eta *ue*, *normalean* (eta Mendebalean bereziki) *bisilabikoak* dira. Eta hiatua segurtatzeko, hain zuzen [iya] eta [ũ̞ba] ahoskatzen dira maiz.

Donostia → [donoʃtiya]
burua → [burũ̞ba]
 (Gipuzkoako Beterrian, esate baterako).

Are [z] edo [s] fonemaz ere:

Urbia → [urb̞̃ʃa]
egia → [egĩ̞ʒe]

Beraz: /ia/, /ie/, /io/, /ua/ eta /ue/ *normalean*, euskaraz, *bisilabikoak* dira; eta, hain zuzen ere bisilabiko direlako, gertatzen dira [ija] eta [ũ̞ba] horien artean; [j], [š] edo [ž] soinua

tartekatzen delarik hain zuzen ere, hiatua ondo segurtatzeko. Eta gauza bera /ua/, /ue/, horien artean [b̥] bat —frikari ozena— sartzen denean [u̯ba], [u̯be].

Gauza ezaguna denez, normalean *mendia* ez da euskaraz [mɛn-
dja] esaten; baizik-eta [mɛndia]. Baina [mɛndija] entzun daite-
ke (Gipuzkoako parte handi batetan); edo [mɛndiʒa] edo
[mɛndiʂa] bizkaieraz. Edo-ta [mɛndiʒe] eta [mɛndise]. Hitz
batez, hor *hiatua segurtatzen da*, eta funtzio hori du tarteko
kontsonante erantsiak. Gauza bera, eman dezagun, *esku*. Ez da,
normalean, euskaraz [eskwa] esaten (Ekialdeko euskalkietan
ez bada); eta, hain zuzen ere, oso maiz entzun daiteke [ɛskuba].
Alegia, nolabait ere, hor tartean oklusiba, edo leherkari, edo
frikari bat, /u/ eta /a/, edo /u/ eta /e/, horien artean sartzen
dugularik.

- 5.3. Hiatu ezagunak dira, era berean, bokale *irekien* artean sortzen
diren bikoteei dagozkienak (aurreko puntuan, ezkerraldeko boka-
lea *hetsia* zen). Hauen artean, oso maiz gertatzen (deklinabidean
gertatzen direlako), horra hor /ea/, /oa/ eta /oe/ bokale-
-bikoteak. Hots, bikote horiek edo bi silabatan ahoskatzen dira
eta aldakuntzarik gabe (adibidez: [maḷt̪ɛa] eta [beʂɔa]); edo-ta,
arauera, [maḷtia] eta [beʂua].

Aldakuntza hau ez da, halere, *guztiz orokorra*; eta gauza ezaguna
da, bereziki, Bizkaiko Arrati-ko eskualdean, eta Gipuzkoako
Goiherri aldean ere, /ea/, /oa/ eta /oe/ horiek [ea], [oa]
eta [oe] gelditzen direla.

Bainan gainerantzeko Euskal Herri guztian *ea* [ia] esaten da,
oa [ua] esaten da, eta *oe* [ue].

Hots, aldakuntza horiek, gero azalduko dugunez, badute *funtsan
antz handia*.

Hori dela-ta, Gavel-ek hau dio [ua] eta [ia] ahoskeri buruz
(< oa, ea): «tendance à peu près générale à tout le domaine
basque» (Ph. B., 23, 33).

5.3.1. Hots, Gavel-ek berak *kanpo-sandhi*-ei buruz ezarri zituen eragozkarriak, gehiegizkotzat jo daitezkeela dirudi. Kanpo-sandhi-tan ere:

ea → [ia]

oa → [ua]

idatz daitekeelako (ikus *Oinarri Bilan* emandako etsenpluak).

Eta hona hemen beste zenbait:

etxe honetan → AN, *etxi onetan*, Yanz. 266

etxe honetan → G, *etxi ontan*, Sor. 77

trantze hartan → G, *trantzi artan*, Urrest. 25

triste hori → G, *tristi ori*, Alz. 46

lege hori → G, *legi ori*, Txirr. II, 85

albiste honekin → G, *albisti onekin*, Zap.

(bestetan, soilik, *albixte* darabil)

5.3.2. Argigarri gerta daiteke (maiztasun handikoa izanik) *behar* hitzaren eboluzioa aztertzea; baita *bihar* hitzarekiko bere oposizioa kontutan hartzea ere.

Hegoaldeko euskalkietan:

behar → [beãr]

bihar → [biãr]

Hots, hau dugu:

beãr → [biãr]

biãr → B, [bišãr]

Adibidez:

B, *bixer be biarra egin bier*, Mark. 30

G, *gauzarik biarrena*, Zul. 61

G, *artu biar*, Sor. 54

Baina, zenbait euskalkitan:

behar [beç̃r]

G, *bértu*; Iturz. 118

Jakina, *beer* hori [beēf̄] delarik.

Bai barne, bai kanpo-sandhietan.

- 5.4. Gerta daitezke hiatu batzu, ordea, *bokale berdinen artean*; alegia, /aa/, /ee/, /ii/, /oo/ eta /uu/.

Hiatu horietan, zer soluzio gertatzen da euskaraz? Alegia, posible ote dira euskaraz halako *geminazio* edo luzadura luketen bokale berezi horiek? Posible dea beren horretan ahoskatzea? Erantzuna nahiko desberdina da, eta euskalkien arauerakoa.

- 5.4.1. Prai Bartolomek bereziki, eta garbiki esaten duenez (ikus 278. orrialdea), Markina-ko euskarak *bazituen* bokale *bikoitz* edo *luzatu* horiek. Baina Arrizabalagak, berriz, haren herrikide izanik ere, ezer ez du markatu horrelakorik, handik bi mendeetara (edo gutxixeago).

Biziago bide daude bokale luze horiek, gaur bederen, *Oñati-Zegama-Ataun* inguruan. Kandido Izagirre biltzaile zorrotzak duda izpirik ez du utzi bokale bikoitz hauei dagokienez, Arantzazu-ko hizkerari buruzko bere ikerlanean; eta J. M. Barandiaran-ek ere, Ataun-go euskalkia ematerakoan, zirkunflexuak eta bokale bikoitzak ez ditu sekula ahaztu; eta sistematasun harrigarrian. (Hots, On Joxe Miguel ataundarra izaki, zer ari den ongi dakiela sinesteaz ez da zaila!).

- 5.4.2. Oso nabarmena da, Ataun-go euskarari buruz, esate baterako, bokale bikoitz horien iturburua somatzea:

a) batzutan *r* xamur baten erortzea dago atzean: *bee*, *ee*, *iitxi*, *aatsalde*;

b) beste batzutan, *b*-aren aztarna dirudi: *zaarra*, *baseerri*;

c) eta bestetan (eta hau zehazkiago aztertu behar litzateke) bizkaierazko (edo beste euskalkietako) azentu baten aztarna soma daiteke: *bateen* (inesiboan), *ementzoaan*, *neskeek*, *geroaago*.

- 5.4.3. Hots, inpresio bera uzten du Kandido Izagirre-ren monografiak:

a) *apíilla*;

b) *záar*, *sáatz* (= sauce), *txáal txáar* (Zegaman ere bai, bestalde); *meétu*, *míiña*, *náar* (= zarza), *oóstu*, *beéria* (= *la parte de abajo*);

c) *aizáatu*, *auspáatu*.

Zenbait aldiz, dena dela, teoriaren arauera postula zitezkeen formen aurrean gaude: *albásdarrak aiskólaari*, *akúlaari*, *albáit-taari*, *laixáari*, *aisékerixaak*, *áizpaak*, *lángaak*, *entzúlaak*.

Forma horiek ez dirudite berrikuntzak, aspaldiko forma *osoak* baizik. (Hauxe da Mitxelena-ren iritzia).

5.4.4. Joakin Leizarraga-ren izkribuetatik atera bide daitezkeen ondorioak antzekoak dira.

Zenbait aldiz etimologi-nahiaren formak izan badaitezke ere:

naiizatearéqui, Doc. 33

Uterga-ko Beriain-en *zuzenketa* honek argiro erakusten duenez:

nayçandubayçuen → *nay yçandubayçuen*, AN
(Trat. misa, 2. atz.)

(ikus, honen kontra, Arrizabalaga-ren idazkera hau:

beti zan da eta izango da, 14)

beste batzutan Zubereraren oihartzunak ezin baztertuzkoak dira:

itzeéqui gurútzean, 36
itzeétaic dilindacá, 36
galbideéqui, 50
señaleés, Matx. 88.

Eta zubererazko azentua:

-ék
-én
-ér
-éki

plurale osoan Lizarragak gogoratzen digularik.

Beste batzutan ere funtsatua dirudi:

ezin contaála ta ezin pensaála, Doc. 280.

5.4.5. Bestela esanda: zenbait bizkaiera motatan, honegatik edo hargatik, bokale luze horiek *izan direla, eta daudela*, esan daiteke.

Eta hau oso harrigarria da; latinetikako mailebuetan argi eta garbi ikus daitekeenez, euskaldun belarria beti erabat soraio izan baita bokale *luze* \neq *labur* berezkuntzarekiko.

5.4.6. Bereziki aipatu du hau N'Diaye-k Amaiur-ko hizkerari buruzko bere monografian:

| | | |
|-------------------|---|----------------------|
| gastatu dut | > | <i>gastatut</i> |
| bere emaztea | > | <i>beremaztea</i> |
| etorriko ote zara | > | <i>torrikotezara</i> |
| kalaka handia | > | <i>kalakaundie</i> |

(Basque de Maya, 37)

Areago: bokale berdinezko hiatuen *kontrako* joera nabarmenak ageri ditu; baita bizkaieraz ere, deklinabidean bederen ongi jarrai daitekeenez.

5.5. Ikus dezagun aurrenik $a + a$ hiatuari gertatu zaiona.

5.5.1. Bikote honi soluzio batzu eman dizkio.

Alde batetik $a + a$ bikoteak, askotan a soila eman du besterik gabe.

Euskara batuan ere, hauxe onartu da:

| | | | | |
|-------|---|----|---|---------------|
| alaba | + | a | → | <i>alaba</i> |
| eliza | + | an | → | <i>elizan</i> |
| neska | + | ak | → | <i>neskak</i> |

Hitzaren barruko b galduz gero, sinpleketa bera gertatu da euskalki askotan:

ahate → *ate*
 ohol → *ol*
 (t)xahal → *txal*
 zahar → *zar*
 ahalke → *alke*
 ahari → *ari*
 mihi → *mi*
 mehe → *me*

Berriz ere, $V_i V_i$ bikote berriztakor horiekiko soraiotasun berbera erakutsiz: $V_i V_i \rightarrow V_i$.

5.5.2. Zubereraz eta erronkarieraz, halere, hiatuaren ondorioz, *azentu bat* gelditu da:

alhába → *alhabá*
 elíza → *elizá*
 arrólla → *arrollá*
 bórda → *bordá*

Hau dela-ta, argibide ona izan daiteke berezko *-a* duten hitzen ezagupidea, zubereraz edo erronkarieraz aztertzea.

Eman dezagun *giltz* hitza. Giltz? Giltza? Nola ote da?

Erronkarieraz, mugatuan, hau genuke:

gíltz → gíltza
 gíltza → gíltzá

Biotako zein dokumentatzen da? Kandido Izagirrek [*gílca*] aurkitu zuen; beraz, *giltz* dela pentsa daiteke (bizkaieraz, era berean, *giltza* agertzen da; eta ez *giltzea*).

5.5.3. Beste soluzio bat eman du Zaraitzu-ko euskalkiak:

$a + a \rightarrow ara$

Adibidez:

egia + a = *egiára*
 alaba + a = *alábara*
 justizia + a = *justíziara*

(ikus, esate baterako, Samper-en *Salmoa*, zaraitzieraz).

Beraz, hemen ere nominatibo singularrean, *ara* bat ikusten dugunean, funtsean edo jatorrian, $a + a$ hiatua zegoela jakin dezakegu; eta hiatua horretara bilakatu dela.

5.5.4. Badago beste aldabide oso ezagun bat: bizkaierarena.

$$a + a = ea$$

(baina, ez inesiboan, eta ez nominatibo pluralean).

elexa → *elexea*, *elexeari*
elexan, *elexak*
alaba → *alabea*, *alabeari*
alabak

Bizkaieraren bitartez, beraz, badukegu *a* berezkoa zein hitzek daukan jakiteko beste bide berri bat. *Arnasea* ikusten baldin badugu funtsean *arnasa* *a* zegoela esan nai du horrek; eta, hitz batez, *arnasa* dela hitza; eta ez *arnas*.

Eta beraz:

birjinea; hortaz, *birjina*
egijia; hortaz, *egia*
neskatilia; hortaz, *neskatila*
makillia; hortaz *makila*

5.5.4.1. Disimilazio hori, bestalde:

$$aa \rightarrow ea$$

normala da euskaraz: aurrekoa ahulena, eta atzekoa aldakaitz. Disimilazio *atzerakaria*, hitz batez. (ikus 17. ikaskaia).

5.5.5. Azken ohar bat: kantatzerakoan batez ere, hau gerta daitekeela:

$a + a = aia$ [aya]
Santa Agueda = [santa yageda]

5.6. Zer esan $e + e$ hiatuaz?

Deklinabidean maiz gertatzen da:

seme + en = semeen

etxe + etako = etxeetako.

Euskara Batuaren arauera biak segidan idaztea erabaki da.

Nola ahoska?

Zubereraz $e + e = é$ idatz badaitekeere:

semeen = [šémén]

normalean *disimilazioa* gertatzen da euskalki askotan, lehenengoa hetsiz:

semeen = [šémien]

etxeetako = [ečietako]

san joseetako = «san josietako», Soroa, 48

5.6.1. Ohar bera egin daiteke $o + o$ sekuentziaz:

zoro (h)ori = [soruori]

erook = [eruok]

Eta gauza bera kanpo-sandhietan:

Adibidez:

beru onekiñ, Sor. 33, G

oraingu ontan, Ugal. 136, G

ontzaku ori, P. Err. 41, G

bosteku ori, Zubeltz. 17, G

sagardu oyek, Sor. 94, G.

joku ortako, Yan. 212, AN

aurtengu ontan, Yan. 166, AN

joku ortan, Yan. 172, AN

asmu orretan, Txan. 62, G

lumero... lumeru ori, Soroa, 36, G

urpeku orrek, J. A. Aranb., 256, G

oraingu ortan, Txirr. II, 86.

Eta, hitz batez, eta normalean:

ee → [ie]

oo → [uo]

Donostiako denda famatu batek erakusten zuen bezala:

merkeena → *merkiena*

5.6.2. *ii* eta *uu* hiatuak ez dira maiz gertatzen; baina hau idaz bide daiteke:

ii → i

uu → u

Adibidez:

mihi → mii → mi

zuhur → zuur → zur

5.7. Ezaguna ere bai aditzetako:

-k → *ga

aldakuntzak sortu dituen formak:

duk → *dugala → duala

dituk → *ditugala → dituala

diok → *diogala → dioala

zion → *ziogan → zioan

genien → *geniegan → geniean

Eta abar.

Gaur *-a*, *-an* agertzen diren horiek guztiak:

-a < —*ga

-an < —*gan

[g] → [g] → [∅]

VI KAPITULUA

KONTSONANTE LEHERKARIAK


6.1. Lehenengo bereizketa egitekotan hau esango genuke: kontsonante leherkarien artean, leherkari ahokariak edo ahozkoak daudela alde batetik; eta bestetik, leherkari sudurkariak daudela.

Lehenengo kapitulu honetan *leherkari ahokariak* aztertuko ditugu. Alegia, kontsonantea egiterakoan, ahoan gertatzen den aire-pasaia osoki hesten duten horietakoak.

Gauza jakinaenez, hauen kide sudurkariak ere badaude. Noiz? Haizea *sudurraren bidetik* atera daitekeenean.


Baina leherkari sudurrezko horiek zazpigarren kapituluan aztertuko ditugu.

6.2. Ikus dezagun aho-gunearen ebaketaz lortzen den diagrama hau:






Aho-gunearen ebaketa (Malmberg-en arauera)

16.ir.




17.ir.



Bokale baten palatograma

Txistukari baten palatograma


18.ir.



Leherkari baten palatograma
(Malmberg-en arauera)

Oklusio horri dagokionez ondo ageri denez, posizio batzu gerta daitezke. Oklusio hori *expainetan* gertatzen baldin bada, leherkari *expain-bikoak* edo bilabialak ditugu. Eta hauek, euskaraz, /p/ eta /b/ dira.


19.ir.



[b] [p]
expainbikoak

Oklusio hori gorago gertatzen denean, alegia hortzen atzean (geroago zehaztuko dugu hau) /t/ eta /d/ ditugu: *horzkariak*.


20.ir.



[d] [t]
apikari - horzkariak

Oklusioa, oraindik ere gorago egiten baldin badugu, /tt/ eta /dd/ izango ditugu, fonema palatal, edo *sabaikariak*.

21.ir.




[d] [t]

sabaikariak

Eta atzerago eginez gero, /k/ eta /g/ lortuko ditugu, leherkari *belareak*.

22.ir.



belareak

| | ezpainbikoak | horzkariak | sabaikariak | belareak |
|--------|--------------|------------|-------------|----------|
| gorrak | p | t | tt | k |
| ozenak | b | d | dd | g |

Eta hau idatz daiteke:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{\underset{\cdot}{t}}{\underset{\cdot}{d}} = \frac{k}{g}$$

6.2.1. *Fonema* hitza erabili dugu: nahiz oraindik soinu-desberdintasun horiek balio *fonologikorik* (eta funtzio semantikorik) ote duten ez frogatu.

Hots, bikoteak aurkitzea erraza da: batez ere bokale-arteko posizioan:

| | | |
|---------|---|--------------------|
| pare | ≠ | bare |
| urte | ≠ | urde |
| lapur | ≠ | labur |
| pilatu | ≠ | bilatu |
| B, bake | ≠ | bage (= ba(ga)rik) |
| G, otia | ≠ | (h)odia |
| BN, tut | ≠ | dut |
| mota | ≠ | moda |
| seta | ≠ | seda |
| saku | ≠ | sagu |

eta abar.

Hortaz, *p*-ren orden, *b* jartzen baldin badugu; edo *t*-ren orde, *d*; edo *k*-ren orde, *g*, balio semantiko desberdinak dituzten hitzak ditugu. Hitz batez, *petaka* eta *bodega* osatzen dituzten sei soinuok, elkarrekiko oposizioan daude, benetako *fonemak* dira:

$$/p/, /t/, /k/, /b/, /d/ \text{ eta } /g/$$

6.2.2. Zer esan, ordea, [t̥] eta [d̥] soinuez? (Euskaltzaindiaren ortografian: *tt* eta *dd* idatziak).

Zenbait aldiz (zenbait euskalkitan, ikus 19. kapitulua) *automatikoki* gertatzen dira bustidurak:

$$\begin{aligned} t &\rightarrow tt \\ d &\rightarrow dd \end{aligned}$$

Adibidez: *i* bokalikoen ondoren:

(A) ditut → [d̥ɪt̥]
ito → [i̥t̥o]

edo-ta *i* ez-bokalikoen ondoren:

(B) aita → [ait̥a]
ohitu → [oi̥tu]

Euskalki horietan, beraz, hau idatz dezakegu:

(A) t → t̥ / i _____
(B) t → t̥ / i̥ _____

Kontsonante sudurkarietara buruz beste hau idatz dezakegu bezalaxe:

$$n \rightarrow \eta / \text{_____} \left\{ \begin{array}{l} k \\ g \end{array} \right\}$$

(ikus liburuaren II. parteak).

Berridazketa-erregela horiek *beti* betetzen badira, aldakuntza fonetiko hutsa dugu, automatikoa; eta euskalki horretan dauden *tt* eta *dd guxtiak* erregela horien arauera azal badaitezke, [t̥] eta [d̥] ez dira fonemak.

6.2.3. Euskalki *guxtietan*, ordea, oso joera berezia dago: hipokoristikoak, hitz bihozkorak, haur-izenak, eta abar, sortzeko, /d/ eta /t/ fonemak sabaikaritzeko edo palatalizatzeko sistema.

Adibidez:

Madalen → Maddalen
ederra → edderra
patarra → pattarra
tiki → ttiki

Euskalki horietan *gure esku* dago /d/ edo /dd/; /t/ edo /tt/ hautatzea. Ezerk ez gaitu automatikoki honetara edo hartara behartzen:

mutiko ≠ muttiko
potolo ≠ pottolo

baina sail palatalizatuak *beste balio semantiko* desberdina du. *Potolo* ez da *pottolo*: bigarrena askoz beroago eta bihozkorrago da. Gauza bera *muttiko*.

Sistema hau euskalki *guztietan* erabiltzen denez gero (bustidura automatikoa izan edo ez izan), bi soinu sabakariok: [t̟] eta [d̟] *balio fonematikoa dute*.

Leherkarien sailean, hortaz, *zortzi fonema* ditugu.

6.3. Fonema horien *distribuzioa* aztertzen badugu, ordea, zifra hauek ditugu (Biritxinaga-ren arauera):

| | |
|-----------|------------|
| p — = 308 | b — = 2215 |
| t — = 114 | d — = 1440 |
| k — = 318 | g — = 1013 |

(estatistikaren corpus-ak ehun mila grafema zituen, gorago ere esan dugun bezala).

Hitz batez: *haserako* posizioan (pare, triku, koroa, bildu, ditut, edo gara) askoz ere maizago agertzen dira fonema *oxenak*, fonema gorra baino:

| | |
|-----------------|--------------------|
| $\frac{b}{p}$ — | ~ 7 aldiz maizago |
| $\frac{d}{t}$ — | ~ 13 aldiz maizago |
| $\frac{g}{k}$ — | ~ 3 aldiz maizago |

Hitz-haseran, beraz, *oxenaren* aldeko neutralizazio nabarmen bat somatzen da; antzinako denboretan, dirudienez, erabatekoa.

Fenomeno hau, jakina, ezaguna da aspaldidanik (ikus Mitxelena, FHV, 239); eta oso nekez aurki daitezke oposizioak hitz zaharretan eta posizio horretan.

Normalean, bai p—, bai b— (eta beste lauak) balio semantiko berberaz agertzen dira:

b/p → *bekatu* = *pekatu*
bortu = *portu*
biper = *piper*
barkatu = *parkatu*
bike = *pike*
bake = *pake*
balenka = *palanka*
butzu, Aezk. = *putzu*, Sal. R.
borru, Aezk. = *porru*, Sal. R.
bilu, *bilho* = erd. *pelo*, *poil*

d/t → *dorre* = *torre*
danborrada, G = *tanborrada*
(*Dorreberria*, *Artasona*, AN)
ditare = *titare*
derremoto, R = *terremoto*
Diburtziyo, G, *Iturzaeta*, 176 = *Tiburcio*
dipula = *tipula*
daátulu, G, *Arantz.* 88 = *taratulu* (= *taladro*)
dornu, G, *Garm.* 21 = *torno*
dermio, AN = *término*
Dorráu, *Dorró*, AN = *Torrano*

g/k → *galgo*, R = *kalko*, Aezk. Sal. G.
gatu, R, S = *katu*, G, eta abar.
gonbernitu, 121 = *konbertitzen*, 122
(*Txirrita bietan*)
gorbata = *korbata*
gosta = *kosta(tu)*
ganbiyatu = *kanbiatu*
gonbarazio = *konparazio*

Joera zaharraren arauera, ozena agertzen zen: «en esas voces (latínetiko mailebuetan) se ha neutralizado para esas consonantes la oposición sorda/sonora en inicial de palabra... las oclusivas sordas latinas están representadas por sonoras vascas» (FHV, 238, 239).

Mailebu berriagoetan ahuldu egin da joera: *puntu* dugu, ez *buntu*; *kanpo* dugu, ez *ganpo*; eta abar.

- 6.3.1. Hau dela-ta, hona hemen Gavel-ek idatzi duena: «la loi de sonorisation des explosives sourdes initiales est depuis très longtemps une loi morte», Ph. B., 315.

Bertsolarien hizketaren azterketak ez darama iritzi horretara, K-fonemari buruz batez ere. Adibidez:

gonbersaziyua, Alz. 47
gomenientziak, Alz. 194
gonbiratzen, Alz. 150; Saik. 105
gomertitu, Txirr. 146
(ongi) *gostata*, Txirr. 91, 92
Galbario, Txan. 131
ganbiyatu, Xenp. 398
gonbatia, Bil. 162
gonbiratu, At. 49
Galiporni, Zegaman J. M. B.ek bildua
ganbióñ, Ana M. Etxaidek bildua

Nekez froga liteke mailebu horiek zaharrak direnik...

- 6.3.2. Hitz-haserako neutralizio honen aurpegia dugu, era berean, alde-rantzizko aldaketa (baina askotan biak leku berean atxikitzen direlarik):

kolpe (guztiz normala)
kastuak (berdin)
kitarra (berdin)


Eta, bide beretik:

pertsu (= bertso)
kotorki (J. Liz., FLV 31, 125)
kalthegin, S


- 6.3.3. Hitz-bukaeran, aldiz, *-p* ez da sekula gertatzen; eta leherkari *ozenak* ere ez (erronkarieraz *-d* bai).

Oposizioa, berriz, tinko dago hitz-barruan.

Eta eskema hau genuke:

| | | | |
|--------|--------------|----------------|---|
| | b — (p —) | — b — — p — |  |
| (gaur) | d — (t —) | — d — — t — | — T |
| | g — (k —) | — g — — k — | — K |

Eta, aspaldiko denboretan:

| | | | |
|---------|-----|----------------|---|
| | B — | — b — — p — |  |
| (lehen) | D — | — d — — t — | — T |
| | G — | — g — — k — | — K |

Eskema hau gogoan hartzea interesgarria da; frikari/afrikatuetan honen antzeko eskema bat agertuko baita.

- 6.4. Fonemak horrela zedarrizaturik ere, nola *ahoskatzen* dira? Zer esan ebakera *fonetikoaz*?

Bokale-artean, *frikari* bihurtzen dira ozen horiek:

b → b̥ / V — V
d → d̥ / V — V
ɖ → y / V — V
g → g̥ / V — V

eta

Frikari *ozen*, jakina; jatorrizko [b], [d], [d] eta [g] bezala.

Eta hau ere idatz daiteke:

$$\begin{array}{cccc} b & d & \text{d} & g \\ \hline \text{b} & \text{d} & y & \text{g} \end{array}$$

Hau dela-ta, ahoskera heuek ditugu:

abendua → [abɛ̃ndɯ̃ba], Nav. T.

bidea → [bidɛ̃a]. Nav. T.

edder → [eyɛ̃f]

agoa → [agõa], Nav. T.

Ohar berak eta zehatzagoak egin ditu Larrasquet-ek:

/b/: «placé entre voyelles ou devant les vibrantes *r* et *l*, le *b* est *fricatif* en souletin», Action, 39.

/d/: «dans les mêmes positions que le *b* et le *d*... le est une *fricative* sonore», Action, 42.

Eta berdin mintzo da H. Gavel: «De même que les deux autres explosives sonores *b* et *d*, le *g* s'amuit fréquemment en position intervocalique» (Phon. B., 346).

Frantsesez ez da hau gertatzen: «Je te dis» → [zötödi] leherkari gisa, beraz; et ez [d] frikari bihurturik.

- 6.4.1. Gaztelaniaz, berriz, euskal sustratuaren eraginez askoren iritziz, bokale-arteko leherkari ozenok, *frikari* ozen bihurtzen dira (baita zeroraino suntsitzen ere):

estado = [eštádo] → [eštáo]

acabado = [akabádo] → [akabáo]

Ikus Navarro Tomás: «se pronuncia *fricativa*, en la conversación española corriente, toda *d* ortográfica que no se halle en posición inicial absoluta ni en contacto con *n* o *l* precedentes», Pron. Esp., 100.

Eta, azkenik: «resulta normalmente *fricativa* toda *g* ortográfica... que en la pronunciación no se halle en inicial absoluta ni precedida de *n*», Pron. Esp., 140.

Gero ere ikusiko denez (22. ikaskaia, batez ere), /r/-ren *ondoren*, bereziki, *frikari* ahoskatzen dira: [b̥], [d̥] eta [g̥].

Baita, posizio horretan, ahultzen eta suntsitzen ere:

zerbait → [ser̥b̥ait̥] → [ser̥ait̥]

Hona hemen Navarro Tomas-en transkribaketa hauek:

sorgina → [s̥o̥r̥gi̥nḁ]
murgildu → [m̥u̯r̥gi̯ld̥u̯]
zordunai → [s̥o̯r̥d̥u̯nai̯]
zerbait → [ser̥b̥ait̥]
arbola → [a̯r̥b̥ola̯]
erbia → [e̯r̥bi̯ya̯]

Euskaraz gauza bera dugu; eta ahoskera horren lekuko ditugu hauek:

— AN, *ondarruiko*, Holmer, V. *Habl.*, 129 (< Ondarr(i)bi)

— AN, *urruillegui*, Morentin, FLV, 381

(< [ur̥bi̯legi̯])

Baita beste idazkera aldakor batzu:

Arruazu = *Arbazu*

6.4.2. Bokale artean etsenpluak aurkitzea, errazegia litzateke:

b = ∅:

erri'atên, G, Ataun, J. M. Bar.

oroát etérno, AN, J. Liz., Doc. 34

negocioat, AN, Morentin, F15, 381

andiatequi, AN, Morentin, F15, 375

ementzellen, G, Ataun, J.M.B.

(< emen zebilen)

faorerik eskatu gabe, G, Altz., 120

besarkadat, AN, Mezkiriz, FLV32, 337

pixkat (normal) (< piska bat)

automoilla (normal)

$d = \emptyset$:

eitten baittuk, G, Ataun, J.M.B.
gauza earra, G, Gand. 76
etzaak neri... gustatzen, G, Altz., 122
ala'ek, G, Altz. 123
emango'itu, G, (normal)
ikus'itudanian, G, P.E.M. 91
jarriko'izkitzut, G, Garm. 63

$g = \emptyset$:

nik ainduko, G, Ataun, J.M.B.
Oattolo (< Gogaitolo), AN, Goizueta (Cuad. Etn.,
28)
nausi = nagusi (ahoskera normala, baita, AN,
Muzki-ko Morentin-entzat ere)
seurentzi, AN, Leitze
oi ta bost urte, G, P. Err. 29
berana = beragana (normal)
desein, AN, Morentin, 377
eguzki, [éuski], oso maiz

aditzetan, berdin:

baina $\left\{ \begin{array}{l} \text{duk} \rightarrow \text{*dukan} \rightarrow \text{*dugan} \rightarrow \text{duan} \\ \text{du} \rightarrow \text{du(e)n} \rightarrow \text{duen} \end{array} \right.$

Ohar bat: /b, d, g/ hauen suntsitzea guztiz normala da eguneroko hizkeran. Eta adibideak ekartzea bera ere, lan alferra iruditzen zaigu.

6.4.2.1. Fenomenoa, bestalde, oso zaharra da:

Sorauren (< Soro + bakoitz)
egiakoitz (< egu + bakotx, B)
Soracoiz (< etxe + barri)
Echarri (< soro + guren)

denok Erdi Haro-ko adibide.

Eta leherkarietatik urrun zegoela, idazkeran bertan ezagun da (ikus Fontes 17):

Cenboriuar (Iratxe, 1283)

Ieraçauar »
Yriuerrri »
Muruçauar »
Cheuerria »

Eta beste mila.

6.4.3. Gorrak, berriz, ondoko erdaretan galdu badira ere (edo ozendu, bederen):

| | | | |
|-----------|---|--------------|------------|
| spata | → | esp. espada, | fr. épée |
| jocu | → | juego | jeu |
| sapientia | → | saber | savoir, su |
| pake | → | paz | paix |
| zeta | → | seda | soie |

eta beste mila. Euskaraz, leherkari *gorra* atxiki da:

ezpata
joko
bake
zeta
-atu (partizipioetan)
bert(h)ute

Joera honek, bestalde, alde batera uzten ditu Mendebaldeko Europako hizkuntzarik gehienak; eta, beste alde batera, bai euskara bera, bai kaskoia, bai aragoiera, bai, hitz batez, euskal sustratua duten Pirineo-ko hizkuntzak.

6.4.3.1. Salbuespen bat, dena dela: bizkaiera. Euskal joera orokorraren kontra, bizkaierak ozendu (eta suntsitu) egin du partizipioen *t* (edo *d*); baita zaharrak diren mailebuetan ere:

— *amatau*
— *gertau*
— *debekau*

eta abar.

6.4.4. [ph], [th], [kh] soinuez aurrerago aztertuko (ikus 11. ikaskaia).

6.5. Hitz bukaeran aipatutako neutralizazioaz gain:

- T (erronkarieraz ezik)
- K

kontsonante hauek gidatzen dituen *neutralizazio nagusia hau da*:

$$\left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} b \\ d \\ g \end{array} \right\} / \left\{ \begin{array}{c} l \\ n \end{array} \right\} \text{ —}$$

(/r/ fonema sartzerik ez dago, gero ikusiko denez).

Joera hori orokorra izanik ere, ez da euskalki guztietan betetzen:

S. *hántik*
hebénko
erranénko
ixíltü
aibáltü (= afaldu)
althá(r)e

Eta Mendebaldean ere ez beti;

ilko, G = ilgo, B.
Izal-go, G (= Idiazabal-ko)
Beasain-go, G.

Baina *Usurbil-ko* (G) ere entzun daiteke.

Harrigarria da, honi buruz, aragoieraz entzun daitekeena: *blango*, *planda*, *punda*, *sendir*, *aldo* (= alto), *bango*, eta abar. Guztiz *ozenkuntzaren* legearen arauera. (Eta nahiz, ondoko euskalkietan, R. eta S., ozenkuntza hori ez gertatu).

Hona hemen argibide bat, bitxikeria horren etsenplu gisa:

ugalde, Aezk, Sal. = *ugalte*, R
zango, Sal. = *zanko*, R

Gaur joera nagusia ozenkuntza da; eta oraindik ere orokorragoa bide zen bizkaiera zaharrean: enendorke (Kapan.), engarren, zitaldasun; lapurteraz, eta beste euskalkitan ere ageri: estulga, xuxengi, galangi, eta abar.

Turanko (Durango), Zaltu (Salduba), eta beste batzuk, ozenkuntza hau fenomeno berrizat presentatzen dute; zubererak eta erronkarierak joera zaharrari eutsi baliote bezala.

6.5.1. Salbuespen bat egin behar.

Bai azentuari dagozkion arrazoiengatik, bai grafien bidez soma daitekeenez, *-tar* atzizkiak autonomia handia izan du orain arte. Eta, hori dela-ta:

a) azentua atxiki du (gogoan har, besteak beste, *-thar* eta *-táar* grafiak);

b) bere *t* horren gortasunari eutsi dio euskalki askotan:

G, *Zizurkil-dik*; baina *Zizurkiltar* (ikus Iturzaeta-
ren *urrustiltar*, 94)

B, *nuntar*; Mark. 49

(*nun tarra* ere, bi hitzetan, idatzia; Mark. 49)

6.6. /r/-ren ondoren, ez dago neutralizaziorik;

ardo \neq arto

urde \neq urte

ordu \neq ortu

Nahiz ahezkeraz, eta normalean, ozenkuntza gertatu:

or + tik \rightarrow ordik

or + ko \rightarrow orgo

Ozenkuntza berberaren lekuko dira Elkano-ko Lizarraga-ren izkribuak.

Fenomeno hauen azalpena 22-garren ikaskaian ikus daiteke.

6.7. Beste neutralizazio nagusi bat:

$$6.7. \text{ err. } \left\{ \begin{array}{c} b \\ d \\ g \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} / \left\{ \begin{array}{c} s \\ \acute{s} \\ \check{s} \end{array} \right\} \text{ —}$$

(ikus, honi buruz, 22. ikaskaia)

Honi buruzko adibide pilo bat agertu zen *Oinarri Bila* liburuan.

Hona hemen bakar batzu, bertsolarien bertsuetan eta idazle herrikoietan bilduak:

- G, *deskraziya*, P. Zab. 177
- B, *deskanie*, Mark. 49
- G, *aizkorria*, *peña*, Zegama, JMB
Aizkorri, Ganduaga 57, JMB (Auñ. 18, 34)
- B, *aizcorriano*, Araban, Lz. Guereñu
- G, *pozkarri*, Holmer, V. Habl. 127
- G, *ezkera*, Txirr. II, 60
- G, *ezkentzake*, Txirr. II, 93
- G, *expaiz* (= ez ba haiz), Motz. 35
- AN, *expidedúgu*, J. Liz. Doc. 48
- S, *hexperri*, Larrasq. 133
- B, *egosi expañoan*, Dima, JMB
- AN, *buluxcorritu*, J. Liz.
- AN, *yolaspide*, Leitze, Euskara 1967
- AN, *excára yago alquetubéarr*, J. Liz. Doc. 47
- B, *ezkosak arkalegaz*, Dima, JMB
- G, *extia / uztia*, Iturz. 89
(= ez dira/uztea, punttukide)
- G, *noiz tian*, Alz. 26
- G, *ezkera kejatzen*, Alz. 89
- G, *oraindikan goiz-ta*, Eraus. 137
- G, *izugarri gaitz-ta*, Eraus. 137
- AN, *expaita, expalire*, J. Liz. Doc. 32
- G, *jarri biar dizket itx-pi*, Txank. 38

Eta Xalbador-en punttu hauek:

BN, errez ta / besta / errasta / errekesta; Xalb. 98

BN, presta / besta / ximista / errekesta; Xalb. 59 (alabak)

Eta beste mila.

Mitxelena-ren hitzez esateko: «Tampoco se mantiene la oposición tras sibilante», FHV, 230.

Iritzi berekoa da N'Diaye anderea Baztan-go euskalkiaz mintzo denean (ikus «Le Basque de Maya», 21).

Eta irizkide Gavel ere, sekuentzia *maiz* erabiltzen delako, kontsonanteen elkarketa ongi burutua denean: «la sonore devient sourde... et on a: ez-ta, ez-tuzu, ez-takit, ez-kira» (Ph. B. 140-141). Gauza bera *ba* partikula: *ez*-en ondoren, *pa* bihurtzen da.

6.7.1. *Obarra*: afrikatu ondoan ere ez; afrikatua frikari bihurtzen baita leherkarien aurrean.

6.7.2. Beste ohar bat: gorketa hori ez da euskalki guztietan eta beti gertatzen; Larramendiz geroztik fonetika-puntu hau ikutu duten guztiek argi-eta-garbi esan dutenez.

Eskuarki, ordea, 6.7. *err.* erregela *bete egin obi dela* esan daiteke; eta, liburu honen bigarren partean, legea betetzen duen euskaramota hartu dugu eredutzat geure fonologi-erregelak eman ahal izateko.

VII KAPITULUA

KONTSONANTE SUDURKARIAK

7.1. Aurreko kapituluan adierazi dugunez, euskal zortzi fonema leherkari *abozkoez* gain, gainerako leherkariak ere baditugu (ikus, honi buruz, 14. ikaskaia).

Lau soinu *sudurkari* hauek, beraz,


[m] [n] [ŋ] [ɲ]

benetako leherkariak dira, eta aurrekoen kideak:

$$\frac{m}{b} = \frac{n}{d} = \frac{\eta}{\text{d}} = \frac{\eta}{g}$$

Hona hemen artikulazio-moduak (eta aldera, otoi, leherkari *aboskoekin*). Desberdintasun nagusia, noski, honetan datza: sudurkari hauetan airea *surtziloetatik* irten daitekeela, irudiotan ongi ageri denez.

23.ir.



[m]

ezpainbikoa


24.ir.



[ɲ]

apikari - horzkaria


25.ir.



[n]

apikari - albeolarea

26.ir.



[ɲ]

bizkar - sabaikaria

27.ir.



[ŋ]

belarea

7.2. Euskal kontsonante sudurkarien maiztasunak aztertzen baditugu, eta Edurne Biritxinagaren tesiaren arauerako zifrak kontutan hartzen, hauek ditugu /*m*/, /*n*/ eta /*ñ*/ monogramei dagozkien maiztasunak:

$$m = 0,00874$$

$$n = 0,06849$$

$$\tilde{n} = 0,00011$$

Hona hemen, gonbaragarri, txistukarien maiztasunak (beti ere, noski, kodigo idatziaren grafemak oinarritzat hartuz):

$$z = 0,03229$$

$$s = 0,01716$$

$$x = 0,00104$$

Ageri denez /*m*/, fonemak euskaraz (edo, hobeto esateko, *m* monogramak, kasu honetan), besteek baino maiztasun apalagoa du.

Eta orain zifra hauek Navarro Tomás-ek gaztelaniari buruz ematen dituen zifrekin alderatzen baditugu, hau dugu:

$$(gzt.) \quad m = 0,03090$$

$$n = 0,06940$$

Hitz batez: euskaraz eta gaztelaniaz, maiztasun bertsuetan agertzen da /n/ fonema (grafema, bederen); baina euskaraz /m/ gutxi dago.

Honek zerbait adierazten du; eta horregatik, bere Fonética Histórica Vasca liburuan aditzera ematen du Mitxelenak fonema hau, /m/ alegia, *ezpainbikoa*, ez ote den euskaraz berri xamarra.

Berriro ere: zifra horiek ez dira *fonemei* dagozkien maiztasun berberak. Gauza ezaguna denez, /n/ fonema sudurkariak, inplasioan gertatzen den guztietan, *ondoko kontsonantearen artikulazio-puntu bera* hartzen du.

Adibidez:

$$n \rightarrow m / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} b \\ p \end{array} \right\}$$

$$n \rightarrow \eta / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} g \\ k \end{array} \right\}$$

eta abar.

n monograma hori, beraz, bost modutara ahoska daiteke:

[m] [ɱ] [n] [ɲ] eta [ŋ]

eta hau ez da estatistika-kopuruetan agertzen.

7.2.1. Artikulazio-puntuaren aldaketa automatikoki egiten da:

gizon bat = [gisombat]

esan dut = [eʃaɲdut]

nerea = [neɾeɾa]

hantxe = [aɲtʃe]

hemengo = [emeɲgo]

n monograma asko, beraz [m], [ɱ], [ɲ], eta [ŋ] dira, inguramendu fonikoaren arauera. Fonetikaren mailan, hauen kopuruak handitu egiten dira; eta [n] albeolare egiazkoaren maiztasunak, txikitzen.

Esate baterako, eta Biritxinagaren zifrak hartuz, *bizkaieraren eta gipuzkeraren* arauera, zifra hauek eman ditu:

$$m = 0,00904$$

$$n = 0,06307$$

$$\tilde{n} = 0,00531$$

Beraz, [ŋ] asko entzuten da gipuzkeraz eta bizkaieraz; gauza ezaguna denez, eta gero kapitulu berezi batetan azalduko denez. Alegia, bustidura edo palatalizazioari buruz idatzi dugun heme-retzigarren ikaskaian agertuko dugunez.

Beraz, \tilde{n} asko agertzea palatalizazio *ortografikoak* argitzen du. Fenomeno bera gertatzen da, noski, [l] eta [ʎ]-ri dagokienez.

7.3. Arestian esan dugunez, sudurkariak inplosioan gertatzen direnean, ondoko kontsonantearen artikulazio-puntua hartzen dute.

Era berean, horzkari baten aurrean daudenean, [ŋ] entzuten da; baina n hori horzkari bihurtu da. Fenomeno hori bai hitz barruan eta bai kanpo-sandhietan ere (alegia, kate mintzatuan) gertatzen da.

Esate baterako: aski dugu *enparantza*, *enbata*, *denbora*, *zenbait*, eta abar kontutan hartzea. Horietan guztietan automatikoki esaten dugu [m] eta ez [n]. Eta gauza bera kate mintzatuan, esate baterako, *gizon bat* edo *jaun bat*, edo *pertsona on bat* edo *egun berri bat* ahoskatzen. Horietan guztietan, *bat* hori klitiko denez geroz (eta ondo lotuta doa aurreko hitzarekin), n horiek [m] esaten dira.

Euskal Herrian, jakina denez, eztabaida bat izan zen orain dela urte batzuek: zer egin behar zen? Aintzinako idazleek —Leizarraga kontutan harturik— *gizombat* loturik idazten zutelako, m erabil-tzen zuten. Eta, era beran, *embata* eta *emparantza*, eta horiek guztiak, m -z idatzi beharko genituzke.

Baina, fonetikari dagokionez, egia da era berean, *hemengo* edo *hangoa*, eta honelakoak esaten ditugunean, n hori belare egiten dugula, posizio-aldakuntzaz konturatzen ez bagara ere.

Hitz batez, *n* berberak soinu edo balio fonetiko *desberdin batzu* hartzen ditu. Kasu honetan, eta [ɲ] horzkaria barne, bost desberdin hartzen ditu, bost artikulazio-puntutan.

Hots, fenomeno hau guztiz automatikoa denez, ez da fenomeno fonologikoa, fenomeno fonetikoa baizik. Eta jakina denez, *ortografia* —hein batez bederen— *fonologikoa* izaten saiatzen da. Euskaltzaindiak haseratik pentsatu zuen *m* horiek ez zirela *m* idatzi behar, *n* baizik. Eta horrela, eta gauza ezaguna denez, *euskaraz*, inplosioan dauden horiek guztiak berdin idazten dira: denak *n* letraz.

Hau ez da gertatzen frantsesez, eta ez espainolez; eta kasu honetan hau esan behar da: Euskaltzaindiak ontzat eman duen ortografia askoz ere razionalagoa eta egokiagoa dela, beste Akademiak onartu dutena baino.

- 7.4. Honetaraz gero hau esan behar da: *m*, *n* eta *ñ* hiru fonema direla; eta [ɲ] belarea berriz, ezetz; [ɲ] horzkaria ere ez, noski: Hau erabakitzeke, jakina denez, konmutazio bidez aztertuko dugu arazoa. Alegia, *m* eta *n* fonema baldin badira, posible gertatuko da *m* eta *n* elkar trukatzuz, *bi hitz* edo *bi morfema* desberdin aurkitzea; alegia, balio semantiko desberdinekin.

Eman dezagun *m* eta *n*. Hor ditugu desberdinak, *emea* eta *enea*. Era berean, *ume* eta *une* ez dira gauza bera; eta *marru* eta *narru* ere ez; ezta ere, jakina, *dema* (idi-dema) eta *dena* (guztia).

Horrek erakusten duenez, beraz, [m] eta [n] soinu horiek, *fonema* balio dute zenbait posiziotan, gutxienez.

Era berean, *n* eta *ñ*-rekin konmutazio bera egin dezakegu: eta honela hau ikusiko dugu —batez ere Gipuzkoa aldean eta Bizkai aldean— [ona] eta [oɲa] bi gauza direla. Era berean, [gana] eta [gaɲa]: *gizonarengana* eta mendiaren *gaina*, edo esnearen *gaina*.

Gauza bat da [bana], eta beste bat da [baɲa]; gauza bat da [séna] eta beste bat da [séɲa]

Hitz batez, [n] eta [ɲ] elkar trukaturaz, hitz desberdinak lortzen dira, balio semantiko desberdinekin: hau da, bestela esanez, *bi fonema* ditugu.

n belarea [ɲ], eta *n* albeolarea [n] trukaturaz, berriz, ez da posible —euskararen barruan— bi hitz desberdin lortzea. Ez da posible, eman dezagun, [bana] eta [baɲa] esatea, eta bi hitz sortzea; edo [gana] eta [gaɲa] edo [ona] eta [oɲa]. Ez da posible; eta horretaz, *ɲ* belarea *euskaraz* ez da *n* berberaren alofono bat baizik; eta ez du *fonema* baliorik.

7.4.1. Fonema horiek zein posiziotan neutralizatzen diren aztertzea izango litzateke beste arazo bat; eta, esate baterako, euskalki batzutan (eman dezagun zubereraz) [hun] eta [huɲ] aurkitzea posible bada, eta oposiziotan; baina beste euskalki batzutan ez, hitz-bukaeran, zubereraz ez beste guztietan neutralizazioa dagoela esango genuke; eta artxifonema hori, neutralizazioari dagokion artxifonema, beraz, [n] ahoskatzen dela.

7.5. Esana dugunez, zenbait euskalkitan (eta bereziki gipuzkeraz eta bizkaieraz; eta areago gipuzkeraz bizkaieraz baino) *in* automatikoki [in] esaten da. Hau, bai *i* hori bokaliko denean [iɲ] eta bai *i* hori bokale-erdi denean [i̠ɲ].

Esate baterako: *baina* edo *baino*, gipuzkeraz, [baɲa] eta [baɲo] dira; *muina*, lapurteraz, eman dezagun [mwina] izan daiteke, baina Gipuzkoan [muɲa] da. Eta *soineko*, lap., [so̠neko], eta gip., [so̠neko]; eta *zina*, lap., [sina], *gip.*, [siɲa], eta abar.

Hitz batez, badago hor, gipuzkeraz, bustidura *automatiko*a: eta *i* fonemaren ondoko *n* guztiak, *ɲ* bihurtzen dira.

Horrela balitz, eta hori *beti* gertatzen dela esatea posible balitz, orduan balio orokorrak idatziko genuke erregela hau:

$$\begin{array}{l} n \rightarrow \eta / i \text{ —} \\ n \rightarrow \eta / i̠ \text{ —} \end{array}$$

Ez hori bakarrik: euskalki horretan [ɲ] *guztiak*, *in* baten ondo-

rio izango balira, /*ñ*/ fonemarik ez legoke; eta *ñ* ortografia alferrik atxikiko genuke.

(Gauza bera, noski, *ll* grafiaz; *tt* grafiaz; eta abar, jakina). Euskal *ñ* guztiak, [ɲ] ahoskeraz, ez dira, izan, oinarrizko *in* sekuentzien ondorio.

Adibidez:

nabar ≠ ñabar

nabar eta *ñabar* ez dira gauza bera; eta ez dira, izan, elkarren aldaketa fonetiko huts eta automatikoa. [naβaɾ] esan dezaket; baina baita [ɲaβaɾ] ere. Honela, bada, *nabarra* hitzak, goldearen aurreko partea adierazten du; eta *ñabar*-ek, berriz, erdaraz, *gris* edo esango genukeena.

[ɲ] guztiak, beraz, ez dira atzeko *in* bikotearen ondorio; [l] guztiak, bide beretik, atzeko *il* bikotearen ondorio ez diren bezala.

/n/ eta /*ñ*/, beraz, *bi* fonema dira; eta ortografian *ñ* zeinuari eustea bidezkoa da.

7.5.1. Beraz:

/m/: leherkari, sudurkari, ezpainbiko; eta normalean, ozena.

/n/: leherkari, sudurkari, albeolare; eta normalean, ozena (baina inplosiotan, aldatu egiten du bere artikulazio-puntua, ondoko kontsonantearen arauera).

/*ñ*/: leherkari, sudurkari, sabaikari; eta normalean, ozena.

Horrez gain:

[ɲ]: leherkari, sudurkari, horzkari; normalean, ozena.

[ɲ]: leherkari, sudurkari, belare; normalean, ozena.

7.5.2. Ahoskerari gagozkiolarik, ordea, fonologiaren mailan egia den ekuazioa (ikus 7.1.), fonetikaren mailan hobeki zehaztu behar da.

Ingelesez /t/ eta /d/ fonemak albeolareak badira ere (eta gauza bera /n/), euskaraz ez da hori gertatzen: gaurko /n/ *albeolarea* da, berez (gero aipatuko dugu McMurraugh-en eritzia); baina aurreratu egiten da /t/ eta /d/-ren aurrean, eta [ɲ] *horzkari* orduan ahoskatzen.

Navarro Tomás-en hitzez esatekotan, «ante las dentales t, d, la n adelanta también su articulación hasta el mismo punto en que se forman estas consonantes:

mendia = [mẽɲdiya]»

(Pron. Guip., 628).

Fonetikari buruz, horretaz, hau genuke:

$$\frac{m}{b} = \frac{\overset{\cdot}{n}}{d} = \frac{n}{d} = \frac{\underset{\cdot}{n}}{ɖ} = \frac{\eta}{g}$$

(ingl.)


Normalean, beraz, eta ingelesez bestaldera, euskarazko /d/ eta /n/ ez dira artikulazio puntu *berean* ahoskatzen.

Hots, McMurraugh-ek dioenez, txistukarietan gertatu den *aintzinaketa* berbera gertatu da /n/ foneman; eta berez, McMurraugh-ek dioenez, hau eta besteak, [ś] eta [ć] bezala, retroflexuak dira (edo izan dira oraintsu arte).

7.5.3. Leherkari *sudurkariak*, hitz batez, /n/ beraz, *atzerago* du bere artikulazio-puntua, gorago alegia, leherkari *abokariak*, /t, d/ baino.


Eta artikulazio-puntuaren *aintzinaketa* hori (sinkronikoa hau, jakina; gaur gertatzen baita /t, d/-tik /n/-ra pasatzean; baita silaba-haseran dagoenean ere) ongi ikusten da Larrasquet-en palatogrametan:

28.ir.




[na]
albeolarea

29.ir.




[mando]
horzkaria

30.ir.




[ta]
horzkaria

31.ir.



[ŋ]
belarea

32.ir.




[k] [g]
belareak

Obarra: belareen artikulazio-puntua *aurreratatu* egiten da bokale *aurrekoen* aurrean (ke, ki); eta *atzeratu* egiten da *atzekoen* aurrean (ko, ku). Punttuka ikus daitezkeen hiru lerroak, horren lekuko dira.

Larrasquet-en ikerlanean, dena dela, eta McMarraugh-en kontra, oso palatograma desberdinak dituzte [n] albeolarea eta [ć] retroflexuak; biok elkarren ondoan paratuz aisa ikus daitezkeenez:


33.ir.



[n]

albeolarea

34.ir.



[ć]

retroflexua

7.6. Azter ditzagun orain /m/ fonemari datxizkion bitxikeria batzu.

Alde batetik, erdaratik datozen *b* asko; eta batez ere, mailebu zaharretan (alegia, latinetik datozen hitzetan) oso maiz gertatzen da jatorrizko /b/ hori euskaraz /m/ bihurtzea.

Hemen, dena dela, bi parte egin behar dira.

Zenbait kasutan, ondoan dagoen beste sudurkari batek aurreko *b* hori asimilazioz aldarazi duela dirudi. Esate baterako: gaztelaniazko /ventura/-tik (= [bentura]) euskaraz *mentura* sortu da.

Bide beretik:

| | | |
|--------------|-------------|----------------------|
| lat.: vagina | esp.: vaina | eusk.: <i>magina</i> |
| balneu(m) | baño | <i>mainu</i> |
| vindicare | vengar | <i>mendekatu</i> |

(*mengatu*, Iturz. G., 142).

Euskarazko *baino* bera ere, *miño* agertzen da zenbait nafar euskalkitan:

- R, *miño*, K. Artola
AN, *maño*, Morentin, 388, 389.
c., Bermeo = G., *Mermeo*
(Ana M. Etxaide)
c., malba = G., *malma*
(Ana M. Etxaide)
gazte., vendaval = G., *mendabal*
(Ana M. Etxaide)
fr., bandit = L., *mandil*
gazt., vinagre = G.L., *miñagre*, *minarre*

Edo, *berriz esango abal duzu?* eskatzekotan:

- c., bantzut = B., *mantxut*

Beste mila aipa litezke:

- fr., Villefranque = L., *Milafranga*
L., ibeni = B., *imini*
gazt., tejavana = c., *tejavana*
gazt., cabaña = c., *kamaña* (oheaz, batez ere)

eta abar, eta abar.

Gehienak hitz-haseran gertatzen dira; baina hitz-erdiko adibi-deak ere ez dira falta.

7.6.1. Ondoko sudurkari batek eragindako asimilazioak ez ditu, dena dela, aldakuntza guztiak azaltzen. Adibidez:

- gazt., vestir = B., *meztitu*, Fr. Bart., 73
c., baldarra = AN., *malderra*, Morent., 378
c., piztu = AN., *mixtu*, Lesaka
gazt., báculo = c., *makulu*
gazt., víspera = c., *mezpera*
gazt., bacalao = c., *makallu*
fr., Biarritz = L., *Miarritze*
gazt., bocado = c., *mokau*, *mokadu*

Badirudi, hitz batez:

erd. *b*—— = eusk. *m*——

7.6.2. Bitxikeriak ez dira horretan amaitzen.

Azter dezagun orain zerrenda bikoitz hau:

| | |
|----------------------|------------------------------------|
| gazt., convento | = c., <i>komentu</i> |
| gazt., comparación | = c., <i>gomarazio</i> |
| gazt., convidar | = c., <i>gomitatu</i> |
| gazt., embudo | = c., <i>imitu</i> |
| gazt., San Bartolomé | = G., <i>samartolome</i> , J.B.M. |
| gazt., conversación | = B., <i>komertaziñoi</i> , Etxab. |

Hauetan hau dugu:

erd., *mb* = eusk., *m*

Baina fenomenoak euskal sekuentzietan ere gertatzen da:

AN., *exparimedaquigu*, Mor., 385

AN., *naibarimendugu*, Mor., 386

AN., *lemicico* (= *lemexi*, AN., Mezkiritz)
Mor., 372

G., *begizkomat*, Arantz., 76

Edo Navarro Tomás-ek berak bizkaieraz transkribatu ziguna:

zenbat = [semad], Pr. Guern., 50

Eta Gavel-ek ere, bide beretik eta baxenabarrera aipu

zomat (Ph. B., 289)

Gaztelanian ere gertatu denaren arauera:

fr., *palombe* = esp., *paloma*

Baina aldakuntza, guztiz normala Elkano-ko Lizarraga-rengan eta Muzki-ko Morentin-engan, esate baterako (AN., beraz), bizi-bizirik agertzen da gaurko bizkaieraz:

amantsete m'ok olatue, Mark., 91
(= -ten badok, noski)

Samatik eltzemajotzat, Mark., 37
oratze majotzat, Mark. 37

Euskalki guztietan nahasketa hau baikenuen:

m ~ b ~ mb

7.6.2.1. Hots, euskal sustratua dagoen erdaretan, nahasketa bera ageri da:

cambión, Bureba, Gz. Ollé

Ahetze-ko Mattin bertsolariak, *humor* hitzaz:

omboria

egiten duen bezalaxe.

Eta Araban López Guereñu-k bildu duen *lomba* (= loma) horren antzera:

erd., m → eusk., mb

Pausua, horretara, hortxe dago: ez ote du izan euskarak aurre-sudurkariren bat? «Une prénasalisée», delako /^mb/ fonema, Afrikan bezala? Arrazoi ote du Yu Zytsar-ek:

B., *jaube* = c., *jaun* bikotearen atzean, **jaumb* somatzen duenean?

7.6.3. Akitaniako izkribu zaharrak honen alde mintzo dira:

akit., SEMBE → eusk. *seme*

akit., OMBE → eusk. *ume*

Jadanik ikusi dugunez, *on* horiek [un] ahoskatzen dira maiz (ikus, bereziki 2.461 puntua).

Antzinako /^mb/ horren postulaketa Martinet-ek egin zuen aspaldian; eta Mitxelenak ere ez du gaitzetsi (F.H.V., 270). Oroz Arizkuren irakasleak ere ontzat ematen bide du hipotesia (F.L.V., 23, 191).

Baina hau ez da gure arazoa; aldakuntza diakronikoen azalpena ez baita gure gaia.

7.7. Aurreko puntuan $b \sim m \sim mb$ nahasketa aipatu den bezala, oso antzerako zerbait aipa liteke hurrengo sailean:

$$d \sim n \sim nd$$

Adibidez:

gazt., *comprender* = eusk. *konpren(d)itu*
 gazt., *entender* = eusk., *enten(d)itu*

Ez beti ordea:

$$\text{handi} = *h\text{ani}$$

Eta analogiaz, $*/^nd/$ fonema izan ote den pentsa daiteke.

7.7.1. Areago joanda, baita hau ere postula liteke:

$$\frac{m}{m^b} = \frac{n}{n^d} = \frac{\eta}{\eta^d} = \frac{\eta}{\eta^g}$$

Baina honetan, oraingoz, alegiazko Linguistikaren alorrean sartuko ginateke... Utz dezagun hori, beraz, bere horretan.

7.7.2. Argigarri gerta daiteke Bizkaiko bi herriren ahoskera:

Mendata = [meata]
 Mundaka \neq *[muaka]

Era berean, *mendi* ez da inoiz laburtu. Zergatik ote?

Ikus ditzagun adibide batzu:

B., amaitzen dot \rightarrow *amaitzot*, Mark., 18
 B., esaten doten \rightarrow *esatoten*, Mark., 14
 G., ekartzen ditue \rightarrow *ekartze'itue*, Zul., 59
 G., gustua ematen dit \rightarrow *emate'it*, Zul., 60
 G., uzkaltzen ditu \rightarrow *uzkaltze'itu*, Eraus., 136
 G., jartzen dute \rightarrow *jartze'ute*, Txirr., 143
 G., eukitzen ditu \rightarrow *eukitze'itu*, Zep., 58
 G., esaten dituk \rightarrow *esate'ituk*, Zak., 36

Eta eskema hau da, normalean:

$$\left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{endVt} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{eVt}$$

Eta, /z/-ren aurrean berdintsu gertatzen denez:

$$(A) \quad \left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{endV} \left\{ \begin{array}{c} t \\ z \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{eV} \left\{ \begin{array}{c} t \\ z \end{array} \right\}$$

erregela bakar baten bidez adierazirik.

Adibidez:

$$\begin{array}{l} \text{ematen dute} \rightarrow \text{ematenute} \rightarrow \text{emateute} \\ \text{esaten duzu} \rightarrow \text{esatenuzu} \rightarrow \text{esateuzu} \end{array}$$

Bi *t*-ren arteko *d* galdu egiten da; eta bokale-artean gertatzen den *n*-a, ezabatzen.

7.7.2.1. Beste soluzio bat, goi-nafarreraz normala aspaldidanik, suntsieraren orde, *n* metatesian gelditzen da.

Axular-engandik hasi eta Lizarraga eta Mz. Morentin-enganaino, joera bera ageri da.

| | | |
|-----------------------|------------------|----------------------------|
| <i>iteunte</i> | < *itenute | < itendute, Doc., 52 |
| <i>errateinzu</i> | < *erratenizu | < erratendizu, Mor., 379 |
| <i>jateintu</i> | < *jatenitu | < jatenditu, Mor., 380 |
| <i>guardaceunt</i> | < *guardacenu | < guardacendut, Mor., 381 |
| <i>amatzeunteinei</i> | < *amatzenutenei | < amatzendutenei, Mor., 49 |

Transformazioa hau balitz bezalaxe:

$$(B) \quad \left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{endV} \left\{ \begin{array}{c} t \\ z \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\} \text{eVn} \left\{ \begin{array}{c} t \\ z \end{array} \right\}$$

jatenduzu → jatenuzu → jateunzu

Aurreko $\left\{ \begin{array}{c} t \\ tz \end{array} \right\}$ falta baldin bada, *d*-ren suntsiera ez dela gertatzen dirudi:

$$\text{eman dute} \neq *[\text{emaute}]$$

Atzeko $\left\{ \begin{array}{c} t \\ z \end{array} \right\}$ falta bada, berriz, *d*-ren suntsiera gerta daitekeela dirudi:

hori gertatzen da = [ori geʔtacea]
esaten du = [eʂateu]
etortzen da = [etoʔrcea]

7.7.2.2. Ohar bat egin behar da: [d] eta [r] soinuen ahaidetasuna delata, kasu bera dela *dut*, *dute* edo *dira*:

ibiltzen direnak = [ibilceiranak]
(Pello Errota, 26)

7.7.2.3. Zer esan, ordea, pluralezko lehenengo pertsonez?

esaten dugu = *[eʂateugu]

Bakanago entzun daitezkeela dirudi; nahiz beste hau normala izan:

zer esaten duk? = [se eʂateuk]

Analogiaz hedatu ote da ahoskera hori belareen aurrekoetara?

Ezin esan, baina ez bide da *-gu*-rekin eskuarki laburtzen.

7.7.3. Oso antzekoa (nahiz normalagoa ere, Mitxelenak postulaturako [n] ahularen suntsierari baitagokio), bokale-arteko /n/ fonemaren galtzea dugu. Bizkaieraz batez ere, bigarren eta hirugarren pertsonaren marka \emptyset baita aurrean: *eban* eta *eben*.

Fenomenoa S. Altube-k ere azpimarratu izan du («De Fonética Vasca», RIEV 1923, 517 eta seg.); eta aski da Jose Migel Barandiaran-en ipuiak arretaz irakurtzea gaurko bizkaieraz ahoskera hori guztiz normala dela ikusteko.

Adibidez:

B., egin eban = *egieban*
B., urten eben = *urteeben*
B., entzun ebanean = *entzu'ebanian*, J.M.B.
G., jan itzak = *jaitzak* (ik. Pern. Amez)

7.7.3.1. Eta Azkue-k, bere «Fonética Vasca» lanean eman zuen zerrendak ez du dudarik uzten. Besteak beste:

B., *joadi, esaeban*
B.N., *ṣi iz* (= jin iz)
A.N., *zautzeit, Ultzaman*

eta abar.

7.7.4. Altubek berak oharrerazi zuenez, hor ditugu batetik: *egoadi, esaean, egieban, ekieutsan*; baina *nik egineban* ere bai, aurrekoen bestaldera.

Hitz batez, eta berriro ere, fenomeno desberdinak ditugu:

egin neban → *egineban*
egin eban → *egieban*

Mitxelenaren eritziaren arauera, atzean bi hauek bagenitu bezala:

egiNeban ≠ *egineban*

eta *n* galtzen bada ere, *N* azkarra (kasu honetan $N = n + n$) galduko ez balitz bezala.

7.7.5. Toponimian gauza bertsua dugu, jakina denez:

Bokale arteko *n* fonema, *azkarra ez denean* (antzinako denboretan *nn* ez idatzia), ondoko bokalea nasalizatu eta, azken buruan, desagertu egiten da.

Adibidez:

Lazkano → *Lazkao*
Sopelana → *Sopela*
Lemoniz → *Lemoiz*
Laukiniz → *Laukiz*
Arrona → *Arroa*
Zestona → *Zestoa*
Galdakano → *Galdakao*
Zenarruza → *Zearrutza, Ziortza*

Ahoskeraren bikuntasuna ez da gaurkoa (ikus Mitxelena, F.H.V., 545; bigarren argitaraketako liburuan, beraz).

7.7.5.1. Baina baita mailebuetan ere suntsiera edo ezabaketa bera dugu:

| | | |
|-----------------|---|-----------------------|
| gazt. cristiano | = | eusk., <i>kristau</i> |
| cadena | = | <i>kate(a)</i> |
| arena | = | <i>hare(a)</i> |
| honor | = | <i>ohore</i> |
| grano | = | <i>garau</i> |
| plano | = | <i>lau</i> |

eta abar (joera hau bizirik dago oraindik).

Nahiz bestetan ere azpimarratu dugunez, hitz-elkartuetan *n* hori berragertu:

garandu
katenbegi
arendui

7.7.6. Badirudi, hitz batez, edozein bidetatik —VnV— multzoa gertatzen bada, hau dugula:

$n \rightarrow \emptyset / V - V$

lehenengo pausuan; agian, horretatik pasatuz:

$V \rightarrow \tilde{V} / - n$
 $\tilde{V} \rightarrow V / - V$

Lazkano \rightarrow Lazkão \rightarrow Lazkao

esate baterako. Edo-ta:

$n \rightarrow h / V - V$

bokaleak, bidenabar, nasalizatuz:

anate \rightarrow ãhâte \rightarrow aate \rightarrow ate
(h)onore \rightarrow uhú(r)e (S)

akit. SENI $\left\{ \begin{array}{l} \text{L. sehi} \\ \text{B. sein} \end{array} \right.$

Badirudi, hitz batez, Mitxelenaren ideia jarraituz, bi /n/ izan direla euskaraz: bata erorkorra (lehengo denboretan *n* idatzia); bestea, iraunkorra (lehen *nn* idatzia). Ongi funtsaturik, bata zein bestea duten *bitzen lerrokada* prestatu beharra dago.

Euskalkietan barrena aurkitzen den bimorfismoa, dena dela, oso harrigarria da:

Batetik: *anaia, ene, genuen, zenuen*, eta abar.

Bestetik, berriz, bikoteak:

dino/dio; baina/baie; erranen/errain; orazino/orazio; arrain/arra eta abar.

Lehenengo ikustaldian, Mendebaldeko euskalkietan *n* gordetzen dela dirudi, eta Ekialdean galtzen; baina *baie* bizkaiera da...

7.7.6.1. Ahoskera berezi batzu ez dira falta halere:

emen (= *omen*)-en aurreko *n*-a galtzea normala bada ere:

G., *esa'ementzion*, Ataun, J. M. Baran.

G., *bizi ize'ementzan*, Ataun, J. M. Baran.

G., *agertze'ementzan*, Ataun, J. M. Baran.

Hirugarren pertsona hauetan ere zergatik desagertzen den ez da garbi ageri:

egiten zuen → *egite zuen*

etortzen zan → *etortze zan*

egoten zan → *egote zan*

Baina Hegoaldeko nafarreraz eta aezkeraz (eta bizkaiera zaharrez) gertatzen den *-n* -ren galera aipa liteke hemen, agian, argi bide ibiliz.

Soilik doanean, *n* -gabe:

joan ze, erran nio, eman zida

Baina errelatiboarekin *n* agertzen da:

joan zen gizona

Hots, berriro ere, badirudi bi n ditugula:

joan ze < joan zen
joan zen gizona < joan zeN gizona

Kasu honetan, bestalde, bizkaierazko adibidean bezala (7.7.4.), ezaguna dugu $N = n + n$; eta $N \neq n$, dudarik gabe, baita jatorriz ere.

7.8. Hona hemen, bukatzeko, puntu aipagarri batzu.

7.8.1. Hitz-bukaerako n fonema r xamur bihurtu da hitz-elkarketan:

jaun → *jauregi, jaurgo*
oihan → *oibartzabal, oibarbide*
egun → *eguraldi*
belaun → *belaurikatu, AN, Liz.*
ohoin → *ohorgo*

Toponimo zaharren bidez soma daitekeenez, hau oso joera zaharra da; nahiz gaur hila. Adibidez:

ilun → *ilur—*

7.8.2. Hitz-haseran oso maiz aurkitzen da $n— = l—$ alternantzia; eta Mendebaldeko euskalkietan n dena, Ekialdekoetan l da. Adibidez:

| | | |
|---------------|---|--|
| c., inarrosi | = | Sal., ilarrosi |
| B.G., neurri | = | leurri, lebrí (ikus, adibidez, Elosegi: Cuad. Et, 24) |
| B., naar | = | Ek. lahar (AN., La(h)arraga) |
| B., narru | = | AN., larru |
| B., nasai | = | AN.G., lasai |
| B.G., nazkatu | = | AN., lazkatu |
| Nocedillo | = | AN., Locedillo (Allo-n) (Cuad. 23) |

7.8.2.1. Beste zenbait aldiz, *disimilazio* normala da: bi kontsonante sudurkarietan, *ezkerrekoa* aldatzen baita; eta eskuarki [l] ahoskatzen:

laranja
lumero
lonbratu
Lormandia
pelizilina
aldamio
alimale
beleno (baita Muzki-n ere)
fulamentu
albiente
alimo (baina *arima*)

Zerrenda horretantxe ikus daitekeenez, segidako sudurkariak disimilatzeko joera bizi-bizirik dago.

7.8.3. [x] eta [f]-ren aurrean, ezabatu egiten da:

$$n \rightarrow \emptyset / _ \left\{ \begin{array}{c} x \\ f \end{array} \right\}$$

Adibidez:

| | | |
|---------------------|---|------------------------------------|
| (calle del) Ingente | → | <i>ijentea</i> |
| engendrar | → | <i>egendratu</i> , Mor., 373 |
| ingeniero | → | G., <i>ijiniario</i> , Txirr., 151 |
| ingenio | → | G., <i>ijeniyua</i> , P. Zab., 279 |
| monja | → | G., <i>moja</i> |
| infierno | → | Sal., <i>ifernu</i> |

7.8.4. Beste ohar bat:

Frantsesez bukaeran dauden *m*-ak, euskaraz *n* bihurtzen direla. Esate baterako:

| | | |
|-----------------|---|----------------------------|
| fr., Beetleem | → | eusk., <i>Belen</i> |
| fr., Jérusalem | → | eusk., <i>Jerusalen</i> |
| fr., album | → | eusk., <i>albun</i> |
| fr., référendum | → | eusk., <i>erreferendun</i> |

Hitz batez, neutralizazioa denean, eta hitz-bukaeran, artxifonema hori [n] gisa esaten da.

Ortografian, beraz, *n* idaztea proposatuko genuke; eta ez *m* (kultismoetan-edo ez bada, bederen).

7.9. Bizkaieraz, eta *legez* (= [leś] edo [legeś]) adberbioaren ezkerretan egokitzen diren *n*-ak, galdu egiten dira:

ezalez, B, Mark., 66

zeukielez, B, Natxitua, J.M.B.

baserrikue dalez, B, Mark., 70

eta abar (ebakera hori guztiz da normala bizkaieraz).

20. kapituluan aztertuko da zehazkiago puntu hau.

Nolanahi ere:

honela → honla → hola

katea, bide beretik ulertu behar da; eta euskalari batzuri aldakuntza *normala* iruditu zaie.

VIII KAPITULUA

KONTSONANTE TXISTUKARIAK

8.1. Zenbait liburutan frikari-mota guztiak nahasian agertu ohi badira ere, *ozenak* \neq *gorrak* sailketa gerorako utziz ere, beste sailketa bat egin behar da aurrenik.

Artikulazioa *tinkatua* baldin bada, benetako igurzketak bat lortzen da; eta kontsonante horiei *frikari* deritze. Aldiz, artikulazioa *laxatua* baldin bada (eta beste kontsonante baten laxaketa soilek lortua, hain zuzen), orduan *espirante* deritze kontsonante horiei. (Martinet-ek *spirante* bataiatu zituen).

8.1.1. Euskaraz, esate baterako, *lau* espirante ditugu:

$\text{ḅ} < b$
 $\text{ḏ} < d$
 $y < \underset{̣}{d}$
 $\text{ḡ} < g$

Bokale artean *laxatu* egiten da / *b*, *d*, *dd*, *g* / fonemen ahoskera, eta lau espiranteak sortzen dira:

etxe bat = [ečēbat]
Aduna = [aḏuna]
Maddalen = [mayalen]
ez dugu = [estugu]


Laxatu hauei, dena dela, *frikari* ere esan ohi zaie; eta, noski, frikari *ozenak* dira horretara (jatorrizko leherkariak: *b*, *d*, *ḏ*, *g*, *ozenak* diren bezala).

8.1.2. (Euskarazko [ϕ] soinuaz, ikus 12. ikaskaia.)

8.1.3. Euskaraz, era berean, baditugu egiazko *frikariak*: *tinkatuak* eta benetako *aire-igurzetaz* eginak.


Hauen artean hiru motatakoak daude:

- a) Batzu mihi *txapalaz* ahoskatzen dira: [f], [x]. (Ikus A irudia).
- b) Beste batzu, berriz, mihia pitin bat hodi-aire bihurtua: [š], [ž], [č]. (Ikus B irudia).
- c) Eta beste batzu, azkenekorik, mihia erabat erreten edo hodia bihurturik ahoskatzen dira: [s], [ś], [z], [ź], [c], [ć]. (Ikus C irudia).




A - espiranteak = [b] [d] [g]

35.ir.



B - txetxekariak = [š] [č]



C - txistukariak = [s] [ś] [c] [ć]

(ik. J. Thomas)

B multzokoei *chuintante* (fr.) eta *chicheante* (gazt.) esan ohi zaie; eta guk hemen *txetxekari* bataiatu ditugu.

C multzokoei, berriz, *sifflante* (fr.) eta *sibilante* (gazt.) esan ohi zaie; eta guk hemen, Mitxelenak urratutako bideari eutsiz, *txistukari* deitu ditugu.

Kapitulu honetan, dena dela, *txetxekariak* eta *txistukariak* aztertuko ditugu. Eta *hauekin batera*, fonema bikunak diren *afrikatuak*.

Kontsonante hauen espektroan (maiztasun handiko marrak dira nagusi; eta horretatik heldu zaie beren *soinu-zorroztasuna* (soinu *karrankariak* dira, sarkorrak). Eta, noski, [Φ], [f] eta antzekoak, hauekiko oposiziotan daude maiztasunen aldetik.

- 8.1.4. Beste ohar garrantzitsu bat: euskal txistukariak *gorrak* dira eskuarki; eta gauza bera txetxekariak eta frikariak. (Espiranteez bestalde: hauek, eskuarki, ozenak baitira).

Adibidez:

| | | |
|-------------|---|--------|
| <i>zeru</i> | = | [seru] |
| <i>beso</i> | = | [bešo] |
| <i>goxo</i> | = | [gošo] |

eta abar.

Aurrerago ikusiko ditugu salbuespenak.

- 8.2. Nola transkribatu izan dira kondairan barrena euskal soinu horiek?

Erantzuna ziplo dator: oso gaizki.

Gaztelani-bidezko hezketa hartzen zuten euskaldunek, egoera fonetiko honi erantzun behar zioten:

| | |
|--------|------------------------------|
| eusk.: | [s], [ś], [š], [c], [ć], [č] |
| gazt.: | [θ], [ś] [č] |

Hiru fonemaz ohituta, sei adierazi behar. Ondorioa: deskalabro fonologiko gaitza; eta fonetikari buruzko aldrebeskeriez, ezer ez

esatea hobe: *gosho*, *ateracen*, *ciñan*, *besso*, *choco*, eta abar, eta abar. Laberinto osoa!

Frantses-bideko eskolatuak, berriz, arazo desberdinak, baina gaitzak beti:

eusk.: [s], [ś], [š], [c], [ć], [č]

fran.: [s], [z], [š], [ž]

Afrikatuei buruzko grafemarik bat ere ez: *Itxassou*, *Jaxu*, *Socoa*, *Tardets* eta abar; dena nahasketa osoan.

Biarnesez, dena dela [č] soinua *ix* idatzi izan da:

Barneix = [bařneč]

Appeceix = [apheseč]

Garicoix = [garikoč]

Anarkia hori ez da oraindik bukatu. Eta [z] edo [ž] soinuak aipatuz gero, desmasiak aurrera: *xan* (= [žã], *Jean*); *Sokoa* (= [sokoa]; eta, horretaz, *Zokoa* behar euskaraz); *Ustaritze* (= [ustarice], eta horretaz, *Uztaritze* euskal ortografiaz)... Eta beste mila, aspertu ere arte!

Toponimia eta patronimia ofizialak, *osorik harturik*, galbahe-tik pasa behar dira; eta txistukarien sail honetan, oso gutxi salbatuko da.

Lan hau, apala, eta itxura hutsari dagokion lana izanik ere, egin beharra da.

Geure izenen errespetua lortu behar dugu aurrenik; honetan ere ez baita errespetatua izan Euskal Herria.

- 8.2.1. Prolema berak, edo oso antzekoak, euskaldun-berriekin; edo interferentziek itota bizi diren sasi-elebidunekin.

Frantsesez eskolatuak, [s] eta [š] bikotera eramango du euskal [s], [ś], [š] hirukotea; eta honela esango du frantximentak:

ikastola = [ikaštola]; *baso* = [bašo]

euskara = [euškara]; *Euskadi* = [euškadi]

([d], eta ez [đ]; jakina).

Afrikatuekin erotu egiten da:

| | | |
|--------------|---|--------|
| <i>atzo</i> | → | [ačo] |
| <i>atso</i> | → | [aco] |
| <i>txoko</i> | → | [šoko] |

gure sistema, bere sisteman sartu nahiz...

Alderantziz, lanak ere izango ditu gaztelaniazko erdaldunak:

| | | |
|------------------|---|------------|
| <i>zakurra</i> | = | [θakũra] |
| <i>goxo</i> | = | [gočo] |
| <i>abertzale</i> | = | [abẽřčale] |
| <i>atso</i> | = | [ačo] |
| <i>hotza</i> | = | [oθa] |

eta abar.

Euskara irakasten ari direnek badakite ongi honen berririk:

«La adaptación se produce por *sub-diferenciación*: oposiciones *distintivas* en la lengua de origen, se pierden en la receptora» dio Mitxelena (F. L.V. 17, 187). Oso adibide argitsuak dau-de honi buruz *Languages in Contact* liburuan (U. Weinreich).

Zailena, ordea, hau baita: jatorrizko fonologi-sistema ikasleak ahaztu, eta sistema edo *egitura fonologiko* berrian murgiltzea. Fonetikazko ñabardurak askoz ere beranduagoko utziz, jakina. Ingeleseko bokale-egituraren aurrean egin behar den bezalaxe.

8.2.2. Jakina: erdaraz ikastean, arazo berberak (baina alderantzizkoak) topatzen ditu euskaldunak.

Gaztelaniazko hitza ahoskatzean, [θ] hortzartekoa esan ezin, eta [s] esaten du:

| | | |
|------------------|---|-----------------------------|
| <i>qué dices</i> | = | [ke đises] (edo [ke đises]) |
| <i>carroza</i> | = | [kařosa] (eta ez [kařoθa]) |
| <i>catorce</i> | = | [katõře] (edo [katõřce]) |

Eta, antzerako koskak ere, frantsesezkoak esatean:

gazon = [gasó] (eta ez [gazó])
jour = [yũr] (edo [yũR], baina ezin [žũR])
âgé = [ažé] esan beharrean, [ayé] edo [ašé]

Eta mila aldiz abar...

8.3. Lehendabiziko datu bat: zein dira sei fonema hauen maiztasunak?

E. Biritxinagaren arauera, hauek dira (Euskara Batuzko 100.000 grafemari buruz):

8.3.1. Hitz-haseran:

| | | | |
|------|-------|------|------|
| [s—] | = 859 | [c—] | = 0 |
| [ś—] | = 337 | [ć—] | = 0 |
| [š—] | = 18 | [č—] | = 54 |

Hitz batez: hitz-haseran neutralizazio nabarmen bat dago *frika-rien* alde; nahiz [š] / [č] bikotean, afrikatua nagusitu (eta ez euskalki guztietan, jakina).

8.3.2. Hitz-bukaeran:

| | | | |
|------|-------|------|-------|
| [—s] | = 745 | [—c] | = 105 |
| [—ś] | = 36 | [—ć] | = 24 |
| [—š] | = 0 | [—č] | = 0 |

Morfologiazko elementuak kenduz gero (tresnazko —z, laguntzaileen —z arruntak: naiz, haiz, eta abar), nahiz aski nahasia, eskema honetara etor gintezke:

Hitz-bukaeran, eta *lexikoaren* mailan bederen, neutralizazioa *afrikatuaren* alde.

8.3.3. Eta taula hau genuke:

| | | | |
|--------|----------|------------|------------|
| (gaur) | S— | —s— —c— | —c (—s) |
| | Ś— | —ś— —ć— | —ć (—ś) |
| | š— č— | —š— —č— | —č (—š) |

8.3.4. Berehala ikusiko dugunez, distribuzio askoz ere zorrotzagoa izan zen aspaldiko denboretan:

| | | | |
|---------|----|------------|----|
| (lehen) | S— | —s— —c— | —C |
| | Ś— | —ś— —ć— | —Ć |
| | Š— | —š— —č— | —Č |

(gogoan har orain 6.3.3. puntuan emandako taula).

8.3.5. Orain hein batez bakarrik, baina osokiago aspaldiko denboretan, honelako zerbait idatz zitekeen euskal fonologiaz:

$$\frac{\{s, \acute{s}, \check{s}\}}{\{b, d, g\}} = \frac{\{c, \acute{c}, \check{c}\}}{\{p, t, k\}}$$

Eta ekuazio hau oso sakona da, ondoko 13., 14. eta 15. ikaskaietan agertuko denez.

8.3.6. Aurreko puntuan (8.3.4.) eman dugun distribuzio-taula funtsatzea oso erraza da. Mailebu zaharretan ongi ikusten denez, hitz-bukaeran hau dugu:

lat. (txist.) → eusk. (afrik.)

Adibidez:

lat. corpus = eusk. gorputz
opus = opütz (S)
martis = martitz
fortis = bortitz

Bide beretik: akitanieraz, izen batzu afrikatu batez amaitzen ziren, eta ez frikariz. Adibidez: *Bihox*, *Harbelex*, *Belex*, eta abar.

Alderantziz: mailebu zaharretan ere, eta hitz-haseran:

rom. (afrik.) = eusk. (frik.)

Esate baterako:

rom. [ceru] → eusk. [seru]

(mailebu honen garaian *c* grafiko hori afrikaturik ahoskatzen zen.)

Eta honi buruz, hain zuzen, oso hitz interesgarriak izan daitezke *zeru* eta *gurutze*: *zeru* eta *gertu* gonbaratzen badugu, eman dezagun, bistan da *gertu* hitza askoz ere zaharragoa dela; edo, bestela esan, askoz ere aspaldiago hartua zuela euskarak. Eta proba da, hitza hartu zuenean, asimilaketa oraindik ez zela gertatu; eta horregatik [gɛ̞rtu] esaten dela euskaraz; *zeru*, berriz, beranduago hartua da, eta denak adierazten du [kɛ̞rtu] edo honelakoren bat entzuten zutela euskaldunek; alegia, *afrikatu bat*. Hala ere, afrikatu hori *frikari* bihurtu zuten, lehen esandako taulan emandako arrazoen araueraz.

Baina *cruce*, berriz, [k̞ruce] asimilatu ondoren, hor gelditu da euskaraz [k̞ruce] edo [guruce]; eta beraz, *bokaleen artean* hor gelditu zaigu *afrikatua*, bere hartan.

Honek erakusten duenez, lehen emandako taulak egia adierazten du, aintzinako mendei buruz, gutxienez.

8.3.7. Salbuespen batzu badaude, dena dela:

tziauri hunat!, BN = zatoz hona!
gizon tzarra da (= gaiztoa)

Eta beste asko, (c)-ri dagokionez, gutxienez hiru euskalkitan:

- a) *Gipuzkeraz* eta *bizkaieraz* normala da *tx*—: *txakur*, *txoko*, *txori*...
- b) *Zuberaraz* lege orokorrik ez dago. Batzutan *tx*—: *txapel*, *txakür*, *tximinia*, *tximino*, *txipi*, *txori*; bestetan, berriz, *x*—: *xilo*, *xahal*, *xabu*, *xede*.

Gainerako euskalkietan, eta joera jeneralaren arauera, hitz-haseran *frikaria* dago beti; eta sekula ez afrikatua.

Eskema honen alde agertu zen Euskaltzaindian 1968ko biltzarrean; baina geroztik, eta Euskara Batuari buruz, *tx*— hasera ere onartu du.

8.4. Nola jakin / s, ś, š / eta / c, ć, č / hirukoteak *fonema* direla?

Konmutazio bidez, beti bezala.

Euskalkirik *gehienetan* (baina ez gaurko bizkaieraz, eta ezta Beterriko gipuzkeraz ere), balio *fonologikoa* dute fonema horien arteko oposizioek. Adibidez:

| | | |
|--------|---|---------|
| hotza | ≠ | hotsa |
| atzo | ≠ | atso |
| ezker | ≠ | esker |
| hitza | ≠ | hitsa |
| hezi | ≠ | hesi |
| oso | ≠ | otso |
| (h)ezi | ≠ | etzi |
| (h)esi | ≠ | etsi |
| aza | ≠ | (h)atza |
| sagu | ≠ | xagu |

eta abar, eta abar.

Bi oposizio motek:

| | | |
|----------------------|-----------|----------|
| frikari | ≠ | afrikatu |
| frikarien artekoek: | s ≠ ś ≠ š | |
| afrikarien artekoek: | c ≠ ć ≠ č | |

balio fonologikoa dute; eta oposizioa maiz erabiltzen da.

Beraz, hau idatz dezakegu:

| | | | |
|-------|---|---|--------------|
| s | ś | š | (frikariak) |
| <hr/> | | | |
| c | ć | č | (afrikatuak) |

Sei fonema hauek izatea gutxitan gertatzen da munduko hizkuntzetan.

8.5. Zein balio *fonetiko* dute?

8.5.1. Bizkaieraz bi neutralizazio ditugu gaur:

| | | | | |
|----|---|----|---|-----|
| z | = | s | = | [ś] |
| tz | = | ts | = | [c] |

Bi soinu galdu dira, horretaz: [s] eta [ć]. Bizkaieraz, beraz, nahasketa batzu sortu dira:

hotza = *hotsa* = [oca]
atzo = *atso* = [aco]
ezker = *esker* = [eškeř]
hezi = *hesi* = [eši]

eta abar.

Eta korrelazioa apurtu egin da:

$$\frac{\quad}{c} = \frac{\acute{s}}{\quad} = \frac{\check{s}}{\check{c}}$$

8.5.2. Erronkarieraz, bestetik, hau gertatu zen:

$z = [\theta]$

(gaztelaniaz bezala, horretaz).

8.5.3. Baztango euskaraz (ikus Amado Alonso-ren «Consonantes de timbre sibilante en el dialecto Vasco baztanés», 1922, III. Congr. de Est, Vascos) berezitasun batzu badira; kontsonantearen tinbrea, A. Alonso-ren ustez, aldatu egiten delako.

8.5.4. Normalean, dena dela, honela defini daitezke:

[s] = frikari, gor, bizkar-albeolarea (frantsesezko *ss* antzekoa)

[c] = berorren kide afrikatua

[ś] = frikari, gor, apikal-albeolarea (gazteen artean, bederen, eta Mendebaldeko euskalkietan; eta gaztelaniazko *s*-ren antzekoa)

[ć] = berorren kide afrikatua

[š] = frikari, gor bizkar-sabaikaria (artikulazio-puntuaz, gorago, baina frantsesezko *ch*-ren antzekoa)

[č] = berorren kide afrikatua (eta gaztelaniazko *ch*-ren antzekoa).

Ahoskera *antzekoa* idatzi dugu behin eta berriz; ondoko erdarekiko diferentziak oso nabarmenak direlako.

Gauza harrigarria da, dena dela, [ś] goiko hori (retroflexua, [ʂ], funtsean) hain zuzen ere euskal sustratua dagoen erdara motetan, hain zuzen, agertzea; edo beroien ondoan bertan: «prononciation commune à toute l'Espagne du Nord et du Centre, au Pays Basque, à la Gascogne, et au Languedoc», zion Gavel-ek (RIEV, 1933, 693).

Amado Alonso-k azalpen argitsuak ditu:

- a) Frantsesen ustez, gaztelaniazko [ś], frantsesezko [s] eta [ʂ] soinuen erditsuan dago:

fr. [s] < gazt. [ś] < fr. [ʂ]

- b) Espaiñolen artean, berriz, euskal [ś] hori, beren [ś]-aren eta frantses [ʂ]-aren artekotzat jotzen da (Consonantes, 59).


Hitz batez:

fr. [s] < gazt. [ś] < eusk. [ś] < fr. [ʂ]

Iritzi berekoa zen Azkue: «la articulación de *s* es *más interna*; casi palatalizada hacia Hasparren» (F.V., 458); eta ozendurik [ż] entzun uste zuen Zuberoa aldera.

- 8.5.5. Euskal txistukarien artikulakerak, beraz, irudi hauen arauera-koak dira, gutxi gora-behera:


36.ir.



[s]

(Larrasquet, 28)


37.ir.



[s]

J. Thomas


38.ir.



[ʂ]

(Larrasquet, 29)

39.ir.



[ʂ]

retroflexua


(ik. J. Thomas)

(Larrasquet-ek aipatzen duen *palatal* delakoa)

(ahoskera *moderna*: apikal-albeolarea;

ahoskera *zabarra*: retroflexua.)

39 bis.ir.




[š]

(= apiko - albeolarea)

(gaztelaniazkoa)

(J. Thomas)


40.ir.



[š]

(Larrasquet, 34)

41.ir.



[š]

J. Thomas

Edo, garbikiago, beharbada, beste ikertzaileen arauera:

42.ir.



Gure «z» (= [s])
(bizk. aurr. / albeol.)

bizkaierazko [ś] (albeolarea)

43.ir.




Euskaldun zaharren «s»
(= [ʃ])

(apik. / alb. atz.) (= retroflexua)

euskaldun zaharren [ś]
(retroflexua: [ʃ]).

44.ir.



Gure «x» (= [š̥])
(bizk. aurr. / sab. aurr.)

gure x [š] (sabai-aurrekoa.)


Frikaketaren luzera, hemen ongi ikus daitekeenez,

z eta x soinetan (= [s] eta [š]) *luzea* da (= *distributed*)
s soinuan, berriz, (= [s̥]) *laburra* da (= *non distributed*.)

14. ikaskaian egingo den sailkatze-lanean, oso garrantzitsua izango da hau, gure s eta z bereztekotan.

Era berean, *sabai-aurrekoek* [š, ž, č] eta *sabaikariak* [l̥, ŋ̥, t̥, d̥] dituzten artikulazio-puntuaren desberdintasuna, diagrama hauetan ikus daiteke:

45.ir.



Bizkar - aurreko
sabai - aurrekoak
(J. Thomas -en arauera)

46.ir.




Sabaikariak
(= bizkar-sbk.)
(J. Thomas -en arauera)

Beharbada *hiru afrikatu*en artean, ([c], [ć] eta [č]), ikus daiteke garbikiarik artikulazio-moduen desberdintasuna

47.ir.


48.ir.

49.ir.




[c]

(Larrasquet, 66)



[ć]

(Larrasquet, 64)



[č]

(Larrasquet, 65)

Larrasquet-en palatograma hauetan ezin garbikiago ageri da:

- 1) [c] (= *tz*) fonemaren ahoskera horzkaría.
- 2) [ć] (= *ts*) fonemaren izari retroflexua (zubereraz gutxieenez; palatograma hauek zuberera baitute oinarri).
- 3) [č] (= *tx*) fonemaren sabai-ukieraren zabala.

Baina, honetaraz gero, ohar fonetiko batzu egin behar dira; euskalkitik euskalkira dauden desberdintasun nagusiak agerrereziz.

8.5.5.1. z [s]

Bizkai aldera joz gero, artikulazio puntua *igo* egiten da; eta honetxek azaltzen du hain zuzen, *z* eta *s* (euskalki honetan eta ondokoetan) gero eta nahasiago egotea.

Hona hemen [s] honen ahoskerari buruz hiru datu:

- a) (gipuzkeraz): «predorsal, postdental, fricativa, sorda» (Navarro Tomás, P.G., 612). «Los rasgos esenciales de la articulación de este sonido son análogos a los de la *s* normal andaluza; la cual, como es sabido, no es distinta de la francesa, italiana, etc.» (Navarro Tomás).

- b) (bizkaieraz): «Mis sujetos no hicieron distinción entre la *s* y la *z*. El sonido *único* correspondiente en su pronunciación, era el de una *s* semejante a la castellana; pero más abierta que ésta, por lo que se refiere a la estrechez apicoalveolar, y un poco más mojada o palatalizada, por lo que se refiere a la posición del *dorso* de la lengua (P.V., 52).

Hitz batez: bizkaieraz *gorago* artikulatzen da [s]; eta, beraz, [s̺]-ren ahoskerarekin nahasten.

- c) (zubereraz): «dentale, fricative, sourde, de même nuance *purement sifflante* que le *s* français des régions septentrionales» (Action, 44; Larrasquet).
- d) Bide beretik, Mitxelenak ere: «dorso alveolar pronunciada con lengua baja» (F.H.V., 279).

Hitz batez, [s] soinu hau *bizkarkaria* da («dorsal»); eta *alveolarea* da, nahiz mihi-puntak beheko hortzak ikutu. Hitz batez, frantsesezko *s*—, *c*— eta —*ss*— grafiei dagokien [s] soinuaren kide hertsia da (*bizkaieraz urrundu* bada ere).

Artikulazio-moduari dagokionez, aski da ahoaren ebaketa ikustea (8.5.5.) *frikaketa luzeko* soinua dela erreparatzeko.

8.5.5.2. *tz* [c]

Ahosketa oso gutxi aldatzen da euskalkietan barrena. Denetan, alemanezko *tz* afrikatuaren kide hertsia da (baita bizkaieraz ere). Beraz, «predorsal, postdental, africada, sorda» (Navarro Tomás, P.G., 618). Navarro Tomás-ek eta Larrasquet-ek (S) aurkeztu dituzten palatogramak erabat antzekoak dira.

8.5.5.3. *s* [s̺]


Soinu honetan ditugun arazorik handienak:

- a) (gipuzkeraz): «*apico-alveolar*, fricativa, sorda» (P.G., 610). Larrasquet-ek eta Navarro Tomás-ek aurkeztu dizkiguten palatogramak dena dela, antzekoak dira; nahiz zubereraz, behin eta berriz esan dugunez, artikulazio-puntua *gorago* egon, gipuzkeraz baino.

- b) Hain zuzen ere, Larrasquet-ek zubererazko [ʃ]-ari buruz eman duen deskribaketak ez du zalantza izpirik utzi: «la langue s'appuie dans les molaires supérieures; la pointe se soulève, et se reporte en arrière vers le sommet du palais» (Action, 44). Hitz batez, zubereraz *retroflexua* da [ʃ] soinua (berak eta Lafon-ek *palatale* diote).

Hots, hona hemen Malmberg fonetikariaren diagrama hau (konsonante retroflexuei buruz):


50.ir.



Retroflexuak
(Malmberg -en arauera)

Edo O'Connor-en beste hau:

51.ir.



Retroflexuak
[r̥]
(O'Connor-en arauera)

Mihia *atzera* doa, eta oso *goian* uzten du airearen zirrikitua.

Hots, gainerako euskalkietan, zer? Alde batetik, edonork egin dezakeen ohar hau:

Gipuzkoan bertan ere, eta edonoren eritziz, zaharrek ez dute s guk bezala ahoskatzen: askoz bigunago egiten dute (askoz gorago, retroflexua denez). «Ahoskera orain aldatu da», esan digute nonahi.

Mitxelena, halere, honela definitzen du [ś] soinua: «apico-alveolar». Nahiz honetan Lafon-ekin batera ez etorri: «apico-palatale» (Lafon).

Amado Alonso-ren iritziak, dena dela, izari *retroflexu* honen alde mintzo da: «los franceses que desconocen la s vasca, oyen la s castellana como intermedia entre la s fr. y la ch fr. Y los españoles perciben la s norteña como equidistante entre su s y la ch francesa» (Amado Alonso, Vasco Baztanés, 58. orr). Nahiz gero, definitzerakoan, hau esan: «fricativa, sorda, *alveolar* y apical» (V.B., 59).

Gure [ś] (= s), hitz batez, edo *retroflexua* da, eta oso goikoa; edo, *gutxienez, hortz-atzekoa da*.

Belarriari dagokionez (8.5.4.):

gast. s < eusk. s < fr. ch

Hau dela-ta, euskal sustratua duten erdaretan, aldakuntza hauek ditugu oso maiz:

eusk. [ś] → erd. [č]

Nafarroan, adibidez:

senda = eusk. *txenda* (AN, Elozegi, Cuad. Etn., 24)

eus. asun = *achun*, Eslava, Naf. (Reta).

Ana Mari Etxaidek (F.L.V. 25, 72) ematen duen iritzia, bide beretik doa: «(en la Barranka) la s es algo *más mojada* que la del español» (hitzez: artikulazio-puntua gorago).


8.5.5.4. ts [ć]

(8.5.5.) puntuan agertutako palatogramak aski da [ć] soinua retroflexua dela (edo izan dela, gutxienez) ikusteko.

Navarro Tomás-en ustez: «africada, apical, *alveolar*, sorda» (Pron. Guip.). Artikulazio-puntua begien aurrean ari da *jeisten* (retroflexu izatetik, hortz-atzekoa izatera datxekion beheratza-pena); eta «zaharrek beste modu batera esaten zuten soinu hau» entzuten dugu non-nahi.

Larrasquet-en palatogramak zalantza-izpirik ez du uzten:

52.ir.



[č]

(Larrasquet, 64)

eta eman duen deskribapenak ere ez: «mi-occlusive *palatale* sourde». «La langue touche les bords de la moitié postérieure du palais. Son extrémité *se replie en haut et en arrière, jusqu'au sommet* de la bouche» (Larrasquet, Action, 59).

8.5.5.5. *x* [š]

Soinu honi buruz desberdintasun handirik ez dago; nahiz, berriro ere, artikulazio puntua piskanaka *aurreruntz* joan.

«*Predorsal, alveolo-palatal, fricativa, sorda*», dio Navarro Tomás-ek (ikus 8.5.5. puntuko irudiak).

8.5.5.6. *tx* [č]

«*Predorsal, alveolo-palatal, africada, sorda*» (Navarro Tomás, 621).

«La [č] guipuzcoana da un *timbre más grave* que el que representa normalmente el sonido español» (N.T., 621). Hots, aski da *mucho* hitza euskaldun ahotan entzutea, euskal [č] soinua, gaztelaniazko [č] soinua baino atzerago eta *sabaikariago* dela erreparatzeko.

- 8.5.5.7. Balantzea eginez: [s] / [š] eta [c] / [č], frikaketa *luzeko* frikariak dira. Lehenengoak osoki *horzkariak*, eta bigarrenak osoki *sabaikariak*. Hau oso kontutan hartu behar dugu 14. ikaskaia irakurtzean.

[š] / [č] soinuak, berriz, frikaketa *motzekoak* dira (erabat apikalak eta mihi-puntazkoak). Artikulazio-puntuaz, berriz, hau esan daiteke: *retroflexuak* izan direla oraintsu arte (ez bizkaieraz, gaur bederen); eta artikulazio-puntuaren *beberatzapena* gertatzen ari dela begien aurrean (beste fonema batzurekin bezala, eta /l/ batez ere).

- 8.5.6. Euskal [ś] (= s), eta ondoko erdaren s, gauza bera ez direla garbi agertzen da mailebuetan:

| | | |
|---------------|---|-------------|
| lat. causa | = | eusk. gauza |
| esp. signo | = | zeinu |
| erd. sopa | = | zopa |
| lat. solu | = | zoru |
| lat. spata | = | expata |
| lat. castelli | = | gatzelu |

Baita berriagoetan ere:

| | | |
|-----------|---|------------|
| erd. saco | = | eusk. zaku |
|-----------|---|------------|

Baina ez beti, dena dela:

| | | |
|------------|---|--------------|
| esp. santo | = | eusk. saindu |
| sonido | = | soinu |

Zer gertatzen da hitz berean bi txistukari elkarren ondoan gertatzen direnean?

- 8.6. *Normalean* (nahiz ez beti: hitz-elkartu berria denean, esate baterako) *asimilaketa* burutzen da; eta horretan, artikulazio-punturik *gorena* nagusitzen zaio besteari. Adibidez:

| | |
|---------------|-------------------------------------|
| erd. francés | → eusk. <i>frantses</i> (<*franceś) |
| erd. incienso | → <i>intsentsu</i> (<*incenću) |
| zin-etsi | → <i>sinetsi</i> (<*sineći) |
| erd. solaz | → <i>solas</i> (<*śolas) |
| erd. sazón | → <i>sasoi</i> (<*śasoi) |
| chanza | → <i>txantxetan</i> (<*čancetan) |
| eltze + itsu | → <i>eltxetxu</i> (<elceǰu) |
| deuts + zu | → <i>deutsu</i> |
| nakus + zu | → <i>nakutsu</i> |
| diots + zut | → <i>diotsut</i> |

8.6.1. Hitz zaharretan asimilaketa buruturik agertzen zaigu:

zazpi (edo *saspi*)
zortzi
izotz
zozo
zotz
marzuza (edo *masusta*)
zotz (edo *txotx*)
sits
itsusi
sabets

eta beste anitz.

8.7. Zein dira *neutralizazio* nagusiak sail honetan?

8.7.1. *Sonanteen* ondoko frikariak, *afrikatu* egiten dira (l—, r—, n—ren ondoan):

| | |
|-------------|------------------------|
| erd. salsa | → eusk. <i>saltsa</i> |
| calza | → <i>galtza</i> |
| falso | → <i>faltsu</i> |
| pensar | → <i>pentsatu</i> |
| verso | → <i>bertso</i> |
| alzar | → <i>altxatu</i> |
| incienso | → <i>intsentsu</i> |
| universidad | → <i>unibertsitate</i> |

8.7.1.1. Gauza bera euskal jatorrizko hitzetan:

jainkosa; baina *artzaintsa*
bear + zana → *beartzana*

Baina ez beti Ekialdeko euskalkietan:

Mendeb. -asun = S. -*arzün*
(afrikaziorik gabe; *onbárzün*, *buntárzün*, etabar).
Mendeb. uso = S. *ürzo*; Sal., R., *urzo*
Sal., R., *garagarzaro* = Aezk., *garagartzaro*
Sal., R., *orzegun* = Aezk., *ortzegun*
c. este = Aezk. Sal., ertze = R., *erze*

8.7.1.2. Afrikatzeko joera hau bizirik dago euskaldunen artean: «la pronunciación de las sibilantes en vasco es *africada* después de *n*, *l*, *r*» (Orio, Ana M. Etxaide, 60).

Adibidez:

descanso → *deskantsu*, Mark., 47
calzoncillo → *kantzontzillo*, Mark., 50
cáncer → *kantzerra*, Mark., 73
dulzura → *dultzurie*, Mark., 39
fr. merci → G., B., L., *mertxi*
dispensa → S., *dispentsa*
pensar → S., *phentsátü*
falso → S., *fáltsü*

Ortografiak izkutatu egiten du afrikazioa. Gaur bertan:

Guesaltza / *Aránzazu*

(Ierro hauek idazten ditudan eskualde honetan). Eta, honen arauera, *normalago* da afrikazioa ahozko hizkeran ortografia ofizialetan dirudien baino.

8.7.1.3. *Kanpo-sandbiz* ere, afrikazioa da normalena Mendebaldeko euskalkietan:

jartzak bazkârie, G., Ataun, J. M. B.
izkutu *ementzan*, G., Ataun, J. M. B.

etxea *nun tzeôn altzêkiñ*, G., Ataun, J. M. B.
 nork *iltzûn* nê anaie, G., Ataun, J. M. B.
 kanpoa *ementzeaman*, G., Ataun, J. M. B.
altzuen bezela, G., Oiartzun, J. M. B.
antziyak, G., Oiartzun

(Baita Antigu-ko piragu baten izena ere: *Antziyak*, 1950 inguruan.)

esaten *tzûn*, AN, Intza, Elozegi
 mercero → *mertzero*, AN
 balancear → *balantzatu*, AN (Euskera 1967)
 nor *tzarean*, B., Añib., Esk. 1, 27
 il *tzanari*, B., Añib., 119
 egin *tzan*, B., Añib., 119
 erd. corsé = G. *kortse*, Txirr., 269
 alá *iltze* ura = AN., J. Liz., Matr. 90
errantzio Trinik = AN., Mezkiritz, F.L.V. 32,
 338
 fan + jin = Aezk., *fantxinean*, Azkue
 galde egin nio *zertzuen*, AN., F.L.V. 31, 173
 ez dakit zer *intzuen*, AN., F.L.V., 173
 juan *beartzue*, AN, F.L.V., 31, 73
izentze arroitu bat, AN., F.L.V., 31, 175
 ona *izaintze*, AN., F.L.V., 31, 175
egontze, AN., F.L.V., 31, 175

Eta Iturzaeta azpeitiarrak dudarik gabe parekatu zituen hauek:
 ditzan / zebiltzan / zitzan / bizitzan / *iltzan*, 54.

8.7.2. Alderantziz: leherkarien aurreko afrikatuak, *frikari* bihurtzen dira:

hotz → *hoztu*
 mingots → *mingostu*
 huts → *bustu*
 zorrotz → *zorrotzu*
 Zarautz → *zarauztar*

| | | |
|---------|---|-----------------------|
| balitz | → | <i>balizko ola...</i> |
| hitz | → | <i>hizpide</i> |
| hitz | → | <i>bizkuntza</i> |
| mahats | → | <i>mabasti</i> |
| urrats | → | <i>urraspide</i> |
| garratz | → | <i>garrazki</i> |
| Auritz | → | <i>Aurizperri</i> |
| hots | → | <i>hoska</i> |
| erakuts | → | <i>erakusten</i> |

Eta beste mila. *Hitzcuntza* eta antzekoak, sasi-jakintsukeriak dira. *Aitzgorri* beraz, [a₁iskō₁ri] da = *Haizkorri*.

8.7.3. Bi frikarik *afrikatua* sortzen dute; eta beronen artikulazio-puntua, haien arteko *gorena* da:

[eś] [žakjat] → [ečakjat], B.
[eś] [žacu] → [ečacu], B.

Barrutiaren adibide honetan argiro ikus daitekeenez:

falta *bajat* saria
echat falta naia, Barrutia, 435.

Edo Arrizabalaga-ren honetan:

B., etxaukat bildurrik, Mark., 16.

Edo Lizarragaren:

AN., ez jakinez → *echaquines*

Alegia:

AN., [es] [šakineś] → [ečakineś]

Eta bide betetik, aezkeraz (eta Elkano-n):

[apes] [šauna] → [apečauna] (ikus 12.5.1.)

8.7.3.1. Bizkaieraz, erronkarieraz, Altsasu-ko euskalkiaz, eta agian, beste nonbait, hirugarren pertsonaren marka Ø— da; eta ez z—. Eta afrikaziorik ez da gertatzen ukazioetan:

B., *ezan*, Mark., 22, 24, 40

B., *ezien* makalak, Mark., 45

R., *ezakein*, *ezakezein*, *ezakizun*, *ezein* (= ez zuten), etabar. (Ikus K. Izagirre).

8.8. *Txistukari* + *txetxekari* hauek, esana dagoenez, *gorrak* dira euskaraz eskuarki. Zenbait euskalkitan, ordea, soinu *ozenak* ere entzun daitezke.

8.8.1. Kostaldeko bizkaieraz, adibidez, maiz xamar dugu [ž]: frikari, sabaikari, ozena (frantsesezko *j* gutxi gora-behera; nahiz, euskaraz, *bustiago*). Adibidez:

jan = [žan]

jauna = [žauna]

jarri = [žarri] (*ezarri* ez esatekotan, bederen...)

Soinu bera entzuten da zubereraz (/j/ fonema ahoskatzean):

jin = [žin]

jauzi = [žaŋsi]

8.8.2. Afrikatu *ozenak* ez dira sekula entzuten, onomatopeietan-edo ez bada:

dzart = [dzařt]

dza = [dza]

edo Azkuek seinalatu duen hori:

udsa = [udža] (beharbada, [uža], gero ikusiko denez).

8.8.3. Zubereraz, eta eragin erromanikoaz, dirudienez, hau gertatzen da maiz:

$$\left\{ \begin{array}{c} s \\ s' \\ š \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} z \\ ž \\ ž' \end{array} \right\} \quad / \quad V - V$$

deusik → [deuʒik]
 kasik → [kaʒik]
 kaserna → [kaʒeɾna]

Joera hau ez da batere euskalduna; hizkuntza erromanikoen azterketak ongi erakuts dezakeenez.

8.8.4. Sudurkarien aurretik, alderantziz, eta *automatikoki*, ozendu egi-ten dira [s, ś, š] soinuak:

asmo = [aʒmo]
 esne = [eʒne]

Gaztelaniaz ere fenomeno bera gertatzen da:

asno = [aʒno]

8.8.4.1. Normalean, aldiz, eta eskuin aldeko *leherkari ozenei* dagokienez, asimilazio *aurrerakariak* eskatzen duen arauera, *gortu* egin ohi dira leherkariak:

ez dakit = [estakit]
 ez gara = [eskara]
 ez badator = [espaɗatoɾ]

Zenbait euskalkitan halere, eta ahoskera laxatuan, ozendu egin daiteke txistukaria:

hats bat = [haʒbat] (Larrasquet, Action, 44).

Normalena, dena dela, leherkariaren gorketa da (Gavel, Mitxelena, Holmer etabar).

IX KAPITULUA

EUSKAL ALBOKOAK

- 9.1. Euskal fonema *albokoak* bi dira, jakina denez; Euskaltzaindiaren arauerako ortografiaz *l* idazten dena, bata (eskuarki apikal-albeolarea, nahiz hau zehaztu beharrekoa izan); eta ortografia hone-
txen arauera *ll* idazten dena (eskuarki: sabaikaria).

Normalean *ozenak dira* biak; nahiz *plaza* hitzean, esate baterako, salbuespenez, *l* hori gorra izan.

- 9.2. Bi fonema ditugu, eta ez fonema beraren bi aldaki. Adibidez:

G., olo \neq ollo
G., zala (= zela) \neq zalla (= zaila)
labur \neq llabur (= laburtxo)

- 9.2.1. Euskalki batzutan, dena dela, *il* multzoaren ondorioz sortzen da [ɭ] soinua. Hau beti horrela balitz, fonema bakar baten ahoskera desberdin pare bat izango genuke; [ɲ] eta [ŋ] /n/ fonemaren ahoskera bereziak diren bezala.

Zenbait kasutan, dena dela, [ɭ] soinu hori ez dator *il* multzotik; eta [l] soinuaz konmutazio eginez, bi hitz desberdin sortzen dira.

ll ortografi grafema, hitz batez, bustidura *automatiko* baten ondorio ez denean, beharrezkotzat jo behar da:

llabur (eta ez **ilabur*).

Nahiz, egia esan, grafema hau, Euskara Batuan, oso bakan agertu.

9.3. Distribuzioari dagokionez, biak aurki daitezke hitz-barruan; biak ere hitz-haseran (nahiz /ll/ foneman oso gutxitan agertu); eta biak ere (zenbait euskalkitan, baina ez Euskara Batuan), hitz-bukaeran:

G., [i̯] = Eusk. Bat., *hil*

9.4. Bi fonemen ahoskerari dagokionez, irizkide datoz ia fonetikari guztiak (*ia* hori ondoko lerroetan ulertuko da).


Hona hemen Navarro Tomás-en iritzia: «la articulación de la *l* se forma como la de la *n* inicial, en la *parte anterior de los alveolos*, sin llegar a los dientes... En contacto con las dentales *t*, *d*, el punto de articulación de la *l* *avanza* hasta los dientes» (Pron. Guip., 629). Adibidez:

bildur = [bi̯ld̪ur]

Eta /ll/ fonemaren ahoskerari buruz, berriz; «como en español, *dorso-palatal*, lateral sonora» (P. G., 630), «con una huella análoga a las de los sonidos [t̪], [d̪], [ŋ]».

Eta, ohizko eskemen arauera:


53.ir.



[l̪]

horzkaria

54.ir.



[l]

albeolarea

55.ir.



[ɭ]

retroflexua (bakanka)

56.ir.



[l]

sabaikaria

Hona hemen orain, Mitxelenaren iritzia:

/l/: «La pronunciación de /l/ es normalmente *apical*, pero parece haber trazas de que modernamente se realiza como *velar*, en posición implosiva, en alguna zona suletina» (F.H.V., 311).

Bigarren argitaraketan, dena dela, pitin bat aldatu bide du bere iritzia; eta Kilburn McMurraugh-en esanak kontutan hartuz, ahoskera retroflexua ere, «*realización excepcional*» gisa bederen, ontzat emateko gertu bide dago (baita maizago ere).

- 9.4.1. Larrasquet-en ikerlanak, ordea, zubererari buruz bederen, beste zerbait idarokitzen zuen; eta [s] ahoskerarekin batera, artikulazio-puntuaren *aintzinaketa diakroniko* baten aurrean gaudela dirudi.


Hona, aurretik, Larrasquet-en hitzak:

/l/: «plus palatale que le *l* française» (Action, 38).

Eta palatogramak indartu egiten du inpresio hau.


Hona hemen, Larrasquet-en arauera, [l] eta [ć] soinuen palatogramak

57.ir.



[l]
(Larrasquet, 15)

58.ir.



[ç]
(Larrasquet, 64)


[ç]-ren artikulazioa retroflexuagoa bada ere [l]-ren marka oso goikoa da.

McMurraugh-en irizpideak, hitz batez, bere oinarri objetiboa ere badu; nahiz gaur [l]-ren ahoskera, normalean, *alveolarea* izan; gaztelaniaz bezala.

9.4.2. /ll/-ri buruz, berriz, gaztelaniazko eta euskarazko bi soinuek, oso palatograma antzekoak ematen dituzte.


Hona hemen Larrasquet-en palatogramak:

59.ir.



[l]
(Larrasquet, 17)
(Zubereraz)

60.ir.



[l]
(Larrasquet, 17)
(gaztelaniaz)

9.5. /n/ fonemarekin bezalatsu, fenomeno anitzek idarokitzen du (/l/ fonemari dagokionez) euskarak bi /l/ izan dituela: azkarra bata, Mitxelenak *L* bataiatua; eta ahula bestea, *l* erorkorra edo aldakorra.

9.5.1. Latinetikako mailebuetan, esate baterako, oso bilakabide desberdinak izan dituzte lat. *l*— eta lat. —*l*— (hitz haserako *l*, hitz batez, eta bokale artekoa). Esate baterako:

| | | |
|------------------|---|-------------------|
| lat. <i>lege</i> | = | eusk. <i>lege</i> |
| lino | = | <i>libo, liñu</i> |
| lacu | = | <i>laku</i> |
| locu | = | <i>leku</i> |
| libru | = | <i>liburu</i> |
| lucanica | = | <i>lukainka</i> |

eta abar. (Gogoan har *ni* → *in* metatesia, 7. ikaskaian ere aipatua).

Baina honatx beste hau:

| | | |
|------------------------|---|-------------------------|
| lat. <i>maledicere</i> | = | eusk. <i>madarikatu</i> |
| coelu | = | <i>zeru</i> |
| solu | = | <i>zoru</i> |
| vigilare | = | <i>begiratu</i> |
| colu | = | <i>goru</i> |
| gula | = | <i>gura</i> |

Beraz:

| | | |
|------------------|---|-------------------|
| lat. <i>l</i> — | = | eusk. <i>l</i> — |
| lat. <i>VI V</i> | = | eusk. <i>Vr V</i> |

9.5.2. Jakina: mailebu berriago askotan ere, joera berak ikusten dira. Eta fenomeno bera euskararen diakronian ere (zenbait aldiz, euskalkien geografian ageri):

| | | |
|--------|---|----------------|
| Alava | — | <i>Araba</i> |
| Subola | — | <i>Zuberoa</i> |
| ili— | — | <i>iri—</i> |

| | | |
|------------------|---|---|
| —lat | — | —ra(t) |
| belu | — | <i>berandu</i> |
| olio | — | <i>orio</i> |
| solo | — | <i>soro</i> |
| artzanola, Aezk. | — | <i>artzanora</i> , Sal., R. |
| Mendilibarri | — | (<i>que también se documenta Mendilibarri</i> , Cuad. Et., 26. Irigarai) |
| colosti | — | <i>corosti</i> (Nafarroan bilduak biak, C. Et., 18) |

9.5.3. Inplosiotan, batez ere, joera oso bizia dago gaur bertan ere edarazko *l, r* bihurtzeko:

Olcea = *Orcea* (Obanos, Cuad. Et., 23)
mordatu, G., Iturzaeta, 108
remorque, G., Ana M. Etxaide, 52
kurpitu, G., (normala)
karkulaziyo, G., Txirrita, 236
 (baina baita *garkulatu* eta antzekoak, Iparraldean ere)
arkilatu, Zak., 74
komurgatu, G., Iturz., 129 (eta beste anitz)

9.5.4. Hots, latinezko (l) geminatuak (= ll), [l] eman du euskaraz:

| | | |
|------------------|---|---------------------|
| lat. castelli(m) | — | eus. <i>gaxtelu</i> |
| cella | — | <i>gela</i> |
| cupella | — | <i>kupela</i> |
| sella | — | <i>zela</i> |
| ballena | — | <i>bale(a)</i> |

Gure *L hori (azkarra) eta latinezko (edo erromantzezko) ll antzekoak balira bezala:

| | | |
|--------------|---|------------------------------|
| erd. Gallués | — | eus. <i>Galoze</i> |
| Gallarta | — | <i>Gal(h)arreta</i> |
| llanto | — | G., <i>lantu</i> , Alz., 50. |

9.5.5. Eta, bestaldetik, gure (l) azkar horrek antz handia du, funtsean, *leberkari ozenekin*: (n)-rekin, batetik; eta (d)-rekin, bestetik:

9.5.5.1. Alde batetik:

n— = l— (ikus 7.8.2.)

9.5.5.2. Eta, bestetik:

l— = d—

Bai bokale artean:

B., edur = c., *el(h)ur*

B., zidar = c., *zil(h)ar*

B., bedar = c., *bel(h)ar* (ikus S., *bedátse*)

Bai, areago, hitz-haseran:

erd., divertir(se) = eusk., *libertitu*

diferencia = *liferentzia*

disciplina = *lizifrina*

danger = *lanjer*

Decazarra = *Lecazarra* (Obanos, 9., Begiristain)

dejar = G., *laga, lajatu* (nahiz *laisser* ere hor egon).

[l] hau (< * L) *leberkari* gisa definitzeko beharra argituz (ikus 14. ikaskaia, batez ere), eta beste [l] ahula (< * l) *frikari* gisa edo definituz.

9.5.5.3. Bokale artean ere, dena dela, maiz entzuten da:

l ↔ d

alternantzia. Adibidez:

presiliatu, G., Iturz., 119; Altz. 41

melarra, G., Urkiol, 194

9.5.6. Hots, gaurko fenomeno hauxe da:

[ɫ] → [d]
 [ilabete] → [iyaβete]
 [olo] → [oyo]
 [langile] → [lanɣiye]

Erdaratik (gazteleratik) kutsatu zaigun *yeismoa*, hitz batez. Eta hau idatz daiteke, aldakuntza horien argigarri:

$$\frac{l}{\downarrow} = \frac{d}{d} = \frac{\text{đ}}{y}$$

9.6. Hots, beste alde batetik, eta esana dugunez:

l ↔ r

Eta hau alde askotatik.

9.6.1. Alde batetik:

erd. l → eusk. r / { k
p
b
g } —

| | | |
|-------------------|---|---|
| erd. <i>pluma</i> | = | eusk. <i>pruma</i> , Lujanbio |
| <i>cumplir</i> | = | <i>konpritu</i> , G., Iturz. 129; Zub., 30 |
| <i>blusa</i> | = | <i>burrusa</i> |
| <i>ombrigo</i> | = | G., Ana M. Etxaide, 52 |
| <i>frequillo</i> | = | G., Ana M. Etxaide, 52 |
| <i>plantarse</i> | = | <i>prantatu</i> (G.) |
| <i>incrusa</i> | = | G., Ana M. Etxaide, 52 |

Eta alderantziz, berdin:

kleitu (< crédito), (baina bakanago)

9.6.2. Beste alde batetik:

eusk. —r V → —l (hitz-elkartetan)

Adibidez:

| | | |
|------------|---|---|
| amore | → | <i>amolsu</i> , AN, J. Liz |
| atari | → | <i>atalarri</i> , G., Ataun, J. M. B. |
| atari | → | <i>atalgain</i> , AN., Leitze, (Azpiroz) |
| sapore | → | <i>sapolsu</i> , AN., J. Liz., F.L.V., 31, 158 |
| abere | → | <i>abelgorri</i> |
| bazkari... | → | <i>bazkaldu...</i> |
| gari | → | <i>galpizar</i> (Eslava, Cuad. Et., 18) |
| gari | → | <i>galale G.</i> , Arrue |
| haizkora | → | <i>haizkolbegi</i> |
| abere | → | <i>abeletxe</i> , B., Eibar |
| euskara | → | <i>Euskal Herria</i> |

Baita mailebu modernoetan ere:

erd., peregrinación = eusk., *pelegrinaziyo*, Err.
110 (eta *Pelleriñenea*,
Donostian).

9.6.2.1. Fenomeno bera euskal izenetan:

| | | |
|-------------|---|----------------------|
| erd., Veral | = | eusk., <i>Berari</i> |
| Roncal | = | <i>Erronkari</i> |
| Bigüezal | = | <i>Bigotzari</i> |
| Igal | = | <i>Igari</i> |

9.7. Bestetik, *muta cum liquida* delakoaren kontrako euskal joera dela-ta, askotan hau dugu:

$$\left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / -l$$

9.7.1. Alde, batetik, morfologian bertan:

bait l— = bail— (*bailitzateke*, *bailekike*, eta
abar)

lehen-bait-lehen = *lenbailen*

9.7.2. Gauza bera mailebuetan:

| | | |
|----------------|---|-----------------------------|
| erd., claro | → | eus., <i>laru</i> |
| clueca | → | <i>loka</i> (monoptongatuz) |
| pluma | → | <i>luma</i> |
| planta | → | <i>landare</i> |
| plano | → | <i>lau</i> |
| planca | → | <i>langa</i> |
| gloria | → | <i>loria</i> |
| lat., placet | → | <i>laket</i> |
| erd., claustro | → | <i>laustro</i> |
| lat., ecclesia | → | <i>eleiza</i> |

9.7.3. Nahiz berriagoetan oposizioa ahuldu bada ere:

| | | |
|-------------|---|--|
| erd., plaza | → | eusk., <i>plaza</i> (eta ez *laza) |
| claramente | → | <i>glaramention</i> (edo- zein bertsolariren- gan) |
| plaindre | → | <i>pleini</i> |

Are metatesi bidez ere:

erd., pulmonía = eusk., *plumoniya*

9.7.4. Halere, gauza bera izan da // fonemarekin:

f → Ø / — 1

Adibidez:

| | |
|--------------|--------------------|
| erd., flamma | eusk., <i>lama</i> |
| flor | <i>lore</i> |
| Florencio | <i>Lorentziyo</i> |

X KAPITULUA

EUSKAL DARDARKARIAK

10.1. Euskaraz (gaurko euskaraz, alegia) *bi fonema dardarkari* ditugu: /r/ eta /rr/. Bi fonema hauen ahoskera, euskalki guztietan (eta zero ez denean, jakina), *apikaria* da: *apikal-albeolarea*.

Iparraldean, dena dela, frantsesarekiko interferentzi bidez, eta jende eskolatuen artean bereziki, [R] dardarkaria ere entzun daiteke; edo-ta [ʁ] frikaria; bi soinu hauek ubulareak dira.

Bi dardarkariak honetara ahoskatzen dira:

61.ir.



[r̄]

Dardarkari apikaria

[f] = [gõri]

62.ir.



[R]

Dardarkari ubularea

[R] = [gõRi]

Nolanahi ere [r̄] ≠ [R] oposizioak ez du inoiz balio fonologikorik:

[bēri] = [beRi]
[ēran] = [eRan]

Bi ahoskera horietan *decir/dire* ulertzen dute denek.

10.2. Bi fonema hauen *distribuzioa* oso ezaguna da.

10.2.1. Hitz-haseran ez dago [r]-rik, ezta [r̄]-rik ere.

Mailebuetan anaptixi bat egiten da eta *a—* edo *e—* eransten da aurretik (nahiz batzutan beste bokaleak agertu ahal izan):

lat., rota = eusk., *errota*
rege = *errege*
gazt., rosario = *arrosario*
radio = *irradi*

Oso hitz berri eta teknikoetan zenbait aldiz *r—* irakurri ahal izaten da.

eusk., *radiografia*
ratio
retroflexu

Anaptixiaren aldeko joera hori euskalki guztietan ematen da, erronkaria salbu:

zagal = R., *repattan*
ubre = R., *rape*

10.2.1.1. Eta, hori dela-ta, eta sustratu gisa, bai kaskoinari, bai (apalkiago) Aragoi-Garaiko hizkerei, joera bera kutsatu die euskarak:

arag., arrier (= reír)
arroy (= roig)
arretundo (= redondo)
arripera (= ribera)

kask., arrat (= rata)
 arroda (= rueda)
 arrasim (= raisin)
 arriu (= río)

10.2.2. Hitz-bukaeran, aldiz, bai [r] eta bai [r̄] posible dira; baina gero eta jeneralagoa da [r̄]-ren aldeko neutralizazioa:

nor = [nɔ̄r̄]
zer = [sɛ̄r̄]

10.2.3. Hitz-*barruan*, biak gerta daitezke; eta bokale artean oso bizi-rik dago oposizioa:

bare ≠ barre
 zoro ≠ zorro
 ere ≠ erre
 hari ≠ harri
 (h)iri ≠ irri

Eta beste mila.

10.2.4. Oposizio hau, dena dela, ez da modu berean egiten euskalki guztietan:

a) Normalean, [r] ≠ [r̄] soinu-desberdintasunaren bidez egiten da:

[bare] ≠ [bāre]
 [soro] ≠ [sōro]

Eta abar.

b) Baina zubereraz oposizioa aldatu egin da:

[bae] ≠ [bāre]
 [soo] ≠ [sōro]

Eta antzera. (Ideia xinpleki azaltzekotan, agertu ohi diren /b/-ak alde batera utziku ditugu).

Baina biak nahasi ere bai.

Zuberoko murruetan: «*Gorra Euskadi*» irakur daiteke; baita pertsona berarengan eta etendurarik gabe: «*óo*», «*óro*» eta «*óro*» (Lafon-en hitzez, ahoskera hori «*flotte*» dio berak, kolo-ka dago beraz).

c) Lapurteraz, kaletarren artean batez ere, ahoskera honela egiten da maiz:

$/r/ = [r]$
 $/rr/ = [R]$

Eta beraz:

$[bare] \neq [baRe]$
 $[soro] \neq [soRo]$

Eta abar.

10.2.5. Frantsesaren eragin honek gero eta nahasketa handiago ekarri die Iparraldeko elebidunei. Fonetikaren mailan, ahoskera bera dagokie frantsesez (Paris-ko frantsesez batez ere) bai *r* eta bai *rr*-ri:

verrai = $[ve\mathcal{R}\acute{e}]$
irai = $[i\mathcal{R}\acute{e}]$

Eta, honen ondorioz, Ipartarrek gero eta ortografi-huts gehiago egiten dute */r/* eta */rr/* ezin berezita:

$[b\acute{e}ri]$ = *beri*
 $[g\acute{o}r\acute{o}to]$ = *goroto*
 $[a\acute{r}i]$ = *ari*

Toponimian dagoen nahastea:

Biscarosse = Biscarrosse (herri berean biak, noski)

gurera ere aldatuz:

Arambide = Arrambide


Edo, oraino okerrago: $[\mathcal{B}]$ soinua *frikaria* denez:

| | | |
|----------|---|-----------------|
| [bēfi] | = | <i>behi</i> |
| [gōfoto] | = | <i>gohoto</i> |
| [aīi] | = | <i>abi</i> (!!) |

10.2.5.1. Ona izan daiteke, honetaz gero, fonetikazko argitzapen bat egitea. Belare eta ubulareen artean, soinu hauek ditugu (euskaraz edo ondoko erdaretan). Hona hemen argigarri gerta daitezkeen irudi batzu.

Frikaketa atzerago gertatzen da ubulareetan, belareetan baino:

63.ir.



Euskal belareak

[x] = G, [xauna]
(gorra)

[ɣ] = c. [daɣo]
(ozena)

64.ir.



Ubulareak

[X], gazt. [Xweθ]
(gorra)

[B] = fr. [ʒiBé]
(ozena)

65.ir.



Belareak

(J. Thomas -en arauera)

/b/ fonemaren frikaketa, oraindik atzerago gertatzen da; bai [h] gorra, bai bokale arteko [ɦ] ozena:

66.ir.



euskal aspirazioa
[h], [hḁtu]
[ɦ], [oɦḁtu]

| | belareak | ubulareak |
|------------------|----------|-----------|
| leherkari ozenak | g | G |
| frikari ozenak | ɣ | ʁ |
| frikari gorrak | x | X |
| dardarkariak | | R |

[G] soinua, jakina, ez da gure inguruetan entzuten (pertsieraz dago, adibidez); [ʁ] soinua ere ez, noski, oraintsu arte bederen; baina frantsesez badago, paristarren ahotan:

j'irais = [ʒiʁé]

eta, horretaz, interferentziaz, euskaraz ere bai, sasi-elebidunen artean:

gorri = [goʁi]

Hots, euskaraz (gaztelaniaz bezala), bokale arteko / b, d, g /, [b̥, d̥, g̥] ahoskatzen da; eta beraz:

dago = [dago] (edo [daŋ]!)

Korrelazio hau kontutan hartuz:

$$\frac{r}{x} = \frac{ʁ}{X} \quad \begin{array}{l} \text{(ozenak)} \\ \text{(gorrak)} \end{array}$$

Iparraldeko nahasketa batzu hobeki uler bide daitezke:

$$\frac{h}{x} = \frac{ɦ}{g} \quad \begin{array}{l} \text{(glotari)} \\ \text{(belare)} \end{array}$$


(gorrak) (ozenak)

gorri = [gɔxi] edo [gɔhi]

Edo Hegoaldean:

bartu = [xɑftu]

10.2.6. Distribuzioa, beraz, eskema honen arauera presenta daiteke:

| | | |
|---|------|------|
|  | —r— | (—r) |
| | —r̄— | —r̄ |

10.3. Azter ditzagun orain, zehazkiago, bi fonema hauen arteko neutralizazioak.

10.3.1. Ezagunena hauxe da:

$$[—r] \rightarrow [—r̄]$$

Joera hau zaharra izanik ere:

lat., magister = eusk., [maɣistār]

orain gertatzen ari dira azkeneko urratsak.

Eta Ana M. Etxaidek gauza bera oharrerazi du, Barranka-ri buruz: «algún informador presenta una pronunciación *fuerte* y *larga* de *r* en posición final: *pastorr*» (F.L.V., 25, 72).

Deklinabidean, esate baterako, eta gaurko ikastoletako haurren ahoskera bitxiak ezagutu arte, bizirik zegoen oposizioa. Adibidez:

ur → ura, uraren, urari...
nor → nori, norentzat, norekin...
ber → bera, berean, bereko...

Baina:

ur (= [u \bar{r}]) → urra, urraren, urrari...
gogor → gogorra, gogorrari, gogorraz...
gor → gorra, gorrarekin, gorrari...

10.3.1.1. Hain zuzen ere, bukaerazko *r*-rik gehien gehienak [f̄] izanik, denak berdin eta *r* idaztea proposatu zuen Euskaltzaindiak:

ur, *nor*, *ber* eta *ur*, *gogor*, *gor*.

Aski zen, orduan, salbuespenen zerrenda ematea:

ur: agua/eau; H₂O
zur: (= zurezko haltzariak)
(h)or: (= artzanoren txapelketa)
paper: (= liburuentzako papera)
plater: (= jateko platerak)
gazur: (= esnearen gazura)
barur: (= barau)
hirur: (= hiru, Eusk. Bat.)
laur: (= lau, Eusk. Bat.)
R., *kaur*: (= hau, deiktikoa)
nor
zer
ber: (= bera da; berbera)

Horiek ez beste guztiak [f̄] dira; eta [f̄] agertzen dira deklinabidean, hitz-elkartetan, eta abarretan.

Anitz zirrikitutatik soma daitekeenez, zerrenda hau urrituz joan da denboran barrena; eta urrituz doa gaur bertan ere.

- 10.3.2. Bigarren neutralizazio nagusia hau da: gaur entzuten diren euskalkietan, kontsonante (\neq h) aurreko *r* guztiak, [r̄] ahoskatzen dira:

erbi = [er̄bi]
ardi = [ar̄di]
arte = [ar̄te]

Hori dela-ta, Euskaltzaindiak, aspaldiko eztabaida alferrak ahantziz, beti *r* bakarraz idaztea erabaki du: *erbi*, *ardi*, *arte*. Eta gauza bera, etimologi-bidez, [r̄] direnak ere bai: *gogortu*, *makurtu*, *zakurkeria*.

Euskaldun ezpainetan, bestalde, oso maiz entzuten dira [r̄] gogorrek posizio horretan; erdaraz baino maizago bederen:

gogortu = [gogōrtu]
(*gogorrrtu* idatzi balitz bezala) dardarketa *anizkuna* izanik.

- 10.3.2.1. Hau ez zen lehen euskalki guztietan gertatzen.

Elkano-ko Lizarragak, esate baterako (Hego-nafarreraz ari, XIX. mendean) oso nabarmenki bereizten zituen [r] eta [r̄] posizio honetan (eta hitz-bukaeran ere bai); adibiderik onena hau izan bide daiteke:

«*laur lécu* edo *léce* contatzentúte *lurr* bárnean», AN., Liz., Doc. 253.

Baina etsenplua ez da bakarra Elkano-tarraren izkribuetan.

- a) alde batetik, *hitz-bukaeran*:

| | |
|----------------|-------------------|
| ur, Doc., 34 | edérr, Doc., 35 |
| irur, Doc., 32 | beárr, Doc., 38 |
| | esquérr, Doc., 40 |
| | orr, Doc., 47 |
| | izárr, Doc., 56 |
| | atórr, Doc., 279 |

| | | |
|--|---------------|-----------|
| b) beste batetik, <i>hitz-barruan</i> , eta kontsonante aurrean, | | |
| irurtásun, Doc., 32 | ederrgáiec, | Doc., 56 |
| | ilárrguia, | Doc., 56 |
| | laburrbát, | Doc., 275 |
| | laburrtasúna, | Doc., 283 |

10.3.2.2. Horrelako zerbait soma daiteke bizkaiera zaharraz:

nor — nok, inok;
(eta, honen ondorioz: [iṇopeś])
ezer — [eśeḃeś] (= eze be ez)
zer — [śegaṭi] (= zegaiti)
«modu orretan *zek* arabil?» zion Barrutiak, 41

Neutralizazioaren arauera, hauek espero zitezkeen:

[nɔrk]
[eśeḃeś]
[śeḃgaṭi]

Gaur, idazkeraren eraginez, gazteen artean entzun daitezkeen arauerakoak.

10.3.2.3. Eta gauza bera hitz-elkarturen azterketaz:

lubizi < lur + bizi
hamabi < hamar + bi
adabegi < adar + begi
adaburu < adar + buru

Hain zuzen ere, hitz horietako —*r* hori [r] xamurra izan den seinale.

10.3.3. Hirugarren neutralizazio nagusia hau da: *kontsonante ondoren* ez dela posible [r] ≠ [r̄]. Ahoskerarik normalena, gaur, [r] izan daiteke eskuarki; baina [r] ere bai (normalena gaztelaniaz, hain zuzen ere, Navarro Tomás-en iritziz). Beraz:

kristau = [kristau] (edo [krištau])
trabena = [tɾaβena] (edo [traβena])
andre = [aṇdɾe], B., Holmer-en ustez.

Nolanahi ere, ezinezkoa da bien arteko oposizioa:

[k̄ra] ≠ [kra]

10.3.3.1. Baita, askotan, [Cr] horren hausketa ere gertatzen:

kristau = *girstino*

prediku = *phe(r)edikü*

Joera hau azkarrago agertzen da, dena dela, /l/ fonemarekin; 22. ikaskaian garbikiago ulertuko diren arrazoinengatik.

Baina beste euskalkietan ere, halako ihardokiera ere badago oraindik: «Les mots d'emprunt *récent* ne présentent pas, en *apparence*, ce même phénomène; toutefois, les expériences faites au laboratoire prouvent qu'*aujourd'hui même* la même tendance *subsiste encore* dans le parler de Soule: une voyelle de durée brève, existe généralement dans toutes les langues, entre l'explosion d'une occlusive et le premier battement de l'*r*; en Souletin, cette voyelle a une *durée plus longue* que dans les parlers romans» (Larrasquet, Action, 131.go oharra ikus).

Eta berdin pentsa daiteke Araba-ko sustratuaz:

gureso (grueso), Lz. Guereñu

Zaraitzieraz, eta Auñamendiko euskalkietan, orohar, esate baterako, sinkopak direla-ta, oso maiz gertatzen dira *br*, *dr* eta *gr* bikoteak:

primadera = Sal. *primadra*

gara = Sal. *gra*

dira = Sal. *dra*

abere = Sal. *abre*

arrastiri = R. *arrastri*

aingura = R. *aingra*

denbora = Sal. *tempra*; R. *trenpa*

batero = AN (Mezk.), *batre*, F.L.V., 32

aberats = *abrats*, AN, Liz., Doc. 49

Etxalar-en *bedratzi* entzuten da (Axura, 33), *Zeanurin bezala*, B., J.M.B.; eta Utergako katiximan hauek ditugu: *drazoteçun*,

drazquiotēcun, drauçun, dramazquičun, eta abar; Hego-nafarre-
raz ere, sinkopa bidez, horrelako bikoteak sortzen ziren lekuko.

Eta beste euskalkietan ere, tankera horretako multzoak maiz gertatzen dira:

andere = B., *andra*
 B., *Trapaga*
 B., *Andraka*
 B., *Krutzebarri*
 B., *Butroe*

Eta metatesiz ere bai:

| | | |
|--------------|---|----------------------------------|
| erd. persona | = | eusk. <i>presuna</i> |
| taberna | = | <i>trabena</i> |
| Castro | = | <i>Krasto</i> |
| alpargata | = | G. <i>alpraketa</i> , Altz. 43 |
| | | G. <i>alprajeta</i> , Zubiz. 19 |
| conforme | = | G. <i>konprome</i> , Altz. 70 |
| Fermintxo | = | G. <i>Premintxo</i> , Altz. 70 |
| menderatu | = | G. <i>mendratu</i> , Txirr. |
| escarmiento | = | G. <i>eskramentu</i> |
| perfección | = | G. <i>prepeziyua</i> , Iturz. 87 |

10.4. Zer gertatzen da sandhi-etan?

Gauza bera, berez, eta Gavel-ek berak ongi azaldu zuenez.

Hau dela-ta, Gavel-en adibide berbera erabiliz:

ur berdea = [uṙb̥eṙḏea]

Beti ahoskatzen da horrela; *r* hori kontsonante aurrean gerta-
tzen delako. Eta [ur] eta [uṙ] berezi ezinak dira inguramendu
fonetiko horretan.

ur ederra biak, aldiz, berezkarri agertzen dira:

[ureḏeṙa] ≠ [uṙeḏeṙa]

Lehenengoan, *ura* aipatzen dugu; baina bigarreanean, *urra*.

Hots, erdararen eraginez (ikus, bereziki, 23. ikaskaia), bokale aurreko desberdintasun hau ezabatzen hasia da gure begien aurrean:

ur ederra = [ured̥ɛ̃ra]
bihar arte = [biarãrte]

Gutziz euskaldun jatorrek gaurtxe arte ahoskatu izan dutenaren kontra:

[biarãrte], alegia.

10.5. Zubereraz, /h/-ren aurrean ez dago neutralizaziorik.

[rh] multzoak, [h] eman du:

áhan
ého (éhan)
eháile
bu(r)háso (< guraso)
éhi
áhin
sóho

Baina [r̃h] multzoak, [rh]:

erháuts
ürháts
úrhe
górhats

Oposizioa, hitz batez, /h/-ren aurrean bizirik egon balitz bezalaxe.

10.5.1. Eta hitz-elkarketan ere, bi bide desberdin /h/ duten euskalkietan:

Batetik: [r] → [h]

uharte
ubalde
zuhaitz

Baina, bestetik: [r̄] → [r̄]

barrarte
iturralde
barretxe

10.6. Alternantziak ikusten hasiz gero, $r \rightleftharpoons rr$ dugu nabarmenena:

| | |
|------------|--|
| berriz | = AN, <i>beriz</i> |
| etorri | = AN, <i>etori</i> (<i>etoi</i> , G, Ataun) |
| ekarri | = G, <i>ekai</i> , Ataun, J.M.B. |
| aterri | = <i>ateri</i> |
| horrek | = <i>hori</i> |
| harrezkero | = <i>harezkero</i> |
| harrek | = <i>harek</i> , <i>hark</i> , <i>ak</i> |
| c., laster | = G, <i>laste</i> , Iturz. 131. |

10.6.1. Aspaldiko denboretan bi dardarkari izan ote ditugun galde-
tzeko oinarria badago:

| | | |
|-------|---|------------------------------|
| bihar | → | biharamun |
| hamar | → | hamabi, hamalau |
| adar | → | adabegi |
| belar | → | belazi; belasoro, AN, Lesaka |
| behor | → | behozai |
| hezur | → | hezueri |
| lur | → | luharbil |
| iztar | → | iztaklok |

Eta abar. Denak azaldu ezinak; baina normalak, gaurko [r̄] aspaldiko mendeetan [r] xamurra izan baldin bada.

Gaur bertan, baxenabarreraz, normalak baitira plegu honetako ahoskerak:

zerbait → [sehaj̄t] edo [seaj̄t]
lur + *bizi* horren arauera, horretaz:
lurbizi → [luisi] edo [lwisi]

10.7. Arkaikotzat, edo zubereraren ezaugarri bitxitzat, jotzen diren

fenomeno fonetiko batzu, bestalde, oso normalak dira Mendebaldeko euskalkietan.

10.7.1. *(b)ere* = [*(b)e*] (kontsonante ondoren).

Hizkera arruntean, [r] hori ez da eskuarki batere entzuten. Eta bertsolarien esanetatik atera daiteke garbiki ondorio hau (eta nahiz zuberotarrak ez izan).

Adibidez:

Jesusek berak e, Zenpelar, 320
bat e, Txirr., 35
andik e bialduko naue, Txirr.
artan e, P. Errota, 74
berriz e, Zak., 29
gaur e, J. P. Zub., 59

Eta nahi adina adibide bila daiteke.

10.7.2. Era berean:

«re» edo «be», bokalaren ondoren

kraxkatu're, Alts., 49
arritzeko're, Alts., 49
ori're, AN, J.M.B.
baita biali're, Oiartzun, J.M.B.
banauzu're, Xalbador, 75
eginda're, Zak., 29
baita Barbantxo're, AN, Oiartzun, J.M.B.
ni're, Sor., 49

Bizkaieraz, gauza bera, baina *be*:

neu be
neu pe

(b)ere hori, gainera, enklitiko da; eta horixe uste du Mitxelena (F.L.V., 32, 222).

10.7.3. Baina [r] bestetan ere erortzen da. Adibidez:

beretzat > *bêtzat*, G, Motz, 42
ze eman dik?, Sor., 26
eze billatzen ote zoên, G, Ataun, J.M.B.
eze'ez, G, Ataun, J.M.B.
(eta aldera ezazu gaurko [eseřes])
oaindik, G, Zak., 17
neonek, G, Zak., 81
esaten *ai* da, G, Sant., 129
Xefeina, G, Alts., 44
Mañaxi, G, Alts., 44
(*Mainasi* balitz bezalaxe)
iño, G, Iturz., 76
ezegatik, G, Iturz., 76
iñok, G, Iturz., 144
zeitteko, G, (< zer egiteko)
beterinayo, G, Txirr., 174
(*beterinaio* balitz bezalaxe)
ote da beste *iño*? G, Ataun, 32
eze galdetzen baizu, G, Ataun, J.M.B.
iño ez liteke izan, G, Bal., 252
nok ordainduko, B, And., 48
Eta beste mila eguneroko hizkuntzetan.

10.7.4. Oso gogoan hartzekoa da, horri buruz, *bear* hitzaren [ř]-ak gaurko hizkeran ere erakusten duen izaera:

partitu *biegu*, G, Txirr., 206
egin *biaitu*, G, Zub., 20
galdu *beaitu*, G, Zepai, 31
jantzi *binaz*, B, Natxitua, J.M.B.
(*binas* hau erabat normala da Bizkaian)
egon *biaute*, G, Txirr., 182
zuzendu *bizkit*, G, Altz., 62
jakiya *biegu*, G, Sor., 80
juan *biagula*, G, Errent., 32

— [seařtubiek], Donostiako edozein tabernatan.

Galtzearen erraztasuna ikusita, bestetango *hamabi*, *hamairu*, *lubizi*, eta abar, datoz gure burura.

Badirudi, hitz batez:

a) [be(h)ař] < [be(h)ar] fenomenoaren aurrean gaudela.

b) [r] xamurra oso erorkorra dela zubereratik at ere.

10.8. [d] eta [r] galkorrak diren bezala, biak ere elkarren ordari agertzen dira maiz euskalki guztietan.

10.8.1. Mailebuetan ikusten da hau:

| | |
|--------------|--------------------------------------|
| erd., médico | → eusk. <i>miriku</i> |
| quedarse | → G, <i>geratu</i> |
| cabida | → G, <i>kabira</i> |
| despedida | → G, <i>despeira</i> |
| duda | → G, <i>dura bagarik</i> , P.B., 69 |
| adiós | → G, <i>ariyo</i> |
| medio | → G, <i>meriyo</i> , Saik., 89 |
| endredo | → G, <i>endrerua</i> , P.E., 74 |
| remedio | → G, <i>erremeryua</i> , Altz., 38 |
| cuidado | → G, <i>koitaruak</i> , Txirr., 237 |
| descuidar | → G, <i>deskuiratu</i> , Txirr., 237 |
| cuñado | → G, <i>koñeru</i> , Bal., 260 |
| mudar | → G, <i>muratu</i> , Txap., 39 |
| portamoneda | → G, <i>portamonera</i> |

10.8.2. Baina euskal morfologian bertan ere bai:

iriki *ziraten*, G, Errek., 62
bagada / *garela*, AN, Mor., 377
noiz patu bear *dirazu*, G, Txirr., 227
ementzêren, G, Ataun, J.M.B.
neuria *ra*, B, Azkuek bereziki aipatua

10.8.3. Eta alderantzizko trukeak ez dira falta:

uda, G (maiz oso)
eudi, G, Zub., 25
edoriko dire, AN, Mor., F.L.V., 15, 389
bedorrek, G, Errenderia, J.M.B.
adagi, G, Ataun, J.M.B.

10.8.4. Edo bitasuna oso hitz zaharretan:

bide = G, *bire*, Txap., 40
 edozein = G, *erozein*, Zak., 66
 dirudi = G, *diruri*, Xenpelar;
 Ser. Baroja
 lodi = G, *lori*, Txan., 123
 adabaki = G, *arabaki*, Altz.
 bedeinkatu = B, *bereinkato*, Mark., 49

10.8.5. Zubereraz, bestalde, *ai* eta *ei* diptingoen ondoko /r/ xamurra, [d] ahoskatzen da eskuarki:

apairu → S., *apáidü*
 altzeiru → S., *atxéidü*

10.9. /r/ honekin lotuta dagoen fenomeno pare bat aipatuko ditugu bukatzeko:

10.9.1. «rn» → «rr»

Adibiderik famatuenak gure hiririk famatuenak ematen du:

Gernika = B., [geñike]

Baina ez da bakarra:

Fernando → *Perrando*, P. Amezk., 88
 (Holmer-ek *Ferrando* dakar; 109)
 Nabarniz → B, *Nabarrizmendi*, J.M.B.
 cornado → AN, *korradu*

10.9.2. «nr» → «ndr»

Horra hor ezagunenak:

gazt., honra → eusk. *ondra, ondraru*, etab.
enredar → G, *endredatu*, Zub., 35
San Román → AN, *Sandroman*, Cuad. Et. 25

Alderantziz ere gerta daiteke:

and(e)re → G, *anra*, Ataun, J.M.B.

Edo berriago hau:

landrover → G., lanrober → *larrober*

XI KAPITULUA

EUSKAL ASPIRAZIOA

11.1. *Fonetikari dagokionez*, guk idazten dugun *h* hori zer den azaldu beharra dago.

Ahoa zabalik dagoelarik, mihia ondoko bokalearen modura jarri ondoren, diafragmaren kontrakzio bat gertatu; eta orduan entzuten den haize-soinu horri esaten diogu hasperenketa edo aspirazio.

Soinu berezi hori, aspaldidanik, *h* letraz transkribatzen dugu.

11.2. Balio fonetikoari dagokionez:

a) Hitz-haseran, [h] izaten da; eta *gorra*, beraz:

hartu = [h̄artu]

b) Bokale-artean, [h̄] izaten da; eta *ozena*, beraz:

uharte = [uh̄arte]

c) Sudurkari-artean, sudurkari bihurtzen da: [h̃].

S, uhúre = [ũh̃úẽ]

Ñabardura fonetiko hauek, automatikoak dira euskaraz; eta ez dira inoiz erabiltzen balio fonologikoz (baina arabieraz, bai, gonbarazio batez).

11.3. /h/ fonema ahoskatzen duten euskalkietan, distribuzioa oso tinkoa da; eta ez bide da bi mila urte honetan, gutxienez, aldatu.

11.3.1. Hitz-haseran gertatzen da:

basi
bezi
hitz
horrek
bustu

11.3.2. Bokale-artean ere bai:

| | | | |
|--------------|--------------|---------------|--------------|
| <i>zabar</i> | <i>obol</i> | <i>babe</i> | <i>abul</i> |
| <i>mebe</i> | <i>zubur</i> | <i>ihartu</i> | <i>nahi</i> |
| <i>ibizi</i> | <i>zebar</i> | <i>ubolde</i> | <i>lehor</i> |

11.3.3. Eta diptongoen ondoan ere bai:

| | |
|----------------|----------------|
| <i>mahai</i> | <i>aibáltü</i> |
| <i>zuhaur</i> | <i>eihartü</i> |
| <i>zuhaitz</i> | <i>oihal</i> |
| <i>ibaute</i> | <i>auher</i> |
| | <i>aiber</i> |

11.3.4. Sonanteen ondoan ager daiteke:

Adibidez:

| | | |
|----------------|----------------|--------------|
| <i>alhaba</i> | <i>senhar</i> | <i>arbin</i> |
| <i>elbe</i> | <i>anhua</i> | <i>erbi</i> |
| <i>olha</i> | <i>Ainhoa</i> | <i>garbi</i> |
| <i>ilhargi</i> | <i>onhetsi</i> | <i>erho</i> |

11.3.4.1. Ohar garrantzitsu bat: bikote hauek *bi fonemaz* osatuak dira; eta muga silabikoa erditik pasatzen da:

| | | |
|-----------------|---|-----------------------|
| <i>alhaba</i> | = | <i>al - ha - ba</i> |
| <i>senharra</i> | = | <i>sen - ha - rra</i> |
| <i>erhoa</i> | = | <i>er - ho - a</i> |

Aspaldiko denboretan ere, Mitxelenak zorrozki oharrerazi zuenez, pasatzen zen bezalaxe:

NAR. HUN. GE. SI
 A. BI. SUN. HA. RI
 (ikus «Textos Arcaicos Vascos», Lerga-ko izkribuari buruz.)

11.3.5. Baita bi fonema beraien kide bustien ondoren: [ɫ], [ɲ]; eta [r] azkarraren ondoren ere:

S. *búllbür*,
 S. *üñbürri*, *Iñhási* (fr. Féas)
 S. *úrrhe*, *ürrháts*

Muga silabikoa, jakina, *b*-aren aurretixek pasatzen delarik.

11.3.6. *Leberkari gorren ondoren* ager daiteke:

| | | |
|-----------------|-----------------|----------------|
| <i>ephe</i> | <i>urtbe</i> | <i>bekhatu</i> |
| <i>ophor</i> | <i>othe</i> | <i>ekhaitz</i> |
| <i>pharkatu</i> | <i>gerthatu</i> | <i>khar</i> |

Baina kasu hauetan muga silabikoak ez du *ph*, *th*, *kh* bikotea adibitzen:

bekhatu = be - kha - tu.

11.3.7. Euskarari dagokionez, ondoko inguramendu fonikoetan ez da /*b*/-rik inoiz agertzen:

a) *m*-ren ondoren

b) *leberkari ozenen* ondoren (India-ko hizkuntzez bestalde). Larrasquet-ek dionez, dena dela, zenbait aldiz, gorraren laxaketaz, Zuberoan [bh] [dh] edo [gh] soinuak entzun daitezke; baina inolako balio funtzionalik gabe, eta segun-eta hizketaren modua nolakoa den.

c) *Frikarien* ondoren, edo *afrikatuen* ondoren. **Bashherri*, eta horrelako grafiak, guztiz daude euskal fonetikaren kontra; euskaraz ez baita inoiz [sh], [śh], eta abar, entzun. *Hitzthegi* grafia, esate baterako, fantasia hutsa da. (Mizpiratzegi-kerabilia).

d) Esan beharrik ez zegoen euskaraz ez dago inoiz bukaerazko *b*-rik (nahiz andaluzieraz *-b* grafiak funtsa balukeen ere:

los vascos = [loh**b**áhkoh]

11.3.8. Akitanian aurkitako inskripzioek erakusten dutenez, distribuzio hau oso zaharra da:

- Halsco, Harbelex, Harsus
- Aherbelste, Bihoxus, Lohitton
- Belheiorix, Erhexoni
- Hontharris

Eta gauza bera idarokitzen dute Erdi-Haroko euskal leku eta pertsona izenek:

- Huriuarri, Hurizahar, Harrizavallaga, Hegilior, Helkeguren, Harrieta
- Elhossu, Elhorriaga, Galharreta, Olhavarri, Okerhuri, Arzanhegui, Heinhü
- Zuhazu, Ehari, Arbelgoihen, Basahuri, Atahuri, Gastehiz
(ikus Mitxelena-ren «Textos A.V.», 1.025).

Baita /*b*/ balio duten *f* zaharrek ere. *Hegoaldean*:

Faranlucea; Farangortea (Artasonan, Cuad. Etn. 26)

eta *Iparraldean*:

Fondarra, Sufarasu, Olfegui

11.4. [h] soinua non ahoskatzen den galderak, erantzuna ziplo dakar gaur: *Iparraldeko euskalkietan bai, Hegoaldeko euskalkietan ez*. Horretatik *frantseskeri* bat dela esateko behar den urratsa, azkar emana dute gutxi dakitenek...

11.4.1. [h] soinua, *gutxi gora-behera eta gaur, mugaz bestaldean baka-rik* entzun daitekeela esatea, egia da halere.

Baina zehaztasun batzu eman beharra dago.

a)) Eskualdearen hedadurari dagokionez, hasteko, Lapurdi-ko kostaldeko euskarak, Basusarri eta Arrangoitze kenduta batez ere, ia-ia erabat galdu du [h] soinua. (Eta fenomenoa Bonaparte-ren garaian ere hasia zen).

Alderantziz, Luzaide eta inguruko herrietan (Hegoaldeko Nafarroan, beraz) [h] entzun daiteke, normalean. Gauza bera, zenbait hitzetan batez ere, Baztan-go euskaraz: [ehún], esate baterako.

Deiktikoetan, era berean, eta [g] edo [k] balio fonetikoekin, Hego-Nafarroan entzuten da Iparraldeko *h*:

R (hila): kaur, kori, kura, etab.

Sal : kau, kori, kura, etab.

Aezk : gau, gori, gura, etab.

Tarteka, era berean, beste nafar euskalkitan ere entzun daiteke [g] soinua deiktikoetan.

b) *Denboran barrena*, berriz, eta gaur bertan ere, /*h*/ fonemaren *galtzea* gauza ezaguna da, eta oraintxe gertatzen ari. Baxenabarren bertan, askoz maizago entzuten da [h] soinua (edo [ph], [th], [kh] leherkari aspiratuak) baserritarren artean, kaletarren artean baino; eta askoz maizago, era berean, zaharren artean, gazteen artean baino. Gutxi gora behera, hau esan daiteke: [h]-ren erabiltzea eta *hika*-adizkeran erabiltzea gaitz berberak jota daudela. Jende *eskolatuak* (alegia, interferentziaz jositako sasi-elebidunek) ez ditu bata ez bestea erabiltzen... Hortaz, utikan! (Ikus honi buruz, 23. ikaskaia). Diglosi mota batek jo du euskal aspirazioa, eta ez Hegoaldeko *anti-H* amorratu eta eskuindarren artean bakarrik. /*h*/ fonema ahoskatzea *gaizki ikusia* da euskaldun askoren giroan.

Lapurdi-ko idazleen bidez, esate baterako, oso zehazki segi daiteke /*h*/ fonemaren gainbehera hori: orain dela berrehun urte guztiz normala eta zalantzagabea izanik, gaur behera dator. Lapurdi-ko abertzaleek, bestalde, Hegoaldeko herrikideengandik hurbildu nahiz, are gutxiago erabiltzen dute /*h*/ fonema edo *h* grafema (ikus *Enbata* edo *Euskaldunak* aldizkariak, honi buruz), herriak erabiltzen duena baino...

11.4.2. Era berean, Toponimiak ongi erakusten duenez, Hegoaldeko euskalkietan /b/ fonemak utzi dituen aztarnek, ez dute duda izpirik uzten. Uztaritze ondoko *Ihara*, *Igara* da Donostian, eta Hondarribia-ren ondoko mendia, *Jaizquibel* ofizialki, [xajski-βel] eta [gajskiβel] esaten da; bietara, beraz, Holmer-ek egokiro entzun eta transkribatu zuenez. Hots, leku-izen horren sustraia garbi bide dago:

Jaizquibel < Haitz + gibel
(gorketa eta guzti)

Aizquibel hiztegi-gilearen deiturak ongi argitzen duenez.

Hitz batez: lehen hedatuago zegoen [h] ahosketa, gaur baino.

Iruñea-ren ondo ondoan, bide beretik, eta Elkano-ko Lizarragaren bidez ongi jarrai dezakegunez, deiktiko horietan ageri den [g] hori, bertako euskara suntsitu arte (ehun eta hogeit bat urte, gehienez) entzun izan da: *itzgoi*, *echegontan*, *echegarren*, etab.

Erdi-Haroan, bestalde, garbi dago gaur, bai Araban eta bai Errioxan /b/ fonema antzina bazegoela (ikus Mitxelena-ren «Textos arcaicos vascos»).

11.4.3. Hitz batez: «se diría... que /b/, *un día común a todas las variedades de la lengua*, se ha conservado hasta bastante tarde en la parte occidental del país (Alava, Rioja, Vizcaya)... Es altamente probable que la pérdida comenzara por la Alta Navarra, en contacto con el romance aragonés, que no tenía *h*» (Mitxelena, FHV, 205). Araban eta Errioxan, beti beraren iritziz, «conocieron también la aspiración hasta el siglo XIII inclusive, por lo menos» (Mitxelena, FHV, 205).

11.4.4. Hala ere: Iparraldeko euskalki h-dunak berak ez datoz beti batera. Azentuaren eraginez, adibidez, haserako *h* asko galdu du zubererak (nahiz gero, posizio azentudunetan, berragertzen); baina ez gainerako euskalkiek. Bigarren pertsonari dagokion ezabaketa da denetan ezagunena: *hi/iz*, *aiz*; jabetasunezko sailetan bezala: *hire/eure*.

Hori dela-ta, hona bitxikeria batzu:

| <u>Zubereraz (S)</u> | <u>Lapurteraz (L)</u> |
|----------------------|-----------------------|
| <i>hor</i> | <i>or</i> |
| <i>bun</i> | <i>on</i> |
| <i>huñ</i> | <i>oin</i> |
| <i>bur</i> | <i>ur</i> |
| <i>hürrün</i> | <i>urrun</i> |

Baina, alderantziz:

| <u>(S)</u> | <u>(L)</u> |
|----------------|---------------|
| <i>áizo</i> | <i>hauzo</i> |
| <i>áize</i> | <i>haize</i> |
| <i>a(r)ági</i> | <i>haragi</i> |
| <i>odéi</i> | <i>hodei</i> |
| <i>ógen</i> | <i>hoben</i> |

(Zubererazko azentua, beraz, beti silaba horretantxe egon ote den azertu behar litzateke.)

- 11.4.4.1. Euskara Batuari buruz, hau dela bide, atzera-aurrera batzu izan dira azkeneko urteetan; baina Euskara Batu idatziaz, Euskal Literaturak du azken hitza: eta ez gaurko euskalkien dialektologiak. Bestela bigarren pertsonetan *h*- marka hartzerik ez legoke.

11.5. [h] soinua, *benetako fonema* dela ikusteko:

[h] ⇌ [∅]

konmutazioa egingo dugu.

Hitz-baseran, esate baterako:

| | | |
|--------------------------|---|-------------------------|
| <i>ar</i> (astar, katar) | ≠ | <i>har</i> (zizare) |
| <i>ez</i> (ezezkoa) | ≠ | <i>hez</i> (hez ezazu) |
| <i>emen</i> (omen) | ≠ | <i>hemen</i> (hor, han) |
| <i>ala</i> (~ edo) | ≠ | <i>hala</i> (halaxe) |
| <i>iltze</i> (untze, B) | ≠ | <i>hiltze</i> (hil) |

11.5.1. Gorago esan dugunez (11.3.3. eta 11.3.4.), *sonanteen ondoko /b/-aren konmutazioz* hitz desberdinak lor daitezke:

| | | | |
|----|--|---|----------------------------|
| | <i>alba</i> (= jan, kosk egin) | ≠ | <i>ala</i> (edo) |
| | (bizkaierazko <i>tripala</i> , tripako mina horri dagokio) | | |
| | <i>belhar</i> (= bedar, belar) | ≠ | <i>belar</i> (beharri) |
| | <i>berho</i> (= karraskilo) | ≠ | <i>bero</i> (—hotz) |
| S. | <i>a(r)han</i> (= aran) | ≠ | <i>a(r)an</i> (haran) |
| | <i>arhe</i> (= tresna) | ≠ | <i>are</i> (are gehiago) |
| | <i>erhi</i> (= G. beatz) | ≠ | <i>eri</i> (gaiso) |
| | <i>zorhi</i> (= heldua) | ≠ | <i>zori</i> (suerte) |
| | <i>garhi</i> (= mehe, argal) | ≠ | <i>gari</i> (irina ematen) |
| | <i>anho</i> (= mokadua) | ≠ | <i>a(r)noa</i> (ardo) |

Oposizio hauek maiz ez gertaturik ere, horra hor bikote mami-tsu horiek.

11.5.2. Leherkari aspiratuek, batetik, eta gorrek, bestetik, duten oposizioa *fonologikoa ote den* galde daiteke. Lafon-ek eta Mitxele-na-k ezetz uste dute.

Beharbada *bi fonema* (bi hirukote, alegia: p/ph; t/th; k/kh) izan ote diren susma daiteke. Nahiz, *gaurko* euskaraz, oposizio hori *abula* izan.

Hona hemen pare bakan batzu:

| | | |
|---------------------------|---|-----------------------------|
| <i>notha</i> (= akats) | ≠ | <i>nota</i> (nota) |
| <i>bathi</i> (= erabaki) | ≠ | <i>bati</i> (bat + i) |
| <i>ókher</i> (= oker) | ≠ | <i>óker</i> (poker, aupets) |
| <i>kheta</i> (= kez) | ≠ | <i>-keta</i> (kopurua) |
| <i>merkhátü</i> (= azoka) | ≠ | <i>merkátü</i> |
| | | (merkeago jarri) |

Bikote hauek berak, ordea, ez dira beti, eta Iparraldeko euskalki guztietan, oso bidezko eta baliotsu jotzen. Beraz aspiratuak, *normalean* bederen, gorren aldakitzat har daitezke.

11.6. Behinolako */b/* horrek, dena dela, aztarna desberdinak utzi ditu kasuen arauera:

11.6.1. Batzutan [r] gisa agertzen zaigu gaur /b/-rik ez duten euskalkietan:

G, *nari* (< nahi); At. 52, 62; Saik. 136; Iturz. 175.

(Iturzaeta-ren bertsoetan punttukide agertzen da: *jaunari, lagunari* eta *denari*-rekin.)

11.6.2. Beste batzutan, berriz, [n] sudurkari batek salatzen du /b/ zaharraren lekua:

iñixi joan, B, Dime, JMB
(Erronkari-ko *yñez* en bizkia!)

suñ B; *sun* R; c. *subi*
ainzpa, R, Sal; *ahizpa*
mii, min B; *mî* R; *mibi*

(Arantzazu-n ere *miiña*, K. Izag.)

enzur R; *hezur*
unr R; *hur*
anr R; *har*
seiñ B; *sehi*

11.6.3. Beste askotan, aldiz, bokale desberdinen artean batez ere, [g] utzi du /b/ zaharrak:

oge B; *obe*
ago B; *abo*
egun B; *ebun*

(*egun* ere Mezkiritz-en, AN)

legor, G; *lehor*
igar, G; (*e*)*ibar*

Eta beste mila antzeko, aurkitzen errazak.

11.7. Hitzaren barruan, dena dela, /b/ non agertzen den aztertuz gero, bi ondorio ateratzen dira berehala:

a) *Gaurko* euskaraz ez dagoela sekula hitz berean bi *h* dituen hitzik (nahiz hau, dirudienez, posible izan aspaldiko mendetan: *Hagurabin*, *Heinbu*, eta abar).

Hain zuzen ere: hitz-elkarketaz, edo bestela, bi *h* hitz berean egokitzen baldin badira, euskal *disimilazio normalaren arauera*, ezkerrekoa ezabatzen da:

$h - h \rightarrow \emptyset - h$

Adibidez:

*hilherri \rightarrow *ilherri*

*hilharri \rightarrow *ilharri*

Lhande-k, esate baterako, *ibaur* dakar (Hizt. 494); eta ez *hibaur*; eta irizkide du Larrasquet zuberotarra. Honek, bereziki, [ihãũ] dakar, «tout le mot nasal», 133. Eta alegiazko *hiau* teorikoari buruz, hau dio: *ihau* «doit avoir été influencé par *nihau*».

Era berean:

*hamahiru \rightarrow amahiru

nahiz, Euskara Batuan, analogiaz, *hamahiru* idatz).

Azalpen bera eman behar zaie beste zenbait hitzi:

ilhaur (eta, ilhortu)

ilhotz

nahiz, etimologiaz, *hilhaur eta *hilhotz izan.

b) *Gaurko* euskaraz, /h/ hori lehenengo silaban agertzen dela; edo bigarren silaban, gehienez. Baina *inoiz ez hirugarrenean*, edo *ondokoetan*.

Gauza bera leherkari aspiratuak, jakina.

11.7.1. Har ditzagun orain kontutan ondoko lau hitz hauek:

mugarri

zedarri

atzerri

otserri

Hitz horien jatorria, nabarmena denez, hau litzateke:

muga + harri

zede + harri

atze + harri

otso + herri

Hitz batez: *hirugarren* silaban espero genuen /b/ hori, *desagertu* egin da.

11.7.2. Har ditzagun orain beste lau hauek:

gauherdi, *gaiherdi* S,

eguerdi, *egüerdi*, S,

janhari, L, Leiz.

edari, L, Leiz. (*edaári*, B)

Fenomeno bera somatzen da: etimologi bidez ez etorritik ere, sortu egin da /b/ bigarren silaban, baina hirugarrenean ez.

11.7.3. Gogoan har orain beste bikote hau:

bakhoitz / *egiakoitz*, L, Leiz.

Bigarren silaban *kh*; hirugarrenean, [egjakoĩc] baldin bada, *k*. Ondorio bera, berriro ere.

11.7.4. Hots, euskalki askotan (eta gaurko gipuzkeraz, bizkaieraz eta Bortzirietako nafarreraz, gutxienez) azentua sintagmaren *bigarren* silaban dator eskuarki; edo lehenengoan, bestela. Inoiz ez (edo hor nunbait) hirugarrenean edo ondokoetan. Hortaz, badirudi: /b/ fonema eta azentua *elkarri datxezkiola*. Eta etimologia edo morfologia ez direla aski *h*-ren agerrera edo suntsiera azaltzeko. (Honek guztiak ondorio argitsuak izango ditu 14. eta 16. ikaskaletan).

11.7.4.1. Hona, adibidez, adibide argitsu bat.

Gaurko zubereraz (baina Leizarraga-ren garaiko lapurteraz ere bai, ikusten denez), oso normalak dira oposizio hauek:

- S. (hi) *iz, ait, aie* → *ehiz, ehait, ehaie*
 → *behiz, behait, behaie*
 L. (hi) *aiz, aut, aute* → *ehaiz, ehaut, ehaute*
 → *baihaiz, baihaut, baihaute*

Hots: bai *ez-*, bai *bait-* (= *beit-* zubereraz) *proklitiko gisa* erasten zaizkie adizkiei; eta azentua, hitz batez, euskalki guztietan (ikus honi buruzko lana, Lejoa-ko Biltzarreetan 1980.ko abuztuan aurkeztua) *ez-* eta *bait-* aurrizkien *eskuinean* joanda ahoskera hau dugu:

ehiz = [ehís]
ehait = [eháit̪]
ehaiz = [eháis̪]

eta bide beretik:

baihaiz = [baiháis̪]
baihaut = [baiháut̪]
baihaute = [baiháute̪]

Azentuarekin, beraz, /b/-ak berragertzen delarik.

11.7.4.2. Aita Altuna-k, bestalde, Oihenarte-ren metrika aztertzean argiro frogatu duenez, zuberotar ospatsuaren ahoan:

ari iz, [aris] zen

bi silabatan: eta, berriro ere:

$i + i = i$ *bakarra* ematen zuela

[h]-aren arrastorik ez, beraz; nahiz gero *ehiz* edo *behiz* erabat normalak izan zubererazko testu guztietan.

Zubereraz, hortaz, /b/-aren agertzea edo desagertzea, *azentuari* datzekio, silaba-posizioari, eta ez etimologiari. *Gaihérdi* hitzean ere ongi soma zitekeenez.

11.7.4.3. Deiktikoen [k] eta [g] aldakiak, horretara, /h/ fonema berberaren ahoskera berezi baldin badira ere, *azentua* aztertu behar ko da.

Eta Mitxelena-ren irizpidetik joanda, berriro ere, euskal fenomeno askoren kakoak antzinako euskararentzat, *azentu azkar bat* eskatzen duela dirudi; azentuaren ahulketa fenomeno berri xamartzat jotzen dugularik.

11.7.5. Hipotesi horren arauera:

- a) *Azentu ahuleko* euskalkietan, /h/ fonemarik ez.
- b) *Klitikoetan* (edo hirugarren silabatik aurrera doazen atzizkietan), /h/ fonemarik ez.

Hots, a) eta b) ondorio horiek, bistan denez, *ongi egiztatzen dira*. Alde batetik: zubereraz, *azentu azkarra*, *h* asko: gipuzkeraz, *azentu ahula*, *hrik* ez. Beste alde batetik: *klitikoetan* (edo, *ala*, *eta*, *arren*, eta abar) /h/rik ez; eta artikuluan, beti atzetik erantsia, nahiz jatorriz erakuslea bera izan, *dударik gabe* (bizkaieraz *a* erakuslea aparte erabil daiteke oraindik: *a gizona*), /h/-rik ez. Azenturik gabe, /h/ galkor erabat.

11.7.6. Hots, mailebu zaharren azterketak ondorio berberetara eramaten gaitu.

Latinetik etorri diren hitzetan —eta hau ez euskaraz bakarrik, hizkuntza erromanikoetan ere gauza bera gertatzen delako— azentuaren lekua, normalean, ez da ondorengo hizkuntza berrian aldatu. Euskaraz baditugu latinetik etorri diren hitzak. Eta hitz horietan, beraz, posible izango dugu, eta erraz, *azentua* non egon den jakitea.

| | | | | |
|-----------|------|--------|---|--------------------|
| Adibidez: | erd. | páz | → | beraz, <i>báke</i> |
| | | podér | → | <i>bothére</i> |
| | | virtúd | → | <i>berthúte</i> |
| | | altár | → | <i>altháre</i> |
| | | lúcaro | → | <i>lúkuru</i> |
| | | juégo | → | <i>jóku</i> |

Berehala ikusten denez: leherkaria duen silabak latinez *azentua* bazeraman, leherkari hori *aspiratua* da euskaraz; eta *azentua ez bazeraman*, leherkari *gorra* da, baina ez *aspiratua*.

Areago: gaurko zubereraz bezala, *azentua* silabaz aldatzen bada, /h/ ere ager daiteke:

| | | |
|------|---|----------------|
| néke | → | <i>nekhátü</i> |
| jókü | → | <i>jokhátü</i> |
| máñü | → | <i>mañhátü</i> |
| mánü | → | <i>manhátü</i> |

11.7.6.1. Gauza bera somatzen da aditz sintetiko zaharretan:

| | | |
|----------------|----|--------------|
| <i>ikhusi</i> | (= | *[ikhúsi]) |
| baina, | | <i>dakus</i> |
| <i>ekharri</i> | (= | *[ekhári]) |
| baina, | | <i>dakar</i> |

Hots, Larramendi-ren iritziz (XVIII. mendeko *azentuari* buruz emana), adizki horien *azentua dá-* silaban zetorren. Bestela esanda, hau postula liteke:

[dákus(a)], [dákar], eta abar.

Eta normala litzateke, berriro, leherkaria daraman silaba *aspiratu* izatea *azentuarekin*, eta gor hutsa *azentua* gabe.

Partizipioetan ere gauza bera:

| | | |
|----------------|---|-----------|
| <i>jakin</i> | → | *[žákin] |
| <i>ikhusi</i> | → | *[ikhúsi] |
| <i>ekin</i> | → | *[ékin] |
| <i>ethorri</i> | → | *[ethóři] |

11.7.7. *Azentuak* eta *aspirazioak* (*gaurko* *aspirazioak*, *hobeki*) duten loturak, beraz, argibide berriak eman bide ditzake euskararen diakroniaren azterketetan.

Eta gaur *aspiraketa azentudun* gisa agertzen zaigun fenomeno hori, *beste zerbait* izana dela adierazten. (Ikus 14. eta 16. ikaskaiak).

11.7.8. Hipotesi honen alde mintzo dira fenomeno harrigarri batzu.
Batetik:

hi haiz → hik duk

Beraz: h ⇌ k

Bi fonemak elkar trukutzen bide dute.

Eta, diakronian, hau gertatu bide da:

*khaiz → haiz

*dukh → duk

11.7.8.1. Hipotesi hau zaharra da; era berean, lehenengo pertsonen t ⇌ n
lotuta baleude bezala:

*ndaiz → naiz

*dund → dut

/ⁿd/ hori, /d/ aurre-sudurkaria izan liteke.

11.7.9. Lotura zahar horren alde (k → kh → h → ∅) daude aztarna
xume batzu:

a) fr. Arcangues = eusk. *Arrangoitze*

Alegia:

Arrangoitze < *Arkhangoitx

delako batetik baletor bezala.

b) akitu = ahitu = aitu

kabia = habia = abia

kau = hau = au

(deiktiko guztietan)

k → kh → h → ∅ katea aurrean bide dago.

Baina hipotesi diakroniko horiek ez dira liburuaren helburua.
Eta horretan utziko ditugu, beraz, besterik erantsi gabe.

XII KAPITULUA

EUSKAL FRIKARI AUTONOMOAK

A) /j/ fonema

- 12.1. Gauza ezaguna denez, *j* idazten dugun fonemak, balio fonetiko desberdinak ditu euskalkietan barrena. Hain zuzen ere, hauxe dugu euskaraz ahoskerarik ugarienak dituen fonema.

Ezerekin korrelaziotan ez egonik (/f/ fonema ez dagoen bezala), fonema *ibiltaria* da ahoskerari dagokionez; eta horretatik *fonema autonomo* bataiatzea.

Goranzko diptongoetan (*ia*, *ie* eta *io*), aurreko parteak bere silabatasuna galdu; eta [ja], [je] eta [jo] diptongoen aldakuntzaz sortu dira gaur *j* grafiak euskaraz ezagutzen dituen aldaki guztiak.

- 12.2. Ikus dezagun, hasteko, non-nola ahoskatzen den /j/ fonema. Fonema honek *bost* ahoskera desberdin ditu, gutxienez:

12.2.1. Gipuzkeraren arauerakoa.

Alegia:

jan → [xan]
jentil → [xentil]
judu → [xuðu]


Beraz:

ji, je, ja = [x]

[x] *frikari, belare, gorra* (gaztelaniazko *j* bera)


- 12.2.1.1. Artikulazio-puntua, ezaguna denez, ondoko bokalearen arauera aurreratzen edo atzeratzen da: bai /k, g/ leherkarietan, bai /x/ frikarian; eta zenbait aldiz [X] ere ahoska daiteke.

67.ir.



Belareak

68.ir.



Ubulareak

- 12.2.1.2. *Gipuzkoar* ahoskera hori, dena dela, ez da *gipuzkeraz* bakarrik entzuten. Markinako azpi-euskalkian ere gertatzen da; baita Hego-nafarreraren parte handi batetan, testuen bidez jakin daitekeenez (eta Gares-aino).

Gipuzkoar [x] hau orain dela bizpahiru mende hasi zen sartzen; nahiz lehenago ere, zenbait herritan bederen, segurutzat jo badaiteke ere.

Garai hartan jaiotako berrikuntza, gero eta hedatuago dago Euskal Herrian barrena.

Mitxelenak dionez: «la realización *velar* [x] está ya atestiguada por el P. Moret en obra publicada en 1665» (FLV 30, 393). Eta XVIII. mendean, *zenbait euskalkitan bederen*, gure *j* [x] esaten hasia zen.

12.2.2. Nafarrerazko ahoskera.

Alegia:

jan → [ȝan]
jentil → [ȝeɲtil]
judu → [ȝuðu]

/d/ { [ȝ], *leherkari, sabaikari, ozena*
[y], *frikari, sabaikari, ozena*

Gaztelaniaz bezala, eta *automatikoki*, bokaleen artean hau dugu:

/d̪/ → [y] / V — V

Baina hitz haseran, eta *l* eta *n*-ren ondoren, bere balio leherkariari eusten dio; afrikazio punttu batekin ere entzuten dela batzutan.

Hauxe da [j] kontsonante-erditik hurbilen dagoen ahoskera. Eta hauxe ere zabalduea: bizkaiera mota askotan (Arratia-n, eman dezagun), nafarrera mota askotan (Leitze inguruan, bereziki; baina Uterga-raino ere bai: *Iaun, Iuez*, eta abar); lapurteraz; eta afrikazio apur batekin, baxenabarreraz ere bai.

12.2.3. Nafarroako mendialdeko ahoskera.

Erronkarieraz, zaraitzieraz eta aezkeraz (baita, dirudienez, hauen Hegoalde eta Mendebaldean mintzatzen ziren nafarrera mota askotan: Elkano-koa barne) /j/ fonema [š] ahoskatzen da:

jan → [šan]
jentil → [šeɲtil]
judu → [šuðu]

Zenbait hitzetan, eta *Jainkoa* hitzean oso bereziki, apezek kutsatutako *gipuzkoar* ahoskera txertatu da, bertako ahoskera normalean aurka:

Jainkoa = [xaiŋkoa]

Ahoskera normalean, dena dela:

[š] = *frikari, sabai-aurreko, gorra*

Frantsesezko *ch* grafiari dagokion soinu^{ua} eta gure [š] oso antzekoak dira; nahiz, gurea, askotan gorago artikulatua izan frantsesez baino. (Ikus 14. ikaskaia; eta, besteak beste, Gavel-ek honi buruz emandako zehaztapenak).

Hauxe da ere Oñati-ko hika-adizkietan entzuten dena: *baxatoxak* (= [bašatošak]). Azkuek *šatok*, *šaukak* transkribatua («Fonética Vasca», 1918, 460 orr.).

12.2.4. Zubererazko ahoskera.

Jakina denez, [ž] entzuten da:

jan → [žan]
jente → [žente]
judu → [žuđu] (*buhamia* ez entzutekotan, jakina)

[ž]: *frikari*, *sabai-aurreko*, *ozena*
 Afrikaziorik bat ere gabe, zubereraz.

12.2.5. Bizkaiko kostaldeko ahoskera.

Bokale artean [ž] entzun badaiteke ere:

Ajanguiz = [ažanğis]

eta frantsesezko *j*-ren antzera:

jambon → [žãmbó]
jour → [žur]

hitz-haseran, Lekeitio-ko ezaugarri berezia denez, [dž] entzuten da:

jan → [džan]
jente → [džente]
judu → [džuđu]

eta ingelesaren arauera:

jam = [džæm]

[dž] = *afrikatu*, *sabai-aurreko*, *ozena*

Azkuek *d̄satok*, *d̄saukak* transkribatu zuena («Fonética Vasca», 1918).

12.3. Ahoskeraren *berria* fenomeno askotan somatzen da. Eta maile-buetan batez ere.

Gaztelaniazko [x] (belarea, beraz, normalean; edo ubularea, kasuen arauera) hori euskaraz eman nahi izanez gero, euskaldunek beren taulan aurkitu ez, eta hau egin zuten euskalki askotan:

[x] → [k] (edo [g], zenbait inguramendu fonikotan).

Hau da: *frikariaren* orde, artikulazio-puntua eta gortasuna atxikiz, *leherkaria* eman. Adibidez:

| | | |
|----------------|---|--|
| gazt. jícara | = | eusk. <i>kikara</i> |
| gazt. Don José | = | eusk. <i>Dongóse</i> (<i>Dongosemborda</i> , Hendaian) |
| gazt. José | = | eusk. <i>Koxepe</i> , <i>Koxepa</i> . |

12.3.1. Baina ezin ahoskatze hori, gaur [x] soinua ezagutzen duten euskalkietan da harrigarriena:

| | | |
|---------------|---|---|
| gatz. juzgado | = | B, <i>kuzgau</i> , Mark. 24 |
| juez | = | B, <i>kues</i> jaunak, Mark. 31 (biak segidan, Arrizabalaga-ren luman...) |
| gatz. junker | = | B, <i>kunker</i> , Mark. 50 |
| refugio | = | B, <i>errepukixo</i> , Mark. 50 |
| justo | = | B, <i>kustu-kustu</i> , Mark. 60 |
| registrar | = | B, <i>errekistu</i> , Mark. 62 (eta gauza bera bestetan: G, <i>errekistatzia</i> , Zul 54 G, <i>errekistatu</i> , Urkiol. 177 AN, <i>errekistatzen</i> , Axura 17) |
| jersey | = | B, <i>kerse</i> , Mark. 63 |
| quijote | = | B, <i>kikote</i> , Mark. 84 |

12.3.2. Azkuek berak seinlatu zuen hau: «Julián es Juli-an (para muchos Kulian)», Acento Vasco, 47. Azkueren ohar honek bi alderdi aipagarri ditu:

- a) diptongo goranzkoen kontrako lekukotasun;
- b) [x] ahoskera berriaren kontrako joera iraunkorra. Baina, inguramendu egokietan, berriro agertzen da joera bera:

ez jauna = Aezk. *ezkauna*

12.3.3. Eta espero ez diren ahoskerek gauza bera salatzen dute:

gazt. flojo = G, *ploko*, Altz. 60
botijo = G, *botiko*, Ana M. Etxaide
sanguijuela = R. *sangrikuela*
Sal. *sangrikol*

(Zaraitzieraz, hortaz, bai leherkariak, bai monop-
tongaketa, batera).

12.4. Nolanahi ere, bai euskararen barruan, bai euskal sustratuzko erdal *navarro-aragonés* delakoan, oso maiz dugu ekuazio hau:

[x] = [fw]

Holmer-ek ez du zalantzarik ikusten: «Es indudable que la *f* es variante corriente en el grupo *xu* (ante vocal)» (Vasco Hablado, 18).

Baztan-en, esate baterako, oso aldaki ohargarriak bildu ditu Vidal Pz. Villareal-ek: *guaria*, *garia*, *joalea* eta *falea*. (Ikus Cuad. Etn. 26, 33). Elkano-ko Lizarragak ere *fale* dakar.

Hots, horixe da *joan* infinitiboak erakusten duen ahoskera-multzo bera: [xuan], [xoan], [gan], [fan] (baita [fwan] ere, jakina, eta beste batzu oraino).

Adibidez:

gazt, fuerza = nav. [xwɛfθa]

Eta *joera* euskal hitza, *fuera* ere agertzen da zenbait aldiz (Oihenarte barne).

12.5. Aipatu bederen egingo dugu ikaskai honetan, geroago (21. ikas-
kaian berezki) azalduko den fonema elkarketa. Alegia:

$ez\ j- = etx-$

Edo, zehazkiago:

$[es]\ [ž-] = [eč-]$

Adibidez:

B. $ez\ jakiat \rightarrow etxakiat$
 $[eś\ žakjat] \rightarrow [ečakjat]$

12.5.1. Fenomeno bera Nafarroan ere:

$ez\ jauna \rightarrow etxauna, Zaraitzun$

(beraz:

$[es\ šauna] \rightarrow [ečauna]$).

Eta Elkano-ko Lizarragak, berdin:

$apetxaun (< apez + jaun)$
 $[apes] + [šaun] = [apečaun]$

Bi txistukariren elkarketak, gorago ere esan dugunez (8.7.3), afrikatu bat ematen du; eta honen artikulazio-puntua bi horien arteko goikoena da; etsenplu hauetan berriro froga daitekeenez.

12.5.2. Bizkaierazko [ž] hori nola sortu den garbi dago:

$dakit \rightarrow hika, diakiat$

Eta beraz:

$diakiat \rightarrow [djakjat] \rightarrow [džakjat] \rightarrow [žakjat]$

Eta bide beretik adizki guztiak:

$dago \rightarrow diagok \rightarrow [džagok] \rightarrow [žagok]$

Hitz haseran, berriz:

$afrikatu \rightarrow frikari$

joera zaharra ageri zaigu berriro.

/j/ fonemak segi duen eboluzioa, adizkietan ere ikus daiteke:

[žakjat] → [šakjat] → [xakjat]
[žagok] → [šagok] → [xagok]

Eta hor ditugu Bergara-ko *amen jak* (= [amen^ɤ xak]), eta Arrasate-ko *ekarri juen* (= [xuen]), katearen azkeneko katen-begi gisa, behin eta berriz Deba-Garaiko euskaraz entzunak eta berrentzunak.

12.5.3. Fonemaren eboluzioa hau izan da, zalantzarik gabe:

(A) [j] → [dž] → [ž] → [š] → [x]

Gipuzkera da berriena (dokumentaturik ere dakigunez), eta nafarrera-lapurtera aspaldikoena.

Honen lekukorik onena, aditz sintetikoak dira:

i - bil - i → da - bil
j - oa - n → d - oa
j - aki - n → da - ki - t
i - kus - i → da - kus - t

Bokale aurreko [i] horrek bere silabatasuna galdu du aurrenik; eta hori izan da katearen abiapuntua.

(A) katea arretaz begiratzuz gero, berriz, oso normalak dira pausuak:

sabaikari → sabai-aurreko
afrikatu → frikari
ozen → gor
sabai-aurreko → belare

Urrats bakoitzean *izari bakar bat* aldatzen da (lerro bakar bat, gero ikusiko dugunez, Chomsky-ren ezaugarritzko matrizeetan).

12.5.3.1. Hizkuntz Geografiaren arauera, dena dela, erdialdean [x] ahoskera espero zitekeen, eta hor dago: Gipuzkoa, Ekialdeko Biz-

kaia, Mendebaldeko Nafarroa. Baina [j] soinua Zuberoan eta Bizkaiko Mendebaldean espero genuen. Hots, [ž] eta [dž] soinuak ere agertzen dira.

Arazo diakronikoa izanagatik ere, aipatzea bederen merezi zuen.

B) // fonema

12.6. «Euskaraz ez dago *f*-rik», entzun izan dugu askotan. Eta, hori dela-ta, letra horren kontrako gurzada ez da oraindik zeharo bukatu: *Nafarroa* (eta ez betidanik agertzen den *Nafarroa*) esate baterako.

Ezer baldin badago, ordea, Euskal Herrian barrena osoki sakanaturik, *fan* hitza da (= joan). Bai Erronkarin, bai Sakanan, bai Hendaia-Hondarribian, bai Arrasaten, bai beste lekutan, *fan* entzuten da, *f* fonema [f] ahoskatuz.

Eta «Euskadi Nafarroa» baldin bada, hor dugu [f] soinua baita geure jatorrizko erreinuaren izenean ere.

Gauzak, beraz, hozki hartu beharko dira. Euskaraz *f*-rik ez dagoela dion esakera horrek, bere funtsa ere badu-ta.

12.7. Maiztasunak aurretik, eta Biritxinaga-ren ikerlana oinarritzat hartu dugularik.

Honatz hemen zifrak:

| | |
|--------------------------|---------|
| Gipuzkera/Bizkaieraz ... | 0,00024 |
| Lapurteraz | 0,00267 |
| Batuaz | 0,00187 |

12.7.1. Eskualde *gogorra*, beraz, Gipuzkoa da; edo, hobeki esateko, *gipuzkera* esan ohi den horren eskualdea (eta, beraz, Markina-ko bizkaiera ere sartzen dugularik). Euskalki horietan, egia da, // fonemarik ez dago.

Adibidez:

gatz. gramófono = B, *gramapono*, Mark. 40

| | | |
|-----------|---|--|
| figura | = | G, <i>pigura</i> , Ataun, JMB |
| firma | = | B, <i>pirmie</i> , Mark. 14 |
| feria | = | B, <i>perixa</i> , Mark. 18 |
| fábrica | = | B, <i>pabrikie</i> , Mark. 28 |
| difunto | = | B, <i>dipuntue</i> , Mark. 40 |
| fulano | = | B, <i>pulano</i> , Mark. 29 |
| formal | = | B, <i>pormal puntziñora juen</i> , Mark. 22 |
| flaqueza | = | G, <i>plakiya</i> , Zak. 24 |
| fuerte | = | G, <i>puerte</i> , Txirrita |
| fama | = | G, <i>pama</i> , Txirr. |
| filosofía | = | G, <i>pillosopia</i> , Urruz. 53 |
| fumar | = | G, <i>pumatu</i> , Urruz. 28 |
| conforme | = | G, <i>konporme</i> , Urruz. 29 |
| fantasía | = | G, <i>pantasiya</i> (normala) |
| fruto | = | B, <i>prutuba</i> , P. Bart. 13 |
| forzado | = | B, <i>popuertzako bidia</i> , P. Bart. 19 |
| en fin | = | B, <i>enpin</i> , P. Bart. 58 |
| confianza | = | B, <i>conpijantza</i> , P. Bart. 48 |
| fe | = | B, <i>pedia</i> , P. Bart. (beti) |

Eta beste mila: *blasphemija*, *pornicacinoe*, *pamelija*, *paltsakerija*, *etabar*. Mordoska polita eman du Ana M. Etxaide-k, Orioko euskarari dagokionez.

12.7.2. Hala ere, beste euskalkietan //f// badago. Adibidez:

fV— *fede*
faltsu
festa (nahiz *besta* ere egon)
farranda
falta
funts
fits
fidatu

Edo, baxenabarreraz maiz entzuten den hori:

futxo!

Bizkaierazko hitzak dira, bide beretik, ondoko hauek:

firu (= hari)

fin

fiku

fr- *frejidu* (bizkaiera, hain zuzen)

franko

frogatu

fresko

fruitu

afruntu

fl- *flore* (Lapurdin, batetik; baina Ormaiztegin eta Mutrikun ere bai)

flako, flakuska

flakia

xafla (Batuan onartua)

VfV *aifar* (= apar)

ifar (= ipar)

añari

Nafarroa

bafore

Baita Baigorri-ko ezaugarri bitxi horiek:

kafi (= kabia)

ofe (= ohe)

nf *infernu* (= ifernu)

konfesatu (= kofesatu)

alfer (= aufer)

12.7.3. Frantsesezko /v/, bestalde, [f] bihurtu da euskaraz:

fr. vert = eusk. *ferde* (= berde)
vite = *fite* (= azkar)

12.7.4. Gorago aipatutako maiztasunak, beraz, eta afrikatuei dagozkienak:

tx = 0,00140

ts = 0,00214

alderatzen badira, /f/ fonema aski maiztasun *normalekoa* dela esan behar da; nahiz, dudarik gabe, berri xamarra izan (*berri* hitz hori, nolana ere, mendetan, eta hizkuntzen mailan, neur-tzen baldin bada).

Euskara Batuari buruzko zifrek erakusten dutenez, dena dela:

f = 0,00116

fl = 0,00004

fr = 0,00020

hitz-haseran agertzen da /f/ fonema maizago, beste edozein posiziotan baino.

12.7.5. Aurreko puntuan (12.7.2) eman ditugun zerrendetan ezinago garbiki agertu denez, /f/ fonema erdal hitzetan eta erdaratik etorri zaigu: *fede*, *faltsu*, *fidatu*, *fresko*, *fruitu*, eta abar. Ia-ia denak.

Hots, euskal itxura duten horietan ere, [f] soinua jatorrizkoa ez dela somatzen da berehala:

fan < joan

Eta, beste batzutan, alternantzia bitxiak daude:

alfer = auher (R. aurer)

12.8. Gaur, *normalean*, /f/ fonema [f] ahoskatzen da:

[f] = *frikari*, *expain-horzakari*, *gorra*.

12.8.1. Ez leku guztietan, dena dela. Ana Mari Etxaide-k [ϕ]:

[ϕ] = *frikari, ezpainbiko, gorra*

ahoskera aurkitu du Barrankan: «en Etxarri Aranaz la encontramos en: *fuego, afuera, fama, fuimos*; sin embargo, parece labio-dental ante *r*. En Unanua parece labial incluso ante *r*» (ikus FLV 25, 70-71).

Hots:

$$\frac{f}{\phi} = \frac{v}{\text{b}} = \frac{\quad}{p} \quad \begin{array}{l} \text{(ezpain-horzkari)} \\ \text{(ezpainbiko)} \end{array}$$

Gaur, ondoko erdaretan, [f] dago (bai gaztelaniaz, bai frantsesez); eta [v] ere badago, frantsesez, [f]-ren kide ozen gisa.


Euskal /f/-ak erakusten dituen aldakiak oro hortxe daude, proportzio horretan.

[ϕ] eta [h], bestalde, askotan gertatzen dira elkarren ordari hizkuntza askotan; biak oso ahulak eta oso erorkorrak baitira. ([ϕ] batez ere).

Bi *f* horien arteko desberdintasuna, irudi hauen bitartez agertuko bide da garbikienik.

Batetik [ϕ] ezpainbikoa: airea ezpainen artetik irteten da:

69.ir.



[ϕ]

[b̥]-ren kide gorra

| | | | | | |
|------|-------|---|-------|---|-------|
| erd. | forma | = | horma | = | orma |
| | fiku | = | piku | = | iku |
| | ferde | = | berde | | |
| erd. | firme | = | irmo | | |
| | fago | = | pago | = | bago |
| | festa | = | pesta | = | besta |
| | kafi | = | kabia | | |
| | farre | = | parre | = | barre |

Eta abar.

[f] arrotzaren ordeztan (eta bolara batez, agian, [∅] erorkorra saiatu ondoren), [b], [p], [∅], are [m] ere erabili izan dituzte euskaldunek.

12.8.4. Ohar bat.

Frantsesez hau dago:

$$\frac{[v]}{[f]} = \frac{[z]}{[s]} = \frac{[ž]}{[š]} \quad (\text{ozenak})$$

$$\frac{[v]}{[f]} = \frac{[z]}{[s]} = \frac{[ž]}{[š]} \quad (\text{gorrak})$$

Hori dela-eta, askoz ere egonkorrago agertzen dira [f] eta [z] soinuak euskarazko kideak baino.

Euskaraz, honela gelditzen baitzaigu korrelazio hori:

$$\frac{[f]}{[f]} = \frac{[ž], S}{[š]} = \frac{[s]}{[s]}$$

Gure fonema *autonomoak* hitz batez, integratu gabe daudelarik, erorkor eta aldakor agertzen dira.

Martinet-ek hizkuntza askotan seinatu duen bezalaxe.

XIII KAPITULUA

EZAUGARRI BITARRAK

(*Euskal bokaleen eta glideen sailkapena*)

- 13.1. *Ahoskerari* dagozkion *ñabardurak Fonetikari* badagozkio, *berezitasun funtzionalak* eta *desberdintasun pisudunak Fonologiari* dagozkio.

Fonetikaren mailan soinuen *zehaztasuna* gidari bada, *Fonologiaren* mailan *oposizioa* da nagusi. Eta oposizio hau, ahal delarik, *bitarra* izatea onena:

| | | |
|-------------------|---|--------------|
| sudurkaria, bai | = | [+ sudurk.] |
| sudurkaria, ez | = | [— sudurk.] |
| ozena, ahotsa bai | = | [+ ahots] |
| gorra, ahotsik ez | = | [— ahots] |

Eta abar.

Binarismoa, horretara, ia-ia Fonologiarekin batera jaiio da; eta Roman Jakobson-en lehenengo saiaketak ez dira atzokoak.

Neure «Fonologiaren Matematikuntza» liburuskan azaldu nuen (U.E.U. 1979, Iruñea), binarismo horren lehenengo epean *akustika* zen gidaria. Objektibotasunaren bila abiaturik, R. Jakobson-ek soinuen azterketa *fisikoan* bilatu zuen bere binarismoaren oinarria: espektroak, eta abar.

Jakobson-en ideia onarturik ere, ordea, eta pertzepzioaren partea ezin bazterturik, *Chomsky* eta *Halle* hizkuntzariek, atzera-edo egin dute; eta hauen ezaugarri bitarrak askoz ere *klasi-koago* bihurtu dira; artikulazio-puntua, ozen / gorra, eta abar.

Ezaugarrien arazo honetan, eten gabe ari dira gauzak aldatzen USA-ko ikertzaileen artean. (Aski du irakurleak, esate baterako, A. H. Sommerstein-en «Modern Phonology» liburua begiztatzea). Ezaugarri bitarrei hau eskatzen zaie bereziki: *hautatu* den hizkuntzaren *fonemei buruz funtzionalak* izatea. Irizpide enpirikoak gailen, beraz.

Jakobson-en ezaugarriak, horregatik, hein batez bederen, utziak izan dira.

Liburu honetan, *lehenengo urrats gisa*, Chomsky-Halle-k 1968-an proposatu zituzten ezaugarriak hautatu ditugu. Egokiago batzu hauta litezkeela somatzen dugu; baina Chomsky-ren «The Sound Pattern of English» liburua klasikoa eta eskuragarria izanik, orduko ezaugarri horiek hautatu ditugu euskal fonologia bitarra abiatzeko.

Gaurko ikasleek dute orain hitza; eta beroiei dagokie tresna hau fintzea eta zorroztea.

13.2. Hona hemen Chomsky-Halle-ren lehenengo ezaugarri nagusiak:

1. [\pm sonorant]; eusk. [\pm sonante]
2. [\pm syllabic]; eusk. [\pm silabiko]
3. [\pm consonantal]; eusk. [\pm kontsonantiko]

Ondoko tauletan eta erregeletan *Chomsky*-ren hiztegia erabiliko dugu; horrela, atzerriko liburuekiko alderaketak, eta abar, erraztu nahiz.

Chomsky-Halle-ren hizkera berezi hori ingelesez harturik ere, kalte txikia egin dakiok eguneroko euskara arruntari. Eta, nolana ere, ezaugarri guztien itzulpena emango dugu beti puntuen haseran.

13.2.1. 1. [\pm sonorant]

Beraz:

- [— sonorant] = *trabakari* (ingel. *obstruent*)
[+ sonorant] = *sonante*

[+ sonorant] diren soinuetan, *berezko* glota-bibrazioa gerta daiteke; [— sonorant] soinuetan, berriz, ez.

Kontuz, dena dela.

[+ sonorant] diren soinuetan, berriro ere, *berez* abia *daitezke* glotaren bibrazioak: «voisement spontané possible», frantsezko itzulpenean, 125.

[— sonorant] diren soinuetan, aldiz, *ezinezkoa* da *berezko* bibrazio hori: «la configuration des cavités rend impossible le voisement spontané», Chomsky, 125.

Baina, *nahi* izanez gero, *berariaz*, glotaren bibrazioa lor daiteke: [b], soinua, esate baterako, [— sonorant] da; baina *ozena* da, bibrazio horiek *nabita* gertarazten ditugunean.

Airearentzako pasabidea *hertsia*goa denean, besterik gabe, *ezinezko* bihurtzen da *berezko* bibrazioa; eta [— sonorant] soinuak hor ditugu.

Honen azalpen fisikoa ulertu nahi izanez gero, ikus Chomsky-Halle, 124. orrialdean (frantsezeko liburuan, beti); eta Halle-Stevenson-en saiaketan azalpena.

Sailketa, beraz, *enpirikoa eta fisiologikoa* da ezaugarri honi buruz. «Toute constriction plus importante que celle que présente la production des glides [y] eta [w] aura ce résultat», 125; hau da, *ezinezko* egingo du *berezko* bibrazioa.

Beraz:

Bokaleak, [+ sonorant]

Glideak, [+ sonorant]

Sonanteak, [+ sonorant]

Trabakariak, [— sonorant]

Glideak = [j, ɥ, j, w], euskarari dagokionez

Sonanteak = [l, n, r; ʃ, ɲ, ʁ], eta aldakiak [ɲ, ʃ, ʁ] eta abar

Trabakariak = *sonante ez* diren kontsonanteak: *leberkariak, frikariak eta afrikatuak*.

13.2.2. 2. [\pm syllabic]

Silabagune, edo silabaren ardatz, izan daitezkeen soinuak *silabiko* dira; besteak ez.

Euskaraz (baina ez beste hizkuntzetan, jakina) [+ silabiko] diren soinu bakarrak *bokaleak* dira:

[i, e, a, o, u] = [+ silabiko]

Kontsonanterdiak [j, w] eta bokalerdiak [j̥, w̥], definizioz, ezin daitezke silabagune; hain zuzen ere, diptongoetan parte *ex-bokalikoa* baitagokie. Beraz:

Bokaleak: [+ syllabic]

Glideak: [— syllabic]

Euskaraz ez da sekula gertatzen [l], edo [n], eman dezagun, silabagune izatea (ingelesez, esate baterako, gerta daitekeenaz bestaldera).

Beraz:

Sonanteak: [— syllabic]

Eta, noski, *egiazko* kontsonanteak: leherkariak, frikariak eta afrikatuak, ez dira inoiz, *euskaraz*, silabagune edo silaba-erdiko ardatz. Hortaz:

Trabakariak: [— syllabic]

13.2.3. 3. [\pm consonantal]

«Les sons consonantiques sont produits avec une *obstruction importante* dans la région *médio-saggitale* de l'appareil vocal», Chomsky, 126.

Beste modu batez esatekotan: ahoaren erdibidetik, edo simetri-planotik, datorren *aire-lerroa trabatuta* baldin badago; eta, beraz, nahiz airea *alboetatik* edo *surtzilloetatik* irten ahal izan, bere irtenbide *normala*, ahoaren *erdikoa*, *trabatua* aurkitu duenez gero, [+ consonantal] izango da.

[l] eta [n] soinuak, beraz, [+ consonantal] dira; trabaketa erdi-erdian baitago, eta «*au moins aussi marquée que celle qu'on rencontre dans la production des consonnes fricatives*», Chomsky, 126. Gauza bera [r] soinua: airea trabaturik gertatzen da erdi-erdiko bere ardatz-bidetik.

Alderantziz: [j], [w], [ɥ] eta [j̥] glideetan ez da hori gertatzen: *frikaketan* baino *aisago* igarotzen baita airea. Beraz:

Bokaleak: [— consonantal]
Glideak: [— consonantal]
Sonanteak: [+ consonantal]
Trabakariak: [+ consonantal]

13.2.4. Eta lehenengo taula bat moldatuz hau dugu:

| | V bokale | glide | C son. | C obstr. |
|-----------------|-------------|-------|-----------|-------------|
| [± syllabic] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | — |
| [± sonorant] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| [± consonantal] | — | ⊖ | ⊕ | + |

T. 15.1

Taulagune guztiak bete baditugu ere, batzu *erredundanteak* dira; eta borobilik gabe utzi ditugu.

13.2.5. Osa dezagun taula, behin bederen, pausuz pausu:

Eman dezagun taula, bere osoan, baina erredundantziak aztertzen ikusi gabe. Egoera hau da:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|-----------|---|-----|------|-------|
| [± syll.] | + | — | — | — |
| [± son.] | + | + | + | — |
| [± cons.] | — | — | + | + |

V = bokaleak Son. = sonanteak
 Gl. = glideak Trab. = trabakariak

Bokaleak eta glideak berezteko, aski da [\pm syll.] ezaugarria:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|----------------|----------|-----------|------|-------|
| [\pm syll.] | \oplus | \ominus | — | — |
| [\pm son.] | + | + | + | — |
| [\pm cons.] | — | — | + | + |

Eta [\pm syll.] horrek berak bereziko ditu: bokaleak [V] batetik, eta sonanteak [Son.] eta trabakariak [Trab.] bestetik.

Beraz:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|----------------|----------|-----------|-----------|-----------|
| [\pm syll.] | \oplus | \ominus | \ominus | \ominus |
| [\pm son.] | + | + | + | — |
| [\pm cons.] | — | — | + | + |

Bokaleak *berezita* daude, beraz; baina [Gl.], [Son.] eta [Trab.] berezi beharra dago.

[\pm sonorant] ezaugarria baliatuz, [Trab.] batetik; eta [Gl.] eta [Son.] bestetik, agertzen zaizkigu.

Eta honetan gaude:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|----------------|----------|-----------|-----------|-----------|
| [\pm syll.] | \oplus | \ominus | \ominus | \ominus |
| [\pm son.] | + | \oplus | \oplus | \ominus |
| [\pm cons.] | — | — | + | + |

Eta orain, [Gl.] eta [Son.] berezteko, aski dugu [\pm cons.] ezaugarria baliatzea:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|----------------|----------|-----------|-----------|-----------|
| [\pm syll.] | \oplus | \ominus | \ominus | \ominus |
| [\pm son.] | + | \oplus | \oplus | \ominus |
| [\pm cons.] | — | \ominus | \oplus | + |

13.2.6. Horra hor soluzio bat.

Egokiena hori ote da? *Ekonomikoena* hori ote da? Ezin aldez aurretik erantzun. Erantzuna *enpirikoa* da.

13.2.7. Ikus dezagun beste soluzio bat.

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|-----------|---|-----|------|-------|
| [± syll.] | + | — | — | — |
| [± son.] | + | + | + | — |
| [± cons.] | — | — | + | + |

Eta has gaitezen, *euskaran* komeni zaigun bezala (arrazoi *praktiko* eta *enpirikoengatik*: mila saio egin ondoren, horrela iruditu zaigu), [± son.] ezaugarritik. Eta hau dugu:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|-----------|---|-----|------|-------|
| [± syll.] | + | — | — | — |
| [± son.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| [± cons.] | — | — | + | + |

Trabakariak, beraz, berez daude.

Erabil dezagun orain [± syll.] ezaugarria; eta honetara helduko gara:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|-----------|---|-----|------|-------|
| [± syll.] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | — |
| [± son.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| [± cons.] | — | — | + | + |

Eta orain [Gl.] eta [Son.] berezteko, [± consonantal] ezaugarria erabiliko dugu:

| | V | Gl. | Son. | Trab. |
|-----------|---|-----|------|-------|
| [± syll.] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | — |
| [± son.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| [± cons.] | — | ⊖ | ⊕ | + |

Hauxe da hautatu dugun soluzioa: 15.1 *Taula*.

Eta hor ditugu euskal soinuak lehendabiziko sailketaren arauera emanak.

13.3. Gogoan har ditzagun orain beste lau ezaugarri hauek:

6. [\pm high]; eusk. goiko
7. [\pm low]; eusk. behereko
8. [\pm back]; eusk. atzeko
15. [\pm rounded]; eusk. borobildu

Oharra: Fonologia sortzailea moldatzekotan, *hizkera bat* hautatu behar da. Euskaltzaindiak oraindik Euskara Batu hori zein den ez du esan, Fonologiaren eta Fonetikaren mailan, batez ere. Guk, horrengatik, eta bokaleei dagokienez, /i, e, a, o, u/ boskotea hartu dugu eredutzat; [ü] normalean agertzen ez delarik. Hori dela-ta, [\pm rounded] ezaugarria ez da, normalean, gure fenomenoak argitzeko beharrezko gertatzen; eta ezaugarri *erredundante* ikusiko dugu behin eta berriz ondoko taulotan.


Goazen orain bana-bana.

13.3.1. 6. [\pm high]; 7. [\pm low]; 8. [\pm back]

Chomsky-ren arauerako sailkapenean, oso gauza zehatza da [\pm high] ezaugarria; eta gauza bera beste biak.

Hona hemen Hellwag-en diagrama:

71.ir.



Chomsky - Halle-ren ardatzak

Beraz:

T. 15.2.
(V)

| | i | e | a | o | u | ü |
|-------------|---|---|---|---|---|---|
| [± high] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | + |
| [± low] | — | ⊖ | ⊕ | ⊖ | — | — |
| [± back] | ⊖ | ⊖ | + | ⊕ | ⊕ | — |
| [± rounded] | — | — | — | + | + | + |

Gogoan har, otoi (2.2.1.)-ko irudiak.

13.3.1.1. *Ohar batzu:*

a) Eman dezagun /e/; eta, eman dezagun, erdiko idekierakoa dela eskuarki, euskaraz. Beraz:

$$/e/ = [— high] \text{ (ez da goikoa)}$$

Baina, era berean:

$$/e/ = [— low] \text{ (beherekoa ere ez baita)}$$

Eta:

$$/e/ = [- \text{ back }] \text{ (atzekoa ere ez)}$$

Jakina: borobildua ere ez denez:

$$/e/ = [- \text{ rounded }].$$

Eta matrize hau dugu:

$$/e/ = \begin{bmatrix} - \text{ high} \\ - \text{ low} \\ - \text{ back} \\ - \text{ rounded} \end{bmatrix}$$

b) Eman dezagun $/i/$ orain:

$$/i/ = [+ \text{ high}]$$

(artikulazio-puntua *gorago* dago ardatzen iturburua baino)

$$/i/ = [- \text{ low}]$$

$$/i/ = [- \text{ back}] \text{ (aurrekoa da, hain zuzen)}$$

$$/i/ = [- \text{ rounded}].$$

Beraz:

$$/i/ = \begin{bmatrix} + \text{ high} \\ - \text{ low} \\ - \text{ back} \\ - \text{ rounded} \end{bmatrix}$$

c) Desberdintasun nagusia, beraz, $/i/$ eta $/e/$ fonemen oposizioan, hau da:

$$/e/ = [- \text{ high}]$$

$$/i/ = [+ \text{ high}]$$

Gainerakoetan berdinak direlarik.

d) Erredundantzien hautaketa, laburtu beharrez, egindakotzat emango dugu.

Adibidez:

$$/i/ \text{ eta } /u/, \text{ taularen arauera, hau dira:}$$

$$/i/ = \begin{bmatrix} + & \text{high} \\ - & \text{back} \end{bmatrix}$$

$$/u/ = \begin{bmatrix} + & \text{high} \\ + & \text{back} \end{bmatrix}$$

Gainerakoak erredundante direlarik.

Eta egia da ([\ddot{u}] kontutan ez hartzekotan, noski).

$\begin{bmatrix} + & \text{high} \\ - & \text{back} \end{bmatrix}$ matrizea daukan fonema bakarra /i/ da. ([\ddot{u}] ere

bai, berriro ere; baina ez gure euskara eredian, esana dugunez).

e) [\pm rounded] ezaugarria *erredundantea* da [\ddot{u}] gabeko euskara azaltzekotan. Baina, jakina, zubererazko fenomenoak azaltzerakoan, sartu egin beharko dugu.

f) Azken ohar bat: [\ddot{u}] = [+ high] hartu dugu.

13.4. *Glideak* nahasian ditugu oraingoz.

Baina [\pm high] ezaugarriaren arauera sailka ditzakegu:

$$\begin{aligned} [j, w, \underset{\cdot}{i}, \underset{\cdot}{u}] &= [+ \text{high}] \\ [h] \text{ (eta } [\text{?}]) &= [- \text{high}] \end{aligned}$$

Beraz:

T. 15.3.

| | | |
|---------------|---|------|
| | V | ?, h |
| [\pm high] | ⊕ | ⊖ |

13.4.1. Orain, dena dela, leku berean daude [$\underset{\cdot}{i}$, j] eta [$\underset{\cdot}{u}$, w].

Beraz:

T. 15.3.1.

| | | |
|---------------|---|---|
| | j | w |
| [\pm back] | ⊖ | ⊕ |

Eta sailkaturik ditugu, jadanik, euskal *bokaleak* eta *glideak*.

| | i | e | a | o | u | j | w | h |
|---------------|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 [± son.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ |
| 2 [± syll.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ |
| 3 [± cons.] | — | — | — | — | — | ⊖ | ⊖ | ⊖ |
| 6 [± high] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| 7 [± low] | — | ⊖ | ⊕ | ⊖ | — | — | — | + |
| 8 [± back] | ⊖ | ⊖ | + | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊕ | — |
| 15 [± round.] | — | — | — | + | + | — | + | — |

T. 15.4.

13.4.2. /b/-ren sailkapena azaldu beharra dago, dena dela.

Lehendabiziko ohar bat: autore guztiek ez dituzte ezaugarri berberak proposatzen /b/-rentzat.

Garbi ditugu batzu:

/b/ = [— syll.] (ez da silaba-gune)

/b/ = [— cons.] (ez da ahoskatzen ahoaren ardatzean trabaketa handi batez)

/b/ = [+ sonorant] ez da denen gustokoa.

Schane-k, esate baterako, [— sonorant] markatzen du. Chomsky-ren liburuan [+ sonorant] dator (I. taula; 127. orr.); eta, euskarari buruz, *egokiago* dator *urkariekin* batera (eta [+ sonorant], beraz), *trabakariekin* batera baino.

Ez beti, ordea, ondoko kapituluetan ageri denez; eta ez hizkuntza askoren azterketan (ikus Sommerstein, 5.3.1. puntuan batez ere).

Liburu honetan, dena dela:

/b/ = [+ sonorant]

13.5. Euskal *bokalismoaren* arazoak aztertzerakoan, beraz, T. 15.4 taula erabiliko dugu.

[ü] soinua tartean delarik, dena dela, [± rounded] ezaugarria ere erabili beharko dugu; T. 15.2. taula kontutan hartuz.

XIV KAPITULUA

EUSKAL KONTSONANTEEN SAILKAPENA

14.1. Orain arteko sailkapen lanak, hona eramen gaitu (kontsonanteen sailean):

(15.1.-tik harturik)

| | C son. | C obstr. |
|------------|-----------|-------------|
| [± sonor.] | ⊕ | ⊖ |
| [± syll.] | ⊖ | — |
| [± cons.] | ⊕ | + |

Orain, beraz, gainerako ezaugarrien bidez, *sonante* eta *trabakari*en barruko sailkapena lortu behar dugu.

14.2. *Sonanteen* arteko banaketa egiteko, ondoko bi ezaugarri hauek erabiliko ditugu.

5. [± continuant] (= jarraikor)
 12. [± nasal] (= sudurkari)

Beraz:

- eusk. etenkorrak = [— continuant]
 ahokariak = [— nasal]

14.2.1. 5. [\pm *continuant*]

Sonanteen artean, berehala ikus dezakegu gertatzen dena.

a) *Kontsonante sudurkariak*

Aurreko 6. eta 7. kapituluetan esan dugunez, kontsonante sudurkarietan *trabaketa* bat dago erdian; eta benetako *leherkari* sudurrezkoak ditugu. Aski da, era berean, artikulazio-moduari buruzko eskemak arretaz begiratu, eta leherkari *ahozkoen* eskemekin alderatzea: atzeko aire-hariak aldatzen du egoera, surtzilloetara abiatzen denak. Gainerakoan, plegu bereko kontsonantean dira. Hortaz:

$$[m, \eta, n, \eta, \eta] = [— \text{continuant}]$$

b) *Kontsonante albokoak*

«Si on définit les *occlusives* para un blocage de l'air *au niveau de la constriction principale*, alors [l] doit être comptée comme *occlusive*. Le comportement phonologique de [l] dans certaines langues tendant à *confirmer* cette dernière interprétation» (Chomsky, SPE, fr. 151).

Beraz:

$$[l, l, l, l] = [— \text{continuant}]$$

c) *Kontsonante dardarkariak*

«Il y a de bonnes raisons de tenir le [r̄] trillé pour une *continue* plutôt que pour une *occlusive*», Chomsky, 150.

Beraz:

$$[\bar{r}] = [+ \text{continuant}]$$

Aukera hau guztiz funtzionala euskarari buruz, gero ikusiko dugunaren arauera.

/r/ xamurrak, berriz, bi ahoskera nagusi ditu:

c1) batean [ɹ] ahoskatzen da, jarraikorra, beraz; eta [ʒ]-tik beretzen oso zaila:

$$[\text{ɹ}] = [+ \text{continuant}]$$

c2) bestean [d]-ren kide hertsia da (Chomsky-k *D* bataiatua, *tongue flap*, 150); eta horretan:

$$[\text{r}] \sim [\text{d}] = [— \text{continuant}]$$

14.2.2. 12. [\pm nasal]

Airea surtzilloetatik *ere* irteten bada, [+ nasal]. Bestela: [— nasal].

14.2.3. Hortaz:

T. 15.5.
(sonanteak)

| | l, ɭ, D | m, n, ŋ, ŋ | ɹ, ʀ |
|------------------------|---------|------------|------|
| 5. [\pm continuant] | ⊖ | ⊖ | ⊕ |
| 12. [\pm nasal] | ⊖ | ⊕ | — |

14.2.4. Orain [l, ɭ, r] multzoaren sailketa egin behar da. 13. ezaugarria hautatzen badugu:

[\pm lateral], eusk. *alboko*

airea *alboetatik* irteten bada:

[+ lateral]

eta bestela: [— lateral]

Eta, hortaz:

T. 15.6.
(l, ɭ, r)

| | l, ɭ | r(D) |
|----------------------|------|------|
| 13. [\pm lateral] | ⊕ | ⊖ |

Eta, [l, ɭ] multzoa erdibitzeko:

T. 15.7.

(l, ɭ)

| | | |
|-------------|---|---|
| | l | ɭ |
| 6. [± high] | ⊖ | ⊕ |

14.3. Goazen orain kontsonante *sudurkariak* sailkatzera.


14.3.1. [± high] ezaugarriaren arauera, bi *bizkarkariak*, [ŋ] eta [ɲ], [+ high] dira; eta beste biak, [m] eta [n], eta berdin [ŋ], ez dira goikoak: [— high].

14.3.2. [± back] ezaugarriaren arauera, berriz, *belarea* ahoskatzeko, [ŋ], mihia *atzera* eramaten dugu: [+ back]; baina bestean ez.

14.3.3. Eta [m] eta [n] berezteko, [± coronal] ezaugarria erabiliko dugu.

[+ coronal] (eusk. mihi-puntazkoak) diren soinuak, *apikariak* dira edo *bizkar-aurrekoak* dira. Hitz batez:

72.ir.



[+ coronal]

= { apikariak
bizk. aurr.

- 1 - ezpainbikoak
- 2 - ezpain-horzkariak
- 3 - albeolareak (ap. eta bizk. aurr.)
- 4 - retroflexuak
- 5 - sabaikariak (bizk.)
- 6 - belareak
- 7 - ubulareak

(O'Connor-en arauera)

Beraz:

[n] = [+ coronal]
[m] = [— coronal]

Gainerako sudurkariak ere: [— coronal] direlarik.

14.3.4. Beraz hau dugu:

T. 15.8.

(C, sudurkariak)

| | m | n | ɲ | ŋ |
|-----------------|---|---|---|---|
| 6. [± high] | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ |
| 8. [± back] | — | — | ⊖ | ⊕ |
| 10. [± coronal] | ⊖ | ⊕ | — | — |

14.4. [ɹ, ̄r] bikotea sailkatzeko, [± tense] (= eusk. *tinkatu*) ezau-garria erabiliko dugu.

[̄r] = [+ tense] (Chomsky, SPE, fr. 161)

(Halaz ere, askotan, [̄r] = [+ voice], eskuarki gainerako kontsonanteekin gertatu ohi denaz bestaldera).

[ɹ], berriz, [z̄]-ren antzekoa, laxoa da, ozen guztien antzera:

[ɹ] = [— tense]

14.3.5. Eta beraz:

T. 15.9.

(ɹ, ̄r)

| | ɹ | ̄r |
|---------------|---|----|
| 14. [± tense] | ⊖ | ⊕ |

14.5. Kontsonante *trabakarien* sailketa hasterakoan, orain, egin dezagun aurretik banaketa nagusia.

Hiru motatako soinuak ditugu hemen:

- a) leherkariak
- b) frikariak, txistukariak
- c) afrikatuak

14.5.1. 4. [\pm voice] (= *ozen/gor*) ezaugarria erabiliz gero, hau dugu:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{leherkari gorrak} \\ \text{frikari gorrak} \\ \text{txistukari gorrak} \\ \text{afrikatu gorrak} \end{array} \right\} = [- \text{ voice}]$$

Eta, alderantziz:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{leherkari ozenak} \\ \text{frikari ozenak} \\ \text{afrikatu ozenak} \end{array} \right\} = [+ \text{ voice}]$$

Normalean, aurrerago ere esana dugunez, euskarazko txistukariak eta afrikatuak *gorrak* dira (eta hautatutako euskara ereduan ere bai); baina zubererazko [ž], Lekeitioko [dž], edo abar, tartean sartuz gero, soinu hauen definizioan kontutan hartu beharko litzateke.

14.5.2. 5. [\pm continuant] (= *jarraikor*).

Ongi ulertzen denez:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{leherkariak} \\ \text{afrikatuak} \end{array} \right\} = [- \text{ cont.}]$$
$$\left\{ \text{frikariak} \right\} = [+ \text{ cont.}]$$

14.5.3. 9. [\pm delayed release] (eusk.: *laxaketa luzakorra*).

Leherkarietan, jakina, ez dago laxaketa luzakorrik:

73.ir.



Leherkariak

ahoskera bapatean hasten, eta bapatean bukatzen da: [t], [k], [d], eta abar. {Leherkariak} = [— del. rel.].

*Afrikatueta*n, berriz, eskema hau dugu:

74.ir.



Afrikatuak

ahosketa bapatean hasten da (oklusio batez); baina gero nahi adina luza daiteke:

atzo = [aco] → [tssss...]


Hortaz:

{afrikatuak} = [+ del. rel.]

Eta, *frikarieta*n, laxaketa luzakorra dago:

{frikariak} = [+ del. rel.]

75.ir.



Frikariak

14.5.4. 10. [\pm coronal] (eusk. *mibi-puntazkoa*)

{txistukariak} = [+ cor.]

Denak baitira: edo apikariak, edo bizkarraurrekoak

$$\{\text{afrikatuak}\} = [+ \text{cor.}]$$

Ohar bera.

$$\{\text{leherkariak}\} = \text{segun-eta. Batzu koronalak dira, besteak ez.}$$

Beraz:

T. 15.10.

(C, obstruent)

| | leherk. gorrak | leh. ozenak | frik. gorrak (f) | frik. ozenak b d g | txist. gorrak | afrik. gorrak |
|-------------------------|-------------------|----------------|------------------------|--------------------------|------------------|------------------|
| 4. [\pm voice] | ⊖ | ⊕ | ⊖ | ⊕ | ⊖ | ⊖ |
| 5. [\pm continuant] | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| 9. [\pm delay. rel.] | ⊖ | — | + | + | + | ⊕ |
| 10. [\pm coronal] | | | ⊖ | | ⊕ | + |
| | A | A | | A | B | B |

14.6. *Leherkariak* artikulazio-puntuaren arauera sailkatu ahal izateko, hiru ezaugarri hauek erabiliko ditugu:

6. [\pm high]

8. [\pm back]

10. [\pm coronal]

Eta ondoko taula hau lortuko dugu:

T. 15.11.

(C. obstruent, II)

(ikus 15.10 A)

| | p b b̃ | t d d̃ | t̃ y y | k g g |
|----------------------|--------|--------|--------|-------|
| 6. [\pm high] | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ |
| 8. [\pm back] | — | — | ⊖ | ⊕ |
| 10. [\pm coronal] | ⊖ | ⊕ | — | — |

14.7. Eta *txistukariak* sailkatzekotan:


6. [± high]

11. [± anterior]

14.7.1.- [± high] ezaugarria ongi ezaguna badugu ere (ikus 13.3.1. puntua), (eta [š], [+ high] da Chomsky-ren lanetan) Chomsky-Halle-ren *anterior* (eusk. aintzineko) zer den azaldu beharko da.

Aho-sabaiaren luzera honetara zatitzen badugu:

76.ir.



sailketa hau izango dugu, artikulazio-puntuari dagokionez:

{s, c} = [+ ant.]

{ś, ć} = [— ant.]

{š, č} = [— ant.]

«Les consonnes que l'on désigne traditionnellement comme *alvéopalatales, rétroflexes, palatales, vélaires, uvulaires ou pharyngales*, sont donc *non-antérieures*; alors que *les labiales, les dentales et les alvéolaires* sont *antérieures*» (SPE, fr. 130).

Schane-ren ohar batek erruz lagun dezake: «es [+ ant.] la articulación que se produce *exclusivamente* en la parte delantera

de la boca». Beraz, bai [š] (*oso barnekoa*, 8. ikaskaian ikusi dugunez); bai [ʃ], [dʃ], eta gainerako *bustiak*, [— ant.] dira euskaraz, dudarik gabe.

Bizkarkari guztiak [— cor.] diren bezalaxe.

Eztabaida, beraz, gure *s* eta *ts* fonemekin gerta daiteke.

Hots, 8. ikaskaian erakutsi dugunez, baita gipuzkeraz ongi mintzo diren elebakar jatorrek ere, [ʃ] ahoskatzen dute (eta [ç], jakina), erabat *retroflexua*; Larrasquet-ek palatogramaz frogatu zuen bezala. Azkue-ren oharrak ere bide beretik doaz. Eta Harris-ek gaztelaniazko [š]-arentzat, [— ant.] ezaugarria eskatu badu, hemen guk hau egin dugu:

$$\{ \acute{s}, \acute{c}, \acute{z} \} = [- \text{ ant. }]$$

Bizkaieraz, halere, hau proposatuko genuke:

$$\text{bizk. } s = [+ \text{ ant. }]$$

Eta Andaluzia-ko *s*, jakina:

$$\text{andal. } s = [+ \text{ ant. }]$$

Beraz:

T. 15. 12.
(C. obstruent, III)
(ikus 15.10. B)

| | s c | ś ć | š č |
|------------------|-----|-----|-----|
| 11. [± anterior] | ⊕ | ⊖ | — |
| 6. [± high] | ⊖ | ⊖ | ⊕ |

14.8. Eta *T.15.0* eraikitzeke behar diren ezaugarrien balioak baditugu.

XV KAPITULUA

EUSKAL SOINU ESKUARREN TAULA

15.1. XIII. eta XIV. kapituluetan emandako datuen arauera, osoki egin daiteke euskal soinuen sailkapena. Beraz, horretatik aurrera, emango ditugun ezaugarriak ez dira, izan, beharrezkoak; edo, bestela esateko, erredundanteak dira.

Hala ere, bai orain arteko ezaugarriei buruz eman ez ditugun xehetasunak emateko, batetik; bai oraingoz erabili ez ditugun ezaugarrien arauerako datuak ematekotan, sailkapen lanari ekingo diogu.

15.2. [\pm voice] ezaugarriari buruzko sailkatzeaz, arazorik ez dagoela iruditzen zaigu:

ozenak = [+ voice]
gorrak = [— voice]

Normalean, beraz, albokoak eta sudurkariak *ozenak* dira (= [+ voice]); eta dardarkariak ere bai.

15.2.1. [\pm continuant] ezaugarriari buruz, berriz, bokaleak eta gli-deak jarraikorrak dira euskaraz:

[+ continuant]

15.2.2. [\pm high] ezaugarriari dagokionez, berriz, zalantza batzu izan daitezke.

Euskarazko [ɾ̄] *albeolarea* da; eta *ez da mihia bera altxatuz* ahoskatzen. Beraz:

$$[\bar{r}] = [- \text{high}]$$

Hala ere (zubereraz, esate baterako) antz handia bide dute, zenbait fenomenotan, [ɹ], [ɻ] eta [ɾ̄]. (Ikus, adibidez, 11.3.5. puntua, /h/-ren distribuzioari dagokionez).

[ɾ̄], hitz batez, eta *gutxienez* [l], [n] eta [s̺] jasan duten *aitzinaketa* berberaren ondorio ez ote den zalantza izateko oinarriak ez dira eskas.

Baina, gaur: [ɾ̄] = [- high].

15.2.3. Belareak ahoskatzeko, mihia, *batera, gora eta atzera* eramaten da:

$$\begin{bmatrix} + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix}$$

Gogoan har Chomsky-ren ohar hau: «les consonnes *palatisées* sont *hautes et non-arrière*; les consonnes *vélarisées, hautes et d'arrière*» (132. orr.).

Beraz:

$$[\eta] = \begin{bmatrix} + \text{high} \\ - \text{back} \end{bmatrix}$$

$$[\text{ŋ}] = \begin{bmatrix} + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix}$$

Bide beretik: *bizkar-aurreko* eta *sabai-aurreko* direnak (š, ž, č):

$$\{ \text{š, ž, č} \} = \begin{bmatrix} + \text{high} \\ - \text{back} \end{bmatrix}$$

Baina: *retroflexuak* (*apikari* eta *sabai-aurrekoak*):

$$\{ \acute{s}, \acute{z}, \acute{c} \} = \begin{bmatrix} - & \text{high} \\ - & \text{back} \end{bmatrix}$$

Azkeneko hauetan ez baita mihia, bere osoan, altxatzen. (Ikus, berriro, 8.5-ko irudiak).

Euskal *z/tz*-ri buruz, berriz, gauza bera dugu bi ezaugarri horiei buruz:

$$\{ s, z, c \} = \begin{bmatrix} - & \text{high} \\ - & \text{back} \end{bmatrix}$$

[s] eta [ś] berezteko, beraz, (eta beste bi bikoteak berdinzki) beste ezaugarri bat behar dugu: [\pm anterior], beraz; edo-ta (gure taulan bigarren mailakotzat jota) [\pm distributed] ezaugarria.

Berriro ere: «*les sons haut* (= high) sont produits par une *élévation* de la *masse* de la langue» (Chomsky, 130).

[x] belarea, [k] eta [g] bezala:

$$[x] = \begin{bmatrix} + & \text{high} \\ + & \text{back} \end{bmatrix}$$

15.2.4. Bustiak eta belareak, honen arauera sailkatzen dira:

| | bustiak | belareak |
|---------------|---------|----------|
| [\pm high] | + | + |
| [\pm back] | -- | + |

Eta, bide beretik, ezpainkariak, horzkariak, albeolareak, retroflexuak eta sabaikariak, [— back] dira.

15.2.5. [\pm coronal] diren soinuak, esan dugunez, *mibiaren* «puntaz» ahoskatzen dira. Beste modu batera esateko: *bizkarkariak* ez diren soinuak, [+ coronal] dira.

Euskarazko [š, č, ž] hirukotea, esate baterako, [+ coronal] dira; ez baitira mihiaren bizkarraz ahoskatzen, mihiaren *aurreko* parteaz baizik: «*predorsal alveo-palatal*», dio Navarro Tomás-ek (P.G., 615). Ahosketa honetan, «*interviene la parte anterior próxima al ápice*» (P.G., 615). Beraz:

$$\text{eusk. [š]} = [+ \text{coronal}]$$

15.2.5.1. Chomsky-ren izendapen hau, dena dela, ez da denen gustokoa. (Ikus, adibidez, Schane-ren oharra: «*Introducción a la Fología Generativa*», 57):

$$[\check{c}] = \left[\begin{array}{l} - \text{ant.} \\ + \text{cor.} \end{array} \right]$$

Menéndez Pidal-en, eta besteren, kontra.

Euskal bustidurak, halere, [š] soinua [+ cor.] hartzera bultatzen du; ondoko kapituluetan ageriko denez.

15.2.5.2. Gainerako kontsonanteei dagokienez, berriz, hau dugu:

$$\{l, n, r, \bar{r}, t, d, \check{d}\} = [+ \text{cor.}]$$

eta gainerakoak: [— cor.].

15.2.6. [\pm ant.] ezaugarriaz, ez dago zalantzarik.

Chomsky-Halle-rentzat:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{ezpainkariak} \\ \text{horzkariak} \\ \text{albeolareak} \end{array} \right\} = [+ \text{ant.}]$$

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{retroflexuak} \\ \text{sabai-aurrekoak} \\ \text{sabaikariak} \\ \text{belareak} \end{array} \right\} = [- \text{ ant. }]$$

Beraz:

$$\begin{aligned} [\acute{s}], \text{ albeolarea} &= [+ \text{ ant. }] \\ [\acute{s}], [\acute{\zeta}], \text{ retroflexua} &= [- \text{ ant. }] \end{aligned}$$

Euskara jatorrez, beraz:

$$[\acute{s}] = [- \text{ ant. }]$$

15.2.7. [± nasal]

Oharrik egin beharrik ez dago.

15.2.8. [± lateral]

Oharrik ez.

15.2.9. [± tense]

Normalean, eta kontsonanteei dagokienez:

$$\begin{aligned} [+ \text{ voice}] &= \text{ozena} = [- \text{ tense}] \\ [- \text{ voice}] &= \text{gorra} = [+ \text{ tense}] \end{aligned}$$

Euskarari dagokionez, salbuespen bakar bat:

$$\begin{aligned} [\bar{r}] &= \left[\begin{array}{l} + \text{ voice} \\ + \text{ tense} \end{array} \right] \\ [r] &= \left[\begin{array}{l} + \text{ voice} \\ - \text{ tense} \end{array} \right] \end{aligned}$$

«El rasgo [tenso] puede también ser usado... para distinguir una [r̄] *vibrante múltiple* ([+ tensal]), de una [r] *vibrante simple* ([— tensa])», (Schane, IFG, 61).

15.3. [\pm rounded] (= *borobildua*)

Euskaraz bokaleetan erabil daiteke:

$$\{o, u, \ddot{u}\} = [+ \text{ rounded}]$$

Kontsonanteetan ez du balio; eta hobeki aztertu behar litzateke, adibidez, [š] edo [ž] soinuen borobiltasuna.

15.4. [\pm distributed] (= *hedatu*)

Hitz batez:

$$\begin{aligned} [+ \text{ distributed}] &= \text{frikabide luzea} \\ [- \text{ distributed}] &= \text{frikabide motza} \end{aligned}$$

Alde batetik, soinuen sailketak eragozpena franko dakar oraindik ezaugarri honi buruz.

Bestetik, euskal soinuen sailkapean erredundante gertatzen da.

Hala ere, *txistukariak* elkargandik berezteko gerta daiteke baliagarri.

Honetarako, ikus bitza irakurleak 8.5.5-ko irudiak.

Oso ongi ikusten denez:

$$\begin{aligned} \{s, z, c\} &= [+ \text{ distributed}] \\ \{s', z', c'\} &= [- \text{ distributed}] \\ \{s', z', c'\} &= [+ \text{ distributed}] \end{aligned}$$

{s, š}, eta kideak, frikabide *luze* baten bitartez lortzen dira; {s'}, eta kideak, berriz, frikabide *motz* baten bitartez.

Gauza bera ikus daiteke, argi eta garbi, Larrasquet-en palatogramak arretaz begiraturaz (ikus palatograma horiek: 27, 29 eta 34, 8.5.5 puntuan).

15.5. [\pm strident] (= *karrankari*)

Frikariak sailkatzeko erabili ohi da.

Hona hemen Schane-ren hitz batzu honi buruz: «[f, s, š, X] son fricativas *estridentes*; mientras que [Φ , Θ , ç, X] son *no estridentes*» (IFG, 39).

Laukote horietan errepara daitekeenez, euskal frikariak *karrankariak* dira eskuarki:

[s, ś, š, f...] = [+ strident]

Eta ezaugarri hau, euskarari dagokionez, ez da oso pratikoa.

15.6. Hiru ikaskai hauetan azaldu duguna kontutan hartuz, horretara, T.15.0 taula nagusia lortzen dugu:

T. 15.0.

SOINUEN SAILKETA

(Ikus T. 15. 1-tik 12-ra)

(Chomsky - Halle-ren arauera)

| | | i | e | a | o | u | j | w | h | l | ɭ | (D) r | m | n | ɲ | ŋ | ɹ | ř | p | |
|-----|-------------|---|---|---|---|---|---|---|-----|-----|-----|----------|---|---|---|---|-----|-----|---|---|
| 1. | [± sonor.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ |
| 2. | [± syll.] | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ |
| 3. | [± cons.] | - | - | - | - | - | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ |
| 4. | [± voice] | + | + | + | + | + | + | + | (-) | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | ⊖ |
| 5. | [± cont.] | + | + | + | + | + | + | + | + | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊖ |
| 6. | [± high] | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | - | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | - | - | ⊖ | ⊖ |
| 7. | [± low] | - | ⊖ | ⊕ | ⊖ | - | - | - | + | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| 8. | [± back] | ⊖ | ⊖ | + | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊕ | - | - | - | - | - | - | ⊖ | ⊕ | - | - | - | - |
| 9. | [± del. r.] | + | + | + | + | + | + | + | + | - | - | - | - | - | - | - | - | + | + | ⊖ |
| 10. | [± coron.] | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | + | ⊖ | ⊕ | - | - | + | + | ⊖ | ⊖ |
| 11. | [± ant.] | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | + | + | + | - | - | + | + | + | + |
| 12. | [± nas.] | - | - | - | - | - | - | - | - | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | - | - | - | - |
| 13. | [± lat.] | - | - | - | - | - | - | - | - | ⊕ | ⊕ | ⊖ | - | - | - | - | - | - | - | - |
| 14. | [± tense] | - | - | - | - | - | - | - | + | - | - | - | - | - | - | - | - | ⊖ | ⊕ | + |
| 15. | [± round.] | - | - | - | + | + | - | + | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| 16. | [± distr.] | - | - | - | - | - | - | - | - | (-) | (-) | (-) | + | + | + | + | (-) | (-) | + | + |
| 17. | [± strid.] | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

| k | b | d | ŷ | g | ḃ | ḏ | y | g | f | s | ś | š | c | ć | č | ü | ʔ | R | ź | ż | dź | dż | x |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|---|
| ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | + | + | + | - | - | - | - | - |
| - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | - | - | - | - | - | - |
| + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | - | - | + | + | + | + | + | + |
| ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | + | - | + | + | + | + | + | - |
| ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊖ | + | - | + | + | + | - | - | + |
| ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊕ | - | ⊖ | ⊖ | ⊕ | ⊖ | ⊖ | ⊕ | + | - | + | - | + | - | + | + |
| - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | - | - | - | - | - |
| ⊕ | - | ⊖ | ⊕ | - | - | ⊖ | ⊕ | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | - | - | - | + |
| ⊖ | - | - | - | + | + | + | + | + | + | + | + | + | ⊕ | ⊕ | ⊕ | + | - | + | + | + | + | + | + |
| ⊖ | ⊕ | - | - | ⊖ | ⊕ | - | - | ⊖ | ⊕ | ⊕ | ⊕ | + | + | + | - | - | - | + | + | + | + | + | - |
| + | + | - | - | + | + | - | - | + | ⊕ | ⊖ | - | ⊕ | ⊖ | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| + | - | - | - | - | - | - | - | + | + | + | + | + | + | + | + | - | + | + | - | - | - | - | + |
| - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | + | - | - | - | - | - | - | - |
| + | + | + | + | + | - | + | + | - | + | - | + | + | - | + | - | - | - | - | - | + | - | + | + |
| - | - | - | - | - | - | - | - | + | + | + | + | + | + | + | + | - | - | - | + | + | + | + | - |

15.7. Azken ohar batzu:

[h] = [— voice]
 [ɦ] = [+ voice]

Eta beti:

{h, ɦ} = [+ tense]

15.8. Bide beretik:

[x] = [+ tense]
 [g] = [— tense]

15.9. *Glottal stop* delakoa (eztut egitean ematen den soinua, alemanieraz oso erabilia), [h]-aren antzekoa da oso (glidea denez); baina

| | h | ʔ |
|---------------|---|---|
| [± cont.] | + | — |
| [± del. rel.] | + | — |

*leherkari*en antzekoa da; [ʔ] *frikari*en antzekoa delarik.

XVI KAPITULUA

ZENBAIT OHAR OROKOR FONOLOGIA SORTZAILEARI BURUZ

16.1. Erregela sintagmatikoak

16.1.1. Eman ditzagun kasu hauek:

| | | | | |
|------------------|---|-------------|---|-----------|
| <i>ez nekien</i> | = | [es nekien] | → | [enekien] |
| <i>ez nuen</i> | = | [es nuen] | → | [enuen] |
| <i>ez naiz</i> | = | [es naiz] | → | [enaiz] |

Bestela esanda: *ez* adberbioaren [s] txistukaria, [n]-ren aurrean ([n]-ren *ezkerretan* ere esan daiteke) gertatzen denan, ezabatu egiten da, *zero* bihurtzen da (zero = Ø).

Beraz, hau dugu:

$$[s] \rightarrow \emptyset / \text{---}[n]$$

Irakur: [s] txistukaria zero berridazten da, eskuin aldeko inguramendu fonikoa [n] denean.

Berridazketa-erregela hori ez da beti betetzen. Baldintza honen barruan betetzen da: *eskuin-aldeko inguramendu fonikoa* [n] denean, hain zuzen. Bestela ez da hori gertatzen:

| | | | | |
|-----------------|---|------------|---|-----------|
| <i>ez da</i> | = | [es da] | ≠ | *[eda] |
| <i>ez ginen</i> | = | [es ginen] | ≠ | *[eginen] |

Ez gaude Andaluzian...

Erregela hori, horretaz, *eskuin-aldeko inguramenduzko erregela* da.

16.1.2. Eman ditzagun orain beste kasu hauek:

| | | | | |
|-----------------|---|--------------------------|---|-------------------------|
| <i>baina</i> | = | [ba _̃ ina] | → | [ba _̃ na] |
| <i>oina</i> | = | [oi _̃ na] | → | [o _̃ na] |
| <i>zeinekin</i> | = | [sei _̃ nekin] | → | [se _̃ nekin] |

Bestela esanda: [i_̃] bokalerdiaren ondoko [n], [ŋ] esaten da; busti egiten da, eta palatalizaturik ahoskatzen da. Beraz:

[n] → [ŋ] / [i_̃] —

Irakur: [n] albeolarea, [ŋ] sabaikari gisa ahoskatzen da, ezker-aldeko inguramendua [i_̃] bokalerdia denean.

Bestela ez. Esate baterako:

ona = [ona] ≠ *[o_̃na]

Edo, bestaldetik:

nion = [nion] ≠ [ŋion]

Erregela hori *ezker-aldeko inguramenduzko erregela* da.

16.1.3. Eman ditzagun orain:

| | | | | |
|-------------------|---|-------------|---|-------------|
| <i>degu</i> | = | [degu] | → | [degu] |
| <i>beragana</i> | = | [beragana] | → | [beragana] |
| <i>segurantzi</i> | = | [seguranci] | → | [seguranci] |

Beraz:

[g] → [g] / V — V

Irakur: [g] leherkaria, [g] espirante gisa ahoskatzen da, *ezker-aldean* eta *eskuin-aldean* bokaleak daudenean.

Hemen inguramendu fonikoa *ezkerrekoa* eta *eskuinekoa* da *batera*.

16.1.4. Eman dezagun orain beste hirukote hau:

| | | |
|------------|---|-----------|
| S., hártü | = | G., artu |
| S., hó(r)i | = | G., ori |
| S., húrrün | = | G., urrun |

Beraz: zubereratik gipuzkerara pasatzen, *beti* dugu:

$$[h] \rightarrow \emptyset$$

Berdin da orain ezkerretan zer datorren, edo eskuinetan zer datorren:

$$\begin{aligned} S., \text{ \acute{u}lh\ddot{u}n} &= G., \text{ ilun} \\ S., \text{ \acute{a}rhin} &= G., \text{ arin} \\ S., \text{ senh\acute{a}r} &= G., \text{ senar} \end{aligned}$$

Erregela hau *orokorra* da; ez da inguramenduzko erregela bat.

16.1.5. Horretaz, hau esan daiteke:

$$X \rightarrow Y / A \text{ — } B$$

erregelak, hau adierazten du:

$$AXB \rightarrow AYB$$

Fonologiaren mailan: [X] soinua [Y] ahoskatzen da, ezkerreko inguramendu fonikoa [A] denean; eta eskuin-aldeko inguramendu fonikoa [B] denean.

Jakina, lau kasu daude:

- 1) $A \neq \emptyset$; eta $B \neq \emptyset$ (16.1.3.-ko adib.)
- 2) $A \neq \emptyset$; eta $B = \emptyset$ (16.1.2.-koa)
- 3) $A = \emptyset$; eta $B \neq \emptyset$ (16.1.1.-koa)
- 4) $A = \emptyset$; eta $B = \emptyset$ (16.1.4.-koa)

16.1.6. Lau erregela horietan, dena dela, ezkerraldeko *elementu bakar bat* gertatzen da aldaturik. Eta erregela mota honi *sintagmatiko* deritzo.

Erregela fonologiko asko eta asko *sintagmatiko* horietakoak dira.

16.2. **Erregela transformazionalak** (eusk. *bihurtzaileak*)

16.2.1. Eman ditzagun, hasteko, euskal aldakuntza fonetiko ezagun hauek:

bitz bat = [ic bat] → [ispat]
haitz bi = [aᵢç bi] → [aᵢçpi]
haitz bitarte = [aᵢç bitaṛte] → [aᵢçpitaṛte]

Beraz:

[c b] → [s p]
 1 2 1 2

Hau ez da erregela sintagmatikoa: ezkerretako *bi elementu batera* aldatu dira: [c] afrikatua (= tz), [s] frikaria (= z) bihurtu zaigu; eta, batera, [b] ozena, [p] gorra bilakatu.

Bi elementu batera (edo gehiago) aldarazten dituzten erregela hauei *transformazional* derizte, Chomsky-ren hizkeraren arauera.

16.2.2. Eman dezagun beste aldakuntza ezagun hau:

bait zekien = [baᵢt sekien] → [baᵢçekien]
bait zen = [baᵢt sen] → [baᵢçen]
bait ziren = [baᵢt siren] → [baᵢçiren]

Beraz:

[t s] → [∅ ç]
 1 2 1 2

Hau ere ez da erregela sintagmatikoa: ezkerretako [t] desagertu egiten da, eta [s] frikaria afrikatu egiten da; eta bi aldakuntzok batera.

16.2.3. Era berean:

ez zekien = [es sekien] → [eçekien]
ez zuen = [es suen] → [ecuen]
ez zidan = [es sidan] → [ecidan]

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} [s \ s] & \rightarrow & [\emptyset \ c] \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

Hau ere erregela transformazionala dugu.

16.2.4. Eman ditzagun, azkenik, aldakuntza fonetiko hauek:

$$\begin{array}{lcl} \textit{castro} & = & [ka\acute{s}t\bar{r}o] \rightarrow [k\bar{f}a\acute{s}to] \\ \textit{pobre} & = & [pob\bar{r}e] \rightarrow [p\bar{r}obe] \\ \textit{teatro} & = & [teat\bar{r}u] \rightarrow [t\bar{r}eatu] \end{array}$$

Beraz:

$$\begin{array}{ccccccccc} [C_1 \ V_1 \ C_2 \ \bar{r} \ V_2] & \rightarrow & [C_1 \ r \ V_1 \ C_2 \ V_2] \\ 1 \ 2 \ 3 \ 4 \ 5 & & 1 \ 4 \ 2 \ 3 \ 5 \end{array}$$

Metatesia, beraz, soinuen hurrenkera aldatzen duenez, erregela *transformazional* baten gisa azaltzen da.

16.3. *Sintagmaren hasera eta amaiera.*

16.3.1. Soinu bat sintagmaren haseran baldin badago, $\#$ simboloa erabiliko dugu. Beraz:

$$\begin{array}{lcl} \textit{paz} & \rightarrow & \textit{bake} \\ \textit{pez} & \rightarrow & \textit{bike} \\ \textit{pozo} & \rightarrow & \textit{butzu} \\ [p] & \rightarrow & [b] / \# \text{ —} \end{array}$$

16.3.2. Era berean:

$$\begin{array}{lcl} \textit{latz} & \rightarrow & \textit{laztu} \\ \textit{zorrotz} & \rightarrow & \textit{zorroztu} \\ \textit{garratz} & \rightarrow & \textit{garraztu} \\ [s] & \rightarrow & [c] / \text{ — } \# \end{array}$$

16.4. *Matrizeak: ezaugarri pisudunak eta ezaugarri erredundanteak.*

16.4.1. Eman dezagun [u] bokalea. Nola ezagutaraz ezaugarri bitarren bitartez? Horretarako 15.0 taula begiratuko dugu; eta [u] soinuaz hau dugu:

$$[u] = \begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ - \text{cons.} \\ + \text{voice} \\ + \text{cont.} \\ + \text{high} \\ - \text{low} \\ + \text{back} \\ + \text{del.r.} \\ - \text{coron.} \\ - \text{ant.} \\ - \text{nas.} \\ - \text{lat.} \\ - \text{tense} \\ + \text{round.} \\ - \text{distr.} \\ - \text{strid.} \end{bmatrix} \quad \text{(matrize } oso \text{ honetan, 17} \\ \text{lerroetako zeinuak ageri dira)}$$

Denak ematea ez da beharrezkoa, dena dela. [ü] soinua ez duen euskara ereduan, ezaugarri pisudunak hauek dira:

$$[u] = \begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix}$$

Aski ditugu, beraz, *lau* ezaugarri. Gainerakoak erredundanteak dira.

Euskara eredu horretan ([ü]-rik gabea, berriro ere), matrize hau ematen badigute:

$$\begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix}$$

eta T.15.0 taula nagusian matrize hori zeri dagokion begiratzeko badugu, hau dugu:

$$\begin{bmatrix} + \text{syll.} \\ + \text{sonor.} \end{bmatrix} \rightarrow \{i, e, a, o, u\}$$

Bi ezaugarri horietan bakarrik, aukera erabat murriztu zaigu; eta bost bokale horiek, ez bestek, dituzte bi ezaugarri horiek.

$$\begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ + \text{high} \end{bmatrix} \quad \text{begiratzeko badugu,}$$

$$\begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ + \text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \{i, u\}$$

Aukera *biren artean* dugu.

Eta orain [+ back] eskatzen badugu:

$$\begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ + \text{syll.} \\ + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix} \rightarrow \{u\}$$

16.4.2. Lau ezaugarrien hautaketa libre dut, hurrenkerari dagokionez. Oso ondo egin nezake, beraz, lehendabizi hau bilatu:

$$\begin{bmatrix} + \text{high} \\ + \text{back} \end{bmatrix} \rightarrow \{u, w, \eta, k, g, \mathfrak{g}\}$$

Orain sei soinu horiei, [+ syll.] erantsi:

$$\begin{bmatrix} + \text{high} \\ + \text{back} \\ + \text{syll.} \end{bmatrix} \rightarrow \{u\}$$

Bokale guztietan hau baitugu:

$$[+ \text{syll.}] \rightarrow [+ \text{sonor.}]$$

(Ikus 13.2.5. puntua).

Beraz, hau ere eman daiteke:

$$[u] = \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \\ +\text{back} \end{bmatrix}$$

Obarra: hau hautatuz [V]-en definizioa arintzen da, baina [obstr.]-ena astuntzen. Ekonomi arrazoi enpirikoak besterik ez dago bataren edo bestearen alde.

16.4.3. Eman dezagun [i] orain:

$$[i] = \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix}$$

Eta, euskara horretan, beti:

$$[+\text{syll.}] \rightarrow [+\text{sonor.}]$$

laugarren ezaugarri hori idatzi gabe utz dezakegu.

16.4.4. Eman dezagun orain, aldakuntza fonetiko hauek bilduko lituzkeen erregela *bakar* bat eman nahi dugula:

$$(A) \text{ mendi} \rightarrow [\text{mendia}] \rightarrow [\text{me}^{\text{h}}\text{ndie}]$$

$$(B) \text{ buru} \rightarrow [\text{burua}] \rightarrow [\text{bu}^{\text{h}}\text{rue}]$$

Beraz:

$$(A) a \rightarrow e / i \text{ —}$$

$$(B) a \rightarrow e / u \text{ —}$$

Bi erregela horien lehenengo parte, *berbera* da:

$$a \rightarrow e$$

Eta inguramendua ere, antzekoa da. Beraz:

$$a \rightarrow e / \left\{ \begin{array}{c} i \\ u \end{array} \right\} \text{ —}$$

Alegia: *i edo u* ezkerretan daudenean.

Baina:

$$[i] = \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} ; \text{ eta } [u] = \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \\ +\text{back} \end{bmatrix}$$

Beraz, bi legeak *erregela bakar batez* emateko, hau idatziko dugu:

$$a \rightarrow e \ / \ \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \\ \alpha \text{ back} \end{bmatrix} \text{ ---}$$

$\alpha = +$ egiten badugu, (B) erregela dugu.

$\alpha = -$ egiten badugu, (A) erregela dugu.

16.4.5. Eta bi erregela horiek (bi aldakuntza fonologiko horiek) *funtsean* elkarrekin zer duten aditzera eman nahi izanez gero:

$$a \rightarrow e \ / \ \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \end{bmatrix} \text{ ---}$$

Zer da, izan, $\begin{bmatrix} +\text{high} \\ +\text{syll.} \end{bmatrix}$ matrize hori?

Zeri dagokio?

T. 15.0 taula arretaz begiratu gero, eta, batera, 2. lerroan + zeinua, eta 6. lerroan ere + zeinua, bilatuz gero, soinu-multzo hau topatzen dugu:

$$\begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \end{bmatrix} = \{i, u\} \quad (\text{besterik ez})$$

Hots, $\{i, u\}$ multzoa ez da *fonema* bat; eta $[i]$ eta $[u]$, $/i/$ eta $/u/$ dira, *bi fonema*; $\{i, u\}$ multzoa, hitz batez, ez dago *alofonoz* osatua, *fonemaz* baizik.

Lege fonologikoaren *orokortu beharrez*, beraz, Chomsky-k ikusi duenez, fonema baino gorago joan behar da. Eta $\{i, u\}$ hiperfonema hori zer den, abstraktuki emango dugu:

$$\{i, u\} = \begin{bmatrix} +\text{syll.} \\ +\text{high} \end{bmatrix}$$

Besterik gabe.

Obarra: ezaugarri bat kenduz, dena dela, *orokortu* egiten dugu. Gero argituko da hau.

16.5. Eman ditzagun orain Mendebaldeko fenomeno hauek:

$z\acute{u}bia = [s\acute{u}bia] \rightarrow [s\acute{u}bie]$
 $etorrita = [eto\acute{r}ita] \rightarrow [eto\acute{r}ite]$
 $indarra = [inda\acute{r}a] \rightarrow [in\acute{d}e\acute{r}a]$

Beraz: *a* hersten da, baita kontsonante bat edo bi tartean daudelarik.

Kasu horretan, hau idatziko dugu:

$a \rightarrow e / iC_0 \text{ —}$

Alegia:

$a \rightarrow e / i \text{ —}$

$a \rightarrow e / iC \text{ —}$

$a \rightarrow e / iCC \text{ —}$

$C_0 = zero$ kontsonante, edo *bat*, edo *bi*, edo *gebiago*.

16.6. Ezaugarrien *hautaketa eta ezarketa* zein hurrenkeratan egiten diren, eta matrizeen ezaugarri pisudunak alda daitezke.

Eman dezagun:

$\{N\} = \{m, n, \eta, \eta\}$ multzoa

Taula begiratu:

$\{N\} = \begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ - \text{syll.} \\ + \text{cons.} \\ - \text{cont.} \\ + \text{nas.} \end{bmatrix}$

Taula eraiki dugun moduan, bostak dira beharrezkoak.

Hala ere, *euskaraz* (baina ez beste hizkuntzatan):

$$\{N\} = [+nas.]$$

besterik gabe

Zeren-eta:

$$[+nas.] \rightarrow \begin{bmatrix} +sonor. \\ -syll. \\ +cons. \\ -cont. \end{bmatrix}$$

Matrize hautaketan, beraz, mesedegarri izan daiteke askotan, ezaugarriak *beste hurrenkera batez* erabiliz gero, matrizea arintzeko modurik ez dagoenean.

XVII KAPITULUA

BOKALE ELKARKETAK EUSKARAZ

17.1. Berriro ere, *Hitzaurrean* egindako oharra egin behar da.

Euskal *Ortoepia* finkatu gabe dago: ez dakigu, Euskara Batuz, *nola ahoskatu behar diren* idatzita dauden gauzak. Euskaltzaindiak ez du oraingoz *Ahozko Euskara Batua* zedarriztatu eta mugatu.

Beraz: euskalki (eta azpi-euskalki) hainbat Fonologia Sortzaile asma daiteke. Guk, dena dela, besterik ezean, III Eraskinean definitutako Euskara mota hartuko dugu hemen Euskara Batuztat, aldakuntza fonologiko *normalak* azaltzerakoan.

17.1.1. *Ohar orokorra*: soinu-elkarketa hauek guztiak (bai barne-sandhiz, bai kanpo-sandhiz sortuak) benetan mami daitezen, *azentu-unitate berean* gertatu behar dute elkartzen diren bi soinuek.

Jakina: azentu-unitate horiek zein diren, eta zein ez, definitzeko dago euskaraz oraingoz. Eta, horretaz, zalantzak izan daitezke. Gogoan har dezagun Azkue-ren beraren oharra. Zeren-eta, zion Euskaltzaindiaren aitak, *ex bada* [espaða] esaten bada ere, *ex bata*, *ex bestea*, *ex baita* inon [espata espestea] ahoskatzen.

Azentu-unitatearen barruan bai.

Eta, horretaz, eta *gutxienez*:

- 1) *Deklinabideari* dagokionez, deklinabide-atzizkitzat hartu ohi diren morfemen elkarketan: *etxean, mendian, semeen*, eta abar.
- 2) *Erakusleekiko* loturetan: *etxe hartan* (argiro Elkano-ko Lizarragak *echegartan*, eta antzera, lotuta idatzita), *urte horretan*, etabar.
- 3) *Bat / batzu* hitzekiko loturetan; nafar tradizioan (Lizarraga, Morentin) lotuta idatzita.
- 4) *Ez eta bait* aditz-aurrizkien elkarketetan.
- 5) *Morfema* barruan. Adibidez:
 —*nean* = [nian]
 —*lakoan* = [lakuan]
- 6) *Aditz laguntzaileak* lotuta doazen kasuei dagozkien elkarketetan (hauek ere nafar tradizioan, loturik idatzi beharrik): *da, dira, litzateke*, eta abar; batez ere, pisu foniko txikia duten monosilabiko eta bisilabikoetan, *klitiko* gero eta garbikiago.

17.1.2. /b/ fonema [Ø] (= zero) ahoskatzea erabakiko balitz:

abu = *[au] → [au̯]
eba = *[ea] → [ia̯]
oba = *[oa] → [ua̯]

Eta antzera.

17.1.3. *Sinalefaz* sortutako elkarketetan, berriz, eta *bokaleei* dagokionez bederen, *erakusleen* kasuan (17.1.1.2) aholku hori eman

badaiteke ere, beste kasuetan libro utzi behar litzateke arazoa; denaz gain, ahoskeraren *habailaren* ondorio baita:

$$ama\ ikusi \left\{ \begin{array}{l} [ama\ iku\acute{s}i] \\ [ama\ i\acute{k}u\acute{s}i] \end{array} \right.$$

Ohar hauek kontutan hartuta, azter ditzagun [V₁] [V₂] elkar-ketak.

Beraz:

| | | | | | |
|---|----|----|----|----|----|
| | i | e | a | o | u |
| i | ii | ie | ia | io | iu |
| e | ei | ee | ea | eo | eu |
| a | ai | ae | aa | ao | au |
| o | oi | oe | oa | oo | ou |
| u | ui | ue | ua | uo | uu |

25 kasu, teorian bederen.

Ikus ditzagun *normalenak* gutxienez.

17.2. OA ETA EA ELKARKETAK

17.2.1. Eman dezagun:

$$oa \rightarrow ua$$

aldakuntza fonetikoa. *Oso* orokorra (nahiz *ez gutxiz* orokorra, egia esan).

Adibidez:

$$\begin{array}{l} joan = [d\acute{o}an] \rightarrow [\hat{y}uan], \textit{normalki} \\ besoa = [be\acute{s}oa] \rightarrow [be\acute{s}ua], \textit{normalki} \\ artoa = [a\acute{r}toa] \rightarrow [a\acute{r}tua], \textit{normalki} \end{array}$$

Hitz batez:

$$o \rightarrow u / \text{---}a$$

Eta ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ - \text{low} \\ + \text{back} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ + \text{high} \\ + \text{back} \end{array} \right] / \text{---} \left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ + \text{low} \end{array} \right]$$

Edo zehazkiago:

$$\left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ - \text{low} \\ + \text{back} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{high}] / \text{---} \left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ + \text{low} \end{array} \right]$$

Edo-ta, *euskaraz*, hau dugunez gero:

$$V = \left[\begin{array}{c} + \text{sonor} \\ + \text{syll} \\ - \text{cons} \end{array} \right]$$

$$\text{eta } [+ \text{syll}] \rightarrow \left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ - \text{cons.} \end{array} \right]$$

beste honetara ere eman daiteke legea:

R.17.2.1.:

$$\left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ - \text{low} \\ + \text{back} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{high}] / \text{---} \left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ + \text{low} \end{array} \right]$$

Funtsean, beraz, eta arreta [high] ezaugarrian jarritz gero:

$$\left[\begin{array}{c} V \\ - \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{high}] / \text{---} \left[\begin{array}{c} V \\ - \text{high} \end{array} \right]$$

Beraz: *disimilazio atzerakari* bat dugu hau (euskaraz atzerakaria da disimilazio normala) eta [high] ezaugarriari buruz:

$$[- \text{high}] [- \text{high}] \rightarrow [+ \text{high}] [- \text{high}]$$

Ezkerrekoa disimilatu da, eskuinekoa aldatu gabe geldituz. Bestela ere esatekotan:

Lehendabizikoa disimilatu da:

[—high] → [+high]

Bigarrena (atzerakaria) bere hartan geldituz:

[—high] → [—high]

17.2.1.1. Aldakuntza fonologiko hau *oso normala* da: ikus «Oinarri Bila» liburuan emandako adibide-multzoa, 6.1.1.1. puntuak; bai barne-, bai kanpo-sandhietan. Ikus ere Navarro Tomás-en iritziak (liburu honetako 1.5.4. puntua, batez ere).

17.2.2. Eman dezagun orain beste hau:

ea → ia

nekea = [nekea] → [nekia]

artean = [aɾtean] → [aɾtian]

legea = [legea] → [legia]

(ikus *Sustrai Bila*, 6.1.1. puntua.)

Hitz batez:

e → i / —a

Eta ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{c} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} +\text{syll} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{array} \right] / \text{---} \left[\begin{array}{c} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Edo, zehazkiago:

R.17.2.2.:

$$\left[\begin{array}{c} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{array} \right] \rightarrow [+high] / \text{---} \left[\begin{array}{c} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Funtsean, beraz:

Disimilazio atzerakaria dugu (normalena euskaraz), [+high] ezaugarriari buruz:

$$[-\text{high}] [-\text{high}] \rightarrow [+ \text{high}] [-\text{high}]$$

17.2.2.1. Aldakuntza hau ere, guztiz orokorra ez bada ere, *ia-ia orokortzat* har daiteke.

17.2.3. Eman ditzagun orain bi erregela horiek elkarren segidan:

R.17.2.1.:

$$\begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ + \text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{high}] \quad / \quad \text{---} \begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ + \text{low} \end{bmatrix}$$

R.17.2.2.:

$$\begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{high}] \quad / \quad \text{---} \begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ + \text{low} \end{bmatrix}$$

Bi fenomenoak *oso antzekoak* dira.

Eta α erabiliz, hau dugu:

R.17.2.3.:

$$\begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ \alpha \text{ back} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{high}] \quad / \quad \text{---} \begin{bmatrix} + \text{syll} \\ -\text{high} \\ + \text{low} \end{bmatrix}$$

$\alpha = \oplus$: R.17.2.1.

$\alpha = \ominus$: R.17.2.2.

17.2.4. Badirudi, beraz [back] ezaugarriak garrantzirik ez duenez gero, alde batera utz daitekeela; ondoko hau idatziz:

R.17.2.4.:

$$\left[\begin{array}{l} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{---} \left[\begin{array}{l} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Gauza bera ahal dira R.17.2.3. eta R.17.2.4. erregela horiek?

Segi ditzagun arretaz, eta errara, ondoko hiru lerro hauek:

2. lerroan: [+syll] balorea

6. lerroan: [-high] balorea

7. lerroan: [-low] balorea

Eta soinu multzo hau lortzen da:

$$\left[\begin{array}{l} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] = \{e, o\}$$

Eta besterik ez.

Beraz: R.17.2.4. erregelak eta R.17.2.3. erregelak *gauza bera* adierazten dute; [back]-en erasketak zehazten duelarik.

17.2.4.1. Lege hau *oso funtsezkoa eta orokorra izanik* (nahiz ez Euskara Batua errentzat Euskaltzaindiak onarturik), idatz dezagun beste modu errazago batez:

Esan dugunez:

$$[+\text{syll}] = V \text{ (euskaraz)}$$

Horretaz:

R.17.2.4.1.:

$$\left[\begin{array}{l} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{---} \left[\begin{array}{l} V \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Zeren-eta:

[+low] → [—high]

eta eskuineko matrizea arindu egin baitaiteke.

Bestela esanda:

Ez *goiko* ez *bebereko* diren bokaleak (= {e, o} euskaraz), *goiko* bihurtzen dira (= {i, u} euskaraz), bokale beheakoa-ren (= {a}) ezkerretan doazenean.

17.3. OO ETA EE ELKARKETAK

17.3.1. Gorago ere esana dugunez, hiatu-mota honen kontrako joera azkarra du euskarak (ikus «Oinarri Bila», 6.1.2.):

zorook = [sorook] → [soruok]
bero honekin = [bero onekin] → [beru onekin]
asto hori = [ásto ori] → [ástu ori]

Beraz, *ofiziala ez bada ere*, hau proposa bide daiteke:

[oo] → [uo]

Edo-ta:

o → u / —o

Eta, ezaugarri bitarretan:

R.17.3.1.:

$$\begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ +\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ +\text{high} \\ +\text{back} \end{bmatrix} / \text{---} \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ +\text{back} \end{bmatrix}$$

Edo, bestela:

$$\begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ +\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [+high] / \text{---} \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ +\text{back} \end{bmatrix}$$

Berriz ere:

Disimilazio atzerakaria dugu, [high] ezaugarriari buruz. Fenomeno hau eta lehen aipatutakoak oso antzekoak dira.

17.3.2. Era berean (ikus «Oinarri Bila», 6.1.2.1.), oso normala da hau:

[ee] → [ie]

Adibidez:

semeen = [sémeen] → [sémien]
andreen = [aṇḍreen] → [aṇḍrien]
urteetan = [urteetan] → [ur̥tietan]

Beraz:

e → i / —e

Eta ezaugarri bitarretan:

R.17.3.2.:

$$\begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} / \text{ — } \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{bmatrix}$$

Edo-ta:

$$\begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{high}] / \text{ — } \begin{bmatrix} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{bmatrix}$$

Beraz:

Disimilazio atzerakaria dugu [high] ezaugarriari buruz; eta, jakina, aurreko aldakuntzaren antzekoa txit.

17.3.3.—R.17.3.1. eta R.17.3.2. erregelak, beraz, batera ematen zail ez da:

R.17.3.3.:

$$\left[\begin{array}{l} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{l} +\text{syll} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right]$$

$\alpha = \oplus$: R.17.3.1.
 $\alpha = \ominus$: R.17.3.2.

17.3.3.1. Edo, bestela ere:

R.17.3.3.1.:

$$\left[\begin{array}{l} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{l} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right]$$

Erdiko bokaleak *goiko* bihurtzen dira, beste *erdiko* baten ezkerretan daudenean:

ee → ie
oo → uo

17.3.4. [back] ezaugarria alde batera utziz gero, hau genuke:

R.17.3.4.:

$$\left[\begin{array}{l} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{l} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right]$$

Hots:

R.17.3.4. ≠ R.17.3.3.1.

R.17.3.4. *orokorragoa* da R.17.3.3.1. baino.

Eman dezagun:

etxe honetan = [eʧeonetan]
besoetan = [beʃoetan]

R.17.3.3.1. erregela ezin erabil daiteke bi kasu hauetan:

[eo] = [—back] [+back]

[oe] = [+back] [—back]

Hitz batez: [α back] ezaugarriaren arauerako baldintza ez dute betetzen bi adibide horiek.

R.17.3.4. *bai* ordea.

Beraz:

R.17.3.4. ⊃ R.17.3.3.1.

Egia ote da erregela hori?

Ortoepia ofizialik ez dagoenez gero, galdera horri ez dakiokerantzunik eman. Oso orokorra da, ordea, aldakuntza hau; eta, ikusienez, lehengoaren antzeko osoki (ikus «Oinarri Bila», 6.1.1.).

Badirudi, beraz, biok *disimilazio mota berbera* direnez gero, *biak* eman behar liratekeela ontzat (edo *biak* gaitzetsi).

Biak onartuz gero, hau genuke:

R.17.3.4.: $\left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{—} \left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right]$

Eta, *azentu-unitate berean*, horretaz, hau onartzen dugula:

ee = [ie]

oo = [uo]

eo = [io]

oe = [ue]

17.3.5.—R.17.2.4.1. eta R.17.3.4. erregelak ere, antzekoak dira; eta batera eman daitezke:

R.17.3.5.: $\left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+high] \quad / \quad \text{—} \left\{ \begin{array}{c} \left[\begin{array}{c} V \\ +\text{low} \end{array} \right] \\ \left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \end{array} \right.$

Hots:

$$[+low] \rightarrow [-high]$$

Beraz:

$$\begin{bmatrix} V \\ +low \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} V \\ +low \\ -high \end{bmatrix}$$

Eta, beraz, honetara idatz daiteke:

$$\begin{bmatrix} V \\ -high \\ -low \end{bmatrix} \rightarrow [+high] \quad / \quad \left\{ \begin{array}{l} \begin{bmatrix} V \\ -high \\ +low \end{bmatrix} \\ \begin{bmatrix} V \\ -high \\ -low \end{bmatrix} \end{array} \right.$$

Jakina:

$$\begin{bmatrix} V \\ -high \\ -low \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} V \\ -high \\ -low \\ \beta \text{ back} \end{bmatrix}$$

Beraz, hobeki:

R.17.3.5.1.:

$$\begin{bmatrix} V \\ -high \\ -low \end{bmatrix} \rightarrow [+high] \quad / \quad \left[\begin{array}{l} V \\ -high \\ \alpha \text{ low} \end{array} \right] \quad \textcircled{\text{B.1}}$$

Erregela honetan:

$$\alpha = \oplus : \text{R.17.2.4.1.}$$

$$\alpha = \ominus : \text{R.17.3.4.}$$

Erregela *bakar* batez B.1 sei fenomeno azaltzen ditugu:

$$ea \rightarrow [ia]$$

$$oa \rightarrow [ua]$$

$$ee \rightarrow [ie]$$

$$oe \rightarrow [ue]$$

$$eo \rightarrow [io]$$

$$oo \rightarrow [uo]$$

Sei fenomeno fonologiko horiek *gauza bera* dira funtsean; eta normalena, *seiak* onartzea litzateke.

Ez luke sentidurik, dena dela, horietako bat onartzea, eman dezagun, eta beste bostak ez; edo hiru bai, eta hiru ez...

Edo *seiak ontzat eman* (eta hauxe da egilearen iritzia); edo *bat ere ez*.

17.4. Har dezagun orain kontutan beste fenomeno ezagun hau:

$a \rightarrow e / \text{—}a$

alabaa → [alabea]

arnasaa → [ařnařea]

ateraa → [aterea]

(Gipuzkoa-ko Goierrian, eman dezagun)

Hemen ere, *disimilazio atzerakari* bat dugu:

R.17.4.:

$$\left[\begin{array}{c} V \\ +\text{low} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \\ \text{—low} \\ \text{—back} \end{array} \right] / \text{—} \left[\begin{array}{c} V \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Baina [low] ezaugarriaren arauera. Hots:

[+low] → [—high]

Beraz:

$$\left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \\ +\text{low} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \\ \text{—low} \\ \text{—back} \end{array} \right] / \text{—} \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \\ +\text{low} \end{array} \right]$$

Beraz, lege hau eta R.17.3.5.1. legea aski *desberdinak* dira; eta batera zertan ematerik ez dago.

Bestetik (eta hauxe izan daiteke garrantzitsuena *Fonologia Baturari buruz*) oso ondo onar daitezke R.17.3.5.1. erregelak adierazten dituen *sei* aldakuntzak, nahiz hau ez onartu.

Fenomeno *desberdinak* direla garbi ikusten baita; nahiz hau beste disimilazio bat izan.

17.5. Ikus dezagun orain *euskal monoptongaketaren arazoa*:

gast. gobierno → G., gobernu
 almuerzo → B., armosu
 asiento → AN., asentu

Beraz:

$j \rightarrow \emptyset / -e$
 $w \rightarrow \emptyset / -e$
 $\left\{ \begin{array}{c} j \\ w \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / -e$

Eta ezaugarri bitarretan:

$\left[\begin{array}{c} + \text{sonor} \\ - \text{syll} \\ - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} + \text{syll} \\ - \text{high} \\ - \text{low} \\ - \text{back} \end{array} \right]$

Hots:

$[+ \text{syll}] = V \rightarrow \left[\begin{array}{c} + \text{sonor} \\ - \text{cons.} \end{array} \right]$

Eta:

$\left[\begin{array}{c} - \text{syll} \\ - \text{cons} \end{array} \right] = \text{Gl} = \{j, w, h\}$

Eta, noski:

$\left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ + \text{high} \end{array} \right] = \{j, w\} = \check{V}$

$\left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ - \text{high} \end{array} \right] = \{h\}$

Beraz, *monoptongaketa* honela azal daiteke:

R.17.5.:

$$\left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ +\text{high} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{c} \text{V} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{array} \right]$$

Muzki-ko euskalkian, esate baterako, nabarmen dago joera hau (Hego-nafarrera):

adi zazue
[sasue] → [saswe] → [sase] (= *adizace*)

Pilaka dituzte Mz. Morentin-ek horrelakoak.

Gauza bera gaur, Ezkurran:

gazt., *asiento* = [ašje̞nto] → AN., [asɛ̞ntu]
concierto = [koñθje̞rto] → G., [končɛ̞rtu]

17.5.1. Kontutan har gaztelaniaren diptongaketa:

[e] → [je]

gutziz dela *alderantzizkoa*:

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{array} \right] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{c} \text{V} \\ -\text{high} \\ -\text{low} \\ -\text{back} \end{array} \right]$$

17.6. Alderantziz, ordea, zenbait aldiz *glideak* sortzen dira euskaraz.

17.6.1. Alde batetik:

mendia → *[me̞ɲdija]
burua → *[buruwa]

Eta, horietatik:

[me̞ɲdiya], eta abar
[buru̞ba], eta abar

Azter ditzagun fenomeno horiek.

ia → ija
 ua → uwa

Beraz:

$$\emptyset \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} j \\ w \end{array} \right\} / \left\{ \begin{array}{c} i \\ u \end{array} \right\} \text{ — [a]}$$

Hots, gauza bera gertatzen da beste bokale [—high] guztien aurrean:

zion = [sijon] → [siyon], [sišon]...
buruetan = [buruwetan] → [buruβetan]...
mendien = [meñdijen] → [meñdiyen],
 [meñdižen]...
aulki hori = [aũlkijori] → [aũlkiyori]...
mundu bonetan = [muñduwonetan] → [muñduβoñtan]...

$\left\{ \begin{array}{c} j \\ w \end{array} \right\}$ glideak, euskalkien arauera, [+cons] bihurtu ondoren, gutxiago edo areago hersten dira.

Beraz, *jatorrian*:

$$\emptyset \rightarrow [j] / [i] \text{ — } \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \end{array} \right]$$

$$\emptyset \rightarrow [w] / [u] \text{ — } \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \end{array} \right]$$

Edo:

R.17.6.1.:

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} Gl \\ +high \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} V \\ +high \\ \alpha \text{ back} \end{array} \right] \text{ — } \left[\begin{array}{c} V \\ \text{—high} \end{array} \right]$$

$\alpha = +$: [w] glidea

$\alpha = -$: [j] glidea

Eta, dakigunez:

$$\left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ + \text{high} \end{array} \right] = \{j, w\} = \left[\begin{array}{c} -\text{syll} \\ -\text{cons.} \\ + \text{sonor} \\ + \text{high} \end{array} \right]$$

Hots, normalean:

R.17.6.2.:

$$\left[\begin{array}{c} \text{Gl} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cons.}] / V - V$$

eta

$$[+ \text{cons}] \rightarrow \left[\begin{array}{c} -\text{syll} \\ -\text{sonor} \end{array} \right]$$

Beraz:

R.17.6.2. erregela, R.17.6.1.-ren *ondoren* erabiliz gero:

*[meñdija] → [meñdiya]

*[buruwa] → [burũba]

eta gainerakoak azaltzen dira.

R.17.6.1. onartzen bada, R.17.6.2. *ere* erabili behar da.

Bestela, ez bata ez bestea.

Egilearen ustez:

ea → ia

oa → ua

onartzen badira (eta horren alde dago lerro hauen idazlea),

ia → iya

ua → uba

ere eman behar lirateke ontzat; beraz, bai R. 17.6.1., bai R.17.6.2. (eta bi hauek, ordenaturik).

17.6.2. Ikus dezagun orain beste fenomeno ezagun hau:

[alaj] → [alaya]
 [křīřtauj] → [křīřtaġa]

Eta, tarteko formak:

*[alaja]
 *[křīřtawaja]

Hots:

*[aja] → [aya]
 *[awaja] → [aġa]

eta antzerakoak, R.17.6.2. erregelaren ondorio dira.

Beraz, kasu hauetan ere:

R.17.6.2.:
 erregela erabili behar litzateke.

17.6.3. Azter dezagun zehazki, beraz, horren garrantzitsu dirudien erregela hau. Idatz dezagun ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{l} + \text{sonor} \\ - \text{syll} \\ - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cons}] / \left[\begin{array}{l} + \text{sonor} \\ + \text{syll} \\ - \text{cons} \end{array} \right] \text{ — } \left[\begin{array}{l} + \text{sonor} \\ + \text{syll} \\ - \text{cons} \end{array} \right]$$

Beraz, [cons]-ari buruz:

[—cons] → [+cons] / [—cons] — [—cons]

Disimilazio bat, hitz batez: bi [—cons]-ren arteko [—cons], [+cons] bihurtzen da. Hauxe da, funtsean.

17.6.4. Baina, ezkerreko baldintza fonologikoa jarri gabe ere, legea beteko litzateke:

erd., *material* = [materiřala]
suerte = [řubeřte]

(gutxienez, Mendebaldeko euskalkietan, normal; goranzko diptongoen azterketetan ikusi denez.)

Horretaz:

R.17.6.4.:

$$\begin{bmatrix} \text{---cons} \\ \text{---syll} \\ \text{+high} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{cons}] / \text{---} \begin{bmatrix} \text{---cons} \\ \text{+syll} \end{bmatrix}$$

Disimilazio atzerakaria (normala, beraz), [cons] ezaugarriaren arauera.

17.7. Azter ditzagun orain euskal diptongoak horren argitan.

Beheranzkoetan hau dugu:

$$\begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{---high} \end{bmatrix} \quad \begin{bmatrix} \text{Gl} \\ \text{+high} \end{bmatrix}$$

Goranzkoetan:

$$\begin{bmatrix} \text{Gl} \\ \text{+high} \end{bmatrix} \quad \begin{bmatrix} \text{V} \\ \alpha \text{ high} \end{bmatrix}$$

$$\alpha = \oplus \quad \therefore [\text{wi}] \quad ([\text{ju}])$$

$$\alpha = \ominus \quad \therefore [\text{ja}], [\text{wa}], [\text{je}], [\text{we}], \\ [\text{jo}], [\text{wo}]$$

17.7.1. Beheranzkoak.

$$\begin{bmatrix} \text{+syll} \\ \text{---cons} \\ \text{+sonor} \\ \text{---high} \end{bmatrix} \quad \begin{bmatrix} \text{---syll} \\ \text{---cons} \\ \text{+sonor} \\ \text{+high} \end{bmatrix}$$

[---cons] → [+sonor]; beraz:

$$\begin{bmatrix} \text{+syll} \\ \text{---cons} \\ \text{---high} \end{bmatrix} \quad \begin{bmatrix} \text{---syll} \\ \text{---cons} \\ \text{+high} \end{bmatrix}$$

Baita sinalefaz ere; beraz:

$$\textit{ama ikusi} = [\text{ama ikuʃi}] \rightarrow [\text{ama}i\text{kuʃi}]$$

$$\textit{neska umila} = [\text{neʃka umi\text{ɭ}a}] \rightarrow [\text{neʃka}u\text{mi\text{ɭ}a}]$$

Eta bauza bera [h] ahoskatzen ez den euskalkietan:

aburra = [a_ur̄a]
abuldu = [a_ul_{du}]
ebun = [e_un]
obitu = [o_it_u]
nabi = [na_i]

(nahiz zenbait lekutan oraindik ere, azaldu dugunez, bisilabiko izan: [nari], edo antzekoak).

babitu = [ba_it_u]

Beraz:

$$\left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{syll}] \quad / \quad \left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{cons} \\ - \text{high} \end{array} \right] \text{ —}$$

Edo bestela:

R.17.7.1.:

$$\left[\begin{array}{l} - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{syll}] \quad / \quad \left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{high} \end{array} \right] \text{ —}$$

17.7.2. Goranzkoetan, aldiz, hau genuke:

R.17.7.2.:

$$\left[\begin{array}{l} - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{syll}] \quad / \quad \text{ — } \left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{high} \end{array} \right]$$

Ekialdeko euskalkietan (eta berauen triptongoetan ere) gertatzen denez.

Fonetika Batuari buruz, R.17.7.2. gaitzetsi egingo genuke.

17.7.3. *Ekialdeko euskalkietan*, dena dela, 17.7.1. eta 17.7.2. batuz, hau genuke:

R.17.7.3.:

$$\left[\begin{array}{l} - \text{cons} \\ + \text{high} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{syll}] \quad / \quad \left(\left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{high} \end{array} \right] \right) \text{ — } \left(\left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ - \text{high} \end{array} \right] \right)$$

Eta honen arauera:

Eaurta = [iaur̥ta] → [jaur̥ta]
ikusi haute = [ikuši aũte] → [ikušjaũte]
 (lau silabatan).

17.8. Azter dezagun, bukatzeko, euskal bokaletasunean oso zabala den fenomeno bat.

Euskalki askotan (euskalkirik gehienetan, hobeki esan):

ia → ie
 ua → ue

baita kontsonante batzuz gain ere.

Beraz:

$a \rightarrow e \ / \ \left\{ \begin{array}{c} i \\ u \end{array} \right\} C_0 \text{ —}$

Eta ezaugarri bitarrez:

$\left[\begin{array}{c} V \\ +low \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ -low \\ -high \\ -back \end{array} \right] \ / \ \left[\begin{array}{c} V \\ +high \end{array} \right] C_0 \text{ —}$

Garbiago ikusteko, eta:

[+high] → [−low]

gogoratuz:

$\left[\begin{array}{c} V \\ +low \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ -low \\ -high \\ -back \end{array} \right] \ / \ \left[\begin{array}{c} V \\ +high \\ -low \end{array} \right] C_0 \text{ —}$

Adibidez:

eskua → [eška] → [eškue]
zubia → [subia] → [subie]
bil da → [il̥da] → [il̥de]

Nafarroako eskualde *zabal* batetan gertatu izan da asimilazio hau. Eta, jakina, gauza bera Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualderik handienean ere bai.

Beraz:

R.17.8.:

$$\left[\begin{array}{c} V \\ +low \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ -low \\ -high \\ -back \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} V \\ +high \\ -low \end{array} \right] C_0 \text{ —}$$

Garbi ageri denez: *asimilazio aurrerakari* bat (normala, beraz) [—low] ezaugarriaren sailean:

$$[—low] C_0 [+low] \rightarrow [—low] C_0 [—low]$$

Ezkerreko bokaleak, eragin egiten dio *eskuineko* bokaleari; eta mihia altzarazten.

Legea, bestalde, V-ren ondoren ere betetzen da:

$$\begin{array}{l} koitaua = [koit̪awe] \\ zelaia = [selaje] \end{array}$$

Beraz:

R.17.8.1.:

$$\left[\begin{array}{c} V \\ +low \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} V \\ -low \\ -high \\ -back \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} -cons \\ +high \\ -low \end{array} \right] C_0 \text{ —}$$

17.9. Gogoan har dezagun orain bustikuntza automatikoaren erregela orokorra (R.19.5.6., ikus 19. kapitulua):

R.19.5.6.:

$$\left[\begin{array}{c} C \\ -high \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} C \\ +high \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} -cons \\ +high \\ -back \end{array} \right] \text{ —}$$

Eta: [+low] → [−high] denez gero, osa dezagun R.17.8.1. erregela:

$$\begin{bmatrix} V \\ +\text{low} \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} V \\ -\text{low} \\ -\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} / \begin{bmatrix} -\text{cons} \\ +\text{high} \\ -\text{low} \end{bmatrix} C_0 \text{ —}$$

Bi erregela horiek antzekoak dira.

Batak: [−high] → [+high] eragiten die kontsonanteei.

Besteak: [+low] → [−low], bokaleei.

$$\begin{bmatrix} -\text{cons} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} = \{i, j\}$$

$$\begin{bmatrix} -\text{cons} \\ +\text{high} \\ -\text{low} \end{bmatrix} = \{i, j, u, w\} \supset \{i, j\}$$

Normala da, beraz:

$$\begin{aligned} ia &\rightarrow ie \\ ua &\rightarrow ue \end{aligned}$$

ezagutzen duten euskalkiek, bustidura automatikoa ezagutzea.

Normala da, era berean, alderantzizkoa beti ez gertatzea.

17.9.1. Azken ohar bat:

Lege hau (R.17.8.1.) eta (R.17.3.5.1.) funtsean desberdinak izanik, ez dago *hau eta hura* batera zertan onartu beharrik.

R.17.3.5.1. hura onarturik ere, beste hau (R.17.8.1.) euskalki gisako legetzat utz daiteke, Euskara Batuari buruz proposatu gabe.

XVIII KAPITULUA

EUSKAL ASPIRAZIOAREN ARAZOAK

18.1. T. 15.0 taulan ikus daitekeenez:

$$[\text{h}] = \begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ - \text{syll.} \\ - \text{cons.} \\ - \text{high} \end{bmatrix}$$

Hitz haseran: $[\text{h}] = [-\text{voice}]$

Bokale artean: $[\text{h}] = [+ \text{voice}]$

18.1.1. Bokalerdiekin alderatuz gero:

$$[\text{V}] = \begin{bmatrix} + \text{sonor.} \\ - \text{syll.} \\ - \text{cons.} \\ + \text{high} \end{bmatrix}$$

hau ageri da: $/b/$ eta $\{\text{V}\}$ oso antzekoak direla ($\Delta = 1$):

| | | |
|---------------------|---|---|
| | V | h |
| $[\pm \text{high}]$ | + | - |

taula horretan ikus daitekeenez.

Zenbait kasutan, beraz, euskal V-ek eta $/b/$ fonemak, aldakuntza berberak izango dituzte; eta beste batzutan, ez.

18.1.2. /b/ fonema eta {sonanteak} alderatzen baditugu, berriz, hau dugu:

$$\{sonanteak\} = \begin{bmatrix} +sonor. \\ -syll. \\ +cons. \end{bmatrix} = \{L, N, R\}$$

baina:

$$\{L, N\} = \begin{bmatrix} +sonor. \\ -syll. \\ +cons. \\ -cont. \end{bmatrix}$$

dardarkariez hau dugularik:

$$\{R\} = \begin{bmatrix} +sonor. \\ -syll. \\ +cons. \\ +cont. \end{bmatrix}$$

$$\begin{aligned} \{L\} &= \{l, \downarrow\} \\ \{N\} &= \{m, n, \eta, \eta\} \\ \{R\} &= \{r, \bar{r}\} \end{aligned}$$

Desberdintasunak hauek dira:

$$\begin{aligned} /b/ \text{ eta } \{L\} &\quad \Delta = 1 \\ /b/ \text{ eta } \{N\} &\quad \Delta = 1 \\ /b/ \text{ eta } \{R\} &\quad \Delta = 1 \end{aligned}$$

18.1.3. Eta /b/ fonema eta {obstruents} delakoak (= trabakariak) alderatuz gero:

$$\begin{bmatrix} C \\ \text{obstr.} \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} -sonorant \\ (+cons.) \end{bmatrix}$$

$$\Delta = 1$$

(edo $\Delta = 2$, zenbait sailkabidetan)

18.1.4. Zenbait aldiz, *h* hurbilago agertzen da sonanteetatik, trabakarietatik baino; eta beste zenbait aldiz, berriz, hurbilago trabakarietatik.

18.2. Zenbait aldiz, oso nabarmen agertzen zaigu $\{l, n, h\}$ multzoaren barruan dagoen ahaidetasuna:

- (A) *ez nuke* → [enuke]
ez huke → [ehuke]
ez luke → [eluke]

Eta, era berean:

- (B) *bait nuke* → [bajnuke]
bait huke → [bajhuke]
bait luke → [bajluke]

(Ikus Oinarri Bila, 6.2014)

(A) multzoa gehienetan betetzen bada ere,

$$[s] \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{pmatrix} n \\ h \\ l \end{pmatrix}$$

(B) multzoa *beti* eta *osoki* betetzen da, (A) baino hertsikiago:

$$[t] \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{pmatrix} n \\ h \\ l \end{pmatrix}$$

18.3. Azter ditzagun bi kasuak.

$$[t] \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{pmatrix} n \\ h \\ l \end{pmatrix}$$

18.3.1. T.-15.0 taula begiratzen badugu, zer da $\begin{pmatrix} n \\ l \end{pmatrix}$ bikotearen funtsa?

Berehala ikus daiteke:

$$\left\{ \begin{array}{c} n \\ l \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ -\text{syll.} \\ + \text{cons.} \\ -\text{cont.} \\ -\text{high} \end{array} \right]$$

18.3.2. Fenomenoa ez da [t]-rekin bakarrik gertatzen:

| | | |
|-----------|---|-----------|
| clueca | → | [loka] |
| claro | → | [laru] |
| eurek lez | → | [eureleś] |
| plancha | → | [laŋga] |

eta abar.

Beraz, hau dugu funtsean:

$$\left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / - \left\{ \begin{array}{c} n \\ l \end{array} \right\}$$

$$\left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} -\text{sonor.} \\ -\text{voice} \\ -\text{cont.} \\ -\text{del. r.} \end{array} \right]$$

Beraz:

R.18.3.2.:

$$\left[\begin{array}{c} -\text{sonor.} \\ -\text{voice} \\ -\text{cont.} \\ -\text{del. r.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ -\text{syll.} \\ + \text{cons.} \\ -\text{cont.} \\ -\text{high} \end{array} \right]$$

18.3.3. Euskal *ezabaketak*, eskuarki, [cont] ezaugarriari dagozkio.

R.18.3.2. legeak, beraz, hau adierazten du funtsean:

$$\begin{array}{ccc} \left[\begin{array}{c} -\text{sonor.} \\ -\text{cont.} \end{array} \right] & \left[\begin{array}{c} +\text{sonor.} \\ -\text{cont.} \end{array} \right] & \rightarrow \emptyset \left[\begin{array}{c} +\text{sonor.} \\ -\text{cont.} \end{array} \right] \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

Aurrekoa, *trabakaria*, ezabatu egiten da.

18.3.4. Hots, *fenomeno bera* gertatzen zaio /h/-ari.

bait huke = [bai^hhuke]
hura belüke, Etxahun (Oin. B., 215)

Hots, *gaurko* [h] horri, matrize hau dagokio:

$$[h] = \left[\begin{array}{c} +\text{sonor.} \\ -\text{syll.} \\ -\text{cons.} \\ -\text{high} \end{array} \right]$$

Eta jarraikortasunari dagokionez:

$$[h] = [+cont.]$$

[n] eta [l]-rekin duen ahaidetasuna ez da ulertzen.

18.3.5. Denak idarokitzen du:

$$X = [-cont.]$$

Ba ahal dago hau postulatzeko oinarririk? Gaur ez bada ere, [-cont.] izan ote da [h] horren *arbasoa*?

$$X \rightarrow h; \quad X = [-cont.]$$

Eman dezagun, hitz batez:

$$X = \left[\begin{array}{c} +\text{sonor.} \\ -\text{syll.} \\ -\text{cons.} \\ -\text{high} \\ -\text{cont.} \end{array} \right]$$

T. 15. 0 taula begiratzen badugu:

$$X = [?]$$

Hitz batez, *gaurko* [h], *aspaldiko denboretan* [ʔ] izan bide da; *glottal stop*, alegia. Honen arauera: [h] < [ʔ].

Eta, bide beretik, eskubide bera bide dugu *gaurko* leherkari aspiratuak (ph, th, kh), *aspaldiko denboretan* (pʔ, tʔ, kʔ) izan direla pentsatzeko. (Eta Kaukaso-ko hizkuntzetan horrelakoak ez dira falta). Adibidez:

hori < *ʔau
hau < *ʔori

eta abar.

18.3.6. Areago.

Aspaldiko [h], [ʔ] izan baldin bada, eta horretaz, [—cont.], normala da /h/ fonema, euskaraz, [—cont.] gisa agertzea; eta *leherkarien kidetzat* bereziki.

Hots, fenomeno batzu honen alde mintzo dira:

18.3.6.1. *Deiktikoetan*, [h] zahar horrek, [k] eman du (erronkarieraz eta zaraitzieraz); eta [g] ere bai (aezkeraz, eta Iruñetik bertago: Elkano-ko euskalkian, eta abar).

18.3.6.2. *Hitz-elkarketetan*, hau dugu:

Vh- → Vt-
Vg- → Vt-

Hitz batez: [h] ~ [g]

Eta [—cont.] izan balitz bezala.

«En compuestos antiguos es regular que, cuando las consonantes *d*, *g*, *h*, quedaban en final del primer miembro... aparezcan representadas por la sorda *-t* ante vocal». Mitxelena, F.H.V., 237. Esate baterako:

behi → *betzain* (= behi + zain)
behi → *betolaza* (= behi + ol(h)a + tza)

erhi → *erpuru* (= erhi + buru)
 behi → *bekorotz* (= behi + gorotz)

Aintzinako [h]-aren aurrekoa, [—cont.] izan balitz bezala; eta, agian, [ʔ] bera.

18.3.6.3. Gaurko /h/-ak *azentuarekin* daukan lotura ezagunak (ikus 11. kapitulua), bide beretik bultzatzen du. [ʔ] balio fonetikoari, aisa legokioke azentu tonikoa:

ikhusi < *[ikʔ úsi]
 hartu < *[ʔár̥tu]
 hau < *[ʔáũ]

18.4. *Hipotesi* (eta hipotesia besterik ez da hau) hori egiztatuko balitz, /h/-ak dituen kidetasunak (bai leherkariekin, bai sonanteekin, bai azentuarekin), pitin bat argituko lirateke agian.

18.5. Antzinako mendeetan, horretaz, gaurko {l, n, h} hirukoteari {l, n, ʔ} bazegokion, hirukote arkaiko horren matrizea hauxe da:

$$\left\{ \begin{array}{c} l \\ n \\ ʔ \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} +sonor. \\ -syll. \\ -cont. \\ -high \end{array} \right]$$

Eta [—cont.] ezaugarriari dagozkion debekuek, [ʔ] horri ere badagozkio.

Eta ulergarri da, hitz batez, 18.2. puntuan emandako aldakuntzen ahaidetasun bitxia.

Eta gauza bera 19.6.1. puntuan somatzen denez.

18.6. /X/ fonema horrek erakusleetan eta gainerakoetan jasan dituen eboluzio-desberdintasunak azaldu behar, halere. Edo-ta bi fonema desberdinen aurrean ote gauden.

XIX KAPITULUA

BOKALE-KONTSONANTE ELKARKETAK

19.1. Bokale eta kontsonanteak elkartzen direnean, elkarrekiko eragina agertzen da.

Batzuetan, bokalearen ezaugarriek aldarazten ditu kontsonantearen ezaugarriak. Besteetan, alderantziz, kontsonantearen ezaugarriak eragile, bokalearen izaera aldatzen da honetan edo hartan.

Goazen kasu horietako batzu aztertzeraz; beti ere euskal fonologiako arazo zahar batzu Fonologia Sortzailearen argitan ulertarazten.

19.2. EUSKAL BUSTIKUNTZEN ARAZOAZ

Kasu honetan *ezkerraldeko bokaleak* eragiten dio *eskuinaldeko kontsonanteari*.

Bustiaren ahoskera automatikoa ez denean:

sagu ≠ xagu

palatalizazioa *hautazkoa* da; eta kasu horretan [š]-ren hautaketa (adibide honetan, esate baterako) ez da aurreko [i] baten ondorioa.

Bestetan, aldiz, aurreko [i] edo [i̇] soinuak, *besterik gabe*, eta *automatikoki*, busti (= palatalizatu, sabaikaldu) egiten du ondoko kontsonantea:

ditu → [di̯tu]
 aita → [ai̯ta]

19.3. Lehenengo kasuan, [s̺] ≠ [š] konmutazioak, ondorio semantikoak ditu:

sagu ≠ xagu
 (xagu hitzak *sagu txikia* adierazten du)

eta, hitz batez, *bi fonemaren* aurrean gaude.

Normalean soinu bustiak halako kutsu *bibozkorra* erasten dio hitz *bustiari* (*valor expresivo*, erdaraz).

Adibidez:

xoxo = zozo txikia
xer duxu? = (= zer duzu, baina haur bati galdegiteko)
goxo = gozo, baina xamurrago edo maitatuago
Maddalen = Madalentxo; alaba txikia, eman dezagun
Maddi = Mari, era berean
ttantto = tanto txikia
txakur = zakur txikia
xu = zu, baina beroago (baxenabarreraz, *xuka* egiten zaio emazteari)

Hau dela-ta, hipokorostikoak eta ttipitzeko atzizkiek, fonema bustiak ohi daramatzate euskaraz:

etxe → *etxetxo, etxeño*
 tiki → *ttiki, txikitxo*
 andere → *anderetxo, andereño*
 aita → *aitatxi, aitañi*
 ola → *olatxo, olaño*

Edozein euskaldunek, bestalde, nabaituko du desberdintasun semantikoa ondoko bikoteetan:

| | | |
|--------------|---|---|
| tente | ≠ | <i>ttente</i> |
| tente jarri; | | baina emakume hori oso <i>ttente</i> da |
| tota | ≠ | <i>ttotta</i> |
| tontor | ≠ | <i>ttonttor</i> |
| patar | ≠ | <i>pattar</i> |
| potoko | ≠ | <i>pottoko</i> (kuttuna) |
| mutiko | ≠ | <i>muttiko</i> (etxekoa) |
| zulo | ≠ | <i>xulo</i> (zulotxo) |
| adar | ≠ | <i>addar</i> |
| eder | ≠ | <i>edder</i> |
| guti | ≠ | <i>gutti</i> |
| labur | ≠ | <i>llabur</i> (laburtxo) |
| hori | ≠ | <i>holli</i> , S (horixka) |
| bero | ≠ | <i>bello</i> , R (beroska) |

Eta beste milatan.

19.4. Zenbait euskalkitan, aldiz, aurreko [i] edo [i̇] soinuen eraginez, *ondorio semantikorik gabe* eta *automatikoki*, busti egiten da ondoko fonema:

| | | | |
|--------|-----------------|---|-------------|
| [iC] → | <i>ditut</i> | = | [di̇tut] |
| | <i>fidatu</i> | = | [fi̇yatu] |
| | <i>hilabete</i> | = | [i̇lȧbete] |
| | <i>mina</i> | = | [mi̇na] |
| | <i>gizon</i> | = | [gi̇son] |
| | <i>pisu</i> | = | [pi̇šu] |
| | <i>iritzi</i> | = | [eri̇çi] |
| | <i>itsaso</i> | = | [i̇çašo] |

| | | | |
|---------|----------------|---|-------------------------|
| [i̇C] → | <i>deitu</i> | = | [dėi̇tu] |
| | <i>haize</i> | = | [ȧše] edo [ȧi̇še] |
| | <i>eliza</i> | = | [elėša] edo [elėi̇ša] |
| | <i>hareitz</i> | = | [arėč] |
| | <i>oilar</i> | = | [ȯlȧr] |
| | <i>maila</i> | = | [mȧla] |
| | <i>baino</i> | = | [bȧno] |
| | <i>soinu</i> | = | [sȯnu] |

Hauetan ez dago ñabardura semantikorik.

- 19.4.1. [gišon] hitzak, beraz, bustidura *automatiko*a ez duen euskalki batez, *ñabardura semantiko* maiseatzailea hartzen du:

[gišon] = gizontxo, sasi-gizon.

Baina bustidura *automatiko*a duen euskalki batez:

gizon → [gišon]

gizen → [gišen]

izen → [išen]

eta, hortaz, *euskalki horretan*, *ñabardura semantiko* berezirik ez luke.

Predikari batek, horretara, Gipuzkoako herri batetan [gišon] behin eta berriz esaten omen zuelako:

zuek, bertako gixonak

herriko gizasemeak haserretu omen zituen... Berak, ordea, ziplo eta automatikoki egiten omen zuen palatalizazio hori; eta, hortaz, *giputz* haien amorrua ez omen zuen ulertzen...

- 19.5. Hau dela-ta, Azkue-ren irizpidetik joanda, Euskaltzaindiak hau erabaki du *ortografiari* dagokionez (hau da: *idazkerari* dagokionez):

Bustidura batek *balio semantikorik* ez badu (alegia, aurreko [i] edo [i̯] baten *ahoskera ezinbestezkoa bada*), *bustidurarik gabeko* soinua idaztea.

Beraz:

- 19.5.1. , eman dezagun, ez da *itontor baten ahoskera; beraz:

ttonttor

, ez da *isagu edo *izagu baten ahoskera; beraz:

xagu

, ez da *andereino baten ahoskera; hortaz:

andereño

Horra hor:

hizño

kantuño

baño (< bat + ño)

[mayi], ez da *Maidi baten ahoskera; hortaz:

Maddi

Kasu horietan, euskal soinu sabaikariei dagozkien letrak erabiliko dira:

tt, dd; ñ, ll; x; tx

19.5.2. Alderantziz: ahoskera bustia (edo ez bustia, beste kasuetan), *euskalkien arauerakoa* denean:

hilabete { [hilabete], BN
[ilabete], G

baino { [baino], BN
[baño], G

idazkerari dagokionez, *busti gabeko* soinuen arauera idatziko da:

hilabete

baina

langile

oilar

itsaso

itsusi

eta abar.

19.5.3. *Ahoskerari* dagokionez, *ordea*, *ahozko* formari dagokionez, *Euskaltzaindiak ez du ezer esan*.

Ez da egia, beraz, Euskara Batuaz

langile = [laŋgile], denik

edo-ta:

hilabete = [hilabete] edo [ilabete] denik.

Orain arte, Euskara Batuari buruz, *Euskaltzaindiak ez du ezer esan Fonologia edo Fonetikaren mailan*. Gaurkoz (1980-IX), Euskara Batuak *koda idatzia* aztertu du, *izkribuzkoa*; eta *ahozkoaz* ez du ezer esan.

Langile hitza, beraz:

langile idatzi behar da.

Baina ahoskeraz ez dago ortoepia ofizialik:

[laŋgile] *ongi da*,

[laŋgile] *ere bai*.

- 19.5.3.1. Liburu honen egileak Bergarako bere txostenean proposatu zuenez, [laŋgile], eta antzekoak, hobetsi behar lireratekeela uste du. Baina hau *irizpide pertsonal butsa* da.

Eta euskal Fonologia Sortzaile hau eraikitzekotan, zenbait lekutan ahoskera hori hobesten bada ere, neuk dut hobetsi; ez Euskaltzaindiak.


Baina, alderantziz, ez da egia [laŋgile] ahoskera Euskaltzaindiak hobetsia duenik.

- 19.5.4. Palatalizazioa gertatzen, hauek dira euskarak dituen aldakuntzak:

[t] → [t̟]
[d] → [d̟] ([y̞] edo [y], beraz)
[n] → [n̟]
[l] → [l̟]
[r] → [r̟]
[s] → [š]
[ś] → [š]
[c] → [č]
[ć] → [č]

Oharra: [ŷ], hitz-haseran edo [— cont.] baten ondoren ([n] edo [l]); eta [y], bokale-artean.

19.5.5. Bustiduran, beraz, hau dugu:



Alegia:

| | | | | | |
|-----|---|---------------|---|------|---|
| [t] | → | [<u>t</u>] | / | [i] | — |
| [t] | → | [<u>t̃</u>] | / | [ĩ] | — |
| [n] | → | [<u>n</u>] | / | [i] | — |

eta abar.

Zenbait euskalkitan [ĩ]-ren ondoan gertatzen da bustikuntza; zenbait euskalkitan (zabalera txikiagoan hau) [i]-ren ondoan *ere* gerta daiteke.

Isoglosa guztiak, bestalde, ez dira leku beretik pasatzen; eta

[n] → [n]

bustidura, eman dezagun

[l] → [l]

baino gehiagotan gerta daiteke, edo alderantziz.

Laguntza bikaina izango da, honi buruz, Ana Mari Etxaidek aurki argitaratuko duen lan berezia. (Ikus, oraingoz, FLV 23).

19.5.6. Gutxi gora behera hau esan daiteke:

- 1) Maizago palatalizatzen da [i̯]-ren ondoren, [i]-ren ondoren baino.
- 2) Maizago palatalizatzen du gipuzkerak (eta zenbait bizkaiera motak), beste euskalkiek baino.
- 3) Iparraldeari dagokionez: maizago zubererak, baxenabarrerak baino. Kate honen arauera:

S > L > BN

- 4) Despalatalizazioa:

erd. baño = BN, mainu
 guiño = BN, keinu
 botella = BN, botoila
 España = BN, Espainia

baxenabarreraz gertatzen da azkarkienik; eta, beraz, maizago, eman dezagun, zaraitzieraz eta erronkarieraz baino.

- 5) Arratian, eta Txoriherrin batez ere; Nafarroako Barrankan bezala, bustidura *urri* (eta gauza bera, soma baitekeenez, Iruñe-Irunberri-Orreaga triangeluko euskalkietan).
- 6) Zuberoan eta Erronkarin, hala ere, bustidura *ugari*; baita hitz bukaeran ere:

S. húñ
 uhúñ

Hots: T.15.0 taula nagusia arretaz begiratzen badugu; eta 6. [\pm high] lerroa kopiatzen, hau dugu:

6. [\pm high]

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|---|---|---|---|---|---|---|
| t | ṭ | d | ḍ | n | ṇ | l | ḷ | r | ḷ | s | š | ś | š | c | č | ć | č |
| — | + | — | + | — | + | — | + | — | + | — | + | — | + | — | + | — | + |

Hitz batez: bustikuntza hau da,

[—high] → [+high]

Beraz:

$$\begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} C \\ +\text{high} \end{bmatrix}$$

Inguramendu fonikoa, *orokorki* bederen, hau da:

$$\left\{ \begin{array}{c} i \\ i \\ \tilde{i} \end{array} \right\} = \begin{bmatrix} +\text{sonor.} \\ -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix}$$

Beraz: euskal bustikuntza

$$[-\text{cons.}] \rightarrow [+ \text{sonor.}] \quad \text{denez gero:}$$

R.19.5.6.:

$$\begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} C \\ +\text{high} \end{bmatrix} // \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} \quad \text{---} \quad \textcircled{\text{BK1}}$$

Alegia: *Asimilazio aurrerakaria* (normala euskaraz) [high] ezaugarriari dagokionez.

Hemen, garbi denez, *bokaleak* eragin dio ondoko *kontsonanteari*.

19.5.6.1. Jakina: euskara mota batez, [i̇]-ren ondoren bustikuntza gertatzen baldin bada, eta [i]-ren ondoren ez, hau idatziko genuke:

R.19.5.6.1.:

$$\begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} C \\ +\text{high} \end{bmatrix} // \begin{bmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} \quad \text{---} \quad \textcircled{\text{BK2}}$$

Asimilazio bera da, noski; baina:

$$\begin{bmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} = \{j\}$$

eta

$$\begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{bmatrix} = \{i, j\}$$

19.5.7. Aldera ditzagun orain bi erregela hauek:

Bustiduran: R.19.5.6.1, batetik.

Bokale-hersketa: R.17.8.1, besterik.

Antzekoak dira funtsean:

$$\begin{array}{l} \text{(bust.)} \quad \begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} C \\ +\text{high} \end{bmatrix} // \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{high} \end{bmatrix} \text{ —} \\ \text{(hersk.)} \quad \begin{bmatrix} V \\ +\text{low} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} V \\ -\text{low} \end{bmatrix} // \begin{bmatrix} V \\ +\text{high} \end{bmatrix} \text{ —} \\ \quad \quad \quad [+ \text{ high}] \rightarrow [\text{low}] \quad \text{denez} \end{array}$$

oso asimilazio antzekoak dira biak.

Bustiduran, *asimilazio aurrerakaria* dugu [+ high] ezaugarrian; [+ high] hau, kasu honetan, *goiko bokaleak* dakarrelarik.

/a/ *bokalearen* hersketan, berriz, [— low] ezaugarria daukan ezkerreko bokaleak ([+ high] denez), *kutsatu* egiten dio eskuineko bokaleari, erabat *asimilazio aurrerakari* baten bitartez.

Bustiduran:

$$\begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{high} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{high} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} C \\ +\text{high} \end{bmatrix}$$

/a/-ren hersketan:

$$\begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ -\text{low} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ +\text{low} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ -\text{low} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} -\text{cons.} \\ -\text{low} \end{bmatrix}$$

Funtsean: goratasunari buruzko asimilazio antzekoa dugu. Ez da harritzekoa, beraz:

mendia → [meɲdie]
burua → [burue]

egin dutenak:

hila → [i|e]
mina → [miɲe]

ere ahoskatzea.

Horretara bizkaiera mota asko, jakina denez (baita Gipuzko burruan ere); eta horretara ere nafarreraren euskalki asko, Iparrekoan batez ere.

(Edo, alderantziz, ez bustidurarik gertatzen, eta ez /a/ bokalearen hersketarik ere).

Gure ustez, beraz, eta Euskara Batuari dagokionez, *edo biak onartu; edo biak alde batera utzi*. Bata bai, bestea ez, funskabekeria litzateke.

Aldiz, ontzat biak ematekotan, Lizarra ondoko Morentin apaiz haien euskara genuke:

- a) *noticie, guzie, iguzquie, andie, dire, veinzet, veguiretu; asustetu, ure, escue, ainguerue, mundure* eta, horiekin batera:
- b) *illic, fiñe, examiñatu, milla, siñistarazi, ibilli, mutille, illarguie, ceñetan*.

Leitze inguruan edo bagina bezalaxe...

19.6. *Bokale eragin gisa* har daiteke euskaraz erabat normala den lege ezagun hau:

R.19.6.:

$$\left\{ \begin{array}{c} \mathbf{b} \\ \mathbf{d} \\ \mathbf{g} \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} \mathbf{b} \\ \mathbf{d} \\ \mathbf{g} \end{array} \right\} / \quad \mathbf{V} \text{ — } \mathbf{V}$$

Ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{l} \text{—sonor.} \\ + \text{voice} \\ \text{—cont.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cont.}] / [+ \text{syll.}] \text{ — } [+ \text{syll.}]$$

Baina bokaleak [+ cont.] dira:

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ + \text{voice} \\ \text{—cont.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cont.}] / \left[\begin{array}{l} + \text{syll.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right] \text{ — } \left[\begin{array}{l} + \text{syll.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right]$$

Fenomenoa oso ezaguna da, eta gaztelaniaz ere gertatzen da (baina ez frantsesez). Eta kanpo-sandhiz ere gertatzen da:

Pedrotxu urie, B, Mark. 39
ze milla emonio, G, Altz. 58
ekarri ttuzte, G, Txirr. 174.
itoko et, G, Altz. 74
egin biaitut, G, Txirr. 146
aguantatucouzu, AN, J. Liz. Doc. 280

Hori horrela gertatzen dena frogatzen ekitea lan alferra litza-teke (ikus «Oinarri Bila», 6, 207).

Bokalekuntza hori normala da euskalki guztietan; eta Axula-rren izkribuetan ere behin eta berriz agertzen da.

19.6.1. Hala ere, ohar batzu egin behar dira.

Alde batetik: [i̯] eta [u̯]-ren ondoko {b, d, g}, {ḃ, ḋ, ḡ} ahoskatzen dira:

sei bat = [séiḃat]

Beraz, legea horretara eman liteke:

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ + \text{voice} \\ \text{—cont.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cont.}] / \left[\begin{array}{l} \text{—cons.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right] \text{ — } \left[\begin{array}{l} \text{—cons.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right]$$

19.6.2. Hots, [f̄] = [+ cont.]

Eta honetxek azal ditzake Navarro Tomás-en transkribaketa hauek:

| | | |
|----------------|---|-----------|
| <i>xardiña</i> | = | [šardiña] |
| <i>sorgina</i> | = | [šorɣina] |
| <i>erbia</i> | = | [erbiya] |
| <i>gorde</i> | = | [gõrðe] |

Baina: $\left\{ \begin{array}{c} n \\ l \end{array} \right\} = [—cont.]$

| | | |
|-------------------|---|--------------|
| <i>zaldia</i> | = | [saɫdiya] |
| <i>murgildu</i> | = | [mũrɣilɫdu] |
| <i>denbora</i> | = | [ðembõra] |
| <i>denda</i> | = | [ðenda] |
| <i>gaztanbera</i> | = | [gaštambera] |
| <i>goldea</i> | = | [gõɫdeɫa] |

(Pron. Guip., 646-649).

Eta legea honetara eman liteke:

(BK. 4) $\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ + \text{voice} \\ - \text{cont.} \end{array} \right] \rightarrow [+cont.] / \left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right] - \left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right]$

Jakina:

$[+sonor.] \supset [—cons.]$

Beraz: BK. 4 dugu formulaketarik orokorra: bokale, bokalerdi, kontsonanterdi, eta dardarkariak onartuz:

$\left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right] = \{i, e, a, o, u, j, w, h, \bar{r}\}$

19.6.3. Hots, $\left[\begin{array}{c} + \text{sonor.} \\ + \text{cont.} \end{array} \right]$ ezaugarri horietan ageri denez, [h] ez dator batera [l] eta [n]-rekin, [r̄]-rekin baizik.

Eta hori ez da normala.

Eta, *gaur*, ez da egia:

a) Ez dago euskaraz *bh*, *dh*, *kh* bikoterik (ezta *b*, *d*, *g* aspiraturik ere); inplosio-posizio horretan, bestalde, {p, t, k} genue-lako.

b) Ez dago, alderantziz, *bb*, *bd*, *bg* bikoterik; inplosio horretan, bestalde, [h] horrek [—cont.] gisa agertzen delako (guztiz {b, d, g} bezala; ikus 18.362 puntua).

Beraz, berriro ere, askoz egokiago litzateke: [h] = [—cont.] postulatzea. Baina [—cont.] hori *glottal stop* delakoa izan zitekeen.

Beraz, badirudi, berriro ere, eta 18. kapituluan ere esan dugunez:

$$b < [?]$$

etorri dela euskaraz.

19.7. ZUBERERAZKO [Ü]REN GORABEHHERAZ

19.7.1. Liburu honetako 2. kapituluan azaldu denez, zubererak:

$$u \rightarrow \ddot{u}$$

egin du normalean; baina:

| | | | |
|---|---|---------|-----|
| A | — | urV | — |
| B | — | usV | — |
| C | — | urd | — |
| D | — | urt | — |
| E | — | ust | — |
| F | — | (uts —) | (?) |

kasuetan *ez da aitzinatu*:

$$c.u = S.u$$

Fonologia Sortzailearen arauera azalpena bilatzen saiatu den lehendabizikoa Zarabozo jauna izan bide da (ikus *Urkiyo* urtekarian, 1972).

Azalpen hobe bat ote dagoen soma daiteke, ondoko lerroetan ikusi ahalko denez.

Nolanahi ere, kasu hauetan palatalizazioan gertatzen denaz bestaldera, *eskuinaldeko kontsonanteak* eragiten dio *ezkerral-*

deko bokaleari.

19.7.2. Lehen-lehenik, ohar hau: zubereraz (eta ez beste euskalkietan), hizkuntza erromaniko askotan bezala, hau dugu:

$$\left\{ \begin{array}{c} s \\ s' \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} z \\ z' \end{array} \right\} / V \text{ — } V$$

Adibidez:

| | | |
|------------------------|---|------------------|
| <i>plazera</i> | = | S, [płaze(r)a] |
| <i>paradis<u>u</u></i> | = | S, [pha(r)adũzü] |
| <i>deusik</i> | = | S, [deũzik] |

Hitz batez: txistukariak, bokale artean, *ozendu* egiten dira. (Ez beti, jakina; baina bai mailebu zahar askotan).

Normalean, beraz, dirudienez, hau postula daiteke:

$$(B) \text{ } usV = S. [užV]$$

19.7.3. Era berean, askotan (eta ez euskaraz bakarrik):

$$[r] \rightarrow [ʀ] / V \text{ — } V$$

Eta [ʀ] hori, euskaraz (eta gaztelaniaz ere bai: ikus W. Harris, esate baterako), [z'] bezala ahoska daiteke. Beraz:

$$(A) \text{ } urV = S. [užV]$$

Azkuek berak bildua du:

ura = *udsa* (= [uža])
(eta, horren ondorioz hor dugu beste hori:
ustinta).

19.7.3.1. Postulaketa hau ez da gehiegizkoa, bestalde, ezaugarriei dago-
kienez:

| | r | ɹ | ʒ | ʃ | ç |
|---------------|---|---|---|---|---|
| 2. [± syll.] | — | — | — | — | — |
| 3. [± cons.] | + | + | + | + | + |
| 4. [± voice] | + | + | + | — | — |
| 5. [± cont.] | — | + | + | + | — |
| 6. [± high] | — | — | — | — | — |
| 8. [± back] | — | — | — | — | — |
| 10. [± cor.] | + | + | + | + | + |
| 11. [± ant.] | + | + | — | — | — |
| 14. [± tense] | — | — | — | + | + |

Bokaleen arteko [r], beraz, [ʒ] (~ [ɹ]) ahoskatu izan dela postulatuz gero, horretara,

$r \rightarrow [ʒ]$

$s \rightarrow [ʃ]$

ditugu

Hots,

$$\left\{ \begin{array}{c} ʒ \\ ʃ \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} \text{—syll.} \\ + \text{cons.} \\ + \text{cont.} \\ \text{—high} \\ \text{—back} \\ + \text{cor.} \\ \text{—ant.} \end{array} \right]$$

[ʒ] eta [ʃ] *retroflexuak* izanik.

$$\left\{ \begin{array}{c} ʒ \\ ʃ \end{array} \right\} = [\text{—ant.}]$$

19.7.4. *-uts* multzoari buruz, zalantzak daude:

büts / e(r)akútsi

Baina:

c. uts = S. uts

onartuz gero:

$$\begin{pmatrix} \acute{z} \\ \acute{s} \\ \acute{c} \end{pmatrix} = \begin{bmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{cons.} \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

Eta, berezkuntza hauek azaltzeko, hau genuke:

$$[\ddot{u}] \rightarrow [u] / \text{---} \begin{pmatrix} \acute{z} \\ \acute{s} \\ \acute{c} \end{pmatrix}$$

Ezaugarri bitarrez:

$$\begin{bmatrix} V \\ +\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{round} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{back.}] / \text{---} \begin{bmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{cons.} \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

$$\begin{bmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{cons.} \end{bmatrix} = C (= \text{kontsonante normala, } b \text{ kenduta})$$

$$\begin{bmatrix} +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix} = \text{retroflexua (mihi puntaz, bai; baina } atzean)$$

$$[-\text{high}] = \text{ez sabaikaria (ez } [\acute{s}], \text{ hemen)}$$

$$[-\text{back}] = \text{ez belarea}$$

Hortaz:

R.19.7.4.:

$$\begin{bmatrix} V \\ +\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{round.} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{back}] / \text{---} \begin{bmatrix} C \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

Eskuinaldeko retroflexuak, beraz, atzeratu egin du ezkerreko bokalea:

$$[\ddot{u}] \rightarrow [u]$$

19.7.5. Ikusi dugunez, bestalde, [s] eta [r̄] soinuaren ezkerreko [u], hetsi egin da.

Baina:

| | r̄ | z | s | c | ž | š | č |
|---------------|----|---|---|---|---|---|---|
| 2. [± syll.] | — | — | — | — | — | — | — |
| 3. [± cons.] | + | + | + | + | + | + | + |
| 4. [± voice] | + | + | — | — | + | — | — |
| 5. [± cont.] | + | + | + | — | + | + | — |
| 6. [± high] | — | — | — | — | + | + | + |
| 8. [± back] | — | — | — | — | — | — | — |
| 10. [± cor.] | + | + | + | + | + | + | + |
| 11. [± ant.] | + | + | + | + | — | — | — |
| 14. [± tense] | + | — | + | + | — | + | + |

Eta, beraz:

$$\begin{pmatrix} z \\ s \\ c \\ \bar{r} \end{pmatrix} = \begin{pmatrix} -\text{syll.} \\ +\text{cons.} \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ +\text{ant.} \end{pmatrix}$$

Edo-ta:

$$\begin{pmatrix} z \\ s \\ c \\ \bar{r} \end{pmatrix} = \begin{pmatrix} C \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ +\text{ant.} \end{pmatrix}$$

$\begin{pmatrix} +\text{cor.} \\ +\text{ant.} \end{pmatrix}$ ez dira retroflexuak

Eta, era berean:

$$\left\{ \begin{array}{c} \check{z} \\ \check{s} \\ \check{c} \end{array} \right\} = [+\text{high}] (= \textit{sabaikariak} \textit{ dira})$$

Beraz, R. 19.7.4. erregelari dagokion inguramendu fonikoaren oinarriak ez dituzte betetzen.

19.7.6. Arazo bat dago, halere: *urd-* eta *urt-* multzoetan, batetik; eta *urb-*, *urp-* eta *urg-*, *urk-*, bestetik, [u]-ren eboluzioa desberdina izan da:

$$\begin{array}{l} \text{c. urte} = \text{S. úrthe} \\ \text{c. urgaiztu} = \text{S. ürgáiztü} \\ (\text{Euskaltzaindi-ko } \textit{urgazle}) \\ \text{c. aurpegi} = \text{S. ahürpégi} \end{array}$$

eta abar.

Eta, *era berean dirudienex*: *ust-*, batetik; eta *usp-* eta *usk-* bestetik, etorkizun desberdinetan ditugu:

$$\begin{array}{l} \text{c. (e)uskara} = \text{S. üská(r)a} \\ \text{c. uste} = \text{S. úste} \end{array}$$

Neutralizaziorik ez, beraz, [r] eta [s] horietan.

Badirudi:

$$19.7.6.1. \text{ urt-, urd- } /r/ = \left[\begin{array}{c} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

$$\text{ust- } /s/ = \left[\begin{array}{c} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

Baina:

$$19.7.6.2. \text{ urb-, urp- } /r/ = \left[\begin{array}{c} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{array} \right]$$

$$\text{usp- } /s/ = \left[\begin{array}{c} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{array} \right]$$

Eta, beste muturrean:

$$19.7.6.3. \text{ urg-, urk- } /r/ = \begin{bmatrix} +\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

$$\text{usk- } /s/ = \begin{bmatrix} +\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

19.7.7. Hipotesi horren arauera:

c. urte

$$/r/ = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

(retroflexua, hitz batez)

hortaz: [u]

c. urde

$$/r/ = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix} \rightarrow [u]$$

c. uste

$$/s/ = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix} \rightarrow [u]$$

Alderantziz:

c. uskara

$$/s/ = \begin{bmatrix} +\text{high} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix} \rightarrow [\ddot{u}]$$

c. aurpegi

$$/r/ = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix} \rightarrow [\ddot{u}]$$

eta abar.

19.7.8. Hots, *gaurko* soinuen arauera:

$$\{p, b\} = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix}$$

$$\{t, d\} = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix}$$

$$\{k, g\} = \begin{bmatrix} +\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

Eta asimilazio atzerakari bat postulatu bada, *urt-* eta *urd-* kasuetan ere:

$$u \rightarrow \ddot{u}$$

Beraz, *aboskera aldatu* dela dirudi:

19.7.9. Hau postulatu badugu, ordea:

$$\{p, b\} = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix}$$

(gaur bezala)

$$\{k, g\} = \begin{bmatrix} +\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

(gaur bezala)

Baina

$$\{t, d\} = \begin{bmatrix} -\text{high} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

([ʃ] bezala; eta, McMurry-ek eskatu bezala, [l]-ren antzera ere).

Orduan, ikus daitekeenez, $\{p, b\}$ eta $\{k, g\}$ multzoek *ez dute* R. 19.7.4. erregela betetzen; eta:

$$c.u = S.\ddot{u}$$

Baina:

$\{t, d\}$ retroflexu horrek, bai: horrek R. 19.7.4. beteko luke; eta:

| | | |
|---------|---|---------|
| c. urt- | = | S. urt- |
| c. urd- | = | S. urd- |
| c. ust- | = | S. ust- |

19.8. *Badirudi*, hitz batez: [ʒ] (eta honen kidea den [ɹ] jarraikorra), [s̺] eta [ç], *retroflexuak* izan direla kasu hauetan:

- a) *Bokale artean.*
- b) [t] eta [d]-ren *aurrean.*

19.8.1. *Badirudi*, beraz, [t] eta [d] soinuak *aitzinatu* egin direla (gaur [s̺] ari den bezala); baina lehen: [ɹ], [d], eta [t] *retroflexuak* zirela. McMurreaugh-en eskaerak, honetara, funts handiagoa du.

Sail oso bat, antzina ingelesez bezalatsu artikulatua, *gaztelaniartu* egin da; eta *retroflexua* zen sail osoa (*t, d, s̺, ʒ, ç; l* eta *n* ere, agian), *alveolare* bihurtu da (edo bihurtzen *ari* da).

Baina liburu honek diakroni arazoak aztergai ez izanik, horretan utziko dugu Fonologia Sortzaileak idarokitzen duen hipotesi hori.

19.9. Bestalde, eta dakigunez:

| | | |
|------------|---|-------------------|
| c. [u̟] | = | S. [i̟] |
| c. gau | = | S. <i>gái</i> |
| c. gauza | = | S. <i>gáiza</i> |
| c. (h)auzo | = | S. <i>áizo</i> |
| c. laudatu | = | S. <i>laidátü</i> |

Etsenplu hauetan ongi ageri denez, *zubererak* berritu du; eta beste euskalkiek atxiki: lat. *causa, laudatu*.

19.9.1. Hala ere:

| | | |
|------------|---|-------------------|
| c. gaur | = | S. <i>gaur</i> |
| c. hau | = | S. <i>hau(r)</i> |
| c. laurden | = | S. <i>laurden</i> |
| c. pausa | = | S. <i>pháusa</i> |
| c. kausitu | = | S. <i>kausítü</i> |

| | | |
|--------------|---|-----------------|
| c. hautsi | = | S. háutse |
| c. errauts | = | S. erháuts |
| c. haur | = | S. háur |
| c. aurten | = | S. áurthen |
| c. laugarren | = | S. lau(r)gérren |
| c. lau | = | S. láu(r) |
| c. zauri | = | S. zau(r)iztátü |
| | = | S. záurbü |
| c. geurtz | = | S. géurtz |
| c. heure | = | S. (h)éu(r)e |
| c. euri | = | S. éu(r)i, ébi |
| c. eutsi | = | S. éutsi |

Beraz:

$$[j] \rightarrow [w] / \text{---} \begin{bmatrix} r \\ s \\ c \\ \bar{r} \end{bmatrix}$$

Funtsean, lehengo lege bera da.

Baina [r̄]-ren aurrean orain [—back.] gertatu ote den soma daiteke.

Zerrenda horretan, dena dela, bi hitz bakarrik daude:

[gaūr̄]

[haūr̄]

Hots, gaur < gau + hau(r)

baldin bada, r hori ez zen azkarra.

Eta *haur* (= haurra, alegia) salbuespen bakarra izanik, hau proposa bide daiteke:

$$R. 19.9.1 \quad [j] \rightarrow [w] / \text{---} \begin{bmatrix} z \\ s \\ c \end{bmatrix}$$

Edo, ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{l} -\text{syll.} \\ -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{array} \right] \rightarrow [+back] / \text{---} \left[\begin{array}{l} C \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

19.9.2. Eta bi legeak, R. 19.7.4. eta R. 19.9.1., batuz:

[ü] bokalearena (R. 19.7.4.)

$$\left[\begin{array}{l} +\text{syll.} \\ -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{round.} \end{array} \right] \rightarrow [+back] / \text{---} \left[\begin{array}{l} C \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

[j] bokalardiarena (R.19.9.1.)

$$\left[\begin{array}{l} -\text{syll.} \\ -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \\ -\text{round.} \end{array} \right] \rightarrow [+back] / \text{---} \left[\begin{array}{l} C \\ -\text{high} \\ -\text{back} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

Eta biok batuz:

$$R. 19.9.2. \left[\begin{array}{l} \alpha \text{ syll.} \\ -\text{cons.} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \\ \alpha \text{ round.} \end{array} \right] \rightarrow [+back] / \text{---} \left[\begin{array}{l} C \\ -\text{back} \\ -\text{high} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{array} \right]$$

$\alpha = +$: [ü]-rena

$\alpha = -$: [j]-rena

Funtsean fenomeno bera dira biak.

XX KAPITULUA

SONANTEEN ELKARKETA

20.1. Egin dezagun:

$$\begin{aligned} L &= \{l, \underset{\cdot}{l}\} \\ N &= \{m, n, \underset{\cdot}{n}\} \\ R &= \{r, \bar{r}\} \end{aligned}$$

eta ñabardura batez edo bestez berezten diren sail beretako *alofonoak*, eta elkarketa hauek ditugu:

| | | | |
|---|----|----|----|
| | L | N | R |
| L | LL | LN | LR |
| N | NL | NN | NR |
| R | RL | RN | RR |

Teorian, *bederatzi* motatakoak.

Eta, horiez gainera:

$$\begin{aligned} \boxplus L, \boxplus N, \boxplus R \\ L\boxplus, N\boxplus, R\boxplus \end{aligned}$$

beste *sei* beraz.

20.1.1. Bikote-multzo hori, halere, askoz urriago da, izan.

LL, NN, RR, ez dira gertatzen:
 $[\underset{\cdot}{l}], [ll], [mn], [\bar{r}]$, eta abar.

20.1.1.1. Mailebu zaharretan ongi ageri denez:

San Martín = [šamaɾtin]
condemnar = [koŋdenatu]
enmendar = [emeɲdatu]

nm → [m]
mn → [n]

Alegia:

nm → Øm
1 2 → 1 2

m n → Ø n
1 2 → 1 2

Beraz: *bigarrena* nagusitzen, eta *lehenengoa* suntsitzen.
Horren arauera:

amnistia = [aništia]
conmutación = [komutasio]

Nabiz: *amnistia*
konmutazio, idatzi.

20.1.1.2. Euskaraz *geminaziorik* ez dagoenez gero:

hil lezake = [ilesake]
(nahiz [il lesake], hizkera pausatuan posible izan)

esan nezake = [ešanesake]
(autore zaharren idazkeran salatzen den bezala).

Ikus, honi buruz, Holmer (Ap. V, Urk. 1969, 183):

mutil lagun bi = [mutílagumbi]

Edo Galar-Espartza-ko senar-emazte zina (1557-koa):

çu ematze arçeco
alaber çuc arçenauzu (AN, S) (FLV 26)
arçenauzu (ez *arçen nauzu*).

Berdin Amayur-ko euskaraz:

eman nezake → *manezake*, AN, N'Diaye, 38
jan nahi du → *ianaidu*, AN, N'Diaye, 38

Eta gauza bera Muzki-ko Morentinek ere:

erranuen becala (FLV 15, 387)
eguinuenean, 388

nahiz bestetan idazkera *logiko* bat hartu: *errainnuque*, 380.
Hizkera pausatuan, beraz:

$-l + l- = [l] [l]$
 $-n + n- = [n] [n]$

onar badaitezke ere:

[il lesake]
[eśan nesake]

normalean, eta hizkera *arruntean*, hau genuke:

[ilesake]
[eśanesake]

batere geminaziorik gabe

20.1.2. Dakigunez, *hitz-baseran*:

[r-] ez dago *inoiz*
[r̄-] ez da orain arte egon; ez bada *erdaratikako*
mailebu berriekin etorria.

Badirudi, beraz, hau proposa daitekeela:

| | | | | |
|---|-----|---------|---|------|
| { | re- | = eusk. | { | eġa- |
| | ra- | | | eġe- |
| | ro- | | | eġo- |

euskal *erreka*
erramu
erromeria

delakoen antzera:

gaz. *razón* = eusk. *errazoi*

Baina hitz teknikoetan, agian:

[\bar{r} -]

ahoskera onartu behar litzateke:

erd. RADAR = eusk. [\bar{r} ada \bar{r}]

(*radar* idatzia)

20.1.2.2. Beste bietan, berriz:

$$\text{erd. } \begin{cases} \text{ri-} \\ \text{ru-} \end{cases} = \text{eusk. } \begin{cases} \text{i\bar{r}i-} \\ \text{u\bar{r}u-} \end{cases}$$

onar daitezkeela dirudi.

Edo, bestela:

$$\emptyset \rightarrow [+syll.] / \# \text{ — } \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ + \text{cont.} \end{array} \right]$$

bokale horren mota ondokoaren arauera hautatuz.

Ez dugu, dena dela, emango.

Baina ariketa ona izan dakiokete irakurleari formulaketa bitarrak zehazki bilatzea.

20.1.2.3. Honen ondorioa, dena dela, garbi dago: sandhi-bidez (kanpoko sandhiz, batez ere) *LR* eta *NR* multzoak ezinezkoak direla.

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{LR} \\ \text{NR} \end{array} \right\} = \text{ezinezkoak dira}$$

20.1.2.4. Hitz-barruan, halere, edo mailebuetatik, bi bikote hauek gerta daitezke:

lr
nr

Adibidez:

erd. *Enrique*
al revés
honra

Hots, aldaketa ezaguna da, eta guztiz zaharra:

[en̄d̄rike]
[a|d̄r̄eβeś]
[on̄d̄ra]

Gaztelania zaharraz ere gertatzen zenaren arauera: «docenas de veces *ondrado* por *honrado* en el 'Mío Cid'» (Azkue).

Beraz:

R.20.1.2.4.:

$$\emptyset \rightarrow [d] / \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right] \text{ --- } \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{+ cont.} \end{array} \right]$$

20.1.2.5. Alderantzizko bikoteak:

rl, r̄l̄
rn, r̄n̄

egonkorrak dira euskaraz:

erle = [ēfle]
erne = [ēfne]
barño = [ār̄ño]

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{+cont.} \end{array} \right]_1 \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right]_2, \text{ egonkorra da}$$

Nahiz zalantza batzu izan:

esp. guerra = eusk. *gerla*
eusk. aker + larre = *akelarre*
senper + larre = *xenpelar*

20.1.2.6. Beraz: *NL* eta *LN* falta ditugu.

Pratikan dena dela:

nl eta *ln*

gainerakoak (*nl*, *lm*, *ml*, eta abar) ez baitira normalean gertatzen.

20.1.2.7. Zer gertatzen da *nl* multzoan?

Normalean [*n*] galdu egiten da:

B. *eban lez* = [ebaleś]

B. *agindue zeukielez*, Natxitua, JMB

Eta gauza bera ageri da hitz zahar hauetan:

errule < *errun* + *le*

edale < *edan* + *le*

Beraz:

$$[n] \rightarrow \emptyset / \text{---} [l]$$

Edo, ezaugarri bitarrez:

R.20.1.2.7.:

(a)

$$\begin{bmatrix} \text{SON} \\ \text{---cont.} \\ +\text{nas.} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{bmatrix} \text{SON} \\ \text{---cont.} \\ \text{---nas.} \end{bmatrix}$$

Baina *ll* eta *nn* geminazioez hau genuen:

R.20.1.2.7.:

(b)

$$\begin{bmatrix} \text{SON} \\ \text{---cont.} \\ \alpha \text{ nas.} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{bmatrix} \text{SON} \\ \text{---cont.} \\ \alpha \text{ nas.} \end{bmatrix}$$

$\alpha = +$ *n*-ren geminazioa

$\alpha = -$ *l*-ren geminazioa

Tentazioa dator *generalizazioa* saiatzeko:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right]$$

Egia ote da, ordea?

$$(II) \quad \begin{array}{l} \text{In} \rightarrow \emptyset_n \\ \text{l} \rightarrow \emptyset / \text{--- n} \end{array}$$

Lehenengo partea:

$$(I) \quad \text{n} \rightarrow \emptyset / \text{--- l}$$

ez da beti betetzen:

$$\begin{array}{l} \text{esan luke} = [\text{e}^{\text{san}}\text{l}u\text{k}e] \\ \text{joan liteke} = [\text{y}^{\text{uan}}\text{l}i\text{te}\text{k}e] \end{array}$$

batez ere, etenunerik eza osoa ez denean.

Baina bigarrena (II) ere, ez da beti betetzen.

$$\begin{array}{l} \text{hil nezake} = [\text{i}^{\text{ln}}\text{ne}\text{s}\text{a}\text{k}e] \\ \text{ba ahal nekien} = [\text{ba}^{\text{al}}\text{ne}\text{k}i\text{en}] \end{array}$$

Hitz batez:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont.} \end{array} \right]$$

kontuz baizik egin daiteke proposa.

Baina *trabakarietan* hau degunez gero:

$$\text{P} \rightarrow \emptyset / \text{--- P}$$

Alegia:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont.} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont.} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right]$$

(ikus 21.8.1 puntua, esate baterako) eta *trabakarietan* ezabaketa-lege hori hertsiki betetzen denez gero, interesgarria da,

20.3. Kontutan, har, dena dela:

[r] ~ [d] denean, [—cont.] dela.

Baina:

$$\left\{ \begin{array}{c} \text{r} \\ \bar{\text{r}} \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont.} \end{array} \right]$$

direla; eta hortaz, *rl*, *rn*, *rm* eta abar, normalak direla euskaraz.

Beraz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont.} \end{array} \right]_1 \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ -\text{cont.} \end{array} \right]_2$$

sekuentzia *possible da*. Baina:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ -\text{cont.} \end{array} \right]_1 \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ -\text{cont.} \end{array} \right]_2$$

ez da posible.

Eta:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont.} \end{array} \right]_1 \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont.} \end{array} \right]_2$$

ere ez.

Gero ikusiko dugunez oso egoera antzekoa aurkituko dugu trabakarietan (XXI. kap.).

20.4. /r/ fonemari gertatzen zaizkion bitxikeriak aztertzeke ueña etorri dela dirudi.

20.4.1. Gauza ezaguna denez:

c. ardo, arno = BN, *ano*

Beraz:

$$arno = [ano]$$

Badirudi, beraz, kasu horretan:

$$/r/ = \begin{bmatrix} \text{SON} \\ -\text{cont.} \end{bmatrix}$$

20.4.2. Bokale artean,

$$[r] \rightarrow [r] / V - V$$

Beraz, [+ cont.] ezaugarria hartzen du bi [+ cont.]-ren artean.

20.4.3. Eta pausaren eta kontsonante [— cont.]-ren aurrean, [+ tense] bihurtzen da:

$$[r] \rightarrow [+ \text{tense}] / - \begin{cases} \text{C} \\ \text{C} \end{cases}$$

20.5. Azter dezagun hau orain:

$$[\bar{r}] = \begin{bmatrix} \text{SON} \\ +\text{cont.} \\ +\text{tense} \end{bmatrix} \quad (\text{ikus T. 15.0. taula})$$

Eta beste hau para dezagun

$$[\acute{s}] = \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ +\text{cont.} \\ -\text{high} \\ +\text{cor.} \\ -\text{ant.} \end{bmatrix}$$

Normalean: [+ tense] = [— voice].

Beraz, analogiaz:

$$*[\bar{r}] = \begin{bmatrix} \text{SON} \\ +\text{cont.} \\ -\text{voice} \end{bmatrix}$$

eta, taula begiratzuz ere:

$$[\bar{r}] = \begin{bmatrix} \text{---high} \\ +\text{cor.} \\ +\text{ant.} \end{bmatrix}$$

Hitz batez:

| | \bar{r} | * \bar{r} | ś |
|--------------------|-----------|-------------|------|
| [sonor./obstr.] | Son. | Son. | Obs. |
| 4. [\pm voice] | + | — | — |
| 5. [\pm cont.] | + | + | + |
| 6. [\pm high] | — | — | — |
| 10. [\pm cor.] | + | + | + |
| 11. [\pm ant.] | + | + | — |
| 14. [\pm tense] | + | + | + |

Oso erraza da, hitz batez, euskaraz (eta beste hizkuntzatan):

$$[\bar{r}] \rightarrow [\acute{s}]$$

Batez ere [+ ant.] artikulazio-puntua aldagarri agertzen bada.

Hots, aipatua dugunez:

ura = udsa (= [uśa])

ustinta = [uśtinta] (< ur + tinta)

dokumentaturik dago Azkue-rengan.

Beraz:

$$[\acute{s}] \sim [\bar{r}]$$

$$[eśan] = [e\bar{r}an]$$

eta:

$$[\acute{z}] \sim [r] = [r]$$

$$[ura] = [uśa]$$

Ikus honi buruz, 19.7 puntuan, eta ondokoetan, zubererazko [ü] soinuaz idatzi duguna.

Harrigarria, honi buruz, bai Barandiaran-ek (Bidanian), bai Otaegik (Beizaman), aurkitutako aldakia:

$$ura = [uya]$$

20.6. Azken ohar bat:

- 1) *Joan Mascaró*-k [+ high] ezaugarria ezartzen dio katalanez-ko [r̄] soinuari (Mascaró irakaslea, Barcelona-n arida).
- 2) Bide bertsutik (ikus gure 19. kapitulua honi buruz) [—ant.] ezartzen dio *James Harris*-ek [ʒ] soinuari («Fonología Generativa del español», 69).
- 3) *Zubereraren* fenomenoak [r] *bitxi* baten ideiara eramaten dute: behin eta berriz: [+ high], edo [— ant.], edo bietara agian.

Beste alde batetik, eta bokaleen arteko balio fonetikoa [r] delarik, $r = l$ alternantzia uler daiteke:

$$\begin{array}{c} [r] \\ \left[\begin{array}{l} \text{SON.} \\ \text{— cont.} \\ \text{— high} \\ \text{+ cor.} \\ \text{— nas.} \\ \text{+ lat.} \end{array} \right] \end{array} \quad \begin{array}{c} [l] \\ \left[\begin{array}{l} \text{SON.} \\ \text{— cont.} \\ \text{— high} \\ \text{+ cor.} \\ \text{— nas.} \\ \text{— lat.} \end{array} \right] \end{array}$$

Latinetikako mailebuetan gertatu dena aisa uler daiteke: artikulazio-puntua gorago beherago izanik ere, [l] eta [r] soinuak, oso hurbil daude elkarrengandik.

20.8. Denak idarokitzen du, hitz batez: [r̄] eta [s̄] oso erraz truka daitezkeela; eta, hortaz, seguru asko, aspaldiko denboretan bederen:

$$\left\{ \begin{array}{l} \bar{r} \\ \acute{s} \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{l} \text{— high} \\ \text{— ant.} \end{array} \right]$$

izan direla; retroflexuak, alegia, eta gorrak.

[ɹ] (= r) eta [ʒ], bide beretik, elkarren kide agertzen dira; eta beraz:

$$\left\{ \begin{array}{c} \text{ɹ} \\ \text{z} \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} \text{— high} \\ \text{— ant.} \end{array} \right]$$

biak retroflexuak, beraz; eta ozenak.

[r] \rightleftharpoons [l] alternantziak, honetara, hau ere postularazten du antzinako euskara zaharrari buruz:

$$\left\{ \begin{array}{c} \text{r} \\ \text{l} \end{array} \right\} = \left[\begin{array}{c} \text{— high} \\ \text{— ant.} \end{array} \right]$$

retroflexuak ere bai.

Badirudi, beraz, liburu honetan barrena behin eta berriz somatzen denez, *sail retroflexu oso bat, albeolare* bihurtu dela; eta artikulazio-puntuaren aintzinaketa hori, batez ere [ś] eta [ć] soinetan, ez dela azken bururaino mamitu.

XXI KAPITULUA

TRABAKARIEN ELKARKETA

| | | | | |
|-------------|---|----------|---|-----------------------------------|
| {trabakari} | = | [—sonor] | = | ing. <i>obstruent</i> |
| sonante | = | SON | = | [+sonor], ezaugarri honi buruz |
| trabakari | = | OBS | = | [—sonor], ezaugarri honi buruz |

Gure sailketan (T.15.0. taula):

$$\text{OBS} = [—sonor] \rightarrow \begin{bmatrix} —syll \\ +cons \end{bmatrix}$$

$$\text{SON} = \begin{bmatrix} +sonor \\ —syll \\ +cons \end{bmatrix}$$

21.1. Idazketa arindu nahiz ondoko kapituluetan, beti ez bada zenbait aldiz bederen, laburdura hauek erabiliko ditugu:

| | | | |
|---|---|----------------------------------|-----------------|
| P | = | leherkari gorrak: | {p, t, t̥, k} |
| B | = | leherkari ozenak: | {b, d, ɣ, g} |
| β | = | frikari ozenak (espirante hobe): | {β, đ, y, ɣ} |
| S | = | txistukari gorrak: | {s, ś, š} |
| C | = | afrikatu gorrak: | {c, č, č̣} |
| J | = | bokale ez-silabikoak: | {j, w, i̯, u̯} |
| I | = | bokale silabikoak: | {i, e, a, o, u} |

21.1.1. Sail honetan gerta daitezkeen *silaba-motak* honetara bil daitezke:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ B \\ \mathbb{B} \\ S \\ C \end{array} \right\} (J) I (J) \left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ SP \\ C \end{array} \right\}$$

21.1.2. Beraz, *bukaerari* dagokionez, eta *C* aparte utziz:

$$\left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ SP \end{array} \right\} = \{(S) (P)\} \text{ (hirurak formula batez)}$$

21.1.3. Hitz *baseran*, egia esan, \mathbb{B} ez da gertatzen; eta [—son] baten ondoren ere ez. Hortaz:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ B \\ S \\ C \end{array} \right\} (J) I (J) \left\{ \begin{array}{c} (S) (P) \\ C \end{array} \right\}$$

21.1.4. Hortaz *trabakarien* sailean,

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ B \\ S \\ (C) \end{array} \right\} (J) I (J) \left\{ \begin{array}{c} (S) (P) \\ C \end{array} \right\}$$

izan daiteke guztien formula.

Hots,

21.1.5. Hitz haseran:

$$\begin{array}{l} P \rightarrow B / \# \text{ —} \\ C \rightarrow S / \# \text{ — (normalean, bederen)} \end{array}$$

Beraz:

R.21.1.5.:

$$\left\{ \begin{array}{c} (P) \\ B \\ (C) \\ S \end{array} \right\} (J) I (J) \left\{ \begin{array}{c} (S) \\ C \\ (P) \end{array} \right\}$$

izan daiteke silaba *guztien* bilduma.

‡ C = tx — (zubereraz, gipuzkeraz, bizkaieraz; ez besteez).

Bestela ‡ C ezinezkoa litzateke.

21.2. *Sandhi-bidez*, beraz, elkarketa hauek genituzke teorian:

| | | | | |
|----|-------|-------|-------|--------|
| a) | S P | P P | C P | SP P |
| b) | S B | P B | C B | SP B |
| c) | S S | P S | C S | SP S |
| d) | S C | P C | C C | SP C |
| | (1) | (2) | (3) | (4) |

Eta, *usuenik*, beraz, *b) eta c)* lerroetako elkarketak.

21.3. Hamasei multzo hauetan, *erditik* pasatzen da muga silabikoa (eta SP bikotearen eskuinaldetik laugarren zutabekoei dagokie-nez). Baina SP kasuan, aldiz, silaba berean daude bi ez-sonan-teok:

prest
deust

Azter ditzagun, beraz, 16 elkarketa mota horiek, bana-bana.

21.4. Azter ditzagun, hasteko *lehenengo lerrokoak* (20.1.):

a) *SP, PP, CP eta SP-P*

21.4.1. SP

Bikote hau *egonkorra* da, eta ez du aldakuntzarik jasaten:

| | | |
|---------------|---|------------|
| <i>prest</i> | = | [p̄r̄ešt̄] |
| <i>deust</i> | = | [deušt̄] |
| <i>dizkit</i> | = | [diskit] |
| <i>asto</i> | = | [ašto] |

Eta abar

(*txistukari*) (*leherkari*) bikoteak normalak dira euskaraz, eta egonkorrak:

[sp]
[st]
[sk]
[šp]
[št]
[šk]
[šp]
[št]
[šk]

Ageri denez: bi osatzaileok *gorrak* dira:

| | |
|---|---|
| $\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \end{array} \right]$ | $\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \end{array} \right]$ |
| 1 | 2 |

Eta SP aztertuz, SB ere aztertzen dugu.

21.4.2. PP (bi leherkari gor, beraz).

Adibidez:

*[oriđukpa]
*[oyektira]
*[duđa(r)ikkabe] (ikus 20.2.2.)

Mailebu zaharretan ongi ageri denez (*errespetu*, *dotore*, *erreto-*

re, eta ez *errespektu, *doktoze edo *errektore), lehenengo leherkaria *desagertu* egiten da:

[*oridupa*]

[*oyetira*]

[*duda(r)ikabe*]

Etenunerik bereziki edo uzten ez delarik, euskaldun jatorrez ez *dute ezkerraldeko leherkariaren arrastorik ahoskatzen*.

21.4.2.1. Bai egiazko geminazioetan:

pp → p

tt → t

kk → k

G. Larrasquet-ek argi-eta-garbi idatzi duenez: «Nous n'avons pas noté de redoublement de consonnes: le parler de Soule y répugne, ainsi que tout dialecte euskarien», Larrasquet, 61.

Hots, PB → PP (21.5.2.).

Beraz, PP aztertuz, PB ere aztertzen dugu.

dibertsiyo bata, G, Xenpelar, 98

zenbatan, G, Txirrita

presta, BN, Xalbador (ikus «Oinarri Bila», 209)

aro biakaz, B, Otxandio-ko Iturzaeta

duaika, BN (Oin. B., 214)

Baina, *bait da* = [bai̯da], eta horrelako aldrebeskeriak gero eta maizago entzuten direnez, hona hemen zerrenda argitsu hau:

baitagoen, G, Aranb. 279

eurekana, B, Natxitua, J.M.B.

krijadakana, B, Natxitua, J.M.B.

baititut, AN, J. Liz., FLV, 19.96

baytatoz, AN, Uterga, FLV, 2

baytitu, AN, Uterga, FLV, 2, 75

orrelakon bat'a, G, Errent., 91

zenbat'en, G, Errent., 174, 175
gauza ona baita, G, Txirr. 236
baiteraut, BN, Xalb. 82
barnetikanpora, AN, Amaiur, N'Diaye, 38
nikarri bear dut, AN, Amaiur, N'Diaye, 38
obeakara, AN, Amaiur, N'Diaye, 38
dudikabe, AN, Amaiur, N'Diaye, 38

21.4.2.2. Eta bai leherkari *desberdinez* osatutako bikoteetan:

pt → t
 pk → k
 tp → P
 tk → k
 kp → p
 kt → t

Adibidez:

AN, *jauna tizula abarion*; idatzi zuen Mattin Zalba nafartarrak 1415-an, ezagutzen dugun lehendabiziko kanpo-sandhi horretan.

Alegia:

jaunak dizula = [jauna tisula]
 [kd] → [kt] → [Øt]

Ia-ia hitz berberetz, Nafarroan ere, 550 urte beranduago, Kandido Izagirre biltzaile nekagaitzak bildua:

AN, *Jainkutezúla senárgai txár*, Alts. 91
 (= Jainkoak dezula)

Beraz:

oa → [ua] → [u]
 (gaur Ondarroan bezala)
 kd → [kt] → [Øt]

bi aldiz, ematen ditugun erregela fonologikoen arauera.

Eta, adibide gehiago nahi izanez gero:

kd → t:

Arrantzali ti, B, K. Rotaetxe, 186

kb → p:

bepelar, «párpado», AN, J. Liz.

tb → p:

baperari, AN, Mor., FLV, 15, 383

baperan, AN, Mor., FLV, 15, 374

txurruptat, G. Alz., 116; Sor. 54; Sor. 110

tg → k:

baicaude, AN, J. Liz., FLV, 19, 96

Eta, nahasian, eta irakurleak horrela gertatua den sandhia zein den okasioa emanez:

bapez, B. Mark. 101 (aldeamenean *bat pez* ere idatzia)

bepelar, «cil», Aezk.; J. Liz. FLV, 29, 271

alfer alferri ta, G, Txirr. 35, 42

(nota honekin: «idatz alfer alferrik da» bear luke; bañan esan «alfer alferri ta» esaten da, ta ala bear da punturako»)

zabalatire, AN, Amaiur, N'Diaye 38

oietenak, AN, Amaiur

Era berean, Joakin Lizarraga-ren lanetan (ikus, Doc., 35), segidan hauek ditugu:

bai dá / baitu

Hementxe, Arantzazu-ko pankarta *berean*, hauek irakur daitezke gaur:

«Guesaltza» eta «Arantzazu»;

nahiz, noski, biak *afrikaturik* egon.

Idazkeran, beraz, *desegokikeriak* bilatu beharra dago...

Goazen aurrera.

oipañon abillaguak, G, Saik. 79
ardipat, G, Soroa, 27; Sor., 94
biñipein, G, Aranb. 277
basarri txuri polipat, G, Txank. 130
istanpatian, G, Zuk. 83; Ugal. 105
nola baikeran zuriak, G, Txirr. II, 54
irútati pat, G, Goiherri
ni pezála, S, Lafon, Contr. 91
húa pezála, S, Lafon, 91
gathía pezála, S, Lafon, 91
opadakite, AN, Amaiur 38
denapatean, AN, Amaiur 38
ogei ta bakarrena, G, Izue. 39
nundipait, G, Iz. 56
nípezelaxe, AN, K. Izag., Altsasu.
dánopatin, AN, K. Izag., Altsasu.
gútanok, AN, K. Izag. Altsasu

Ohar argitsu honekin: «egon naiz ez ote liraken egokiago *ní-
ppezelaxe*, *zenbattia*, *dánoppatin*, *gútanok*, eta abar; *p* eta *t*
bakarra baño *zerbait luzeago* egiten dituztela ematen baitu»
K. Izag., Urk. 1967, 47

emakumieperriz, AN, Altsasu, Izag. 61
arkorotz, B, Arantzazu, 37 (art-gorotz)
polipat, G, Errend. 187; Txirr. 207, 252
sagarripee, AN, Alts. 81
kalidariak otia, G, Txirr. 171
arkaste, B (= art, gazte)
inbidia nortu, G, Xenp. 243
(= gogortu, gortu, artu, biartu, sartu)
gogua nortu, G, Iturz. 118
(= agertu, sartu, artu, bertu, edertu)
Eta abar, eta abar.

Baina, betidanik, etimologismoa gidari, gaitzetsi izan dira alda-keta horiek:

erregebide → *errepide*

Corrompiendo, zion Garibaiek oso aspaldian, Mitxelenak gogorazi digunez (ikus «Apellidos Vascos», 85).

Euskaraz:

$$\begin{array}{ccc} PP & \rightarrow & \emptyset P \\ 1\ 2 & & 1\ 2 \end{array}$$

Lehenengoa *ezabatu* egiten da; eta bigarrena, *gorturik*, baka-rrik gelditzen. Jarraitasunari buruz, hortaz:

$$\begin{array}{ccc} \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right] & \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right] & \rightarrow \emptyset \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right] \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

Behin eta berriz frogatuko denez.

21.4.2.3. Hortaz:

| | | |
|----|---|---|
| pp | → | p |
| pt | → | t |
| pk | → | k |
| tp | → | p |
| tt | → | t |
| tk | → | k |
| kp | → | p |
| kt | → | t |
| kk | → | k |

Besterik gabe.

21.4.2.4. *Aurreko* leherkariaren arrastoa (edo ondokoaren ozentasuna) ez dira euskara. Grafiaren kutsu besterik ez dira:

- bost tia*, G, Saik. 97
 (= [boʃtia])
- oik tia*, G, Txap. 41
 (= [oi̯tia])
- bizi dana bat-ta*, G, Altz. 47
 (= [bata])
- nola pasatuak tian*, G, Txirr. II, 86
 (= [paʃatua tian])
- kenduak tia*, G, Txirr. II, 95
 (= [ke̯ndua tia])
- bost pider*, B, Añib. Esk. I., 47
 (= [boʃpide̯r])
 «él habrá pronunciado *bospider*», idatzi zuen
 Azkuek berak, Fon. V., 479
- berak tu*, G, P. Err. 52
 (= [beratu])
- ondokiñok pe*, B, Mark. 48
 (= [o̯ndoki̯nope])
- pikaro xamarra* *tia*, G, Txirr. 58
 (= [ʃamarā tia])
- banakak tia*, G, Txirr. II, 52
 (= [banaka tia])
- larri ibilliyak tia*, G, Errend. 141
 (= [i̯bi̯liatia])
- oso aldrebesak tia*, G, Txirr. 165
 (= [a̯ld̥re̯beʃatia])
- bestiek pe*, B, Mark. 18
 (= [beʃtiepe])
- kasorik pe*z, B, Mark. 24
 (= [kaʃoripeʃ])

21.4.2.5. *Azkue-ren* iritziak eta adibideek ez dute zalantza izpirik uzten: «la supresión de este fonema gutural (= k) da lugar a las *permutaciones* de "bodega" en "petaka"» (Fon. V., 471). Larrasquet-enak ere ez.

Hona hemen Azkue-ren berarenak:

laura'tira, Bc
amaña'kura, B
aura paletoz, B (eurak baletoz)
geu pageki, B, Azkue
ba paiñez, B, Azkue (= bat baino ez)
Artola'tauko, B, Azkue, Fon. V. 469
no'taki, Bc
lau'karuaz (< loak garuaz)
gaisori'tago
alperri'tozue, B, 479
ni taki pa?, B, (= nik dakit ba), 479
tšipat, BN, S. 479 (= txit bat)
galanki, G, Alz. 188 (ez galantki)
bapanazka, BN, L
ni takit?, B, Azkue, Fon. V. 469

Euskal fonetika hori da; eta gainerakoa grafikeriak dira.

Hortaz:

P P → Ø P
1 2 1 2

edo

P → Ø / — P

Hots, gero ikusiko denez:

P B → P P (21.4.2.1. oharra berriro eginez)
1 2 1 2

Beraz:


bait da = [baɪ̯ta]
bait gara = [baɪ̯kara]
bat bana = [bapana]

(Ikus, honi buruz, «Oinarri Bila» liburuan ere datozen adibi-deak, 6.2.0.3.)

Beraz, ezaugarri bitarretan:

R.21.4.2.:


(T.1)



Bi trabakari horiek *berdinak* izan, zein *berdinak ez* izan.

21.4.3. CP (afrikatu + leherkari gorra).

Etimologi-zalekeriak eta idatzitakoari buruzko setak alde bate-ra uzten badira, aldakuntza hau da:



Adibidez:

Zarautz + tar → [*saraustãr*]
mingots + tu → [*mingõstu*]
hitz + keta → [*isketa*]

Sandhi-bidez sortzen diren elkarketetan, bide beretik, afrikatua frikari bihurtzen da.

Kasu horietan, dena dela, eskuarki:



legea betetzen baita, hau dugu eskuarki:



Adibidez:

hotz da → *[*octa*] → [*osta*]
haitz gorri → *[*aĩckõri*] → [*aĩskõri*]
ezetz ba → *[*esecpa*] → [*esepa*]

(ikus zerrenda luze bat «Oinarri Bila» liburuan, 6.2.0.2. puntuan.)

21.4.3.1. Gero ageriko denez, halere, hobe dugu *transformazioa* bi urratetan azaltzea:

(1) C B → *C P

(2) *C P → S P

Lehenengo erregela *ozentasunari* dagokio; bigarrena, berriz, *jarraikotasunari*, ondoko puntuetan agertuko denez.

Euskararen joera zahar horien sakontasuna eta indarra hobeki nabarmentzen dira horretara.

Bi osakinen *gortasuna*, beraz, aurretik erabilitako erregela baten ondorioz, mamitutik baldin badago:

*C P → S P

C → S / — P

Edo, ezaugarri bitarretan:

R.21.4.3.:

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+\text{cont}] \quad / \quad \text{—} \quad \left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right]$$
T.2

21.4.4. SP. P (frikari + leherkari + leherkari).

P P → ∅ P

Beraz:

SPP → S∅P → SP

**prest da* → *prest ta* → [přešta]

21.5. Azter ditzagun orain 21.2.b lerrokoak:

SB, PB, CB, SP.B

(Gero, pratikan, *hauetxek* aldatuko ditugu aurrenik.)

21.5.1. SB (txistukari + leherkari ozen).
Adibidez:

ez badator
ez dakit
ez gara joan

Gauza ezaguna denez, leherkari ozena gortu egiten da normalan.

[*espađator̄*]
[*estakit*]
[*eskara ŷoan*]

«Es ley común», dio Azkuek; «aunque hay *comarcas aisladas, muy pocas*, en que falta alguna de estas permutaciones» (Azkue, Fon. V. 476).

Hauxe izan daiteke, hain zuzen, Euskal Ortoepiaren urrezko erregeletako bat:

S B → S P

Irizkide agertzen dira honi buruz euskalari guztiak. Eta euskara mintzatuaren azterketak, ozta utz dezake zalantzarako zirikiturik.

Gaurtxe entzunak ditut:

G. *deskastatu* (= desgastar) (Legorreta-ko bati)
B. *ikuskarri* (= ikus + garri) (Araotz-ko bati)

Gauza berak behin eta berriz ez esateko, hobe du irakurleak «Oinarri Bila»n emandako zerrendak eta iritziak berrikusi (6.2.0.1.).

Inprimatutako idazkerak duen eragina dela-ta, *ongi* ahoskatu nahiak joera ezin sakonago hau lardaskatzera darama euskaldun *ikasi* asko:

[*ezbađator̄*]
[*ezdakit*]
[*ezgara yoan*]

Beti bezala gaztelaniaren arauera:

desde = [deзде]
esbozo = [eşbozo]

Euskaraz, ordea, *aurrerakaria* da asimilazioa:

S B → S P
(eta ez: S B → Z B)

Beraz:

B → P / S —

Edo:

R.21.5.1.:

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ + \text{voice} \\ - \text{cont} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{voice}] / \left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ - \text{voice} \\ + \text{cont} \\ + \text{cor} \end{array} \right] \text{ —}$$

Asimilazio aurrerakaria, [-cont] ezaugarriari dagokionez.

$$\begin{array}{cc} [-\text{voice}] & [+ \text{voice}] \\ 1 & 2 \end{array} \rightarrow \begin{array}{cc} [-\text{voice}] & [-\text{voice}] \\ 1 & 2 \end{array}$$

21.5.2. PB (leherkari gorra + leherkari ozena).

Adibidez:

hori duk ba!
horiek dira
dударик габe

Hauetan ere, leherkari ozena *gortu* egiten da:

[oridu(k)pa]
[oye(k)tira]
[duđa(r)i(k)kabe]

Eta aurreko kasuan gaude:

P P → Ø P
1 2 1 2

Erregela *transformazionala*, beraz:

$$\begin{array}{ccc} \text{P B} & \rightarrow & \emptyset \text{P} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

Honela eman daiteke:

$$1) \begin{array}{ccc} \text{P B} & \rightarrow & \text{P P} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

$$2) \begin{array}{ccc} \text{P P} & \rightarrow & \emptyset \text{P} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

(hauxe baita lehen, R.21.4.2., ikusi dugun legea)

Hortaz:

$$\begin{array}{ccc} \text{P B} & \rightarrow & \text{P P} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

(aurrekoak *gortu* egiten du bigarrena, betiko asimilazio aurre-rakariari dagokionez);

eta gero:

$$\begin{array}{ccc} \text{P P} & \rightarrow & \emptyset \text{P} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

21.5.3. CB

Adibidez:

hotz da
haitz gorri
ezetz ba!

Afrikatua frikari bihurtzen da (ikus ondoko puntuetan), eta leherkari ozena *gortu* egiten da:

[osta]
[aĩskorĩ]
[esepa]

Grafikeriak eta etimologikeriak alde batera utziz:

$$\begin{array}{ccc} \text{C B} & \rightarrow & \text{S P} \\ 1\ 2 & & 1\ 2 \end{array}$$

Edo, bi pausutan:

$$\begin{array}{l} 1) \quad \text{C B} \rightarrow * \text{C P} \\ \quad \quad 1\ 2 \quad \quad 1\ 2 \\ 2) \quad * \text{C P} \rightarrow \text{S P} \\ \quad \quad 1\ 2 \quad \quad 1\ 2 \end{array}$$

Lehenengoan *ozentasuna* erregelitzen da; bigarreanean *jarraitasuna*.

Lehen bezalatsu, beraz.

21.5.4. $SP.B \rightarrow SPP \rightarrow SP$

Jakina.

$$\begin{array}{l} \text{prest dago} \quad \quad \quad = [\text{přeštágo}] \\ \text{hori esan deust bada} = [\text{deušpa}] \\ [\text{štd}] \rightarrow [\text{štt}] \rightarrow [\text{št}] \\ (\text{lehenago ikusi dugunaren arauera}) \end{array}$$

21.5.5. Hiru aldakuntza hauetan, beraz:

$$\begin{array}{l} \text{S B} \rightarrow \text{S P} \\ \text{P B} \rightarrow \text{P P} \\ \text{C B} \rightarrow \text{C P} \end{array}$$

Ozetasunari dagokion lege bera dugu.

$$\text{B} \rightarrow \text{P} \quad / \quad \left\{ \begin{array}{c} \text{S} \\ \text{P} \\ \text{C} \end{array} \right\} \quad \text{—}$$

Eta, hau *aurretik* erabiliz gero, aurreko puntuan (21.4.) ikusitako kasu beretan gaude.

Interesa dago, beraz, (T.1) eta (T.2) erabili baino lehenago, ozetasunari buruzko erregela erabiltzea.

Hots:

$$B \rightarrow P \quad / \quad \left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right\} \quad \text{---}$$

Hortaz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ + \text{voice} \\ - \text{cont} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{voice}] \quad / \quad \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ - \text{voice} \end{array} \right] \quad \text{---} \quad \textcircled{T.3}$$

Edozein *leherkari*, edozein *trabakariren eskuinetan* gertatuz gero, *gortu* egiten da.

Ⓣ3 honen bitartez, beraz, b) lerrokadan agertzen diren lau elkarketak, lehenengo lerrokadakoak (a) baizik ez dira:

$$\begin{array}{l} SB \rightarrow \textcircled{T.3} \rightarrow SP \\ PB \rightarrow \textcircled{T.3} \rightarrow PP \\ CB \rightarrow \textcircled{T.3} \rightarrow CP \\ SPB \rightarrow \textcircled{T.3} \rightarrow SPP \end{array}$$

Hots, *SP* egonkorra da eta *SPP* → *SP*, egonkorra.

Beraz:

Zortzi kasu horietatik, *hiru* erregelatara pasa gara, oraingoz, jakina.

21.6. Azter ditzagun orain hirugarren lerrokoak (ik. 21.2.):

SS, PS, CS eta SP.S

21.6.1. SS (txistukari + txistukari)

Adibidez:

$$\begin{array}{l} ez \text{ zekien} \quad \rightarrow \quad [e\text{ce}k\text{ien}] \\ nakus + zu \quad \rightarrow \quad [naku\acute{c}u] \end{array}$$

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} S S & \rightarrow & \emptyset C \\ 1 2 & & 1 2 \end{array}$$

Transformazio bat Chomsky-ren hizkeran: ezkerreko kontsonantea *desagertu* egiten da; eta, *denbora berean*, bigarrena *afrikatu* egiten da.

Gauza bera besteak:

$$\begin{array}{ll} [e\acute{s} \text{ \textasciitilde{z}aki\textasciitilde{s}at}] & \rightarrow [e\acute{c}\text{ \textasciitilde{z}aki\textasciitilde{s}at}], \text{ normal} \\ [e\acute{s} \text{ \textasciitilde{s}a\text{u}\textasciitilde{n}a}] & \rightarrow [e\acute{c}\text{ \textasciitilde{s}a\text{u}\textasciitilde{n}a}], \text{ AN, Azkue} \\ [e\acute{s} \text{ \textasciitilde{z}ara\textasciitilde{m}on}] & \rightarrow [e\acute{c}\text{ \textasciitilde{z}ara\textasciitilde{m}on}], \text{ B, Azkue} \\ [e\acute{s} \text{ \textasciitilde{z}uat}] & \rightarrow [e\acute{c}\text{ \textasciitilde{z}uat}], \text{ B} \end{array}$$

Eta abar.

$$\begin{array}{ccc} S S & \rightarrow & \emptyset C \\ 1 2 & & 1 2 \end{array}$$

Artikulazio-puntuari dagokionez, *afrikatuak* biotan *goikoena* hartzen duelarik.

Eta, ezaugarri bitarrez:

$$\begin{array}{ccc} \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{array} \right] & \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{array} \right] & \rightarrow \emptyset \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right] \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

21.6.2. PS (leherkari gor + txistukari)

Adibidez:

$$\begin{array}{ll} \text{horiek ziren} & \rightarrow [\text{oyeciren}] \\ \text{bait zekiten} & \rightarrow [\text{baicekiten}] \end{array}$$

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} P S & \rightarrow & \emptyset C \\ 1 2 & & 1 2 \end{array}$$

Beste transformazio bat.

Eta normala da hau euskaraz. Leherkaria *desagertu* egiten da, eta frikaria *afrikatu* egiten da.

Adibidez:

orretxaukok gangárra, B, Arantz. 116
 (< orrek žaukok)
guztia tšabizak estu, B, Azkue
 (guztiak žabizak)
eurá tšaukek, B, Azkue
 (< eurak žaukek)
etxuat txaten, B, Azkue
 (< žuat žaten)
eginik tziauden, AN
 (= [eginik sjauđen])
héltüi tzinén, Gavel, S
 (< heltüririk zinen)
ederratzineten, AN, Amaiur 39
 (< ederrak zineten)

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} P S & \rightarrow & \emptyset C \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

Eta *afrikatuaren* artikulazio-puntua *frikariarena* da:

$$\begin{array}{ccc} P \left\{ \begin{array}{c} s \\ s' \\ š \end{array} \right\} & \rightarrow & \emptyset \left\{ \begin{array}{c} c \\ c' \\ č \end{array} \right\} \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

Jakina: S (gorrak) eta Z (ozenak) bide beretik, aurreko etsenpluetan ikus daitekeenez.

21.6.2.1. Hitz-barneko adibide hauetan ikusiko da hori ongienik:
 erd. *exemplo* ([kš]) → eusk. *etsenplu* ([č])

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} [k \ š] & \rightarrow & [\emptyset \ č] \\ 1 \ 2 & & 1 \ 2 \end{array}$$

Eta bide beretik:

erd. *próximo* → eusk. *protsimo*
examen → *etsamin*
sexo → *setsu*

Alegia:

[kʰ] → [Øʰ]

21.6.2.2. Baina gauza bera gertatzen da beste leherkariekin. Inplosio-tan gorturik, aldakuntza berak daude [p] eta [t]-rekin.

erd. *absoluto* → eusk. *atsolutu*
(= atsolutuki, L)

Beraz:

[abʰ] → [apʰ] → [aØʰ]
[pʰ] → [Øʰ], funtsean.
erd. *absolver* → eusk. *atsolbitu*

Legea orokorra da.

P S → Ø C
1 2 1 2

Ezaugarri bitarretan:

$$\begin{array}{ccc} \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right]_1 & \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{array} \right]_2 & \rightarrow \emptyset \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right]_1 \end{array}$$

21.6.3. CS (afrikatu + txistukari)

Adibidez:

haritz + *zu* → [aricu]
(B) *neretx* + *zu(n)* → [nereču]

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} CS & \rightarrow & \emptyset C \\ 1\ 2 & & 1\ 2 \end{array}$$

Edo-ta

$$\begin{array}{ccc} \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{bmatrix} & \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{bmatrix} & \rightarrow \emptyset \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{bmatrix} \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

21.6.4. Oso antzekoak izanik, hiru *transformazio* horiek honetara bil daitezke:

$$\begin{array}{ccc} \left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right\} & S & \rightarrow \emptyset. C \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

Eta, ezaugarri bitarretan:

$$\begin{array}{ccc} \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \end{bmatrix} & \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{bmatrix} & \rightarrow \emptyset \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{bmatrix} \quad \textcircled{\text{T.4}} \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

Hau baino lehenago, dena dela, ozentasunari buruzko erregela erabili baldin bada, OBS guztiak dira [—voice]:

$$[\text{OBS}] \rightarrow [\text{—voice}]$$

eta ezaugarri hori kendu egin daiteke.

Beraz:

$$\begin{array}{ccc} [\text{OBS}] & \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{bmatrix} & \rightarrow \emptyset \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{bmatrix} \\ 1 & 2 & 1 \quad 2 \end{array}$$

Euskaraz ez da inoiz [f] inplosiotan gertatzen. Beraz:

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ +\text{cont} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{cor}]$$

Eta bestetik:

$$\begin{bmatrix} -\text{cont} \\ +\text{del.r.} \end{bmatrix} \rightarrow [\text{OBS}]$$

Beraz:

R.21.6.4.:

$$\begin{array}{ccccccc} [\text{OBS}] & \begin{bmatrix} \text{OBS} \\ +\text{cont} \end{bmatrix} & \rightarrow \emptyset & \begin{bmatrix} -\text{cont} \\ +\text{del.r.} \end{bmatrix} \\ 1 & 2 & 1 & 2 \end{array}$$

Edozein trabakari, frikari baten ezkerretan gertatzen bada, ezabatu egiten da; eta frikaria afrikaturik gelditzen da.

21.6.5. SP.S

$$\text{PS} \rightarrow \emptyset \text{C}$$

Beraz:

$$\text{SPS} \rightarrow \text{SC}$$

Adibidez:

$$\textit{prest zegoen} = [\text{p̄r̄e}^{\text{se}}\text{ge}^{\text{goen}}]$$

21.6.5.1. SC multzoa, bakanka bada ere, gerta daiteke euskaraz:

mazuztxori, Altz., G
apeztxat, G, J.M.B.

21.6.5.2. Berrito ere, gorago egindako ohar bera. *Afrikatuaren* motari dagokionez, hau dugu:

PS → ∅C; eta afrikatua, sortu duen frikariaren motakoa da:

ez bait sekiten [espaj̄cekiten]

$$\left\{ \begin{array}{c} C \\ S \end{array} \right\} S \rightarrow \emptyset C; \text{ kasu hauetan hau dugu:}$$

$$\check{C} > \acute{C} > C$$

Beraz:

$$\begin{array}{lll} \text{nakuś + su} & \rightarrow & [\text{nakuću}] \\ \text{nereč + su(n)} & & [\text{nerečun}] \\ \text{deuč + sut} & & [\text{deučut}] \end{array}$$

Bestetan ere esana denez: bietako *goikoena* nagusitzen zaio besteari, hiru adibide horietan ikusten denez.

21.7. Azter ditzagun, azkenekorik, laugarren lerrokoak:

SC, PC, CC eta SP.C

21.7.1. \boxed{SC} (txistukari + afrikatu)

Elkarketa egonkorra da:

$$\text{apex + tzat} \rightarrow [\text{apescat}] \text{ (ikus 21.6.5.1.)}$$

21.7.2. \boxed{PC} eta \boxed{CC}

Hau dugu:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ C \end{array} \right\} C \rightarrow \emptyset C$$

Edo-ta:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ C \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{ — } C$$

Eta ezaugarri bitarretan:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{ — } \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right]$$

(T.5)

21.8. Egin dezagun bilduma.

$$\textcircled{\text{T.1}} : P \rightarrow \emptyset / \text{---} P \quad 2.$$

$$\textcircled{\text{T.2}} : C \rightarrow S / \text{---} P \quad 3.$$

$$\textcircled{\text{T.3}} : B \rightarrow P \left/ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right. \text{---} \quad 1.$$

$$\textcircled{\text{T.4}} : \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} S \rightarrow \emptyset C \quad 4.$$

1 2 · 1 2

$$\begin{array}{c} P \\ C \end{array} \rightarrow \emptyset / \text{---} C \quad (\text{bakanka erabilgarri})$$

Zenbait aldiz antzeko diruditzen erregela horien artean, ez ote dago jeneralizaziorik?

21.8.1. *Lehendabizikorik*, $\textcircled{\text{T.3}}$ erregela erabiliz gero, elkarketa guztiek [—voice] izango dute ezkerretako atalean. $\textcircled{1}$ Edozein sekuentziantan, beraz, *hasteko*, $\textcircled{\text{T.3}}$ erabiliko dugu:

ez badator = *[espadator̄]
bat-bana = *[batpana]

$\textcircled{2}$ Ondoren, *ezkerretako* [—cont] dutenak aztertuko ditugu {P, C}

Hots:

$$\begin{array}{c} \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{array}{c} \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \quad \textcircled{\text{T.1}}$$

$$\begin{array}{c} \text{---cont} \end{array} \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{array}{c} \text{---cont} \\ +\text{del.r.} \end{array} \quad \textcircled{\text{T.5}} \quad (\text{bakanka})$$

3 eta, ezaba zitezkeenak ezabatu ondoren:

Ⓣ.2

$$\left[\begin{array}{c} -\text{cont} \\ +\text{del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cont}] / - \left[\begin{array}{c} -\text{cont} \\ -\text{del.r.} \end{array} \right]$$

④ Bukatzeko, *afrikazioak* (T4)

Ⓣ.4

$$\begin{array}{ccc} [\text{OBS}] & \left[\begin{array}{c} +\text{cont} \\ +\text{cor} \end{array} \right] & \rightarrow \emptyset & \left[\begin{array}{c} -\text{cont} \\ +\text{del.r.} \end{array} \right] \\ 1 & 2 & 1 & 2 \end{array}$$

21.8.2. Adibidez:

ⓐ *ez bait genekien*

= [es ba₁it̃ genekien]

T.3 → [es pa₁it̃ kenekien]

T.1 → [es pa₁it̃ kenekien]

T.2 → [es pa₁it̃ kenekien]
(ez du aldatzen)

T.4 → [es pa₁it̃ kenekien]
(ez du aldatzen)

ⓑ *baiek ez zekiten*

→ [ayek es sekiten]

T.3 → [ayek es sekiten] (ez du ald.)

T.1 → [ayek es sekiten] (ez du ald.)

T.5 → [ayek es sekiten] (ez du ald.)

T.2 → [ayek es sekiten] (ez du ald.)

T.4 → [ayek e cekiten]

21.9. *Ez da ia inoiz gertatzen*, pratikan, (T5) erregela erabili beharra; silaba haseran, *normalean*, ez baitago afrikaturik (*txori*, *txabola*, eta abar, salbu).

Normalean, beraz, (T5) ez da erabiliko.

Eta, erabilbidea hau izango da:

1 — T.3 (= ozentasunak elkarraditzeko)

2 — T.1 (= leherkarien ezabaketa)

T.5

3 — T.2 (= afrikariak frikarazteko)

4 — T.4 (= frikariak afrikatzeko)

Lau erregela horiek aski dira trabakarien arteko elkarketa guztiak burutzeko.

Lau erregela, aski.

Baina lau erregela horiek, Euskal Ortoepian *urrez* izkiriatzeko modukoak.

XXII KAPITULUA

SONANTE + TRABAKARI ELKARKETA

22.1. Teorian bederen elkarketa hauek gerta daitezke:

$$\begin{aligned} \{P, B, C, S\} \times \{L, N, R\} &= 12 \text{ bikote} \\ \{L, N, R\} \times \{P, B, C, S\} &= 12 \text{ bikote} \end{aligned}$$

Azter ditzagun.

22.1.1. PL, BL

22.1.1.1. Antzinako joera hau zen:

$$\begin{Bmatrix} P \\ B \end{Bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{---} L$$

Alegia:

R.22.1.1.1.:

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{---} \begin{bmatrix} \text{SON} \\ \text{---cont} \\ \text{+lat} \end{bmatrix}$$

ST.1

Adibidez:

landare, loka, laru, luma, loria, laketu, lenbailen,
eta abar.

22.1.1.2. Beste soluzio bat ere badugu, modernoagoa:

R.22.1.1.2.:

$$\emptyset \rightarrow [+syll] / \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right] - \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \\ \text{+lat} \end{array} \right]$$

Adibidez:

ingeles, kalostra.

Hitz batez, PL eta BL bikoten kontrako joera sakona dugu euskaraz.

Beraz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right]_1 \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \\ \text{+lab} \end{array} \right]_2 \ominus = \text{ezinezkoa}$$

ezinezkoa izanik, eta [---cont] tartekoa delarik, *jarraitasuna* ageri da berriro gailen. Bi kontsonanteak mota desberdinetakoak izanik ere, joera zaharra *kontra* dator.

Azkeneko urteotan, dena dela, plegu horretako bikoteak onartzeko joera ageri da mailebuetan.

Adibidez:

plaza, blai, plegu, eta abar.

22.1.2. PN, BN

Erabat ezinezkoak

bat + naka = *banaka*

bait + nuen = *bainuen*

R.22.1.2.:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \\ \text{+nas} \end{array} \right]$$

ST.2

Erregela hau eta R.22.1.1.1., oso antzekoak dira. Baina hau hertsikiago betetzen da; [n]-ren [—cont] hau, sakonago balitz bezala, [l]-rena baino.

Alde honetatik, beraz *leberkariago* ageri da euskal [n], euskal [l] baino.

(ST.1) lege hau Euskal Ortoepian har daiteke, beraz:

zenbat + *na* = [sembana]
 (eta es *zenbatna*)
bait nuen = [bajnuen]
 (eta [bajnuen] *gaitzetsiz*)

Inplosiotan {b, d, g}, {p, t, k} denez gero, *bn*, *dn* eta *gn* biko-teak ez dira sekula gertatzen.

Mailebu berrietan, dena dela (ikus 24. kapitulua), nahiz, agian:

bn, *dn*, *gn*, *pn*, *tn*, *kn*

grafiak agertu, horietan guztietan:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ B \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{---} [n]$$

Eta ez dira ahoskatu behar.

Eta [l]rekiko legea ere, gutxi gora behera bederen, onartuz gero:

$$\left\{ \begin{array}{c} P \\ B \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{---} [l]$$

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{---del.r.} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

(ST.1.2)

22.1.3. CL, CN

Hitz elkarketan eta morfologian ongi ageri denez, afrikaria frikari bihurtzen da:

$$C \rightarrow S / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\}$$

Adibidez:

$$\begin{aligned} \text{bitz} &= [\text{ic}] \rightarrow [\text{islari}] \\ &\quad \text{agian } [\text{izlari}] \text{ ere esana) } \\ \text{bitz} &= [\text{ic}] \rightarrow [\text{isno}] (= hizño) \\ &\quad \text{(ohar bera) } \\ \text{eritzi} &= [\text{erici}] \rightarrow [\text{derisna}] \end{aligned}$$

Hortaz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---voice} \\ \text{---cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+cont] / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

Disimilazio atzerakari, normala, [---cont] ezaugarriari dagokionez.

(Sonantearen asimilazioa (*ex normala*) ozentasunaren aldetik, ez dugu hemen aipatuko.)

Euskara eredu honetan, afrikatu guztiak [---voice] direnez:

$$\left[\begin{array}{c} \text{---cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [\text{---voice}]$$

Eta:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---cont} \\ \text{+del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+cont] / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right] \quad \textcircled{\text{ST.3}}$$

izan daiteke lege nagusi bat.

22.1.4.

SL, SN

Hauxe da ST.2 erregelatik irteten den bikotea:

bizlari
bizño

Baina hauxe da, era berean, maiztasun handitan, *ez* adberbioak sortzen dituen elkarketak:

ez litzateke
ez zuen

22.1.4.1. Aditzak sortzen dituen elkarketa horietan, *joera normala* hau da:

$$[s] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} l \\ n \end{array} \right\}$$

z hori *galdu* egiten da erabat. (Ikus adibide-zerrenda batzu «Oinarri Bila» liburuan, 6.2.0.14 puntuan).

Adibidez:

eleike jarri, G, Iturz. 117
elitzaiokek, G, Motz. 31
elitzake, G, Urr. 88
elitaizke, BN, Luz. 38
enaute ikusiko, G, Ug. 105
enatorrek, G, Motz. 39
enekian, G, Urr. 126
enintzela, BN, Luz. 48
enun eguárt, R, K. Izag. 12
eniro, S, Hel. C.
enitze, AN, Mezkiriz; FLV 32, 334
Eta abar.

Beraz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ \text{---voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

ST.4

Ez beti, ordea:

esne ≠ * [ene]
tresna = * [třena]
bizlari ≠ * [ilari]

Baina *ez*-ek dituen loturetan, bai.

Badirudi, beraz, *ez* hori aldatu egin dela bere bukaerari dagokionez:

ez = [es] gaur = [eC] lehenago
C hori zer den *ez* dakigularik.

22.1.4.2. Alde batetik, txistukaria ezabatzen ez denean, erdarak ere eza gutzen duen asimilazio *atzerakaria* gertatzen da (*anormala*, beraz):

Alegia:

gazt. *asno* = [aźno]
 desmadre = [deźmadre]

Alegia:

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ +\text{cont} \\ +\text{cor} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{voice}] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ +\text{voice} \end{array} \right]$$

Asimilazio *atzerakaria*, ozentasunean:

[—voice] [+voice] → [+voice] [+voice]

erabat euskal joeraren kontra (gutxienez trabakarien mailan).

Gaztelaniaz lege hau orokorra izanik:

gazt. *desdén* → [deźdén]
 esbozo → [eźboθo]
 esgrima → [eźgrima]

gutziz *erdal* kutsu dute hauek:

ez dakit → [ézdakit]
ez gara → [ézgara]
noizbait → [nojzbaít]

Euskaraz, hain zuzen, *gortzea* da joera:

gazt. *desgracia* → eusk. *deskrazia*
 mayorazgo → *maiorazko*

«Asimilación progresiva, privativa del vascuence», Holmer, IVH, 16. Beraz, *ozenkuntza atzerakari hau* erregela nagusitzat hartzerik ez dago.

22.1.4.3. Kasu horiek salbuespen gisa utzirik (*tresna, asmo, esne*, eta abar, ST.3) har daiteke joera nagusitzat; eta joera eredutzat ez adberbioari dagokionez.

ez nuen = [enuen]
 (eta [esnuen] gaitzetsi)
ez luke = [eluke]
 (eta [esluke] gaitzetsi)

22.1.4.4. Eman dezagun orain:

gaurko [es] < atzoko [ec]

ezetz hitzean, beharbada, soma daitekeenez (badirudi, bestalde, distribuzioari dagokionez, hitz-bukaeran [c] espero genezakeela, eta ez [s]). Ikus 8. kapitulua).

Eman dezagun [eC]

Zer genuke?

$$C \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

Ezabaketa guztiak, oraingoz:

[---cont] → ∅ / --- [---cont]

modukoak izan dira. Hortaz:

C = [---cont]

Hots:

- (A) [Cs] → [∅c]
- (B) [Cb] → [sp]
- (C) [Cd] → [st]
- (D) [Cg] → [sk]

Badirudi, beraz:

$$C = \begin{bmatrix} -\text{cont} \\ +\text{del.r.} \\ +\text{cor} \\ -\text{voice} \end{bmatrix}$$

Hitz batez: C = tz = [c] afrikatua.

Eta ez < *etz (dirudienez).

Baina, horretara:

$$C \begin{Bmatrix} N \\ L \end{Bmatrix} \rightarrow \emptyset \begin{Bmatrix} N \\ L \end{Bmatrix}$$

Eta hau, *gaur bederen*, ez da egia.

Horra hor, beraz, euskararen diakronian argitu behar litzatekeen puntu bat.

22.1.5. PR, BR

Askotan erakutsi du euskarak multzo hauen kontrako joera:

- cruce* → *gurutze*
- libro* → *liburu*
- probar* → *porogatu*

ondoko erregela hau beteko balitz bezala:

R.22.1.5.:

$$\emptyset \rightarrow [+syll] / \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ -\text{cont} \\ -\text{del.r.} \end{array} \right] - \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont} \end{array} \right]$$

Hots, erregela hau eta E.22.1.1.2. alderatzen badira, berehala

uler daiteke kakoa: *jarraikotasunari* dagokion lege horretan, R.22.1.5. erregelari ageri den inguramenduan [+cont] dugu eskuin aldean.

Hitz batez: E.22.1.5. *laxokiago* betetzen da E.22.1.1.2. baino.

Krutziaga

Baita metatesi bidez:

trabena

presuna

eta $l \rightarrow r$ aldakuntzaz sortutako hitzean:

plantarse → *prantatu*

pluma → *pruma*

22.1.5.1. Hots, 22.1.5. eta 22.1.1.2. elkartuz, hau lortuko genuke:

$$\emptyset \rightarrow [+syll] \quad / \quad \left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{cont} \\ -\text{del.r.} \end{array} \right] \quad - \quad \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ -\text{nas} \end{array} \right]$$

Baina, hertsiki hartu gabe.

22.1.6. CR, SR

euskalkiren batetan SR gerta badaiteke ere:

ezren (= [*es̄ren*]), Zaraitzu

eskuarki hau esan daiteke: CR eta SR bikoteak ezinezkoak direla.

22.1.7. LP, LB; NP, NB

Euskalki *askotan* {p, t, k} hirukotea, {b, d, g} bihurtu da normalean:

Adibidez:

aldare [aɫdare]
oñddo [oɲ̃ɔ]
hango [aŋgo]

kasu horietan, dena dela, [—cont] dugu ozendu den kontsonantea:

{b, d, ɣ, g}

aurreko [—cont] ezaugarriak idaroki lezakeenaren arauera:

l = [—cont]

Fenomenoa, hau da, beraz:

LB = egonkorra; eta:

$P \rightarrow B / \left\{ \begin{array}{l} L \\ N \end{array} \right\} \text{ —}$

Adibidez:

badaki nun da noiz, G, Motz. 42
kantatzen da errezuan, G, Iturz. 221
otamenda, AN, Eslaba, Lerga; Cuad. Etn. 18

Eta abar. (Ikus Mitxelena, FHV, 230: «La oposición entre ambas series tendió a neutralizarse detrás de nasal y l»).

Beraz, *normalean*:

R.22.1.7.:

$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{—cont} \\ \text{—del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{voice}] / \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ \text{—cont} \\ \text{+ voice} \end{array} \right] \text{ —}$ (ST.5)

Beraz, *asimilazio aurrerakaria* dugu, *normala*, [+voice] ezaugarrian.

Baina, kasu!: lege hori ez da beti betetzen, ezta Mendebaldeko euskalkietan ere:

hilko = [ilgo], B = [ilko], G.

Autonomia handia duten atzizkiekin ere, ez da garbi ikusten:

baina Beasain → *Beasaindar*, bai
 Errezil → *Erreziltar*

22.1.8. LS, NS

Normalean, eta euskalkirik gehienetan, *frikaria afrikatu egiten da*.

Adibidez:

esp. *alzar* → eusk. *altza*
 calza → *galtza*
 onza → *ontza*
 danza → *dantza*


Joera *bizirik dago* euskaldunen artean:

entontzes
entzima
quintze
sustantzia
caltzeta

aurkitu ditu Nafarroako Barrankan Ana M. Etxaidek (FLV, 25, 72).

Erabat derrigorrezkoa da euskalki guztietan. Gaur bederen.

Beraz:



Asimilazio aurrerakaria, normala, [-cont] ezaugarriaren arauera.

22.1.9. LC, NC

Egonkorrak dira.

22.2.0. RP, RB

Normalean kontsonantearen aurreko *r* hori [+tense] da gaurko euskalkietan:

urte = [u[̄]rte]
urde = [u[̄]rde]

Baina neutralizaziorik ez dago leherkarian:

urde ≠ *urte*

Hortaz:

hor + *ko* → *horko* (= [o[̄]rko])
hor + *tik* → *hortik* (= [o[̄]rtik])

Euskaraz, beraz, egoki agertzen da \bar{r} = [+cont] proposatzea; nahiz [+voice] izan.

22.2.0.1. Zenbait euskalkitan, halere (Nafarroan):

hor + *tik* → [o[̄]rđik]
Aralar + *ko* → [arala[̄]rko]

Beraz, *euskalki horietan*:

R.22.2.0.1.:

$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ -\text{cont} \\ -\text{del.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{voice}] / \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ + \text{cont} \end{array} \right] \text{ —}$

Hau ere *asimilazio aurrerakaria* izanik *ozentasunean*; zeren-eta [SON] = [+voice] baita.

Normalean, dena dela, E.22.2.0.1. *hau ez da betetzen*.

22.2.1. RS, RC

Joera handia dago, *euskalki askotan*, frikaria afrikatzeko:

S → C / R —

Beraz:

(ST.7)

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ +\text{cont} \\ +\text{cor} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{cont}] / \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont} \end{array} \right] \text{ —}$$

Beste modu batez:

$$\left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont} \end{array} \right] \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ +\text{cont} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ +\text{cont} \end{array} \right] \left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ -\text{cont} \end{array} \right]$$

Hitz batez: *disimilazio aurrerakaria*; eta *anormala*, beraz.

Beharbada honengatik, Ekialdeko euskalkietan, nahiz LS eta NS multzoak afrikatu, RS ez dute afrikatu.

Adibidez:

c. *-(t)asun* = S. *-(t)arziin*
 c. *uso* = S. *úrzo*

Gauza bertsua Zaraitzun eta Erronkarin: neutralizaziorik ez.

Kakoa hori izan daiteke.

Mendebaldeko euskalkietan:

RS → RC

Adibidez:

gazt. *verso* = eusk. *bertso*
catorce = *katortze*

Baita, kanpo-sandhiz ere:

juan beartzue, AN, Muzk. 173, FLV, 31
behar zana = [beãrcana], G

22.2.1.1. Ekialdeko joera kontutan hartu gabe, dena dela, gaur hiru so-
nanteen ondoren *afrikatzeko* joera nagusitzen ari da:

gazt. *Universidad* → eusk. *Unibertsitate*

Beraz, (ST.5) eta (ST.6) batuz:

(ST.6.7)

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{bmatrix} \rightarrow [\text{—cont}] / [\text{SON}] \text{—}$$

22.3. Bilduma eginez:

(ST.1.2) (aditzetan)

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{—d.r.} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{—} [\text{SON} \\ \text{—cont}]$$

(ST.3) (normalean ez da erabiltzen)

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—cont} \\ \text{+d.r.} \end{bmatrix} \rightarrow [\text{+cont}] / \text{—} [\text{SON} \\ \text{—cont}]$$

(ST.4)

$$\begin{bmatrix} \text{OBS} \\ \text{—voice} \\ \text{+cont} \\ \text{+cor} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \text{—} [\text{SON} \\ \text{—cont}]$$

ST.5

3.

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ -\text{cont} \\ -\text{d.r.} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{voice}] / \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ -\text{cont} \end{array} \right] \text{ ---}$$

ST.6.7

2.

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{voice} \\ + \text{cont} \\ + \text{cor} \end{array} \right] \rightarrow [-\text{cont}] / \left[\text{SON} \right] \text{ ---}$$

22.3.1. ST.1.2) eta ST.4) batuz gero, hau dugu lehenengo erregela gisa:

1.

$$\left[\begin{array}{l} \text{OBS} \\ -\text{voice} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{ --- } \left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ -\text{cont} \end{array} \right]$$

Alegia, trabakari *guztiak* ezabatzen dira $\left[\begin{array}{l} \text{SON} \\ -\text{cont} \end{array} \right]$ ezkerretan.

Salbuespen honekin: [sl] eta [sn], hitz barruan, *gaur* bederen posible direla: *esne, hizlari, muslari, bezle*, etab.

Ondoren, ST.6.7 erregela erabiliko da, frikariak afrikatzeko.

Eta, azkenik, ST.5.

Honetara:

| | | |
|----|----------|--------------------|
| 1. | ST.1.2.4 | <i>ezabaketak</i> |
| 2. | ST.6.7 | <i>afrikazioak</i> |
| 3. | ST.5 | <i>ozenketak</i> |

Hiru erregela aski.

22.4. Adibidez:

| | | |
|--------------------|---|-------------|
| — <i>ez nekien</i> | — | [esnekien] |
| ST.1.2.4 | — | [enekien] |
| ST.6.7 | — | [enekien] |
| ST.5 | — | [enekien] |
| — <i>nor zen</i> | — | [nořsen] |
| ST.1.2.4 | — | [nořsen] |
| ST.6.7 | — | [nořcen] |
| ST.5 | — | [nořcen] |
| — <i>bait luke</i> | — | [baɨ̃tluke] |
| ST.1.2.4 | — | [baɨ̃tluke] |
| ST.6.7 | — | [baɨ̃tluke] |
| ST.5 | — | [baɨ̃tluke] |

22.5. *Bilduma eginez, eta gutxienez:*

(V V)

(B.1)

$$\left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ -\text{low} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{high}] \quad / \quad \text{---} \quad \left[\begin{array}{c} V \\ -\text{high} \\ \alpha \text{ low} \end{array} \right]$$

(V C)

(BK.1)

$$\left[\begin{array}{c} C \\ -\text{high} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} C \\ +\text{high} \end{array} \right] \quad / \quad \left[\begin{array}{c} -\text{cons} \\ +\text{high} \\ -\text{back} \end{array} \right] \text{---}$$

(BK.4)

$$\left[\begin{array}{c} \text{OBS} \\ +\text{voice} \\ -\text{cont} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{cont}] \quad / \quad \left[\begin{array}{c} +\text{sonor} \\ +\text{cont} \end{array} \right] \text{---} \quad \left[\begin{array}{c} +\text{sonor} \\ +\text{cont} \end{array} \right]$$

SON

1. $\left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\}$ (esandako moduan)
2. $[r] \rightarrow [\bar{r}] / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} \# \\ C \end{array} \right\}$
3. $\emptyset \rightarrow V / \# \text{---} [R]$
4. $\emptyset \rightarrow [d] / \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\} \text{---} [R]$

OBS

1. $B \rightarrow P / \left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right\} \text{---}$
2. $P \rightarrow \emptyset / \text{---} P$
3. $C \rightarrow S / \text{---} P$
4. $\left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right\} S \rightarrow \emptyset C$

OBS + SON

1. $\left\{ \begin{array}{c} S \\ P \\ C \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\}$ (esandako moduan)
2. $S \rightarrow C / \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \\ R \end{array} \right\} \text{---}$
3. $P \rightarrow B / \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\} \text{---}$

Horra hor, beraz, 14 erregela. *Guztira.*

Bokaleen arteko erregela bakar hori (Euskal ortoepoari buruz, oraingoz askihoa agian), eta *bokale* + *consonante* aipatutako biak (BK.1, bustikuntza; BK.4, leherkari ozenen espirantekuntza), oso *autonomo* dira; eta *azkenaldian* erabil daitezke.

Besteen artean, berriz, ximpleketa batzu egin daitezke:

22.5.1. SON.1 eta OBS.SON.1 oso antzekoak dira; eta batu egin daitezke:

$$\left\{ \begin{array}{c} L \\ N \\ S \\ P \\ C \end{array} \right\} \rightarrow \emptyset / \text{---} \left\{ \begin{array}{c} L \\ N \end{array} \right\}$$

Beraz:

$$\left[\begin{array}{c} \text{---syll} \\ +\text{cons} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

Baina [+cons] → [---syll]

Hortaz:

$$\textcircled{\text{R.1.:}} \left[+\text{cons} \right] \rightarrow \emptyset / \text{---} \left[\begin{array}{c} \text{SON} \\ \text{---cont} \end{array} \right]$$

Ezabaketa erregela orokorra (nahiz SL eta SN, hitz batzutan, ezabaketarik gabe egon: *esne*, *hizlari*, eta abar).

22.5.2. SON.1, SON.2 eta SON.3 beren horretan utz daitezke.

22.5.3. Beste *bi ezabaketa* ditugu:

OBS.2 eta OBS.4

22.5.4. *Gorketa* erregela bat: OBS.1.

22.5.5. *Frikaketa* bat: OBS.3.

Afrikaketa bat: OBS.SON.2.

Eta, azkenekotz:

ozenketa bat: OBS.SON.3.

GUZTIRA: 13 ERREGELA.

Gehiegi ez da, noski. Frantsesez eta ingelesez *askoz erregela gehiago* dago, eta ez da inor asaldatzen!

Halaz ere: kate mintzatuan gertatzen diren aldakuntza fonologikoak kontutan hartu gabe mintzatzea, *euskaraz mintzatzea EZ DELA* esan beharra dago, argi eta garbi.

Euskal Ortoepiak dotzena bat lege besterik ez badu ere, dotzena hori *badu*; eta beroien arauera irakurtzen edo hitz egiten ez duena, ez da Euskal Fonologiaren arauera ari.

Ingelesezkoko erregelak bete gabe ingelesez hitz egiterik ez dagoen bezalaxe, euskarazko erregela horietatik at euskaraz hitz egiterik ez dago.

Euskaltzaindiak, beraz, lehen hizkera idatzian egin zuen bezalaxe, *hizkera mintzatuaz ere* markatu behar du bidea; eta azkar markatu. Gure herriak ez dauka areago itxaroterik.

22.6. Eman dezagun hau:

ez dakit nor zen = [es dakit nor sen]

Arazorik zailena (arazo *transformazionala*, Fonologia Sortzailearen aldetik), eta oraindik euskaraz garbitu ez dena, hauxe da: zein dira sekuentzia horretan *azentu-unitateak*? Alegia, non dago *pausarik*, non ez, eta zergatik?

22.6.1. Zein hurrenkeratan?

Eman dezagun, *leben saiabide gisa*, hurrenkera hau:

- 1 katearen *gorketa*: OBS.1
- 2 *Ezabaketa* nagusia: R.1
- 3 Beste *bi ezabaketak*: OBS.2 eta OBS.4
- 4 *Sonanteenak*: SON.2, SON.3 eta SON.4
- 5 *Frikaketa*, OBS.3; *afrikaketa*, OBS.SON.2; eta *ozenketa*: OBS.SON.3
Eta, bukatzeko:
- 6 B1 erregela (*bokalismoaz*)
- 7 BK.1 eta BK.4 (*bustidura eta espiranteketa*).

Beraz:

- 1 — OBS.1
- 2 — R.1
- 3 — OBS.2 eta OBS.4
- 4 — SON.2, SON.3, SON.4
- 5 — OBS.3
- 6 — OBS.SON.2 eta OBS.SON.3
- 7 — B.1
- 8 — BK.1 eta BK.4

Beharbada, dena dela, hurrenkera hau aldatzea pratikoago gerta daiteke.

Aitor dezagun: *ez dakigu*.

Badirudi, halere, hau proposa daitekeela:

[es dakit nor sen] → [esdakit norsen]

(*t* eta *n*-ren arteko pausa egiteak edo ez egiteak, ondorioak ditu *t* horri buruz: ikus R.1 erregela.)

[esdakit] → [estakit] (ikus OBS.1)

[nořsen] → [nořcen] (ikus OBS.SON.2)

Jakina: sistematikoki laneginez gero (ordinadore bati-edo proposatuko litzaiokeen jarraipideaz), erregela *guztiak* erabil araziko genizkioke, eta emandako hurrenkera horretan.

22.7. Eman dezagun beste hau:

ez dakit ba horiek zirenez nire adiskideen etxeak

Lehenengo arazoa: pausak non? Ez dakigu. Badirudi sailketa hau proposa litekeela:

- a — *ez dakit ba*
- b — *horiek zirenez*
- c — *nire*
- d — *adiskideen*
- e — *etxeak*

a *ez dakit ba* = [esdakitba]

| | |
|------------------------|--|
| OBS.1 | — [estakitpa] |
| R.1 | — [estakitpa] |
| OBS.2 | — [estakipa] |
| OBS.4 | — [estakipa] (eraginik ez) |
| SON.2, SON.3, SON.4 | — eraginik ez, noski |
| OBS.3 | — afrikaturik ez dago; beraz, eraginik ez |
| OBS.SON.2 | — eraginik ez (ez baitago sonanterik) |
| OBS.SON.3 | — berdin |
| B.1 | — ez dago V V multzorik |
| BK.1 | — eraginik ez |
| BK.4 | — eraginik ez |

Beraz: [estakipa]

Bide beretik:

- b *horiek zirenez* = [orieksirenes]
OBS.4 [oriecirenes]
- c *nire* = [nire]

d *adiskideen* = [adiškideen]

BK.4 (2 aldiz) = [ađiškiđeen]

B.1 = [ađiškiđien]

e *etxeak* = [ečeak]

B.1 : [ečiak]

Hortaz:

[estakipa orieciirenes nire ađiškiđien ečiak]

XXIII KAPITULUA

EUSKAL ETA ERDAL FONOLOGIAZ

- 23.1. Hizkuntzak aldatuz doaz denboran barrena. Jakina da. Euskara ere bai. Bestetik ere, bai hiztegiaren sailean batez ere; bai morfologiarenean eta fonologiarenean, nekezago, herri indartsuen moduak eta hizkuntz joerak, herri ahulen moduei eta joerei nagusitzen zaizkie. Ezaguna hau ere.

Euskararen *erdalkuntza*, hitz batez, *normala* da: euskaraz mintzo den herria ahula da (gero eta ahulagoa, kopuruz batez ere) eta nahi-ta-ezkoa da erdarak (edo ondoko *bi* erdarek, hobe) kutsatua egotea. Gero eta kutsatuago, begi-bistan denez.

Liburu honen baranoan, halere, Fonetika eta Fonologiarenean, *aldakuntza* omen diren horiek *Fonologi truke butsa* direla noraino egia den garbiki erakusten saiatuko gara.

Hots, *aldakuntza* mordo ugari bat, *aldakuntza* ez-baina *kalko* eta *Fonologi truke butsa* denean, *euskara berri* hori *erdara butsa* ote den galdera egiteko mementua etorri da.

- 23.2. Has gaitezen geure *txistukari/afrikatuen* multzotik.

- 23.2.1. Euskaraz, normalean, *seiak* dira gorrak:

$$\{s, \acute{s}, \check{s}, c, \acute{c}, \check{c}\} = [-\text{voice}]$$

Eta artikulazio-puntu eta moduari dagokionez, hau dugu (ikus T.15.0 taula):

| | s | ś | š | c | ć | č |
|----------------|---|---|---|---|---|---|
| 1. [± sonor] | — | — | — | — | — | — |
| 4. [± voice] | — | — | — | — | — | — |
| 5. [± cont] | + | + | + | — | — | — |
| 6. [± high] | — | — | + | — | — | + |
| 9. [± del.r.] | + | + | + | + | + | + |
| 10. [± cor] | + | + | + | + | + | + |
| 11. [± ant] | + | — | — | + | — | — |
| 16. [± distr.] | + | — | + | + | — | + |

Ahoskerari dagokionez, horretaz, eta benetan pisua duten ezaugarriak kontutan hartuz, hau dugu:

| | s | ś | š | c | ć | č |
|---------------|---|---|---|---|---|---|
| 6. [±high] | — | — | + | — | — | + |
| 11. [±ant.] | + | — | — | + | — | — |
| 16. [±distr.] | + | — | + | + | — | + |

(aski)

Beraz, 6. eta 11.a aski dira, ahoskera horien kako fonologikoa azaltzeko (edo-ta 6. eta 16.a).

23.2.2. *Gaztelaniaz*, berriz, *bi* daude: [ś] eta [č].

23.2.2.1. *Afrikatuetan*, beraz, eta *fonologiaren* mailan, hau espero daiteke:

/c/ → /č/ ahoskatzea (= [a^hbe^hčale])
 /ć/ → /č/ ahoskatzea (= [a^hčua]); emaztea, irriz).

Gau gaurkoz [abeřčale] eta [ačua] horiek *farragura* sortzen dute euskaldunen artean. Ahoskera *berri* horiek, oraingoz behintzat, *arrotz* zaizkigu erabat. Ez *berri*, hitz batez, *español* baizik.

Baina eragin honek honetara bultzaten du:

atzo = *atso* = *atxo* = [ačo]

Hiru fonemak *bakar bat* bihurturik.

Fonetikari dagokionez, berriz, ñabardura bat badago gazt. [č] eta eusk. [č] soinuen artean. Gorago ere esan dugunez, euskaldun jendeak *etxe* hitza, eman dezagun, [eče] ahoskatzen duenean, atzerago eta gorago artikulatzen du [č] fonema hori.

Badirudi, hitz batez:

eusk. [č] = osoki sabaikaria (edo goikoago,
gast. [č] = sabai-aurrekoa bederen)

Hitz batez, eta *Fonetika* hutsaren mailan ere, [č] fonemak (= *tx*), balio *desberdinak* ditu gaztelaniaz eta euskaraz.

Hots, gero eta garbikiago, *zaharrek* ahoskatzen zuten eusk. [č] hura (*barnekoa eta goikoa*), galtzen ari da.

Aldakuntza hau da beraz:

eusk. [č] → gast. [č]

Gure [č] berezia suntsitu eta gast. [č] nagusitzen ari da (ikus II. eraskina).

23.2.2.2. *Txistukari frikarietan*, berriz gaztelaniaren eragina hau izango da, *Fonologiaren* mailari gagozkiolarik:

$/s/ = /s'/$
 $/š/ = /š'/$

Hitz batez: gure *z* eta *x* nahastu *s*-rekin, eta denak berdin esan. Bizkaian eta Gipuzkoako Goiherrian, gutxienez, abiatua dago

kutsaketa:

bazi = [aʃi]
eskola = [eʃkola]
esan nizun = [eʃaniʃun]

Eta, bide beretik aurrerago joanda:

gaxo = [gaʃo]
kaxo = [kaʃo]

Beraz:

$/s/ = /s'/ = /s\hbar/$

Fonetikari dagokionez, berriz, hiru fonema horiek, neutralizatu ondoren, gaztelaniazko balore fonetikoa ezarriko zaie piskanaka.

Beraz:

$/s/ = /s'/ = /s\hbar/$

eta $/s'/ = [s']$, *gaztelaniaren* arauera.

Hots, gorago ere esana dugunez, egoera hau da:

eusk. [s'] : retroflexua = [s\hbar]
gazt. [s'] : apikari-albeolarea

Edo, bitarretan:

| | eusk. s' [s\hbar] | gazt. s' |
|--------------|----------------------|-------------|
| 6. [± high] | — | — |
| 11. [± ant.] | — | + |

Hitz batez: *aldakuntza* hau izango da:

[s'] = [—ant.] hori galdu, eta
[s'] = [+ant.] esaten hasi.

Fenomeno hau aurrera doa (Mitxelenak berak *normaltzat* ematen du [ś] apikari-albeolarea), bestea ia galdutzat emanez.

Fonetikaren mailan, beraz (eta piskanaka *z* eta *x* fonemak galdu ondoren), *aldakuntza* ez da abstraktua, gaztelaniaren kalkoa baizik.

Artikulazio-puntua, berriro ere, *aurreratu* egin dugu, gaztelaniaren kide hertsia ahoskatu nahirik.

23.2.3. *Frantsesak*, era berean, frantseskuntza bera dakar Iparraldean.

23.2.3.1. *Afrikatuen* multzoan, jakina denez, frantsesak bat ere ez du. Horretaz, joera hau izango da:

$$\begin{array}{l} /c/ \rightarrow /s/ \\ /ć/ \rightarrow /ś/ \\ /č/ \rightarrow /š/ \end{array}$$

Afrikatuak *frikari* bihurtzeko joera zabalduko da:

$$\begin{array}{l} abertzale = [\text{abeRsale}] \\ Atxondo = [\text{ašondo}] \\ Patxi = [\text{paši}] \end{array}$$

23.2.3.2. *Frikarietan*, aldiz, ximpleketa bat gertatuko da:

$$\begin{array}{l} euskara = [\text{euškara}] \\ ikastola = [\text{ikaštola}] \\ Tolosa = [\text{tološa}] \end{array}$$

Hitz batez:

hiru fonemetatik bi fonematara:

$$\begin{array}{l} 1) /ś/ = /š/ \\ 2) /s/ \end{array}$$

Fonetikari dagokionez, berriz, ikus dezagun egoera:

| | eusk. [s] | eusk. [ʃ] | eusk. [š] | frant. [s] | frant. [š] |
|-------------|--------------|--------------|--------------|---------------|---------------|
| 6. [±high] | — | — | + | — | + |
| 11. [±ant.] | + | — | — | + | — |

Beraz:

eusk. [s] → fr. [s]

(oso antzekoak izanik, aldakuntzarik gabe)

eusk. [s̺] → fr. [š]

eusk. [š] → fr. [š]

(sabaikaria) (sabai-aurrekoa)

22.2.4. [š] ahoskatzean, euskal ñabardura galduko da (galtzen ari den bezalaxe, jakina).

Hona hemen, berriro ere, 8. kapituluan emandako iritzien bilduma.

Alde batetik, eta esana dugunez, euskalkietan barrena mogituz gero, fonema berberaren artikulazio-puntua aldatu egiten da. Horixe da, esate baterako, /s̺/ fonemaren kaso (s idatzia): askoz ere *gorago* artikulatzen da Iparraldeko euskalkietan, Bizkaian baino.

Bestetik ere tresnabidezko datu zehatzak bilduko ez ditugun bitartean, /s̺/ fonemari dagokion artikulazio-puntua eztabaidagarria izango da. Batez ere, euskalkietan barrena aldagarri agertzen zaigularik (tresnabidezko azterketaren behar hau, besteak beste, Julio Urkijok berak aipatu zuen Oñatiko Biltzarre famatu hartan, orain dela 62 urte (1918). Baina zai gaude...).

II. eraskinean datorren B taulan, dena dela, [š], [ž], [č] eta [dž] soinuak, *sabaikarien* zutabeen jarri ditugu; eta [t̺]

eta [d̥] eta gainerako *bustiekin* batera.

Hots, [š] eta antzekoen artikulazio-puntua *sabai-aurrekoa* da, izan, eta egoera hau genuke taulagune horretan:

(eta (A) taulan jarri dugun bezala; ikus II Eraskin berean.)

| | sab. aurr. | | sabaik. | |
|-------------|------------|----|---------|----|
| | — | + | — | + |
| 1 leh. ahok | | | t̥ | d̥ |
| 2 leh. sud | | | | ɲ |
| 3 frik. | | | | y |
| 4 txist. | š | ž | | |
| 5 afrik. | č | dž | | ŷ |
| 6 albok. | | | | ↓ |

Gauzak horretara, egoera fonetiko hau izango genuke:

/d̥/ leherkaria (= [ŷ]) egiazko leherkari *sabaikaria* litzateke; eta [dž], berriz, *sabai-aurrekoa*. Hitz batez:

[ŷoan] ≠ [džoan]

Egia dea hori?

Alegia, [dj] eta [dž] soinuen artean dagokeen ñabardura, egiazkoa dea?

Hori uste zuen Azkuek, soma daitekeenez (ikus «Fonética Vasca», 463); eta Gavel-ek egiten dituen ohar berberak egin zituela: [y] ≠ [d̥], eta abar.

Hona Gavel-ek diona (Phon. B., 118):

Lapurteraz [j] entzuten bada ere, zibereraz [ž] entzuten da («une chuintante sonore semblable au j français»); eta baxenabarreraz, azkenik, «la tendance à rapprocher de (j) d'un son de (d̥) mouillé est plus sensible» (alegia, [d̥]).

Eta honetara ekiten:

«La chuintante que nous représenterons par (š) est normalement sourde, comme nous l'avons dit déjà. Elle est analogue au (ch) français; ou du moins elle n'en diffère que par une légère nuance: dans une grande partie du pays basque *elle est un peu plus intérieure* que la chuintante sourde française: c'est comme un ch français qui desineraient un commencement d'évolution vers le son de l' (x) asturien ou du (ch) allemand de *ich*» (Phon. B., 169) (= c'est à dire, [ç], frikari sabaikari gorra).

Iritzi hau emanaz, bestalde, Vinson-en irizkide agertzen da.

Hots, bide beretik bultzatzen gaitu Larrasquet-ek: «j, c'est une fricative palatale sonore. A s'en rapporter à une oreille qui entend depuis de longues années les deux sons, le (j) souletin est *plus mouillé* que celui du français septentrional, et les tracés confirment les données de l'oreille: la région de contact s'élargit davantage en souletin, à partir des molaires *vers le sommet du palais*» (Action de l'Accent, 46).

Eta ohar berbera [š] soinuari buruz: «C'est une fricative sourde analogue au ch français que nous désignons de la sorte. Une oreille souletine distingue très nettement ces deux sons: *une nuance très prononcée de mouillure* caractérise, dans notre dialecte, celle fricative chuintante» (Action de l'Accent, 46).

Beste hitzez, beraz, VIII kapituluan berresan ondoren, hau ikus dezakegu: *Fonetikaren* mailan ere, artikulazio-puntuak *erdaldundu* egin zaizkigula; bai [s]-ri dagokionez, bai [š]-ri dagokionez ere. Eta hau, baita fonemen oposizioa bizirik dagoen euskalkietan ere.

Txistukarien *aldakuntzak*, beraz, bai *Fonologiaren* mailan, bai *Fonetikarenean*, *erdalkuntza hutsak* dira.

Eta hau, jakina, *fonema bakarren mailan*.

Geroago ikusiko denez, *erdalkuntza berbera gertatzen ari da Erregela Fonologikoen* mailan ere.

22.3. Azter dezagun /l/ fonemaren arazoa:

Bai frantsesaren eraginaz, bai gaztelaniarenaz (ez honek ez hark baitute gaur [l̥] ahoskatzen), *yeismoa* aurrera doa gaur Euskal Herrian.

23.3.1. Ikus dezagun egoera lehendabizikorik:

| | l̥ | ÿ | y |
|--------------|----|---|---|
| 1. [± sonor] | + | — | — |
| 2. [± syll] | — | — | — |
| 3. [± cons] | + | + | + |
| 4. [± voice] | + | + | + |
| 5. [± cont] | — | — | + |
| 6. [± high] | + | + | + |
| 7. [± back] | — | — | — |
| 10. [± cor] | — | — | — |

Eta abar.

Hitz batez: *oso antzekoak* dira soinuak.

Desberdintasunak hauek dira:

| | l̥ | ÿ | y |
|-----------------|----|---|---|
| 1. [± sonor] | + | — | — |
| 5. [± cont] | — | — | + |
| 9. [± del.rat.] | — | — | + |
| 13. [± lat] | + | — | — |

Erdaraz (erdarez, hobe: bi erdara auzoez), hau gertatu da:

$$l \rightarrow y \begin{cases} [\hat{y}] \\ [y] \end{cases}$$

Horretaz, euskaraz:

$$ll \rightarrow /d/ \begin{cases} [\hat{y}] \\ [y] \end{cases}$$

Beraz:

$$\begin{aligned} \text{hilabete} &= [\text{iyabete}] \\ \text{joan} &= [\hat{y}\text{uan}] \end{aligned}$$

Kalko hutsa.

23.4. Soinu soiletatik, orain, *soinu-elkarketara* pasatzen bagara, *erdal-kuntza* bera ageri da: geure erregela fonologikoak zokoratu, eta erdararenak egiten ditugu geure.

23.4.1. Eman dezagun:

$$\text{gazt. catorce} = [\text{kat}\acute{o}\bar{r}\theta\text{e}]$$

Alegia: erdaraz, [r] multzoa egonkorra da, ez da aldatzen.

$$\begin{aligned} \text{gazt. corzo} &= [\text{k}\acute{o}\bar{r}\theta\text{o}] \\ \text{garza} &= [\text{g}\acute{a}\bar{r}\theta\text{a}] \\ \text{berza} &= [\text{b}\acute{e}\bar{r}\theta\text{a}] \end{aligned}$$

23.4.1.1. Euskaraz, berriz, *euskalki askotan* hobe (ikus 22.2.1., aurreko kapituluan), eta Gipuzkoan beti, adibidez,

$$rz = *[\bar{r}s] = [\bar{r}c]$$

Hitz batez: *afrikatu* egiten dugu.

$$(A) S \rightarrow C / [\bar{r}] \text{ —}$$

Erregela honen berririk ez duen gipuzkoarrak, beraz, *erregela hori bere fonologian duelako*, hau egingo du:

$$\text{catorce} = [\text{kat}\acute{o}\bar{r}\text{ce}]$$

Hitz batez: gipuzkoar horrek, erdaraz ari denean, (A) euskal erregela erabiltzen du; gaztelania lardaskatuz eta... euskaldunduz. Madrillen (Parisen) berehala esango diote: *usted es vasco* (vous êtes basque).

Santurce ikusita, era berean, ahoskera hauek lortuko dira:

Burgos-koak : [śaŋtúr̥θe]

Urrestillakoak : [śaŋtúr̥ce]

Baina askotan ahantzi egiten zaiguna:

Limoges-koak : [sāŋtũRs]

frantsesak ere *frantsesaren erregela fonologikoen* arauera irakurriko du. Etengabe, beraz, gudan nagusi den *Fonologiaren erregelak* erabiltzen ditugu; baita, noski, soinu bakarren *matrizeak* ere.

Sasi-elebidunek, horretara, berehala salatzen dute beren burua: ez dituzte erabiltzen bigarren hizkuntzaren *soinu-matrizeak*, are gutxiago *elkarketan erregela fonologiko* jatorrak ere.

Ez dago *aldakuntza*-rik, ez dago kidetasunik edo elebitasunik. Hizkuntza *nagusia* dago, batetik, bere *matrizeak* eta *erregelak* erabil erazten dituen; eta hizkuntza *zapaldua* dago bestetik, bere matrizeak eta erregela fonologikoak *galtzear*.

Gizartean dagoen diglosia eta hizkuntz menpekotasuna, nor-turik eta barneraturik, *bera* agertzen zaio fonologoari.

23.4.1.2. Beste adibide bat.

Eman dezagun *verdad* hitza.

erd.: *verdad* = [beṛd́áθ]

Alegia:

(B) [d] → [θ] / ——— ‡

«En Valladolid, Salamanca y otros lugares de Castilla, en lugar de *d* final se pronuncia... una θ relajada: [biṛt́úθ], [beṛd́áθ], [xuḃeṇt́úθ], [uśtéθ] », etc. (Navarro Tomás, Pron. Esp. 103).

Euskaraz ez dago erregela hori, jakina; Urruzuno jatorrak ongi erakusten digunez:

Biba berdat

oihukatzen zela kondatzen digunean.

Euskaraz, ezer izatekotan, hau genuke:

(C) [d] → [t] / — ‡

gazt.: *almud* = eusk.: *almute*, B., Araban,
Lz. Guereñu.

Urruzunoren herritarrek (C) erregela erabiltzen zuten; Salamancatarrek, beriz, (B) erregela. Eta ahoskerak *erregela horien arauerakoak* dira.

Eta hor ditugu, beraz:

R., *néstáte* (= necesidad)

(c), *Unibertsitate*

(c), *autoritate*

eta beste anitz, euskal erregelaren oihartzunaren arauera sortuak.

Gogoan har, bestalde, *t* horren arrastorik ez dagoela frantsez: *nécessité*, *Université*, *autorité*, eta abar. Eta, horretaz, gaztelaniazko —*d* horren aldakuntzaz beste azalpenik ez dagoela.

23.4.2. Eman dezagun, alderantziz, *bihar arte* esaera:

bihar arte = [biařarte]

(eta antzerakoak).

Hitz batez:

[ř] → [r̄] / — V

Bestela esanda: hitz-amaierazko [ř] gogorrek, bokale-ezkerretan gertatuagatik ere, [r̄] ahoskatzen dira.

Hain zuzen ere, horixe da Gavel-en adibidean:

[ur] [eđeřa] ≠ [ur̄] [eđeřa]

bikotea desberdintasunari eusten dion legea.

$\left\{ \begin{array}{l} [r] \\ [r̄] \end{array} \right\} \rightarrow [r̄] / \text{ — C}$

Kontsonante aurrean neutralizazioa dago; baina:

$$\left\{ \begin{array}{l} [r] \\ [\bar{r}] \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} [r] \\ [\bar{r}] \end{array} \right\} / \text{---V}$$

bokale aurrean ez dago neutralizaziorik.

Beraz.

| | | |
|---------------------|---|-------------------------|
| <i>bihar arte</i> | = | [biafãrte] |
| <i>eder hori</i> | = | [edẽfõri] |
| <i>gogor hartan</i> | = | [gogõrãtan] |
| <i>itur alde</i> | = | [itũfãlde] |
| <i>zebar baize</i> | = | [seãfãise], BN., Sal. |

23.4.2.1. Erdaraz ez da hori gertatzen:

| | | |
|---------------------|---|-----------------|
| <i>vender eso</i> | = | [bẽdẽrẽso] |
| <i>mirar alli</i> | = | [mirãfãli] |
| <i>militar alto</i> | = | [militãfãlto] |

Alegia:

$$[\bar{r}] \rightarrow [r] / \text{---V}$$

Bukaerazko [̄r], [r] ahoskatzen da bokale aurrean.

Hain zuzen ere, euskal fonologia duen euskaldunak, honela ahoskatuko ditu hiru horiek:

| |
|-----------------|
| [bẽdẽrẽso] |
| [mirãfãli] |
| [militãfãlto] |

[̄r] horiek [+tense] eginez.

Eta honetxek salatuko du berorren euskalduntasuna.

Hitz batez:

[biarãrte]

esaten duenak, *gatzelaniazko* erregela bat erabili du; eta, sasi-
elebiduna *erdal* fonologiaz ari da. Eta *erdalduna* da, euskaraz
ari omen denean ere.

Alderantziz:

[beñdeřešo]

esaten duenak, bere burua salatzen du; eta gaztelaniari dagokion neutralizazioa ez erabiliz, *euskal* fonologiaren arauera ari da. Hau, sasi-elebiduna, beraz, *euskalduna* da funtsean; baita erdaraz ari omen denean ere.

Baina honi buruzko gogoeta batzu egitekotan, hobe du irakurleak *Hitzaurrea* berrirakurtzea.

XXIV KAPITULUA

MAILEBUEN ARAZO FONOLOGIKOAK

24.1. Bi hitz bakarrik mailebu berrien arazoaren garrantzia azpimarrazteko. Jakina denez, eta gehienetan bederen, euskaldun fonologiaren arauerako itxura hartua dute mailebu zaharrek mende-etan barrena; *gureturik* agertzen dira. Eta, fonologiaren mailan, eta fonetikaren mailan, arazorik ez dute sortzen.

24.1.1. Adibidez: *respectu(m)*.

Alde batetik, haserako [r̄] hori ezin horretan harturik, [e] erantsi zaio aurretik, anaptixi ezagunaren arauera.

Bestetik, berriz, *ct* hori [kt] ezin horretan onarturik, eta 21. ikaskaian azaldu dugunez, aldatu egin da:

$$\begin{aligned} [kt] &\rightarrow [t] \\ k &\rightarrow \emptyset / \text{---}t \end{aligned}$$

Oso lege orokorra eta zaharra, ikusi dugunez.

Hitz batez, *respektu* honek zuen arrotz itxura, eta euskal fonologiaren kontrako bi alderdiak, *moldatau* egin ditu gure herriak. Eta gaur, *errespetu* hitza, fonetikaren aldetik, normala da.

24.1.2. Beste adibide bat: *cobdiçia* (antz. gazt. = cast. ant.).

Alde batetik, haserako [k] horrek, [g] ematen zuen euskaraz (nahiz [k] gelditzea ere posible izan). Dena dela:

$$[k] \rightarrow [g]$$

hori bete duen aldakia badugu.

Bestetik, [bd] hori euskaraz ez dago. Beraz, inplosiotan dagoen [b] hori, gortu egin da, joera zaharraren arauera:

[obd] → [opd]

eta hor, [—voice] ezaugarriak, asimilazio aurrerakari normal batez, gortu egin du eskuinekoa:

[opd] → [opt]

Eta, horretaraz gero:

p → O / —t

eta:

[opt] → [ot]

Eta horra hor gure *gutizia*.

24.2. Lehenengo oharra: lege fonologikoak ez dira aldakaitzak. Beren erabil-epea dute, eta gero, kito. Gaurko gaztelaniaz, gonbarazio batez, ez da hau gertatzen:

[q̄r] → [w̄r]

Adibidez:

cine porno ≠ [θine pw̄r̄no]

Baina lehen:

portu → [pw̄r̄to]

corda → [kw̄r̄ða]

(euskaraz, jakina denez, aldakuntza hori gertatu ez bada ere:

—bortu, portu

—korda)

Beraz, aldakuntza fonologiko batzu, *lehen* gertatzen zirelako, ez dago zertan gaur berdin erabili beharrik.

Hots: zein dira *hil* diren joera fonologikoak (edo ñabardura fonetiko bereziak), eta zein, berriz, bizi direnak?

Eztabaida ez da batere erraza.

Gavel-ek *loi-morte*-tzat zeuzkan joera batzu, bizi-bizirik daude gaur:

$$\left\{ \begin{array}{c} p \\ t \\ k \end{array} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{array}{c} b \\ d \\ g \end{array} \right\} / \quad \# \quad \text{—}$$

idatz daitekeena, esate baterako, *hila* omen zegoen; baina aski du irakurleak (6.3.1.) puntua irakurtzea, hori guztiz egia ez dela ohartzeko.

- 24.3. Hitzaurrean erakutsi dugunez, bestalde, segun-eta *noren abotan*, lege bera izan daiteke *hila* edo *bizia*.

Euskara *suntsitzen* ari baita (eta ez *aldatzen* bakarrik), joera-aldaketa eskergak daude belaur batetik bestera. Gurasoek normaltzat daukaten legea seme-alabek *hildakotzat* daukate: herri berean eta etxe berean.

Era berean, baserritarren artean edo arrantzaleen artean; alegia: *interferentzia txikiagotan* bizi diren euskaldun jatorren artean, guztiz normal eta *bizitzat* eman daitezkeen erregela berberak, *hildakotzat* eman daitezke kaletarren artean.

Zer dugun *bizirik* eta zer dugun *hilik* erabakitzea, horregatik, oso zaila da, ezinezkoa hobe. Ez baitago inolako jarraitasunik euskaldunen munduan.

Euskal Herria, hizkuntzaren sail honetan, beste askotan bezalaxe, *etenduraz* betea da; eta zinez dago bere buruarekiko arrosaturik eta bestelakoturik.

Herri xeheak *gubernua* esaten duen herri berean, politikari famatuak *gobiernua* esaten du [gob̺j̺ɛ̺ɾ̺nua], erabat bertako lege zaharraren kontra (baina, noski, españolaren arauera).

Eta baserritarrak *asentua* esaten badu, kaletarrak *asientua* dio lasai [a̺s̺j̺ɛ̺ntua], diptongo goranzkoen kontrako joera zaharrari uko eginez. Hona hemen, adibidez, Ana Mari Etxaidek Nafarroako euskaldunen artean aurkitu duena (diptongo *goranzkoei* buruz, hain zuzen ere):

«Se observa curiosamente una *diferencia gradual* en la resistencia a la pronunciación de esos diptongos» (F.L. 25, 70)...
«En Unanua (Barrankan, beraz), *población menos castellanizada*, son frecuentes las monoptongaciones».

Non da metroa, beraz? Unanuan? Irañetan? Etxarrin? Zergatik Irañetan eta ez Unanuan?

Interferentziarik *gabe* (edo interferentzia txikiekin) mintzo diren nafartarrak Unanuan daude, jakina. Aurreko ikaskaian (23.ean) azaldu dugun gutzia kontutan hartuz, Unanua hartu behar genuke gidaritzat; eta ez Irurtzun.

Baina arazoa ez da beti erraza. Horren *bertsiki* jokatuz gero, gure hizkera teknikoak halako kutsu arkaiko edo zaharkotea hartuko luke.

24.3.1. Adibidez:

cobdicia → gutizia
Horretaz, *abdomen*?

Teorian dudarik ez dago:

[abdomen] → [apdomen] → [aptomen] → [atomen]

Txirritak edo Iturzaetak lasai asko botako zuketen:

atomenian miña det

Zilegi ote da, ordea, [atomen] ahoskatzea?

Are garbiago: zilegi ote da *atomen* (sic) idaztea?

Eta beraz,

atominala,

eta abar...

U.Z.E.I.-ren inguruan ari diren euskaltzale saiatuek ezetz uste dute; eta gauza bera U.E.U.-ren langintzan dihardutenek ere:

Atomen idaztea ez dute onartzen; eta [atomen] ahoskatzea ere ez; askotan bederen.

Zuzen ahal da irizpide hori, ordea?

24.4. Eman dezagun hitz hau:

gazt.: *constitución*

Nola hartu behar da euskaraz?

Haserako [k] ozentzea gogortxo zaigu:

[gonstitution]

Bestetik, orain arte bederen:

[nšt] → [št]

[egon ístampat]

esaten baitu herriak.

ión hori, berriz, [io] edo [iɲo] esateko, ez litzateke arazo larri-
rik izango.

Beraz:

constitución = [goštítusi(ɲ)o]

Baia? Eta:

gostituzio idatziko?

Berriro ere: euskararen berrikuntzan ari diren euskaltzaleek ez dute hori onartzen: idazkera hori inola ere ez; eta ahoskera *herriko* horiek ere ez, eskuarki bederen.

Arazoa ez da batere garbia, dena dela.

24.5. Has gaitezen *idazkeratik*: *izkribuz* agertuko diren letra-segide-
tatik. Zenbait herri gaztek (Finlandia-k, adibidez) *aldakuntza*
*fonetiko*en arauerako *grafia* ere hartu dute eredutzat.

Aspaldidanik entzuna dudan etsenplua emanetz:

propaganda = *ropakanta*

onartu omen dute.

Guk, horretara: *gosituzio*, *manku-etxe*, *garkuru* (eta *garkuratu*), *lizifriña*, *erredatatu*, eta abar, onartu behar genituzkeen.

Zenbaitek, ordea, horiek ikusita, farre egiten du (baina ez, dena aitortzeko, liburu honen egileak!).

Hitz horiek, esaten zaigu, *begi-bidez* etorri zaizkigu; eta *begien* maila horretan, oso antzekoak dira (edo berdin berdinak ere askotan) Europako hizkuntza guztietan.

Cálculo, beraz, *kalkulo* (edo *kalkulu* gehienez); baina inola ere ez *garkulu* edo *garkuru* (nahiz herriak *garkulatu* esan euskalki askotan). Hala ere, euskaltzale horiei berei ez zaie bidezko iruditzen, eman dezagun, *konstituziona* izkiriatzea.

(Alegia: *-ziona* eta ez *-zioa*). Zergatik?, non da metroa?

Erantzuna ez da erraza. Baina hemen arazoa dagoena adierazi nahi dugu, besterik gabe; soluzioak denon artean bilatuz joateko.

—*ción* = —*zio*, ongi omen dago.

ca— = *ga*—, gaizki, ordea.

Zergatik?

24.5.1. Arazoak behin eta berriz gertatzen dira:

universidad → *unibertsitate*

Beraz:

rs → *rts* (afrikazioa *idatziz eta ahoskatuz*).

dad → *tate* (gutziz jator, jakina; baina zahar-kutsuaz...).

Horretaz:

inseminación → *intseminazio*

inserción → *intsertzio*

inversión → *inbertsio*

Beraz: afrikazioa *ahoskeran* eta *idazkeran* ere onartu da.

Halere:

amnistía → *anistia*? (Zergatik ez, ordea? Hor
dugu *kondenatu*...)

reacción → zergatik ez *erreatzio*?

(*afrikazioz*, gorago (21.6.2.) emandako etsen-
pluen ildotik: *atsolbitu*, *setsu*, *etsenplu*, eta abar.)

Herriak, bestalde, *azio* dio *acción* esateko (iturburutzat [akθjón]
hartuta).

Hots, oker ez banago, *erreakzio* proposatzen da; are *reakzio* bera
ere...

Zergatik?

24.6. Era berean, zerrenda hau ikusita:

| | | |
|-------------------|---|-------------------------------|
| erd. <i>trato</i> | = | eusk. <i>tratu</i> |
| <i>momento</i> | = | <i>mementu</i> |
| <i>-mento</i> | = | <i>-mentu</i> , <i>-mendu</i> |
| <i>respeto</i> | = | <i>errespetu</i> |
| <i>-ado</i> | = | <i>-atu</i> |
| <i>dinero</i> | = | <i>diru</i> |
| <i>discípulo</i> | = | <i>dizipulu</i> |
| <i>claro</i> | = | <i>laru</i> |
| <i>asunto</i> | = | <i>ausuntu</i> , B, Mark., 31 |

Eta beste mila, *-o* bukaera gaztelaniari dagokiola; eta, euskarari,
berriz, *askotan bederen, -u*.

Begi-bidea dela-ta, ordea, euskal joera fonetiko zaharraren kon-
tra datorren *grafia* onartzeko gogoia bide dago: *banko*, *segundo*,
kimiko, *errelatibo*, edo abar.

Nahiz kasu batzutan *-o* agertu (*kanpo*, eta ez *ganbu*), ahal den
neurrian amaierazko *-u* horri eutsi behar litzaiokeela dirudi;
batez ere, ezkerretan [+high] duen bokale bat datorrenean:
artikulu (ez *artikulo*), *karburu* (ez *karburo*), eta abar.

24.7. Nolanahi ere, *begi-bidez* sartu diren hitz teknikoetan *begi-bidezko* itxura horretan utzi behar direla-ta, irizpide oso orokorra da *ph*, *ps* eta *psy* grafiak erraztu ondoren, bederen, idazkera *jakin-tsua* nagusitu dela dirudi.

Bego hori, beraz. Idatz ditzagun *kultur-bitz* teknikoak, Europako *kultur-bizkuntzetan* idazten diren bezala, edo bezalatsu bederen.

24.7.1. *Nola irakur, ordea?*

Herriak euskaldunduko ditu esateak ez du funtsik. Hain zuzen ere, 23. kapituluan erakutsi dugun bezala, euskal erregela fonologikoak galdutzat eman behar dira gaur; baita euskaldun jatorren artean ere. Hauetxek ere, gauzak *hobeki esan beharrez, erdal* erregela fonologikoak eta *erdal* ezaugarri multzoak hobesten dituztelako. Hemendik aurrera, Euskal Herriak, berez, eta instituzioen laguntza gabe, ezer gutxi euskaldunduko du. Euskal Herria odol hustuta dago maila guztietan, eta Fonologia/Fonetikaren mailan ere bai. Euskara ez da ingelesa edo txinoa. U.S.A.-ko Akademiak edozein grafia ontzat emanik ere, nekez utziko dituzte ingelesek eta amerikarrek beren ahoskera-legeak.

Ameriketean (ere Frantzian edo Italian ere!) egoki izan daitezkeen jokabide berak, oso desegoki eta arriskugarri gerta daitezke Euskal Herri ezin ahulago honetan.

Grafia arrotz horiek, hain zuzen ere, *arrisku larria* dira euskal fonetikaren etorkizunari buruz. *Ondo* egin nahiz, jendeak *gaztelaniaz* irakurriko lituzkeen bezala irakurtzen ditu grafia horiek:

bait du = [baj̥t̪ du] edo [baj̥t̪du]

(sekula es [baj̥tu]).

erreakzio = [eʔeaksio] edo [eʔeasio]

(sekula ez [eʔeasio]).

inseminazio, grafia horretan:

[inʃeminasio]; ez [inʃeminasio]

(baina grafian *ts* ikusiz gero, orduan [ʃ]; edo [ç] bederen...)

Atzera egiten duen *Euskara Batu* horrek (nahiz *Batu* ez izan), horregatik nazkatzen ditu bazterrak: *fonetikaren* mailan (hala ere!) artifizial eta prefabrikatu kutsua duelako.

24.8. Soluzioa, hitz batez, hau izan daiteke:

(A) *Grafia, internazionala* (edo hor nonbait).

(B) *Ahoskera euskalduna*.

Baina hau ez da batera erraza. Hizkuntza teknikoan agertzen diren aldrebeskeriak: *db, bd, psi, tm, kz*, eta beste mila, *euskal modura* irakurtzea, jendeak ez daki.

Españolez (edo frantsesez) nola irakurriko liratekeen denek ongi badakite ere.

Honetarako *Euskal Ortoepia finkatu* behar luke Euskaltzaindiak, zehazki finkatu, gainera; eta, berehala, liburu bidez eta ikastaldi berezitan, *erakatsi behar luke*.

Eta ideia nagusi bat hedatzen saiatu beharra dago, jadanik: *euskaraz ez dela, idatzirik dagoena, bere horretan irakurtzen. Euskaraz, frantsesez edo ingelesez bezala, oso urrun daudela kodigo idatzia eta kodigo mintzatua*.

Frantsesez, esate baterako, hau erakatsi ziguten.

ai, e ahoskatzen da
oi, uá ahoskatzen da
—*e*, ez da ahoskatzen
gn, ñ ahoskatzen da
eta *abar*.

Euskaraz, era berean, horrelako legeak eman behar dira:

ez n—, en— esaten da
bait g—, baik esaten da
—*oa, ua* esaten da
in, ñ esaten da
eta *abar...*

Lege horiek zein diren *Euskaltzaindiak* behar du erabaki. Eta, *funtzionala* izango bada, *azkar* behar du erabaki.

Erabakizun horietan liburu hau eragile gertatu bazaio, beste saririk ez nuke behar.

I. ERASKINA

TRANSKRIBAKETA FONETIKOETAN

erabili ohi diren zeinuak

0. Hemen hiru alfabetu aipatuko dira:

1. API — Alphabet Phonétique International.
2. Fil. — Alfabeto de Filología Española.
3. Ethn. — Alphabet de l'Institut d'Ethnologie.

Batzutan *gureak* esanez, euskal hizkuntzariak, eta K. Mitxelena bereziki, eskuarki erabili izan dituen zeinuak dira.

- 0.1. Euskarak dituen *frikarien* eta *afrikatuen* multzo hirukoitzek (alegia, euskaraz: *z*, *s*, eta *x* batetik; eta *tz*, *ts* eta *tx* idatzi ohi direnek), arazoak sortzen dituzte alfabeto guztietan. Eta horretatik heldu da alfabeto horiek ere, euskarazko transkribaketetan, nolazpait bederen birmoldatu eta *guretu* beharra; geroago ageriko denez.

1. EUSKAL BOKALEAK

1.1. Bokale sudurkariak: [Ṽ]

- 1.1.1. Batzutan bokalearen ONDOKO kontsonante sudurkariak, kutsatu egiten dio bokaleari bere sudurrezkotasuna. Adibidez: *mēdi* hitzak ahoskera hau hartzen du: [mē̃̃di]

Baina Fonetikak erakutsi duenez, askoz ere *sudurkariago* gertatzen dira egiazko fonema sudurkariak (frantsesez aurkitzen direnak, esate baterako), *kutsaturik* sudurreztatzen diren bokale hauek baino.

Hori dela-eta, eta API-ak markatzen duen bideari jarraituz, hemen ez dira \tilde{V} gisa transkribatuko hein batez sudurkari gerta daitezkeen kutsadurazko bokale horiek. Baina zenbait ikertzailek (Larrasketa-k, esate baterako, euskal fonetikari buruz) \tilde{V} markatu izan dituzte horiek ere. Larrasketa-k [ãñáye] transkribatzen zuena, beraz (Le Basque de la Soule Orientale, 61 = anaie), guk hemen [anáye] emango dugu; nahiz bi *a* horiek, saihetseko kutsaketaz, [ã] eman hein batez.


- 1.1.2. Beste batzutan, berriz, eta frantsesez bezala ([bo] vs. [bō]; alegia, *beau* eta *bon*), benetako bokale SUDURKARIAK entzun daitezke euskaraz: R, eta S; nahiz aldamenean kontsonante sudurkaririk ez egon: (R) [ěθuř] (= hezur); (S) [ũhũě] (= ohore). Eta kasu hauetan V transkribatuko ditugu.

1.2. *Bokale ahokariak: [V]*

- 1.2.1. Euskaraz *bost* fonema daude bokaleen mailan: /i, e, a, o, u/.

Zubereraz, dena dela, [ü] soinua ere entzun daiteke; u → ü itxituraren inguramendu-legeak zehazki ezagutzen direlarik.

- 1.2.2. Idekiera ERTAINAK hauek dira Hellwag-en triangeluan:



1.2.3. *Zubererazko* [ü], idekierari dagokionez, hurbilago dago (2) mailatik, (1) mailatik baino; eta borobildua da, /o/ eta /u/ bezala.

Azentua daramaten silabetan (11) artikulazio-puntuaren inguruan artikulatzen bada ere ([d^hü^hsü], = duzu); azenturik gabeko silabetan zentralizatu egiten bide da (22): ([ge^rthá-tö], = gertatu); frantsesezko [ö]-tik, (ad. peu, feu), frantsesezko [ø]-tik, (ad. lu, su) baino hurbilago gertatzen delarik (ikus I. Kap.).

1.2.4. Ahoskera ertain horiei dagozkien transkribakerak, hauek dira:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|------|-------|
| <i>i</i> | i | í | i |
| <i>e</i> | e | e | e |
| <i>a</i> | a | a | a |
| <i>o</i> | o | o | o |
| <i>u</i> | u | u | u |
| <i>ü</i> | ø | ö | ö |

Eta gogoan har irudi hauek:

— Aurreko sailean parentesi artean datozenak, ondokoen *kide borobilduak* dira.


— Hau dela-ta, *zubererari* dagokionez bereziki, hau gertatzen da:

o ~ [ø] (= ɔ)

u ~ [ø] (= o)


ü ~ [ö] (= ø) (Larrasquet, 33-34)

78.ir.



(A.P. I.)

79.ir.



(Fil.)

Adibidez:

düzü (1) [dʏsʏ], (2) [dűsű], (3) [dűsű]
(gazteen artean batez ere)

gerthatü (1) [gęřthátø], (2) [gęřthátö], (3) [gęřthátö]

1.2.5. Ondoko fonemaren eraginez, edo beste zernahirengatik, bokalea *hetsi* egin dela bereziki adierazi nahi bada, *puntu* bat erantsiko dugu bokalearen azpian:

ę, ę, eta abar.

Eta, itzuletara, bokalea *zabaldu* egin dela adieraztekotan, *koma* bat erantsiko dugu bokalearen azpian:

ę, ę, eta abar.

Eta transkribaketa hauek genituzke:

berri (1) [bęri], (2) [bęri], (3) [bęri]
etxe (1) [ęt/e], (2) [ęęe], (3) [ęęe]
dorre (1) [dęre], (2) [dęre], (3) [dęre]
goxo (1) [gø/o], (2) [gøšo], (3) [gøšo]

Hemen, dena dela, eta euskaraz ñabardura horiek balio fonologikorik ez dutenez gero, noiztenka baizik ez ditugu azpiko marka horiek erabiliko.

2. EUSKAL BOKALERDIAK

Diptongo *beheranzkoen bigarren parteari* deritzo bokalerdi.

Euskaraz, beraz, eskuarki bederen, $\underset{\cdot}{i}$ eta $\underset{\cdot}{u}$ izan daitezke:

Adibidez:

ai — zelai, aita
 ei — hodei, sei
 oi — oihal, bakoitz
 au — gauza, gau
 eu — eutsi, euli

Diptongo horien transkribaketak hauek dira:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|-------------------------|----------------|
| <i>ai</i> | ai | a $\underset{\cdot}{i}$ | a ⁱ |
| <i>ei</i> | ei | e $\underset{\cdot}{i}$ | e ⁱ |
| <i>oi</i> | oi | o $\underset{\cdot}{i}$ | o ⁱ |
| <i>au</i> | au | a $\underset{\cdot}{u}$ | a ^u |
| <i>eu</i> | eu | e $\underset{\cdot}{u}$ | e ^u |

API-an, beraz, *ai* diptongoa eta *ai* bisilabikoa nahastea gerta daiteke.

Kasu horretan (eta euskaraz nahasketa hori gerta daiteke), API-ak, behar izanez gero, $\underset{\cdot}{i}$ eta $\underset{\cdot}{u}$ idaztea proposatzen du:

a $\underset{\cdot}{i}$, e $\underset{\cdot}{i}$, o $\underset{\cdot}{i}$, a $\underset{\cdot}{u}$ eta e $\underset{\cdot}{u}$, beraz.

Baina, berriro ere, «*it is not as a rule necessary to insert this mark*» (API, 1972, 31).

Eta transkribaketa hauek izango genituzke:

aita (API) [aita] (edo-ta, [a $\underset{\cdot}{i}$ ta])
 (Fil.) [a $\underset{\cdot}{i}$ ta]
 (Ethn.) [aⁱta]

gauza (API) [gausa] (edo-ta, [gaŭsa])
 (Fil.) [gaɻsa]
 (Ethn.) [ga^usa]

3. EUSKAL KONTSONANTERDIAK

Diptongo *goranzkoen lehenengo parteari* deritzo kontsonanterdi.

Euskaraz hau dugu euskalki guztietan: *ui*.

Baina *ia*, *ie*, *io*, *ua* eta *ue* diptongoak ere gertatzen dira Ekialdeko euskalkietan.

Transkribakerak hauek dira:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|------|----------------|
| <i>ui</i> | wi | wi | ^u i |
| <i>ia</i> | ja | ja | ⁱ a |
| <i>ie</i> | je | je | ⁱ e |
| <i>io</i> | jo | jo | ⁱ o |
| <i>ua</i> | wa | wa | ^u a |
| <i>ue</i> | we | we | ^u e |

Adibidez:

otadui (API) [otaδwi]
 (Fil.) [otaɖwi]
 (Ethn.) [otaɖ^ui]

diagu (API) [djaɻu]
 (Fil.) [djaɻu]
 (Ethn.) [dⁱagu]

Oharra: (API)-an *afrikazioa* bereziki adierazi nahi izanez gero, [dⁱjaɻu] idatziko genuke: [dⁱjaɻu] ≠ [djaɻu].

Fonetika hutsez, dena dela, soinu bera adierazten dute hiru sinbolo hauek (API): dⁱ, J eta d̥. Ikus segida.

4. KONTSONANTEAK

4.1. *Leberkariak*

4.1.1. *Gorrak*: p, t, k. Berdin hiru alfabetoetan.

4.1.2. *Ozenak*: b, d, g. Gauza bera.

4.1.3. *Frikariak* (espirante), bokale artean.

(API): β, δ, γ

(Fil.): ʔ, ɖ, ɣ.

(Ethn.): ʔ, ɖ, ɣ.

4.1.4. *Aspiratuak*; Euskaltzaindiaren arauera: ph, th, kh.

(API): ph, th, kh.

(Fil.): berez zeinu berezirik ez badu ere, euskal transkribaketan: ph, th, kh, erabil daitezke.

(Ethn.): p^c, t^c, k^c.

Adibidez:

| | | |
|-----------------|---------|-----------|
| <i>ez dakit</i> | (API) | [estakit] |
| | (Fil.) | [estakit] |
| | (Ethn.) | [estakit] |

| | | |
|----------------|---------|----------|
| <i>hobe da</i> | (API) | [hoβeða] |
| | (Fil.) | [hobeda] |
| | (Ethn.) | [hobeda] |

| | | |
|-------------------|---------|----------------------|
| <i>urthe</i> (BN) | (API) | [urthe] |
| | (Fil.) | [urthe] |
| | (Ethn.) | [urt ^c e] |

| | | |
|-------------|---------|--------|
| <i>bide</i> | (API) | [biðe] |
| | (Fil.) | [bide] |
| | (Ethn.) | [bide] |

4.1.4.1. *Obarra*: Nahiz zenbait aldiz, eta *Filologikoari* dagokiones, ɖ eta z zeinuak elkarren kidetzat agertu, hobe da honela erabiltzea:

[d̥]: alegia, *d*-ren frikaria, bokaleen arteko (eta ez ozenen aurreko) *d* leherkariaren truke erabiltzea.

[z]: berriz, [θ] egiazko frikari gorraren kide ozena izanik, gaztelaniaz baliagarri (*hazme*, [azme]), euskarazko transkribaketetan baztertzea onena.

4.1.5. Leherkari bustiak.

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-------------|-----|------|-------|
| <i>tt</i> | t̥ | t̥ | t' |
| <i>dd</i> | | | |
| (1) leherk. | d̥ | ɥ̥ | d' |
| (2) frik. | j | y | y |

Oharra: API-ari dagokionez, zenbait aldiz [c] eta [j] erabiltzen dira *tt* eta *dd* leherkaria transkribatzeko.

Adibidez:

pattarra (1) [paɰara] (2) [paɰaɸa], (3) [pat'aɸa]
edo-ta [pacara],
edderra (1) [eɰera] (2) [eyeɸa], (3) [eyeɸa]
onddo (1) [oɰɰo] (2) [oɰɰo], (3) [oɰd'o]
edo-ta [oɰɰo]

4.1.5.1. Ohar bat honi buruz:

| API | Fil. |
|-----|------|
| j | j |
| j | y |
| d̥ | ɥ̥ |

Hitz batez:

Filologikoak j kontsonanterdia, eta y frikari sabaikari ozena, berezten ditu:

gazt. *cien* = Fil. [θjen]
 gazt. *payaso* = Fil. [payašo]

API-ak ez ditu berezten:

API [θjen]
 API [pajašo]

4.1.5.2. Beste aldetik, eta API-ri dagokionez:

API, [d̪] = [j]
 API, [t̪] = [c]

Beraz:

L. *jauna* = [d̪auna] = [Jauna]
 L. *ttoro* = [t̪oro] = [cofo]

4.2. Frikariak

4.2.1. Txistukariak eta txetxekariak

4.2.1.1. Gorago esandako arrazoinengatik, hiru alfabetuek, berenez eta ortodoxia hutsean, maingu agertzen zaizkigu euskarazko transkribaketetan.

API-ak bi zeinu ditu: *s* eta *f*.

Eta berdin Ethn.-ak: *s* eta *š*.

Guk euskaraz *s* idazten duguna *kakuminala* balitz, bagenuke soluzioa:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|------|-------|
| <i>s</i> | š | š | š |

Baina hori gaur *guxtiz egia* ez izanik, birmoldaketa bat egin behar da hiru alfabetuetan, eta honetara erabili:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|------|------|-------|
| z | [s] | [s] | [s] |
| s | [s̺] | [s̺] | [s̺] |
| x | [ʃ] | [š] | [š] |

Jakina: hiru frikari horiek *gorrak* dira.

Adibidez:

ezker (1) [esk̺er], (2) [esk̺er̄], (3) [esk̺er̄]
esker (1) [esk̺er], (2) [esk̺er], (3) [esk̺er]
xagu (1) [ʃaɣu], (2) [šagu], (3) [šagu]

4.2.1.2. Zenbait inguramendutan (m, n-ren aurrean, esate baterako), *ozenkuntza* gertatzen zaie frikariei (berez *gorrak* izanik ere): esne, asmo.

Bestetik, bokaleen artean bereziki, frikari ozenak entzun daitezke Ekialdeko euskalkietan (S, BN).

Eta, azkenekorik, onomatopeia batzutan, frikari edo afrikatu anormalak entzun daitezke: [θambe]. Ez beti *gorrak*, halere.

Hots, hemen erabiltzen ditugun hiru alfabetuok, bi frikari (ozen) mota besterik ez dute berezten:

API: z, eta ž.
 Ethn.: z, eta ž.

Ozenei buruz, hortaz, transkribakera hauek erabiliko ditugu:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|------------|------|------|-------|
| z (edo z̄) | [z] | [z] | [z] |
| s (edo s̄) | [z̺] | [z̺] | [z̺] |
| j | [ž] | [ž] | [ž] |

Eta hiru frikari hauek, esan dugunez, *ozenak* dira.

Adibidez:

plazera (S) (1) [płazera], (2) [płazera], (3) [płazera]

deusik (BN) (1) [deužik], (2) [deužik], (3) [de^užik]

joan (S) (1) [žoan], (2) [žoan], (3) [žoan]

baita, *ez dakit*, batzutan, API [ezdakit], asimilazio anormalez.

Hona hemen erdarazko adibide batzu:

Fil. [z] ... fr. disait, gazon, lisière.

[ž] ... gatz. asno, husmear.

[ž] ... fr. jour, jambe, jambon.

4.2.1.3. Erronkarietaz (R), z fonema [θ] ahoskatzen zen:

[θ] ... gatz. zorro, cerrar, circo, cena.

Adibidez:

zabarra ... R, [θāra], Fil.

Soinu horren transkribakerak hauek dira:

z (R) ... API, [θ]; Fil., [θ]; eta Ethn. [t̪].

4.2.2. *Beste frikariak:*

4.2.2.1. //f//

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|------------------------|-----|------|-------|
| <i>f</i> (ezp. horzk.) | f | f | f |
| <i>f</i> (ezpainbikoa) | ϕ | — | p |

Normalean API [f] entzuten da gaur (gatzelaniatzko edo frantsesetzko balio fonetiko berberarekin).

Gerta daiteke, ordea, ezpainbiko gorra entzutea (API, [ϕ]), Barrankan oraindik entzun daitekeen bezala:

fama ... [ϕama], AN. (ikus FLV, 25, 71).

4.2.2.2. /j/ (Gipuzkoako modura ahoskatua denean).

API [x] (= ja), [X] (= ju)
 Fil. [x], [x̣]
 Ethn. [x], [x]

Adibidez:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|--------------|----------------------|----------------------|----------------------|
| <i>jauna</i> | [xa ^u na] | [xa ^u na] | [xa ^u na] |
| <i>jun</i> | [Xun] | [x̣un] | [xun] |

Horixe da, jakina, gaztelaniaz entzuten den soinua: *jarro, jazmin, judas, judio*, eta abar.

Horien kide *ozenak* (*belarea* eta *ubularea*), hauek dira:

API: [ɣ] eta [ʁ]
 Fil.: [g] (eta [g̣])
 Ethn.: [g]

4.2.2.2.1. Egoera, beraz hau da:

A P I

| | belare | ubulare |
|------|--------|---------|
| gor | x | X |
| ozen | ɣ | ʁ |

[ʁ] hori Parisko frantsesez: *bibrazio*rik *gabe*.

Filologikoan hau genuke:

$$\frac{x}{g} = \frac{x̣}{g̣}$$

Normalean, dena dela, ñabardura ubulare edo belare horiek ez dira berezten: «*the sound X can generally be represented by the letter x*» (API, 27 g; 13. orr.).

4.2.2.3. Bokaleen arteko *j*, Nafarroan edo Lapurdin bezala ahoskatua.

Transkribaketa hau dugu:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|--------------|-----|------|-------|
| <i>y, dd</i> | j | y | y |

Adibidez:

Maddi (API) [maji]
 (Fil.) [mayi]
 (Ethn.) [mayi]

4.2.2.3.1. Bai *ʎ* eta *ɲ*-ren ondoren, bai zenbait aldiz hitz haseran, afrikatu egiten da soinu hori; eta orduan hauek dira idazkerak:

dd ... API [ʃ] = [d̥ʃ], Fil. [ʃ̂], eta Ethn. [dʰ]

jaz (API) [d̥ʃas]
 (Fil.) [ʃ̂as]
 (Ethn.) [dʰas]

4.2.2.4. /b/

Hiru alfabetuotan berdin:

bandi ... [handi].

4.3. *Albokoak*

Hona hemen kidetzak:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|------|-------|
| <i>l</i> | l | l | l |
| <i>ll</i> | ʎ | ʎ̂ | ʎ̂ |

Adibidez:

litzateke (API) [litsateke]
 (Fil.) [licateke]
 (Ethn.) [liʎateke]

llabur (API) [ʎaβur]
 (Fil.) [ʎabu̯r]
 (Ethn.) [ʎabu̯r]

Oharra: d, t-ren aurrean /l/ fonemak hartzen duen ñabardura fonetikoa adierazi nahi izanez gero, honela egingo da: [aʎde].

4.4. Dardarkariak

Eskuarki *apikariak* dira bi euskal dardarkariak; eta hau dugu:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. |
|-----------|-----|------|-------|
| <i>r</i> | r | r | r |
| <i>rr</i> | r | r̄ | r̄ |

Adibidez:

bare (API) [bare]
 (Fil.) [bare]
 (Ethn.) [bare]

barre (API) [bare]
 (Fil.) [ba̯re]
 (Ethn.) [ba̯re]

4.4.1. Frantsesaren eraginez, API [R] eta [ʎ] ahoskerak zabaldu dira Iparraldean *rr* esateko (ikus 4.2.2.2.).

Eta ahoskera hauek aurki daitezke:

berri (API) [beRi] (frantses arrunta, eta bibrazioz beraz)
 (API) [beʎi] (Paristarren modura, bibraziozik gabe)

4.5. Sudurkariak

Euskarak hiru fonema sudurkari ezagutzen ditu: /m/, /n/ eta /ñ/.

Baina eskuinaldeko fonemaren arauera, ezaguna denez, ña-
bardura desberdin asko hartzen dute.

Hona hemen transkribaketak:

| | |
|------------------|---|
| <i>gizon bat</i> | (API) [gisombat] (Fil.) [gisombat] (Ethn.) [gisombat] |
| <i>mairu</i> | (API) [maɻru] (Fil.) [majru] (Ethn.) [ma'ru] |
| <i>bandik</i> | (API) [haṅdik] (Fil.) [haṅdik] (Ethn.) [handik] |
| <i>ene</i> | [ene], hiruotan berdin. |
| <i>Iruñea</i> | (API) [iruṅea] (Fil.) [iruṅea] (Ethn.) [iruñea] |
| <i>hangoa</i> | (API) [haṅgoa] (Fil.) [haṅgoa] (Ethn.) [haṅgoa] |

beraz:

| | |
|----------|--|
| <i>m</i> | (API) [m] (Fil.) [m] (Ethn.) [m] |
| <i>n</i> | (API) [n] (Fil.) [n] (Ethn.) [n] |
| <i>ñ</i> | (API) [p] (Fil.) [ṅ] (Ethn.) [ñ] |

4.6. Afrikatuak

4.6.1. Afrikatu gorrak

Alegia, euskaraz *tz*, *ts* eta *tx* idazten direnak, eta normalak beraz.

API-ak DIGRAMAK proposatzen ditu, eta Mounin-en Hiztegian ere DIGRAMAK baizik ez dira ageri afrikatuen sailean (XXXVI. orr.). API-k hau dio: «*The following are the chief cases in which DIGRAPHS may be employed with advantage: a) To represent AFFRICATE CONSONANTS*» (ikus API, 1972, 29. puntua, 14. orr.).

Bi besterik ez du berezten, ordea: [ts] eta [tʃ].

Horretatik, nahi-ta-ez, aldakuntza bat egin behar, eta honela egokitu API delakoa euskarari buruz:

tz, API [ts]

ts, API [tʃ]

tx, API [tʃ]

Filologikoak, berriz, *bi* soinu berezten ditu, era berean; eta ez ez hiru. Eta zeinu hauek ditugu: [ʃ̂] batetik, eta [ĉ] edo [ʃ̂] bestetik. Adibidez: *coche* [koĉe] edo [koše]

Filologiko *ortodoxoak*, beraz, soluziorik ez du euskararentzat.

Baina, Mitxelena-ren bidetik, eta Ethnologique-tik hurbilago, zeinu hauek erabil daitezke: [c], [č] eta [ĉ].

Ethnologikoak, azkenik, berrik ere huts: [t̥] eta [č̥].

Eskuarki, beraz, kidetza hau dugu:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. | gurea |
|-----------|------|------------|-------|-------|
| <i>tz</i> | [ts] | [ʃ̂] | [t̥] | [c] |
| <i>ts</i> | [tʃ] | — | — | [č] |
| <i>tx</i> | [tʃ] | [ĉ] = [ʃ̂] | [č̥] | [č̥] |

4.6.2. Afrikatu ozenak

Lehenengo hurbilketa batez hau esan daiteke: afrikatu gorrik ez da euskaraz entzuten.

Hala ere, zenbait onomatopeiatan, eta zenbait kasutan, euskalki honetan edo hartan, hiru afrikatu horien kide ozenak entzun daitezke.

Eta kidetza hauek genituzke:

| Euskaltz. | API | Fil. | Ethn. | gurea |
|-----------|-------|------|-------|-------------------------|
| <i>dz</i> | [dz] | [ʒ̂] | [ɖ] | [dz] [dza] interj. |
| <i>ds</i> | [dʒ] | — | — | [dʒ] [udʒa] AN (ura) |
| <i>dj</i> | [dʒ̃] | [ʒ̂] | [j̃] | [dž] [džan] B, lek. |

5. KONTSONANTEEN MUTUKETA

Kontsonante baten mutuketa (ahoskabekuntza) bereziki markatu nahi denean, mututu den fonemaren azpian zero txiki bat jartzen da:

plaza ... Fil. [plasa]
trabena ... Fil. [trabena]

6. AZENTUA

Filologikoan eta Ethnologikoan azentu normala erabiltzen da, eskuarki bezala.

API-an, berriz, marra bertikal bat jartzen da azentua darman SILABAREN AURREAN:

API, [al'haβa] / [alha'βa];

Fil., Ethn., [alháβa] / [alhaβá]

Bigarren mailako bat berezi nahi bada, beherean jartzen da:

díjole ... API ['dixo,le]

AZKEN OHARRA: *liburu honetan, eta konposizio-lana erraztu nabiz, Alf. Filologikoaren arauera eman ditugu transkribaketak, eskuarki bederen.*

II. ERASKINA

HIRU TAULA NAGUSI ETA OHAR BATZU

II. Eraskina (A)

EUSKARAZKO SOINUAK

| | (1) | | (2) | | (3) | | (4) | | (5) | |
|-------------------------|----------------------|--------|---------------|------------|----------------------|--------|-------------|--------------|------------|--------------|
| | ezpain bik. | | ezpain horzk. | | horzk. | | bizkar-alb. | | apiko-alb. | |
| (A) leherk. ahok. | p p | b b | | | t t | d d | | | | |
| (B) leherk. sud. | | m m | ɱ ɱ | | | ɲ ɲ | | | | n n |
| (C) leherk. asp. | p ^h ph | | | | t ^h th | | | | | |
| (D) frikari, txapal. | ɸ p | β b | f f | (v) (v) | (θ) (θ) | δ ð | | | | ɾ ɾ |
| (E) frikari, erret. | | | | | s s | z z | s s | z z | ś ś | ź ź |
| (F) afrikatu | | | | | | | ts c | (dz) (dz) | tś ć | (dź) (dź) |
| (G) alboko | | | | | | l l | | | | l l |
| (H) dard. bak. | | | | | | | | | | r r |
| (H') dard. anizk. | | | | | | | | | | r r̄ |
| | — | + | — | + | — | + | — | + | — | + |

A.P.I. — goiko zeinua

Fil. — beherekoa

(KONTSONANTEAK)

| (6) | (7') | (7) | (8) | (9) | (10) | |
|--------------------------|------------|------------------|----------------------|--------------------|----------------------|--------------------|
| kakum. (= retroflexu) | sabaiaurr. | sabaik. | belare | ubul. | glot. | |
| | | c c̣ | J ḍ | k g g̣ | | |
| | | | n ṇ | ŋ ŋ̣ | | |
| | | | k ^h kh | | | |
| | | (ç) (y) ẏ | j y | x x̣ ɣ g̣ | (X) (B) (x̣) (g̣) | h ḥ f f̣ |
| ʃ ʃ̣ | ʒ ʒ̣ | ʃ̣ ʒ̣ | ʃ̣ ʒ̣ | | | |
| tʃ ç̣ | dʒ dʒ̣ | tʃ̣ č̣ | (tʃ̣) (č̣) | (d̄j) (ĵ) | | |
| | | | ʌ ḷ | | | |
| | | | | R Ṛ | | |
| | | | | Ř Ṛ̌ | | |
| — + | — + | — + | — + | — + | — + | |

+ ozena, [+ahots]
 — gorra, [—ahots]

EUSKAL FONEMAK (KONTSONANTEAK)

(Euskaltzaindiaren arauerako idazkeraz)

| | ezpain bik. | ezpain horzk. | horzk. | bizkar alb. | apiko- -alb. | sabaiaurr. eta sabaik. | belare | glot. |
|-------------|----------------|------------------|--------|----------------|-----------------|------------------------------|--------|-------|
| l. gorrak | p | | t | | | tt | k | |
| (l). ozenak | b | | d | | | dd,(j) | g | |
| l. sudurk. | m | | | | n | ñ | | |
| frik. | | f | | | (r) | | (j) | h |
| txistuk. | | | | z | s | x | | |
| afrik. | | | | tz | ts | tx | | |
| alb. | | | | | l | ll | | |
| dard. xam. | | | | | r | | | |
| dard. azk. | | | | | rr | | | |

Oharra: Taula hau, eroso izanik ere, ahoskera fonetikoetatik urrun gelditzen da maiz. /j/ fonema, jakina denez, oso desberdinzki ahoskatzen da.



II. Eraskina (C)

A.P.I.-án AGERTZEN DEN SAILKETA

| Consonants | bilabial | labiodental | dental and alveolar | retroflex | palato-alveolar | alveolo-palatal | palatal | velar | uvular | pharyngeal | glottal |
|------------|----------|-------------|---------------------|-----------|-----------------|-----------------|---------|-------|--------|------------|---------|
| Plosive | p b | | t d | ʈ ɖ | | | c ɟ | k g | q ɢ | | ʔ |
| Nasal | m | ɱ | n | ɳ | | | ɲ | ŋ | ɴ | | |
| Lateral | | | l | ɭ | | | ʎ | | | | |
| Rolled | | | r | | | | | ʀ | | | |
| Flapped | | | ɾ | ɽ | | | | ʀ | | | |
| Fricative | ɸ β | f v | θ ð s z ʃ | ʂ ʐ | ʃ ʒ | ç ʝ | ç j | x ɣ | X ʁ | ħ ʕ | h ɦ |

OHAR BATZU TAULEI BURUZ

- 1 [k], [g] eta [x] belareek, ondoko bokalearen arauera, aski aldatzen dute beren artikulazio-puntua:



Aldakuntza akustiko eta fisiologiko horretxan arauera azaltzen dira latinaren hiru grafema, [k]-ri dagokionez:

$c = [k^j]$

$q = [k^w]$

$k =$ bien artekoak: [ka]

Euskara Batuaz, dena dela, leherkari gor guztientzat erabiltzen da k letra.

Fenomeno bera gertatzen zaie gainerako belareei: [g], [g], [x], eta abar.

Denak, halere, *belare* agertzen dira taula horretan.

- 2 Leherkari aspiratuak *ph*, *th* eta *kh* idatzirik ere, soinu *bakunak* dira; eta *muga silabikorik* ez dago leherkariaren eta aspirazioaren artean.

Ez da gauza bera gertatzen, liburuan barrena ere adierazi dugunez, *lh*, *nh* eta *rh* grafema bikoitzekin; hauetan fonema *bikunak* baititugu, eta muga silabikoa *sonantearen eta aspiratuaren artean* baitago.

Leherkari aspiratuen eta gorren arteko desberdintasunak, oso balio fonologiko txikia du; eta hau zubereraz bakarrik.

- 3 [Φ] soinua eta [Θ] soinua ez dira eskuarki entzuten, baina badaezpada ere ematea bidezkoa iruditu zaigu.

[Φ] ezpainbikoa, // fonema ebakitzeko, Barrankan entzun bide daiteke (Ana M. Etxaide); eta [Θ] hortzartekoa, /z/ fonema ebakitzeko, Erronkariko euskaraz entzuten zen.

Bai [h] bai [ħ] ebakerak, /b/ fonema ebakitzerakoan entzun daitezke Iparraldeko euskalkietan. Diferentzia fonetiko hori, dena dela, ez da inoiz fonologikoa. Hegoaldeko euskalkietan /b/ fonema [Ø] ebakitzen da (= ez da ebakitzen, alegia); gaztelaniaz gertatzen denaren arauera. (Salbuespenak eta xehetasunak 11. kapituluan).

- 4 [š], [ž], [č] eta [dž] soinuak, egiazki *sabaikariak* ote diren eztabaida daiteke; ala, *hobeki*, eta inguruko hizkuntzen arauera *sabaiaurrekoak*. Hala ere, eta Fonologiaren mailan bidezkoago iruditzen zaigu sabaikariekin batera kokatzea (ikus II. Eraskina «B»).

Era berean, eta euskalkitik euskalkira aldatzean, [s] eta [ś] txistukarien moldea ere aldatzen da. Eskuarki, halere, *bizkar-albeolare* eta *apiko-albeolaretzat* jo daitezke (zenbait aldiz, eta 8. kapituluaz azalduenez, *kakuminal* agertzen badira ere).

Esana dugu ere, behin eta berriz, jatorrizko [ś] *kakuminala* (= retroflexua) izan dela euskaraz; gaur oraindik zenbait lekutan, eta adineko jendeen artean bereziki, artikulatzen den bezala.

Euskaltzaindiaren idazkeraz *s* eta *ts* markatzen ditugunez, beraz, [ś] eta [ć] diren neurrian, *albeolare ez*, baina *retroflexuak* direla esan daiteke; zutabez aldaraziz.

Ohar bera [š] eta [č]-ri buruz. Euskaraz *bizkarraurreko sabaiaurreko* izanik (= *prédorso-prépalatal*), funtsean zutabe berezian jarri behar lirerateke; eta (B) taula fonologikoa ez da batere zehatza, sentidu horretan.

Sabaikariak, funtsean, *bizkar-sabaikariak* direlako; eta ez gainerrakoak. «Seules sont qualifiées de *palatales les dorsales articulées contre le palais dur*» (Elém., Martinet, 51). Eta hauek ematen:

- l'occlusive sourde, [t̪] (API, *c*)
- l'occlusive sonore, [d̪] (API, *d*)
- la nasale palatale, [ɲ] (API, *n*)

(Martinet, Elém. Phon.)

- 5 [dz] eta [dž] ez dira eskuarki entzuten; baina Azkuek aipatzen duen *udsa* delakoa (= *ura*), [udža] edo [uža] litzateke transkribaketa fonetikoan.
- 6 [R] ebakera ez da normala euskaraz; baina, frantsesaren eraginez, Iparraldeko jende eskolatuen ahotan entzun daiteke.

- 7 [m], [n], [l], eta abar, *ozen* gisa agertzen dira taulan; eta hala-koak dira euskaraz, normalean. Gerta daiteke, halere, gorturik ebakitzea kasu berezitan. Aski da orduan letraren azpian zero txiki bat erastea: [l̥], [n̥], eta abar: [p̥l̥asa], [k̥f̥uce].
- 8 Artikulazio-puntuari dagokionez *frikarien artean* sailketak egin badaitezke ere, beste hau ere kontutan hartu behar da: D lerroko frikarietan, *txapal* gelditzen dela mihia (O, x, eta abar); E lerrokoetan, berriz (s, z, ś, ź, eta abar) *erreten-itxuran* agertzen delarik (ikus 8. kap.).
- 9 A.P.I. eta Filologikoaren arteko *kidetasunak ikusteko* («C» taulari buruz, eman dezagun), ikus I. Eraskina.
- 10 Ongi berezi behar dira:

/f/ ezpainbikoa = [ϕ]

zero = [∅]

III. ERASKINA


FONOLOGIA BATURANTZ

(Zenbait proposamendu)

Bergara, 1978-IX-6

1. BOKALEAK (erd. vocales, voyelles)
- 1.1. Bost fonema ahokari onartzen dira Euskal Fonologia Batuan bokaleen sailean: /i, e, a, o, u/.
- 1.2. Beroien balio fonetikoaz luzaz hitzegin baliteke ere (inguramendu fonikoaren eragina, zabalera txikiko euskalki aldakuntzak, eta abar), gaur euskaraz eskuarki duten balio fonetikoa izango dute. Hellwag-en triangeluaren arauera finkatzekotan:

82.ir.



- 1.3. Nafarroako zenbait lekutan entzuten diren [ɔ] hetsiak [dɔʂɔ] (= duzu); Bizkaiko kostaldeko [ae]-ak [burúae], eta abar, lekuan lekuko euskalki mailako ebakeratzat uzten dira alde batera.
- 1.4. Zuberoako /ü/ soinua (eta Lapurdiko eta Baxenabarreko zenbait lekutan ere fonema maila iritsi gabe entzun daitekeen soinua) ez da Fonologia Batuaren ebakeretan sartzen.
- 1.5. Fonema sudurkariak /ã, ẽ, õ, ù/, era berean, zubereraz batez ere bizirik, euskalki mailako fenomenotzat jo, eta bazterturik uzten dira.

2. KONTSONANTEAK (erd. consonantes, consonnes).

2.1. Leberkariak (erd. oclusivas, occlusives)

- 2.1.1. *Gor/ozen* bikotezko korrelaziotan agertzen diren zortzi fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{tt}{dd} = \frac{k}{g} \quad \begin{array}{l} \text{(gor)} \\ \text{(ozen)} \end{array}$$

- 2.1.2. Beroien balio fonetikoa, berbera gaur Euskal Herri guztian, hau izango da:

$$\frac{[p]}{[b]} = \frac{[t]}{[d]} = \frac{[t̺]}{[d̺]} = \frac{[k]}{[g]}$$

- 2.1.3. *dd* idazkerak, horretara (Maddi, Maddalen), [d̺] adierazten du; alegia, [y] soinua, gaztelaniaz *y* idatzia (ayuno).
- 2.1.4. *tt* idazkerak, berriz, (ttantta, ttoro), kiderik ez du ondoko erdatan; eta honetara ahoskatuko da: [t̺ant̺a], [t̺oro].
- 2.1.5. Askotan, *tt* eta *dd* idazkerak, jatorrizko *it* eta *id* idaroki baditzake ere [ditut, ito], alegia: *ditut, ito*; ez da hori beti gertatzen (lehen aipatutako, *ttantta ttoro*). Ebakera bustia lehenengoetan beharrezkoa ez bada ere, bigarrenetan beharrezkotzat jotzen da.

2.1.6. /b, d, g/ ozenak, bokale artean gertatzen direnean, espirante egiten dira eskuarki; eta gaztelaniaz gertatzen denaren arauera, baina frantsesez gertatzen denaren aurka, [b̥], [d̥] eta [g̥] ebakitzen. Posizio hauetan, beraz, gaitzetsi egiten da /b, d, g/ fonemak leherkari gisa ahoskatzea.

2.1.7. Iparraldean zenbait kasutan gertatzen den ebakera hasperendua [ephe, uŕthe, bekhatu], euskalki mailako fenomenotzat jo, eta Fonologia Batuan baztertu egiten da.

2.2. Frikariak (erd. fricativas, fricatives)

2.2.1. Euskalkiren batez fonema bizkarraurrekoaren eta apikarien arteko desberdintasuna: /z/ ≠ /s/, eta /tz/ ≠ /ts/, ahulduta edo galduta dagoela jakinik ere, hiru ordenuen beharra hartzen da gidari Fonologia Batuan.

2.2.2. Zein bere afrikatuarekin korrelaziotan agertzen diren sei fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{z}{tz} = \frac{s}{ts} = \frac{x}{tx}$$

2.2.3. Beroien balio fonetikoak hauek dira:

$$\frac{[s]}{[c]} = \frac{[ś]}{[č]} = \frac{[š]}{[č̣]}$$

2.2.4. Gaurko fonemen bizia kontutan hartuz, batetik; baita fonemen korrelazio bila joanda ere, eta integratu gabeko fonemen ahulezia gogoratu, hiru fonema pare horien kide ozenak /z, ź, ž/ ez dira Fonologia Batuan onartzen. Zuberoan eta Baxenabarren entzuten direnak [eźne, kaźerna, žoan]; eta Bizkaiko zenbait lekutan entzuten den [dž], [džan], lekuko euskalki mailako fenomenotzat uzten dira alde batera.

2.2.5. /i/ fonemaren ondoko /s/ eta /ts/ apikarien bustiera oso zabaldua denez gero, [iś] eta [ič] ebakera gaitzetsi gabe ere, hobetzat jotzen da Fonologia Batuan [iš] eta [ič] ebakitzea. Esate baterako: *isuri* (= [išuri]), *itsusi* (= [ičuši]).

2.3. *Sudurkariak* (erd. nasales, nasales)

2.3.1. Hiru fonema sudurkari onartzen dira: /*m, n, ñ*/.

2.3.2. Beroien balio fonetikoak hauek dira: [m, n, ŋ].

2.3.3. *ñ* guztiak ez dira *in*-en ondorio: *ñirñirkari, kantuño*. Ez da ontzat ematen, hortaz, kasu horietako /*ñ*/ fonemak [in] ebakitzea.

2.3.4. /*i*/ fonemaren ondoko /*n*/ bustitzea (= [iŋ]) oso zabaldua de-
nez gero, [in] ebakera gaitzetsi gabe ere, [iŋ], ebakitzea hartzen
da hobetzat Fonologia Batuan; *baino* (= [baŋo] hobetsia; *egina*
(= [egina]) hobetsia.

2.4. *Albokoak* (erd. laterales, latérales)

2.4.1. Bi fonema onartzen dira: /*l, ll*/; sudurkariekiko korrelaziotan:

$$\begin{array}{ccc} \text{l} & \text{ll} & \text{(alboko)} \\ \hline \text{n} & \text{ñ} & \text{(sudurkari)} \end{array}$$

2.4.2. Beroien balio fonetikoa hau izango da: [l], [l̞]. Ez da onartzen,
hortaz, /*ll*/ fonema [y] gisa ebakitzea.

2.4.3. *ll* guztiak ez dira *il*-en ondorio: *llabur, lloba*. Ez da ontzat ema-
ten, kasu horietako /*ll*/ fonemak [il] ebakitzea.

2.4.4. /*i*/ fonemaren ondoko /*l*/ bustitzea (= [iļ]) oso zabaldua de-
nez gero, [il] ebakera gaitzetsi gabe ere, [iļ] ebakera hartzen da
hobetzat Fonologia Batuan: *hilabete* (= [iļabete]); *ilargi* (= [iļarģi]).

2.5. *Dardarkariak* (erd. vibrantes, vibrantes)

2.5.1. Bi fonema hauek onartzen dira: /*r, rr*/.

2.5.2. Beroien balio fonetikoa hau izango da: [r, r̄]. Baina, kasu hone-
tan, bai *r* eta bai *r̄* idazten dugunean, apikariak adierazi nahi ditu-
gula; alegia, gaztelaniaz edo kaskoineraz (baina ez frantsesez) ema-
ten diren bi dardarkarien kideak: [ōrua], [śagāra]

2.5.3. Iparraldeko euskalkietan sartzen hasi berria den frantses kutsuko
[R] ebakera [eRan, gaRaca] ez da onartzen.

2.5.4. Kontsonanteren aurrean, /r/ eta /rr/ fonemen artean neutralizazioa gertatzen da [r̄] ren alde: [ūrte], [ōrc]. Gauza bera hitz amaieran, erdi galdurik dauden berezkuntzak aparte [sēr], [sūr], eta abar.

2.6. *Aspiraketa* (erd. aspiración, aspiration)

2.6.1. /h/ fonema bakarraren ebakera [ϕ] (= zero) izango da: *hartu* (= [ārtu]), *ebun* (= [ēxun]). Ez da gaitzesten, halere, /h/ fonemari balio fonetikoa ematea: [hārtu], [ehun]. Gaitzetsi egiten da bereziki, ordea, /h/ fonema [x] ebakitzea, gaztelaniazko *j* letraren balio fonetikoaz: [xārtu], [exun].

2.6.2. Idazkera klasikoaren arauera gertatzen delarik (ephe, urthe, bekhatu), /ph, th, kh/ fonemen balio fonetikoa, [p, t, k] izango da: [epe, ūrte, bekatu]. Aspiraketaz ebakitzea, 2.1.7.-an esanenez, euskalki mailako ebakeratzat hartzen da.

2.6.3. /lh, nh, rh, rrb/ fonema bikoteak, [l, n, r, r̄], ebakiko dira. Esakera hasperendua, euskalki mailako ebakeratzat hartzen da.

2.7. *Expain-horzkariak* (erd. labiodental, labiodental)

2.7.1. Fonema bakar bat onartzen da ordenu honetan: //f/ delakoa.

2.7.2. Bere balio fonetikoa [f] izango da, gorra beraz.

2.8. /j/ fonema.

2.8.1. Gaurko euskarareren egoera kontutan hartuta, eta 2.2.4. puntuan adierazitakoak ahaztu gabe, euskarazko /j/ fonemaren balio fonetikoa [y] izango da: [yan].

2.8.2. Ez dira, halere, [ʒ] zaharra eta [x] berria gaitzesten [ʒan, xan]; baina euskalki mailako ebakeratzat uzten dira alde batera.

3. DIPTONGOAK, HIATUAK (erd. diptongos, diphtongues; hiatus, hiatus)

3.1. *Diptongoak*

3.1.1. Fonologia Batuan, ondoko bost diptongo hauek onartzen dira: *ai, ei, oi, au, eu*. Diptongo hauek beheeranzkoak dira; eta azentua lehenengo bokalean daramate.

- 3.1.2. *ahi, ehi, obi, abu, ebu* fonema hirukoteen balio fonetikoa, hauxe izango da eskuarki: [á̃, é̃, ó̃, ạ́, ẹ́]. Baina *h* galdu berriari dagokion hiatu bisilabikoaren ahoskera gaitzesten ez delarik: [baítu, eún].
- 3.1.3. Zenbait lekutan ezagutzen diren diptongo goranzkoak [já, jé, jó, wá, wé], euskalki mailako ahoskeratzat baztertzen dira: [maj̣tia], hirukuna bai, [maj̣tja] bikuna euskalki ebakeratzat uzten; [ṣwẹrte] hirukuna bai, [ṣwẹrte] bikuna ez.
- 3.1.4. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuan sortzen diren diptongoei buruz.
- 3.2. *Hiatuak*
- 3.2.1. *ia, ie, io, ua, ue* bokale bikoteek hiatu emango dute Fonologia Batuan; azentua, izatekotan, lehenengo bokalean doalarik. Ebakera, hortaz, bikuna izango da: [mẹndia], eta ez [mẹndja], [ẹskua] ta ez [ẹskwa].
- 3.2.2. *ee*-eta *oo* hiatuak, [ie] eta [uo] ebakiko dira: semeen (= [sé-mien]); zozook (= [sosuok]).
- 3.2.3. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuko hiatuei buruz.

4. FONEMEN ELKARKETAZ

Sandhi batzu bakarrik onartuko dira Fonologia Batuari buruzko Txosten honetan: tradizioak batetik, eta ebakeraren hedakuntzak bestetik, horretaratzen gaituztenak.

- 4.1. *ea* = [ia]
oa = [ua]

Joera hau euskalki askotan barrena, bai barne bai kanpoko sandhitan, oso zabalduta dagoenez gero, hobetzat emango da, [ea] eta [oa] ebakera baino: *besoa* (= [bẹsua]), *maitea* (= [maj̣tia]).

- 4.2. $(s, z) + (b, d, g) = (sp, st, sk; zp, zt, zk)$.

Euskal asimilakuntzaren legea arrunt beteaz, euskarazko txistu-

kariak, aurretik joaki, gorrak direnez gero, ahoskabetu egiten dituzte ondoko leherkari ahostunak: *apaiz bat* (= [apaɨspat]), *goiz da* (= [goɨsta]), *desgrazia* (= [deʃk̄rasia]).

- 4.2.1. Lege honen arauera, eta beste kasutara ere hedatuz, hona hemen ez ukazioak aditzaren jokaeran barrena sortzen dituen ebakerak: ez b- (= [esp-]); ez d- (= [est-]); ez g- (= [esk-]); ez n- (= [en-]); ez h- (= [eh-] eta [e-]); ez l- (= [el-]); eta ez z- (= [ec-]).

Adibidez:

ez badago (= [espaðago])
ez dakit (= [estakit])
ez gabilza (= [eskabilza])
ez nuke (= [enuke])
ez hintzela (= [eíncela]; [ehincela])
ez litzateke (= [elicateke])
ez zekien (= [ecekien])

- 4.3. Bide beretik:

(*tz, ts*) + (*b, d, g*) = (*zp, zt, zk; sp, st, sk*)

Adibidez: *hitz bat* (= [ispat]).

- 4.4. (*t, k*) + (*b, d, g*) = (*p, t, k*)

Oharra: aurreko leherkaria erabat galtzen da.

Adibidez: *bat bere ez* (= [bape(re)s]); *piperrik be* (= [pipeři-pe]); *nork du* (= [nořtu]).

- 4.4.1. Honen ondorioz, ondoko hauek hartu behar dira gogotan *bait* aurritzak: *bait d-* (= [baɨt-], [baitatoř]); *bait g-* (= [baɨk-], [baɨkara]); *bait n-* (= [baɨn-], [baɨnekien]); *bait h-* (= [baɨ-], [baɨator]); *bait l-* (= [baɨl-], [baɨlicateke]); *bait z-* (= [baɨc-], [baɨcion]).

- 4.5. (*l, n, r*) + (*z, s, x*) = [*lc, nc, řc; lć, nć, řć; lč, řč, řč*].

Adibidez: *hil zen* (= [ilcen]); *esan zigun* (= [esancigun]); *hor zegok* (= [ořcegok]).

4.6. $(i) + (l, n, t, s, ts) = [il, in, it, is, ič]$.

Bustidura gerta daitekeen kasu hauetan, eta aurreko arauetan azaldu denaz, normalagotzat hartzen da ebakera mordo hau, bustidurarik gabea baino.

5. ERDARATIKAKO BAHITURAK (erd. préstamo, emprunt)

5.1. Erdarazko *r*-haserari, *arr*- edo *err*-dagokio euskaraz. Zientzi hitz berrietan ez izatekotan (*razional, rotazismo*), ez da *r*-euskal haserarik onartzen.

5.2. Aspaldidanik, erdarazko (p-, t-, k-) fonemei, euskal (b-, d-, g-) dagozkie eskuarki. Hortaz:

5.2.1. Bahitura zaharra delarik, eta euskalkietan bata eta bestea aurkitzen direnean (*bake, pake; gorta korta*), fonema ozenak hobetsiko dira (*bake, gorta*).

5.2.2. Bahitura berrietan, eta zientzi-hitz bereziren bat ez izatekotan (*penizilina, teatro*), lege zaharrari eutsiko zaio: *bortu, daratulu, gorbata*.

5.2.3. Joera berberari eutsiko zaio *l* eta *n*-ren ondoan; euskalkietan barrera bi moldeak elkarren ondoan daudelarik, ozenekoa hobetsiz: 'denbora' hobe 'denpora' baino, 'aldare' hobe 'altare' baino.

5.3. Erdarazko (*s*-)ri, euskaraz (*z*-)dagokio: *zaku, zoru, zorte*. Zientzi edo Soziologi hitz bereziren bat ez izatekotan (*semantika, sozialismo*), eutsi egingo zaio joera zahar horri.

5.4. Erdarazko (*b*-)ri, euskaraz (*m*-) dagokio: *miñagre, mandil*. Hitz zaharretan bederen.

5.5. Erdarazko bokale arteko *-n*-galdu egiten da euskaraz: *anate > abate (aate, ata)*.

5.5.1. Joera honen hildotik, erdal *-ción/-tion* atzizkiari, *-zio* dagokio euskaraz eskuarkienik: erd. *nación, nation*; eusk. *nazio*. Gainerako euskal aldaketak (*nazione, nazino*) euskalki mailakotzat hartuko dira Fonologia Batuan.

6. AZENTUA (erd. acento, accent)

Gutxi gora-beherako lege batzu dagoenetik arrisku handiegirik gabe eman balitezke ere, arazo nagusi honek beste txosten berezi eta oso bat merezi du ondoko hilabeteetan.

Oharra: Artikulu honetan kortxetetan ematen diren balio fonetikoak, Alfabeto Filologikoaz datoz.

Zenbait xehetasunetan, bestalde, aldatu edo zehaztu egin dugu Bergaran irakurri zen Txostena.

IV. ERASKINA

EUSKAL SOINUEN ERDAL KIDEAK

Euskal kontsonanteen ebakera eta erdal kideak

| | |
|------------------|--|
| <i>p</i> = [p] | ~ gazt. <i>perro, padre</i> ; ~ frants. <i>père, peu</i> . |
| <i>b</i> = [b] | ~ gazt. <i>burro, ambos</i> ; ~ frants. <i>bon, habit</i> . |
| <i>t</i> = [t] | ~ gazt. <i>tarde, gato</i> ; ~ frants. <i>tête, terre</i> . |
| <i>d</i> = [d] | ~ gazt. <i>dorar, dejar</i> (haseran, edo [—cont]-ren ondoren); ~ frants. <i>donner, déjà</i> (jakina denez, ñabardura batek berezten ditu honi buruz frantsesa eta gaztelania). |
| <i>tt</i> = [t̥] | ~ Ondoko erdaretan ez dago; baina fran- tsesez gerta daiteke zenbait aldiz: <i>tiens</i> <i>tiens</i> [t̥ẽ] |
| <i>dd</i> = [ɣ̃] | ~ gazt. <i>ya, yerro</i> ; ~ frants. <i>Yemen, yoghourt</i> (haseran edo [—cont]-ren ondoren). |
| <i>k</i> = [k] | ~ gazt. <i>casa, queso, cura</i> ; ~ frants. <i>car, qui, cou</i> (esandako ñabardurak barne). |

| | |
|---------------------|--|
| $g = [g]$ | ~ gazt. <i>garra, hongo</i> ; ~ frants. <i>guêpe, agacer</i> (haseran edo [—cont]-ren ondoren). |
| $m = [m]$ | ~ gazt. <i>mata, cambio</i> ; ~ frants. <i>meute, ambiance</i> . |
| $n = [n]$ | ~ gazt. <i>enero, rebén</i> ; ~ frants. <i>âiné, anarchie</i> (ondoko kontsonantearen arauerako al- dakuntzak izaten ditu soinu honek, on- doko erdaretan bezala). |
| $\tilde{n} = [ŋ]$ | ~ gazt. <i>niño, año</i> ; ~ frants. <i>agneau, vigne</i> . |
| n (belarea) = [ɲ] | ~ gazt. <i>aunque, vengar</i> ; ~ frants. <i>pétanque, engager</i> (aldakuntza hau ere automatikoa da). |
| $ph = [ph]$ | ~ Ondoko erdaretan ez dago. Baina alema- nierz eta danieraz bai, esate baterako. |
| $th = [th]$ | ~ Gauza bera. |
| $kh = [kh]$ | ~ Gauza bera. (Hiru leherkari aspiratu hauek Iparralde- ko euskalkietan entzun daitezke: <i>ephe,</i> <i>urthe, khar</i>). |
| $f = [f]$ | ~ Ez dago ondoko erdaretan; baina japo- nierz bai. |
| $b = [b]$ | ~ gazt. <i>caber, tubo</i> (bokale artean). |
| $f = [f]$ | ~ gazt. <i>forro, fuego</i> ; ~ frants. <i>fer, fort</i> . |
| $z = [θ]$ (R) | ~ gazt. <i>cerro, zona</i> . |
| $d = [d]$ | ~ gazt. <i>cada, rueda</i> (eusk. bokale artean); ingl. <i>this</i> . |

- r* = [ɹ] ~ gazt. *cara, dirá*
(zenbait aldiz, ez beti).
- dd* = [y] (L) ~ gazt. *mayo, reyes*;
~ frants. *abeille, papillon*
(bokale artean: *Maddalen*).
- j* = [x] (G) ~ gazt. *maja, judío*
(ñabardurak aparte).
- g* = [g] ~ gazt. *dogo, rogar*
(euskaraz, bokale artean).
- b* = [h] ~ eusk. *hartu, hori*
(ez dago ondoko erdaretan; baina bai hiz-
kuntza germanikoetan).
- b* = [ɦ] ~ eusk. *abaro, xebe*
(ohar bera, bokale artean).
- z* = [s] ~ frants. *poisson, céder*
(gaztelaniaz ez dago; nahiz posible izan
Andaluzian-eta entzutea).
- z* = [z] (S) ~ frants. *zéro, baiser*
(zubereraz: *plazera*).
- s* = [ś] ~ gazt. *eso, caso*
(frantsesez ez dago). (Ikus, dena dela, 8.
kapituluan egin diren oharrak).
- s* = [ž] (S) ~ Ez dago honen kiderik erdaretan; baina
bai ingelesez, esate baterako. Eta, zehar-
bidez, gaztelaniaz: *asno* [ažno].
- x* = [š] ~ gaztelaniaz, ez dago;
~ frants. *chien, chilien*.
(Ikus 8. kapitulua).
- j* = [ž] ~ gaztelaniaz, ez dago;
~ frants. *gilet, girouette*.
(Ikus 8. kapitulua).

| | |
|---------------------|--|
| <i>tz</i> = [c] | ~ Ondoko erdaretan ez dago (alemanieraz bai, esate baterako). |
| <i>dz</i> = [dz] | ~ Ondoko erdaretan ez dago; baina katalaneraz bai. |
| <i>ts</i> = [ć] | ~ Ondoko erdaretan ez dago. Nafarroako gaztelaniaz, halere, batzutan entzun daiteke: <i>tres</i> (= [ćés]). |
| <i>ds</i> = [dź] | ~ Ondoko erdaretan ez dago. |
| <i>tx</i> = [č] | ~ gazt. <i>mucho</i> , <i>noche</i> (ikus, halere, 8. kapitulua). |
| <i>j</i> = [dž] (B) | ~ Ondoko erdaretan ez dago. Ingeleseztan bai. Ikus, dena dela, 8. kapitulua; eta <i>s</i> , <i>z</i> -ren artikulazio-puntuari buruzko oharra. |
| <i>l</i> = [l] | ~ gazt. <i>ley</i> , <i>lanza</i> ; ~ frants. <i>loi</i> , <i>lame</i> . |
| <i>ll</i> = [l̥] | ~ gazt. <i>ello</i> , <i>llover</i> (egiazki gaztelaniaren arauera ebakitzen direnean; eta ez <i>y</i>). |
| <i>r</i> = [r] | ~ gazt. <i>pero</i> , <i>toro</i> . |
| <i>rr</i> = [r̄] | ~ gazt. <i>perro</i> , <i>zorro</i> . |
| <i>rr</i> = [R] | ~ frants. <i>erreur</i> , <i>lierre</i> (Hegoaldeko Frantzia entzuten den bezala; alegia, dardarkari gisa, eta ez frikari). |

Oharra: balio fonetikoak, Alf. Fil.-aren arauera eman ditugu.

V. ERASKINA

HIZTEGIA

- ADIERA = significado, signifié
ADIERAZKOR = significativo, signifiant
AFRIKATU = africado, affriqué
AHOKARI = oral, oral (gutxitan; ikus AHOZKO)
AHOSKABE = sordo, sourd
AHOSKATU = pronunciar, prononcer
AHOSKERA = pronunciación, prononciation
AHOSTASUN = sonoridad, sonorité
AHOZKO = oral, oral
AINTZINAKETA = anteriorización, antériorisation
AKUSTIKA = acústica, acoustique
ALBEOLARE = alveolar, alvéolaire (HOBİKARI ere proposatua)
ALBOKO = lateral, latérale
ALDAGARRI = variable, variable
ALDAKAITZ = invariable, invariable
ALDAKI = variante, variante
ALFABETU = alfabeto, alphabet
ALOFONO = alófono, allophone
ALTERNANTZIA = alternancia, altérnance
AMAIKARI = terminal, terminal
AMANKOMUN = común, commun
ANIZKUN = múltiple, multiple
APIKARI = apical, apical
ARBITRARI = arbitrario, arbitraire
ARRUNT = informal, informel (adj.)
ARTIKULAZIO-MODU = modo de articulación, mode d'articulation
ARTIKULAZIO-PUNTU = punto de, point de
ASKIKO = suficiente, suffissant
ASPIRATU = aspirado, aspiré

ATAL = miembro, membre
 ATZERAKARI = regresivo, régressif
 AURKARITZA = oposición, opposition
 AURRE-SABAİKARI = prepalatal, prépalatal
 AURRERAKARI = progresivo, progressif
 AZENTU = acento, accent
 AZPI-KATEGORIKUNTZA = sub-categorización, sub-catégorisation
 BAKUN = único, unique
 BAKUN = unificar, unifier
 BALORE = valor, valeur
 BEHERANZKO = descendente, descendant
 BELARE = velar, vélaire
 BELAREKETA = velarización, vélarisation
 BEMOLDU = bemolizado, bémolisé
 BERARIAZKO = voluntario, volontaire
 BEREZKO = natural, naturel
 BERRIDATZI = reescribir, réécrire
 BERRIDAZKETA = reescritura, réécriture
 BIHURKARI = recursivo, récursif
 BIHURTZAILA = transformacional, transformationnel
 (normalean TRANSFORMAZIONAL)
 BIKUN = doble, double
 BILDUTASUN = compacidad, compacité
 BINARISMO = binarismo, binarisme
 BITAR = binario, binaire
 BIZKAR = dorso-, dorso-
 BIZKARKARI = dorsal, dorsal
 BIZKARRAURREKO = prepalatal, prépalatal
 BLOKATU = bloqueado, bloqué
 BLOKATUGABE = no-bloqueado, non bloqué
 BOKALE = vocal, voyelle
 BOKALERDI = semi-vocal, demi-voyelle
 BOKALIKO = vocálico, vocalique
 BOROBILDU = redondeado, arrondi
 BUSTI = palatalizado, palatalisé
 BUSTIDURA = palatización, palatisation (ondorioa)
 BUSTIKUNTZA = palatización, palatisation
 DARDARKARI = vibrante, vibrant
 DESKODAKETA = decodificación, décodage
 DIERESIGABE = no-diesizado, non-diésé
 DIERESIZTATU = diesizado, diésé
 DIPTONGO = diptongo, diphtongue

| | | |
|-----------------|---|--|
| EBAKERA | = | pronunciación, prononciation (normalean, AHOSKERA) |
| EBAKI | = | pronunciar, prononcer (normalean, AHOSKATU) |
| EGITURADUN | = | estructurado, structuré |
| EGITURAGABE | = | no estructurado, non structuré |
| ELKARKETA | = | encuentro, association |
| EMAITZA | = | dato, donnée |
| ERAGIKETA | = | operación, opération |
| ERIZPIDE | = | criterio, critère |
| ERREDUNDANTE | = | redundante, rédondant |
| ERREDUNDANTZIA | = | redundancia, rédondance |
| ERREGELA | = | regla, règle |
| ERREGULAR | = | regular, régulier |
| ERRESONAKIN | = | aparato resonador, appareil résonant |
| ERTAIN | = | medio, moyen (adj.) |
| ESKALARE | = | escalar, scalaire |
| ESKUAR | = | normal, normal |
| ESPEKTRO | = | espectro, spectre |
| EUSKALKI | = | dialecto vasco, dialecte basque |
| EZABATU | = | borrar, effacer |
| EZARKETA | = | aplicación, application |
| EZAUGARRI | = | rasgo, trait |
| EZEZTAPEN | = | negación, négation |
| EZPAIN-HORZKARI | = | labio-dental, labio-dentale |
| EZPAINBIKO | = | bilabial, bilabiale |
| EZPAINKARI | = | labial, labiale |
| FISIKO | = | físico, physique |
| FISIKOTASUN | = | carácter físico, caractère physique |
| FONAZIO-EGITURA | = | estructura de fonación, structure de fonation |
| FONEMA | = | fonema, phonème |
| FONEMA-BIKOTE | = | par de fonemas, paire de phonèmes |
| FONOI | = | fonón, phonon |
| FONOLOGO | = | fonólogo, phonologue |
| FORMAKIN | = | formante, formant |
| FRIKARI | = | fricativa, fricatif |
| FUNTSEZKO | = | fundamental, fondamental |
| GLOTARI | = | glotal, glottal |
| GOR | = | sordo, sourd |
| GORANZKO | = | ascendente, ascendant |
| GORKETA | = | ensordecimiento, assourdissement |
| GORTU | = | ensordecer, assourdir |
| HAUTAZKO | = | libre, libre |
| HAUTAKETA | = | elección, choix |

HERSKETA = cierre, fermeture
 HIATU = hiato, hiatus
 HITS = mate, mat
 HOBİKARI = alveolar, alvéolaire (maizago ALBEOLARE)
 HORZKARI = dental, dental
 HOTS = ruido, bruit
 HURRENKERA = orden, ordre (de aplicación, etc.)
 IDAROKI = sugerir, suggérer
 IDAZKERA = grafía, graphie
 INGURAMENDU = contexto, contexte
 INGURAMENDU FONIKO = entorno fónico, contexte phonique
 INGURAMENDUZKO = contextual, contextuel
 ITXURAZKO = aparente, apparent
 IZARI = dimensión, dimension
 IZARIGABE = no dimensional, non dimensionnel
 JARRAIKOR = continuo, continu
 JARRAITASUN = continuidad, continuité
 KAKUMINAL = retroflejo, rétroflexe (gutxitan)
 KARRANKARI = estridente, strident
 KODAKETA = codificación, codage
 KONTSONANTE = consonante, consonne
 KONTSONANTERDI = semi-consonante, demi-consonne
 KONTSONANTIKO = consonántico, consonantique
 KOPURU = número, nombre
 LAXATU = relajado, lâche
 LEHERKARI = oclusiva, occlusive
 LEXIKO = léxico, lexique
 LINEARI = lineal, linéaire
 LODI = grave, grave
 LOTURAGABE = independiente, indépendant
 MAILAKETA = graduación, gradation
 MAILEBU = préstamo, emprunt
 MAIZTASUN = frecuencia, fréquence
 MAMIBIDE = actualización (proceso de), actualisation (procés de)
 MATEMATIKUNTZA = matematización, mathématisation
 MATRIZE = matriz, matrice
 MONOPTONGAKETA = monoptongación, monophtongaison
 MUGAKETA = definición, définition
 NEUTRALIZAZIO = neutralización, neutralisation
 ÑABARDURA = matiz, nuance
 OHIZKO = habitual, habituel
 OLDEZKO = espontáneo, spontané

OPOSIZIO-MULTZO = grupo de oposiciones, groupe d'oppositions
 ORDAINDU = representar, représenter
 ORDEZKATU = reemplazar, remplacer
 ORDINATORE = ordenador, ordinateur
 OREKA = equilibrio, équilibre
 OROKORTU = generalizar, généraliser
 OZEN = sonora, sonore
 OZENDU = sonorizar, sonoriser
 OZENTASUN = sonoridad, sonorité
 PALATIZATU = palatizar, palatiser
 PISUDUN = pertinente, pertinent
 PISUGABE = no pertinente, non pertinent
 PISUTASUN = pertinencia, pertinence
 RETROFLEXU = retroflejo, rétroflexe
 SABAICALDU = palatizar, palatiser (normalean: PALATIZATU)
 SABAIKARI = palatal, palatal
 SAILKETA = clasificación, classement
 SALBUESPEN = excepción, exception
 SEMANTIKO = semántico, sémantique
 SILABATASUN = silabicidad, syllabité
 SINBOLO = símbolo, symbole
 SINTAGMATIKO = sintagmático, syntagmatique
 SISTEMATU = sistematizar, systématiser
 SOINU = sonido, son
 SONAGRAMA = sonagrama, sonagramme
 SONANTE = sonante, sonant
 SORBIDE-ZUHAITZ = árbol derivacional, arbre dérivationnel
 SORTZAILLE = generativo, génératif
 SUDURKARI = nasal, nasal (zenbait aldiz SUDURREZKO)
 TAULA = tabla, tableau
 TAULAGUNE = casilla (de tabla), casier (de tableau)
 TINKO = tenso, tendu
 TONUTASUN = tonalidad, tonalité
 TRABAKARI = obstruyente, obstruant
 TRESNABIDEZKO = experimental, expérimental
 TRINKO = compacto, compact
 TXETXEKARI = chicheante, chuintante
 TXISTUKARI = sibilante, sifflant
 UBULARE = uvular, uvulaire (GINGILKARI ere proposatua)
 UHIN = onda, onde
 ULERKUNTZA = comprensión, compréhension
 URKARI = líquido, liquide

ZEDARRITU = delimitar, délimiter
ZENBATUSUN = cantidad, quantité
ZERTASUN = cualidad, qualité
ZERTU = definir, définir
ZINTZURKARI = uvular, uvulaire (maizago UBULARE)
ZORROTZ = agudo, aigu

VI. ERASKINA

BIBLIOGRAFIA

1. *Euskarazko aboskeraren deskribapenaz* (lehenengo 12 kapituluak, beraz, batez beste).

Bi lan orokor aipatu beharra dago:

- 1.1. *Éléments de Phonétique Basque* - Henri Gavel - Ed. Champion, 1920. Geroago ere «La Gran Enciclopedia Vasca»k berrargitaratua (1969).

Hauxe da lehendabiziko lan orokorra euskal fonetikari buruz (542 orrialde).

Nahiz batez ere Iparraldeko euskalkiak kontutan hartu, ikuspegi orokorra du.

- 1.2. *Fonética Histórica Vasca* - Luis Michelena - Ed. Diputación de Guipúzcoa. Bi argitaraketa:

1) 1961 - 455 orrialde

2) 1977 - 596 orrialde

Nahiz Mitxelena-ren helburua *proto-euskara* zer zen aztertzea izan, ez dago gaurkoz *Fonética Histórica Vasca* liburuan ematen den datu-pilarik beste inon: bai Fonetikari dagokionez, bai (zeharbidez, bederen) dialektologiaz eta bestez. Mitxelena-ren liburua, horretara, ezin bestezkoa da euskararen alderdi fonetiko eta fonologikoak ikertzerakoan.

Orokortasunean apalago izanik ere, hona hemen beste lan funtsezko batzu:

- 1.3. *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes*, étudiée dans le *Basque Souletin* - Abbé J. Larrasquet - Ed. Vrin, Paris 1928 (272 + 152 orrialde). Hauxe da orain arte, eta deskribaketa *fonetikoari* buruz, egin den lanik sakonena. Zuberera oinarritzat harturik (Santagraziko informatzaile baten bitartez), bai palatogramak bai soinuen diagramak ematen dira xehetasun osoan.

Lehendabiziko atalean bereziki (ikus 29-61) euskal soinuen deskribapen zehatzak ematen dira. Baita ondoko orrialdeetan ere, puntuz puntu, azentuaren eraginezko aldakuntza fonetikoak, eta abar.

Oinarritzat Basabürü-ko euskalkia izanik ere, guztiz funtsezkoa da Larrasquet-en lana euskal fonetikaren baranoan.

- 1.4. *Pronunciación Guipuzcoana - Contribución al estudio de la Fonética Vasca* - Hom. a Menéndez Pidal, III - Madrid, 1925 - 593-653 orr.
Fonetikari famatuaren lan zehatz hau, guztiz garrantzitsua da gipuzkerari buruz. Soinu guztien deskribapen zehatzak eman ondoren, transkribapen fonetiko pila bat eskaintzen du. Palatogramak eta diagramak ere ez dira falta.
- 1.5. *Apuntes Vizcainos* (N. Holmer eta V. Abrahamson) - Hiru partetan agertu dira: 1) Urq. 1968; 87-141
2) Urq. 1969; 171-228
3) Urq. 1977; 5-46
Deskribapen *fonetikoaren* aldetik, aurreko bi lanen mailan inolaz ere jartzerik ez badago ere, Holmer-ek oso ohar zorrotzak egiten ditu bizkaierazko ahoskeraz. Transkribaketa fonetikoak ere ez dira falta (batzutan erdi-fonetikoz argituak); eta, hitz batez, lan funtsezkoa da kostaldeko fenomeno fonetikoak ulertzeko.
- 1.6. *El idioma vasco hablado* - Nils Holmer - Ed. Dip. Guipúzcoa, 1964 (264 orr.). *Un estudio de dialectología euskérica*, dio autoreak berak. Lan honetan *gipuzkera* aztertzen da (Gaztelu bereziki), eta Nafarroako *Bortzirietako* euskalkia (Hondarribia, Irun, Arantze, Justiz).
Transkribaketa fonetiko hornitua, oso lan garrantzitsua da hau gipuzkera eta Bidasoako nafarrera ezagutzeko.
Holmer-en lan guztietan bezala, bestalde, arretaz aztertzen dira azentuaren gorabeherak.
- 1.7. *Structure du dialecte basque de Maya* - Geneviève N'Diaye - Mouton, 1970 - 248 orr.
Martinet-ek Charleville-ko hizkerari buruz egin zuen lana orpoz orpo jarraiturik, N'Diayek deskribapen zehatza eman digu Amaiur-ko euskalkiaz. Eta datu garrantzitsuak aurki daitezke fonetikaz, batez ere lehenengo atalean (11-41 orr.).
- 1.8. *Estudio estructural del euskera de Ondárroa* - Karmele Rotaetxe - Ed. Zuguzua, 1978 - 715 orrialde.
Tesi hau orokorra izanik ere, parte luze bat dago Ondarru-ko bizkaierazko fonetika-fonologiari buruz (30-204 orr.); eta transkribaketa fonetikoak ugari daude liburu guztian barrena. Euskalki horren sailketa bitar bat ere badator.
Monografi sail honetan, eta nahiz lan txikiagoak izan, ondoko hauek ere aipatu behar dira:
- 1.9. *Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau* - René Lafon - Hom. a Martinet, 1958; La Laguna (77.106 orr.).
- 1.10. *Vocabulario vasco de Aránzazu* - P. C. Izagirre - An. Urquijo, 1970 - 248 orr.
Oso interesgarria (nahiz hiztegi bat izan) fonologiaren aldetik.
- 1.11. *Notas fonológicas sobre el salacenco* - Luis Michelena - An. Urquijo, 1967 (163-178).

- 1.12. *Réponses souletines* - H. Gavel - Euskera, 1960 - (293-316).
- 1.13. *Castellano y vasco en el habla de Orio* - Ana M. Etxaide - 164 orr. Príncipe de Viana, 1968 - Interferentzia fonetikoei buruz ohar argitsuz hornitua; batez ere 47-64 orrialdeetan.
- 1.14. *Influencias del vascuence en la lengua castellana* - Mikel Zarate - Gran Enciclopedia Vasca, 1967 - 192 orr. (Ikus, bereziki, 31-35 orrialdeak; eta hiztegia, 61 - 177, harrobi gisa).
- 1.15. *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés* - Luis Michelena - Bol. RSVAP, 153 - 499-536.
- 1.16. *Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés* - Amado Alonso - III Congr. Est. Vascos, 1922; 57-64 - Diagramaz hornitua.
- 1.17. *Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica* - Navarro Tomás - III Congr. Est. Vascos, 1922; 49-56. Oso garrantzitsua, eta transkribaketa fonetiko zehatzez hornitua.
- 1.18. *A propos de ü souletin* - Gavel - RIEV 1925; 230.tik aurr. Ohar zorrotzez egina.
- 1.19. *Sur la voyelle ü en basque* - R. Lafon - BSL, 57, I, 1962, Paris (83-102).
- 1.20. *Remarques sur l'aspiration en basque* - R. Lafon - Mélanges à Gavel, 1948 - Ed. Privat.
- 1.21. *Phonétique du basque de Larrajá* - J. Larrasquet - RIEV 1932; 153-191. Funtsean, aurreko lanaren osaketa, baina ñabardurak agerrerez. Lan zehatza fonetikaren aldetik.

Ikuspegi orokorrez, hona hemen lan funtsezko batzu:

- 1.22. *Etude Phonologique sur les dialectes basques* - Nicole Moutard - Hiru zatitan argitaratua:

FLV, 19; 5-42

FLV, 20; 141-190

FLV, 22; 9-54

Euskalki guztiak hartzen ditu kontutan; eta, kasu bakoitzean, taula fonologikoak ematen ditu posizio bakoitzean. Oso lan interesgarria.

- 1.23. *Contribution à une phonétique comparée des dialectes basques* - Uhlembeck. Bi partetan agertua:

RIEV, III, 1909; 465-503

RIEV, IV, 1910; 65-118

Gaur zaharkitua izanagatik ere, dakartzan adibide zerrenda ugariak ez dute beren interesa ezertan galdu.

- 1.24. *Los dialectos y variedades de la lengua vasca* - Pedro de Irizar - An. Urquijo, 1973 - 3-36. Dialektologi lana izanik ere, fonetikan ere interesgarri.
- 1.25. *Estudio sobre el euskera hablado* - Fr. D. Alzo - Ed. Izarra, 1961. Nahiz liburu hau fonetikari buruzko lana ez izan, ohar mamitsuak eta datu asko aurki daitezke.

- 1.26. *Sobre el pasado de la lengua vasca* - L. Michelena - Auñamendi, 1964 - Lan hau fonologiaz edo fonetikaz bereziki ez arduraturik ere, ohar interesgarriak aurki daitezke. Eta gauza bera ondoko honetan:
- 1.27. *Apellidos Vascos* - L. Mitxelena - Ed. Txertoa, 1972.
- 1.28. *Fonética Vasca* - R. M. Azkue, 1919 - I Congr. Est. Vascos - (456-482). Azkue-ren lan hau oso gutxitan aipatzen bada ere (eta nahiz luzea ez izan), ohar argitsuz betea dago.
Noski: Azkue-ren lan guztietan aurkitzen dira mahiz ohar fonetikoak eta fonologikoak.
- 1.29. *Les occlusives en basque* - A. Martinet - *Economie des ch. ph.*, 370-378.
Lan horiez gain, ondoko aldizkari hauetan:
- 1.30. *Euskera*, Euskaltzaindia.
- 1.31. *Fontes Linguae Vasconum*, Príncipe de Viana.
- 1.32. *Anuario J. Urquijo*, Diputación de Guipúzcoa.
- 1.33. *Boletín de la R.S.V.A.P.*, agertutako lanak aipa litezke; nahiz ez bereziki euskal fonetika-fonologiaz idatziak izan.
Beste iturri batzu ere aipa daitezke, nahiz fonetikariek eginik ez izan:
- 1.34. *Jose Miguel Barandiaran*-en ipui-bilduma ugariak, batetik, *El mundo de la mente popular vasca* saila batez ere, euskalkiz hartutako kondairaz baterik.
- 1.35. *Auspoa* sortako liburuak, bestetik, bertsolarien ekarriez osatuak batipat; eta liburu honetan maiz aipatuak.
- 1.36. *Normalizapen guztiak baino lehenago* bildutako herri-kantak eta antzekoak.
- 1.37. Oraintxe, *Filologi ikasleek*, han eta hemen bildu dituzten euskalkizko puskak, askotan erabat argitaragabeak.
2. *Euskal fonologiari buruzko azalpen sortzaileaz*
Zalantzarik gabe, Fonologia Sortzaileari buruz egin den lehendabiziko lan trinkoa hauxe da.
- 2.1. *Anuario J. Urquijo, 1972* - Papers from the Basque Linguistic Seminar, University of Nevada - 182 orrialde.
Euskal Fonologia honetan ikutu diren gaiet buruzko artikulua hauek dira.
— *Palatization phenomena in Basque* - Claudia Corum. (29-34).
— *Two borrowed sound changes in Basque* - Carlos Zarabozo (174-182).
— *Formation of the Present Participle in Basque* - Quentin Pizzini (121-129) (ez beti gure liburuan onartuak).
- 2.2. *Karmeke Rotaetxe*-ren tesian (ikus 1.8., zerrenda honetan) bizkaierazko soinuen sailketa bitarra egiten da; eta aldakuntza fonologiko batzu, fonologia sortzailearen arauera ematen dira.
- 2.21. *Baita De Rijk*-ek ere, FLV 1, bokalismoaz egin zuen lana.
— *Horretatik aurrera*, ordea, Fonologia Sortzailearen teknikak, oraingoz, euskararen ikerkuntzan erabiliak izan ez direla esan daiteke.

Bibliografia, beraz, *Euskal Fonologia* honen 13-22 kapituluak dagokienez, liburu orokor batzuz osatua izango da.

- 2.3. *The Sound Pattern of English* - N. Chomsky eta M. Halle - 1968 - Lan honetan frantsesezko itzulpenaren arauera aipatua. Fonologia sortzailearen liburu nagusia izanik, aurkeztu beharrik ez dago.
- 2.4. *Introducción a la Fonología Generativa* - Sanford A. Schane - Labor, 1979 (ingelesez *Generative Phonology* izenburuz, 1973). Agian gaur arte agertu den libururik argitsuena gai honetaz.
- 2.5. *Les règles et les sons - Introduction à la phonologie générative* - François Dell - Coll. savoir Hermann, 1973 - Oso ona presentazio gisa; nahiz parte nagusia frantseari buruz eta bi hizkuntza artotzi aplikatua izan.
- 2.6. *Introduction to phonological theory* - Robert Harms - Ed. Prentice-Hall, 1968 - Azalpen laburra, trinkoegia batzutan; baina adibide ugariz hornitua.
- 2.7. *Phonology - Selected Readings* - Penguin Books - 1973. Oso bilduma ona: Jakobson, Fudge, Lyons, Botha, Rohrer, Chomsky, Kisseberth, eta abar. Artikulu trinkoak eta mamitsuak, denak; eta oso argiak, bereziki, Fonologia Sortzaileari buruzkoak.
- 2.8. *Fonología generativa del español* - James W. Harris - Ed. Planeta, 1975. Gaztelania ezagutzen duten irakurleentzat, oso liburu argitsua; bai soinuen beren sailketari dagokionez, bai erregela fonologikoez.
- 2.9. *Catalan phonology and the phonological cycle* - Joan Mascaró - Indiana University Club, 1978. Katalana ezagutzen dutenentzat, oso lan argitsua. Mascaró Chomsky-ren ikasle jarraikia izanik, oso ondo ikus daiteke lan honetan nolako joera hartu duten azkeneko urteotan M.I.T.-ko iker-lanek.
- 2.10. *Problemas actuales en teoría lingüística* - Chomsky - Ed. Siglo Veintiuno, 1977 - Liburu hau berez zaharra izanik ere (ingelesez 1964-an agertu baitzen lehenengo aldiz), oso interesgarria da Fonologia (eta Gramatika) sortzailearen helburuak ongi ulertzeko, baita estrukturalismo klasikoaren mugak zehazki ulertzeko.
- 2.11. *Modern Phonology* - Alan H. Sommerstein - Edward Arnold ed. - 1977, London - Oso ona azkeneko berrikuspen eta aldakuntzen berri zehatza izateko. Bibliografia oparoz hornitua, bestalde.
- 2.12. *Topics in Phonological Theory* - M. Kenstowicz eta Ch. Kisseberth - Academic Press, New York - Oso lan argia.
- 2.13. *Generative Phonology - Description and Theory* - M. Kenstowicz eta Ch. Kisseberth, Academic Press, Inc. 1979. Lan zehatza, eta hizkuntza askotako adibidez osatua. Ikus, bereziki, ezaugarri nagusiei dagokienez onartu diren azkeneko aldakuntzak. Kapitulu guztien amaian, ariketa mordoska bat dator.
- 2.14. *Studies in Generative Phonology* - Ch. W. Kisseberth - Ling. Research, Inc. 1973.

3. *Fonetika / Fonologia*
Alegia, *Fonetika* hutsari buruz, edo *Sortzailea ez den Fonologiari buruzko* liburu batzu aipatu behar izanez gero, hona hemen oinarritzko batzu.
- 3.1. *Principes de Phonologie* - N. S. Troubetzkoy - Ed. Klincksieck, 1967 (lehenengo aldiz 1939-an, alemanez, argitaratua). Aurkezpen beharrik ez du Fonologiaren sarrera egin zuen liburu honek.
- 3.2. *La Phonétique* - Bertil Malmberg - PUF, Paris - (Lehenengo aldiz 1954.an argitaratua) - Liburu argia, eta hamaika bider berrargitaratua eta beste hizkuntzataraz itzulua.
- 3.3. *Manuel de Phonétique générale* - B. Malmberg - Ed. Picard, 1974 - 272 orrialde - Aurrekoa baino luzeago eta zehatzagoa; eta, hura bezala, irudi eta diagrama ugariz hornitua.
- 3.4. *Les domaines de la Phonétique* - B. Malmberg - PUF, 1971 (suezieraz 1969-an argitaratua) - Oso ikuspegi argia fonetika arazo guztiez.
- 3.5. *Le problème du classement des sons du langage et quelques questions connexes* - B. Malmberg - 1952 (*Phon. Gén. et Romane* bilduman agertua, 67-108). Xehetasun bereziz betea.
- 3.6. *La notation des langues - Phonétique et Phonologie* - A. Haudricourt, J. Thomas - Paris, 1967; CNRS. Oso didaktikoa eta trinkoa; eta bi diskoz ere hornitua. Oso ona ere alfabetu fonetikoek ohitutzeko (Españako Estatuan erabili ohi den *Filologikoa*, dena dela, ez da liburu honetan agertzen).
- 3.7. *Initiation à la Phonétique* - J. Thomas, L. Bouquiaux, F. Cloarec - Heiss - PUF, 1976.
Irudiz oparo hornitua, deskribapen zehatz eta orokorra. 252 orrialde, eta taula mordoska bat.
- 3.8. *Fonología española* - E. Alarcos Llorach - Gredos, 1976 (lehenengoan, 1950an agertua). Bilduma famatu honen lehenengo zatiak, bereziki, interes handia du soinuen ezaugarriez eta ahoskeraz jabetzeko.
- 3.9. *Elementos de Fonética General* - Samuel Gili Gaya - Gredos, 1978 (lehenengoan 1950.an agertua) - 198 orrialde eta irudi pilo bat. Oso trinkoa eta argia; eta osoki alfabeto *filologikoaz* emana.
- 3.10. *Pronunciación española* - T. Navarro Tomás - Behin eta berriz argitaratua (ikus 11. argitaraketa, Madrid 1963, Rev. Fil. Esp.) 326 orr.
Fonetikari famatuaren lan bikain honek, aurkeztu beharrik ez du.
- 3.11. *A course in Phonetics* - P. Ladefoged, 1978 - Ezin argiagoa bere osoan.
- 3.12. *Speech sounds and Features* - Gunner Fant - MIT press, 1973 - Lehenlehenengo mailako lana da hau: bai dakartzan datu fonetikoek kopuruaz, bai irudiez eta fotoez. Baita, noski, soinuen sailkapen bitarrari buruz ematen dituen irizpideez.
- 3.13. *Phonetics* - J. D. O'Connor - Pelican Books - Lehenengo aldiz 1973.an agertua. Oso didaktikoa eta zehatza. 320 orrialde.

AURKIBIDEA

| | | | |
|--|-----|--|-----|
| HITZAURREA | 7 | XVI KAP. ZENBAIT OHAR OROKOR FONOLOGIA SORTZAILEARI BURUZ | 245 |
| I KAP. EUSKAL BOKALEAK: SAILKAPENA | 11 | XVII KAP. BOKALE ELKARKETAK EUSKARAZ | 257 |
| II KAP. BOKALE BELAREEN HERSKETAZ | 33 | XVIII KAP. EUSKAL ASPIRAZIOAREN ARAZOAK | 281 |
| III KAP. EUSKAL DIPTONGOAK: BEHERANZKOAK ETA GORANZKOAK | 51 | XIX KAP. BOKALE-KONTSONANTE ELKARKETAK | 289 |
| IV KAP. BOKALE ALTERNANTZIAK. BOKALE SUDURKARIAK | 65 | XX KAP. SONANTEEN ELKARKETA | 313 |
| V KAP. EUSKAL HIATUAK | 73 | XXI KAP. TRABAKARIEN ELKARKETA . | 327 |
| VI KAP. KONTSONANTE LEHERKARIAK | 85 | XXII KAP. SONANTE + TRABAKARI ELKARKETA | 355 |
| VII KAP. KONTSONANTE SUDURKARIAK | 103 | XXIII KAP. EUSKAL ETA ERDAL FONOLOGIAZ | 377 |
| VIII KAP. KONTSONANTE TXISTUKARIAK | 125 | XXIV KAP. MAILEBUEN ARAZO FONOLOGIKOAK | 391 |
| IX KAP. EUSKAL ALBOKOAK | 151 | I. ERASK. TRANSKRIBAKETA FONETIKOETAN erabili ohi diren zeinuak | 401 |
| X KAP. EUSKAL DARDARKARIAK | 161 | II. ERASK. HIRU TAULA NAGUSI ETA OHAR BATZU | 419 |
| XI KAP. EUSKAL ASPIRAZIOA | 181 | III. ERASK. FONOLOGIA BATURANTZ | 429 |
| XII KAP. EUSKAL FRIKARI AUTONOMOAK | 197 | IV. ERASK. EUSKAL SOINUEN ERDAL KIDEAK | 439 |
| XIII KAP. EZAUGARRI BITARRAK (Euskal bokaleen eta glideen sailkapena) | 213 | V. ERASK. HIZTEGIA | 443 |
| XIV KAP. EUSKAL KONTSONANTEEN SAILKAPENA | 225 | VI. ERASK. BIBLIOGRAFIA | 449 |
| XV KAP. EUSKAL SOINU ESKUARREN TAULA | 235 | | |